

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Stefan Zweig

GIZADIAREN OREN GORENAK

Hamalau miniatura historiko

Stefan Zweig

GIZADIAREN OREN GORENAK

Hamalau miniatura historiko

Itzulpena: Edorta Matauko
Hitzatzea: Nerea Ibarzabal

Jatorrizko izenburua: *Sternstunden der Menschheit*

Egilea: Stefan Zweig

Jatorrizko lizentzia: © Atrium Press Limited 1927, Published by arrangement with International Editors' Co. Agencia literaria

Itzulpena: Edorta Matauko

Zuzenketa: Amaia Astobiza

Hitzatzea: Nerea Ibarzabal

Barruko argazkia: Sobietar armadaren mapa topografikoa (1983)

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2023ko urria

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako dirulaguntza bat jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-Lan Eratorririk Gabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopian, zabaldu eta jendarean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-89-1

Lege gordailua: NA 2514-2023

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

HITZAURREA	13
------------------	----

BAT

Zizeron. K.a. 44ko martxoaren 15a	15
---	----

BI

Bizantzioko konkista. 1453ko maiatzaren 29a	35
Galzoria igartzen	35
Adiskidetzearen Meza	37
Hasi da gerra	38
Harresiak eta kanoiak	40
Berriro ere itxarobidean	42
Mendiaz gaindi bide egiten du ontzidiak	45
Europa, lagundu!	48
Erasoaren aurreko gaua	50
Azken meza Hagia Sofian	51
Kerkaporta, atzenduriko atea	53
Gurutzea lur joa	55

HIRU

Ihesa hilezkortasunari buruz.	
Ozeano Barearen aurkikuntza. 1513ko irailaren 25a	59
Itsasontzi baten tresnatzea	59
Kutxa handiko gizona	62
Maila-igoera arriskugarria	64
Ihesa hilezkortasunerantz	66
Ezin ahaztuzko ueña	68
Urrea eta perlak	72
Gutxitan ematen dute jainkoek... ..	74
Gainbehera	78

LAU

Georg Friedrich Händel-en pizkundera.
1741eko abuztuaren 21a 79

BOST

Gau bateko jenioa. Marseillesa, 1792ko apirilaren 25a 99

SEI

Waterloo: minutu unibertuala.
Napoleon, 1815eko ekainaren 18a 113

- Grouchy 113
- Gaua Caillou-n 116
- Waterlooko goiza 117
- Grouchyren hutsegitea 118
- Munduaren historia instant batean 119
- Waterlooko arratsaldea 120
- Erabakia 121
- Berrerortzea egunerokoan 123

ZAZPI

Marienbad-eko elegia.
Goethe, Karlsbad eta Weimar artean. 1823ko irailaren 5a 127

ZORTZI

Eldorado-ren aurkikuntza
J. A. Suter, Kalifornia. 1848ko urtarrila 137

- Europarekin gogaitua 137
- Kaliforniarako bidean 138
- Helvetia Berria 139
- Adur gaiztoko palakada 140
- Oldarraldia 141
- Epaiketa 142
- Amaiera 143

BEDERATZI

Memento heroikoa. Dostoievski, San Petersburgo, Semionov
plaza. 1849ko abenduaren 22a 147

HAMAR

Lehen hitza ozeanoan gaindi.
Cyrus W. Field, 1858ko uztailearen 28a 155

- Erritmo berria 155
- Prestalanak 160
- Lehen abiatzea 162
- Ezbeharrak 163

Ostera ere ezbeharra	164
Hirugarren bidaiia.....	166
Hosanna handia	168
Gurutziltzatze handia	171
Sei urteko isilaldia	173
HAMAIIKA	
Ihesa jainkoarenganantz. 1910eko urriaren amaiera.....	175
Atarikoa.....	175
Epilogoaren pertsonaiak	176
Lehen agerraldia	177
Bigarren agerraldia	189
Hirugarren agerraldia.....	197
HAMABI	
Hegoburuagatik borrokan. Scott kapitaina, 90 graduko latitudea, 1912ko urtarrilaren 16a.....	205
Lurragatik borrokan.....	205
Scott.....	206
<i>Universitas antarctica</i>	208
Abiada polorantz.....	210
Hegoburua.....	212
Urtarrilaren hamaseia.....	213
Hondamena	215
Hilurrenaren eskutitzak.....	218
Erantzuna.....	219
HAMAHIRU	
Tren zigilatua. Lenin, 1917ko apirilaren 9a.....	221
Zapatariarenean bizi den gizona	221
Ametsen gauzatzea.....	223
... eta etsia hartzea	224
Alemanian barrena: bai ala ez?	226
Ituna	227
Tren zigilatua	228
Jaurtigaiak ituan jotzen du	229
HAMALAU	
Wilsonen porrota. 1919ko apirilaren 15a	231
HITZATZEA (Nerea Ibarzabal)	247
ARGITALETXEAREN OHARRA.....	253





АСПАРРЕН

КАМБО

Эспелет

Аиноа

Урдакс

Мал-де-ла-Вастан

Эррасу

Леспар

Сен-Мартен

Ирисарри

Тигарду

Ириэль

Сен-Михель

Валькарлос

Альюд

Урапел

Субиано

Сильвети

Бурете

Викаррет

Терендьян

Эрра

Осно

Ардас

Суссаррен

Нагоре

Итави

Лисоан

Айс

Уррос

Сусу

Арданет

Альсаррис

1352

Илаураин

Табар

Альдолате

678 г. Урсюй

Луосон

Элет

897

Ирисарри

Тигарду

Ириэль

Жаксо

360

Сен-Жан

Сен-Михель

Валькарлос

1064

Урапел

1027

Субиано

1057

Бурете

1079

Ардас

864

Ули-Альто

Ларелу

1223

Лигос

1061

Рипола

Доменья

Пубьер

1355

Еса

Твермас

1081

Тьдена

Аидар

Сангуеса

СЕН-ПАЛЕЗ

Историт

Арменодит

Иольди

Оставайт-Ам

Парсво

Аррос-Сибиг

543

Сабит

Исадрол

Сен-Жуст-Нгар

30ти

Уристарь

Альбена

1466

Иррати

Орры Сьерра де Абон

1520

Вильянуа-де-Ажжа

Игарайа

Ла-Фабрика

Абаурра-Аяла

Орос-Ветех

Судас

Хаворрета

Ороне

1408

Саррис

Исаба

4483

Ураинки

Виданос

Ронхаль

Гарос

1254

Уста

Наваскуэ

Бурки

КАСТАНЬЕ

Экас-Лабастид

Совтер

Гингал

Пардид

Монфор

224

Шаб

347

Эскел

Ондорен

648

Гаренон

Мускулуда

Иоо-Менди

Оскою

Окас-Совар

Комиу

Силе

Элишвар

Мелс

1053

Ларо

1732

Устаррос

Исаба

4483

Ураинки

Виданос

Ронхаль

Гарос

1254

Уста

Наваскуэ

Бурки

1232

Арагон

Артисоа

225

Карп

Вистанес

208

Кастельо-Намлаон

Наваррен

208

Моккаль-Ларрар

Мансубу

Шерот

853

Содис-Сент-Этьенн

Гардес-Соролюс

Ланн

Арет

Ментори

Тик-Атосе

1059

Сонта

2504

Альгорра

1945

Урдаито

Сурса

2390

Сурса

1477

Сурса

1477

Санта-Лусия

1477

Сурса

1477

Сурса

1477

Сурса

1477

Сурса

HITZAURREA

Artista bakar bat ere ez da eguneko hogeita lau orduetan etenik gabe artista. Lortzen duen funtsezko guztia, iraunkor guztia, ohiz kanpoko inspirazio-une bakanetan gertatzen da beti. Era berean, Historia, garai guztietako olerkari eta kontatzailerik garaientzat miresten duguna, ez da inola ere sortzaile atergabea. *Jainkoaren lantegi misteriotsu* horretan ere, horrela deitzen baitio Goethek begirunez Historiari, gertatzen denaren zatirik handiena axola eta garrantzi gabea izaten da. Bertan ere, artearen eta bizitzaren esparru guztietan bezala, oren gorenak, ezin ahantzizkoak, urriak izaten dira. Gehienetan hark, kronikagile gisa, nagi eta nekaezin, lerroan jarri baino ez du egiten, kate ezin handiago batean, gertaeraz gertaera hedatzen dena milaka urte eta urtetan, krisialdi guztiek behar dutelako prestaera-denbora bat, eta egiazko gertaera bakoitzak bilakaera bat. Herri bat osatzen duten milioika jende beharrezkoak dira jenio bat sor dadin; modu berean, milioika ordu alfer igaro behar dira gizadiaren izar-une bat jazo aurretik.

Artearen barrutian, baina, jenio bat sortzen denean, denbora luzean irauten du. Halaber, izar-une bakoitzak hamarraldi eta mendeetan zehar uzten du aztarna. Nola tximistorratz baten puntan egurats osoaren elektrizitatea kontzentratzen den, hala instant horietan eta denbora-tarterik estuenean, gertakari andana bat metatzen da. Normalean hurrenez hurrengo eta alboz alboko eran geldiro gertatzen dena konprimitu egiten da, dena mugatu eta dena ebazten duen memento bakar batean; *bai* bakar batek, ez bakar batek, *goizegi* batek edo *beranduegi* batek ehunka belau-

naldirentzat ezeztuezin bihurtzen du une hori, norbanako baten zein herri baten bizitza zedarriz, baita gizadi osoaren patua ere.

Halako une dramatismoz trinkotu eta halabeharrez ernalduak, zeinetan garaien gainetik irautera xedaturiko erabaki bat data bakar batean, oren bakar batean eta maiz soilik segundo batean konprimitzen den, bakanak izaten dira hala gizabana-koaren bizialdian nola Historiaren ibilbidean. Halako zenbait izar-une —izen hori eman diet zeren, dirdaitsu eta aldaezin izarrak bezala, argi ematen baitute iragankortasunaren gauaren erdian— gogora ekartzen ahalegindu naiz hemen, noiz-non ezberdinetarik abiatuta. Inolako ahaleginik ez da egin, ordea, asmazio batzuen bidez kanpoko eta barruko gertakarien egia margultzen, ezta biziagotzen ere; zeren, ezin hobeki eraturiko oren goren horietan, Historiak ez baitu inoren eskumakilarik behar. Hark olerkari edota dramagile gisa gobernatzen duen tokian, ezein idazlek ez du hura gaingintzen ahalegintzerik.

1

ZIZERON K.a 44ko martxoaren 15a

Gizon zuhur eta ez oso ausart batek beste indartsuago batekin topatzean egiten ahal duen zentzuzkoena da hura saihestea eta lotsarik gabe alda-aldia itxarotea, bidea berriro irekia aurkitu arte. Marko Tulio Zizeron, erromatar inperioaren lehen humanista, oratoriaren maisua, zuzenbidearen aldezlea, hiru hamarraldiz ahalegindu zen arbasoengandik oinordean jasotako legea zerbitzatzeko eta errepublika iraunarazten. Haren hitzaldiak betiko gelditu dira Historiaren analetan; haren literatur lanak, latina hizkuntzaren zimentarrietan. Katilina-rengan anarkia borrokatu zuen, Verres-engan ustelkeria, jeneral garaileengan diktaduraren mehatxua. Haren liburua, *De re publica*, Estatu idealaren kode etikotzat joa izan zen bere garaian. Baina orain beste indartsuago bat dator. Bere legio galiarrekin, Julio Zesar, zeina hasiera batean Zizeronek sustatu baitu mesfidantzarik gabe adinekoena eta ospetsuena izateagatik, Italiako jaun eta jabe bihurtu da gauetik goizera. Botere militarren nagusi absolutua izaki, eskua luzatu besterik ez du egin behar, Antoniok herri batzartuaren aurrean eskaini dion koroa inperiala eskuratzeko. Zizeronek alferrik aurre egin dio Zesarren autokraziari, honek Rubikon ibaia igaro ahala legea hautsi duen bezain laster. Alferrik saiatu da askatasunaren azkeneko jagoleak mobilizatzen biolentoen kontra. Beti bezala, kohorteak hitzak baino ahaltsuagoak dira ageri. Zesar, gogo-gizakia eta ekintza-gizakia batera, gailendu da erabat, eta, diktadore gehienak bezala, izatez mendekaria izan balitz, berealdiko garaipenaren ondoren koplarik gabe desagerrarazi ahalko zukeen legearen defendatzaile setatsu hori, edo gutxienez deserrira bidali. Hala eta guztiz, bere

arrakasta militar guztiak baino gehiago, Julio Zesar ohoratzen duena bere garaitu osteko bihotz-zabaltasuna da. Zizeroni, onenak emandako bere aurkariari, bizia oparitu dio hura apalesten inolako ahaleginik gabe, eta soilki hitzerdika diotso agertoki politikotik albora dadila, orain berea baino ez delako eta hor beste edonori ez dagokiolako figurante mutu eta esaneakoaren rola baizik.

Gogo-gizaki bati ezin gerta dakiokoe ezer onuragarriagorik ageriko bizitza politikotik bazter geratu izana baino; bazterketa horrek aterazten du pentsalaria, artista, soilik basakeria edo hipokrisiaren bidez mendera daitekeen esfera duingabe horietako batetik, eta berriz itzularazten bere-berea den barneko jarduera ukiezin eta hilezkorrera. Gogo-gizaki batentzat, edozein deserri mota bere baitan biltzeko akuilu bihur daiteke, eta Zizeroni ezbehar zorioneko hori gaineratu zaio abagunerik onenean. Dialektikazale handia urratsez urrats zahartzarora hurbilduz doa bizitza baten ondoren, zeinak, etengabeko iskanbila eta tirabira artean, denbora gutxi utzi baitio sintesi sortzaile baterako. Zenbat eta zenbat kontraesanen lekuko izan den hirurogei urte beteak dituena bere bizitzaren tarte mugatuan! Nekaezintasunari, maniobratzeko gaitasunari eta gogo-nagusitasunari esker bidea irekiz eta bere aburua nabarmenaraziz, *homo novus* edo etorri berri honek erdietsi ditu postu eta dignitate publiko guztiak, ordura arte probintzia-gizon baten eskumenetik at zeudenak, arretaz gordeak zirelako oinordetzazko nobleziaren presio taldearentzat. Fabore publikoetan izan du goienaren eta beherenaren esperientzia. Katilinareen ererikoaren ondoren, triumfoan igo ditu Kapitolioaren maila guztiak, herriak koroatua eta senatuak ohoratua izan baita *pater patriae* aintzazko titulua-rekin, aberriaren aita. Eta, beste aldetik, gauetik goizera erbestera joan behar izan du iheska, senatu horrexek kondenatua eta herri horrexek utzietsia. Ez da izan eraginkorki aritu ez den kargurik, ezta bere maraztasun agorrezina dela medio lortu ez duen gradurik ere. Foroan auziak zuzentzeko ardura izan du. Soldadu bezala, legioen buru izan da gudu-zelaian. Kontsul bezala errepublika kudeatu du; prokontsul bezala, probintziak. Milioika sestertzio pasatu dira bere eskuetatik, zor bilakatuak. Palatinoko etxerik ederrena eduki du, eta haren hondakinak ikusi ditu bere etsaiek su eman eta erraustu ondoren. Tratatu gogoangarriak

idatzi, eta eskola sortu duten hitzaldiak egin ditu. Seme-alabak hazi ditu, eta galdu ere bai. Adoretzu eta ahul izan da, apetatsu eta gorespeneren morroi, oso miretsia eta oso gorrotatua, jite aldatetsu bat, hauskor eta distira betekoa. Labur, bere garaiko nortasunik erakargarriena eta bestalde zirikatzaileena, nahiezta ere nahasia ibili zelako Mario eta Zesar artean biltzen diren berrogei urte bete-bete horietako gertakari guztietan. Bere garaiko historia, munduaren historia, Zizeronek bizi eta pairatu du beste inork ez bezala; gauza baterako, ordea, ez zuen astirik izan, behinenerako: beronen bizitzari begi-kolpe bat emateko. Nekaezinak egundo ez zuen aurkitu patxadaz hausnartu eta bere jakitatearen, bere pentsamenduaren osotasuna biltzeko egokierarik.

Azkenik, bera *res publicatik*, estatu-kontuetatik, aldenarazi duen Zesarren estatu-kolpeari esker, bere buruari aukera eskaini dio modu emankorrean *res privata* eremuko norberaren kontuei, munduko gauzarik behinenari, kasu egiteko. Zizeronek, etsian, Zesarren diktadurari utzi dizkio foroa, senatua eta inperioa. Errefusatuari hasi zaio jendarteko guztiarekiko gibelmin halako bat ermetzen. Etsi du: aldeztatela beste batzuek herritarren eskubideak, gehiago axola baitzaizkie gladiadore borrokak eta jokoak euren askatasuna baino. Berarentzat orain kontuan hartzeko gauza bakarra dago, bere baitako, bere barneko askatasuna bilatu, aurkitu eta taxutzea. Horrela, Marko Tulio Zizeronek, hirurogeitaka urterekin aurrenekoz, bere barnerantz itzuli du begirada, patxadaz hausnartzen, munduari erakusteko asmoz zertarako eragin eta bizi izan duen.

Jaiotzez artista, liburuen mundutik politikaren mundu hauskorrera halabeharrez baino aldatu ez zena, Marko Tulio Zizeron, bere adina eta bere joera barnekoenak aintzat hartuz, ahalegindu da bere bizitza adimentsuki itxuratzen. Erroma metropoli zaratatsutik Tusculum-era erretiratu da, egungo Frascati-ra, eta, hala, Italiako paisaia ederrenetariko batez inguratu da bertatik bertara bere etxetik. Baso ilunezko olatu ez-tietan, muinoek titakatzen dute landa zabala. Iturbegiei pol-polka darien oihartzun zilarra hedatzen da gelditasun bakartuan. Pentsalari sortzaileari, urte horietan guztietan azokan, foroan, guda-oineko kanpadenda barruan edo hainbat bidaiatan ibili eta gero, azkenik arima zabal-zabal egin zaio hemen. Hiria, er-nagarri eta lehergarria, urruti dago, ke-lits bat ostertzean nola,

eta aski gertu halere, lagunak hitz-aspertu gogo-pizgarriak egi-tera etor daitezzen, hala nola Atiko, konfiantza osokoa, eta Bruto gaztea edo Casio gaztea; behin batez —gonbidatu arriskutsua!—, are diktadorea bera ere, Julio Zesar handia. Baina Erromako lagunak agertu ezean, haien ordeztu beti izaten dira beste batzuk, ezin hobeak, inoiz huts ematen ez dutenak, berdin isilerako nahiz hizketarako gerturik: liburuak. Marko Tulio Zizeronek liburutegi bikain bat, jakinuria-abaraska benetan agorreztin bat muntatu du bere landetxean. Greziako jakintsuen idazlanak erromatar kronika eta lege-bildumen ondoan lerrokatuak; garai eta hizkuntza guztietako horrelako lagunekin, gau bakar batean ere ezin da bakarrik sentitu. Goiza lanean ematen du. Esklabo eskolatu bat, esaneko, diktaketaren zain du beti. Jateko deitzen dionean, laztan-maite duen bere alaba Tuliak orduak laburtzen dizkio. Semearen heziketak akuilua edo zerbait berria behintzat ekartzen dio egunero. Eta, gainera, hondarreko jakituria: hirurogeitaka urtekoa zahartzaroko zoramen goxoenaren pean erori da. Bere alaba baino gazteagoa den emakume batekin ezkondu da, artista gisa bizitzaren ederraz gozatzeko, marmol edo bertsoetan ez ezik, baita erarik sentigarrien eta xarmagarrienean ere bai.

Badirudi, beraz, bere hirurogei urteekin Marko Tulio Zizeron azkenik itzuli dela bere egiazko senera: filosofo huts-hutsik, eta ez demagogo; idazle, eta ez erretorika maisu; bere aisialdiaren jabe, eta ez herriaren laudorioen zerbitzari artatsu. Azokan epaile ustelen aurrean bar-bar eleketa hanpatuan jardun beharrean, nahiago du mintza-antzearen muina finkatu bere *De oratore*n, eredu bat bere imitatzaileentzat, eta, aldi berean, bere *De senectute* —*Cato maior de senectute*— tratatuan bere buruari irakatsi benetako jakintsu batek ikasi behar duena, hots, zahartzaroaren eta bere bizitzaren egiazko duintasuna onarpena dela. Gutunik ederren eta harmoniatsuenek baitaratze aldi horretan dute jatorria, eta, are ezustean gertatu zaionean zoritxarrik asaldagarriena, Tuli bere alaba maitearen heriotza, bere arteak duintasun filosofikoa erdiesten lagundu dio: orduan idatzi du *Consolationes*, mendeak igaro arren egun oraindik bihotz ematen jarraitzen diena kinka larri bera ezagutzen duten milaka pertsonari. Besterik ezean, erbestealdiari zor diote ondorengo belaunaldiek idazle handia sor zedila behinola hizlari bizkorra izandakoaren barrutik. Hiru urte lasaiotan gehiago egin du bere

obraren eta bere hil ondoko omenaren alde, *res publicari*, estatu kontuei, oparo eskaini zien aurreko hogeita hamar urteetan baino.

Herritarragoa jada gogoaren betiereko errepublikarena Zesarrek irendu duen Erromakoarena baino, bere bizitzak orain filosofo batenaren antza du. Ia ez ditu kontuan hartzen Erromatik egunero iristen diren albisteak eta gutunak. Zuzenbide lurtarraren maisuak behingoan ikasi du jarduera publikoan aritzen denak azken batean topatzen duen sekretu mingotsa: luzarora ezin dela defendatu masen askatasuna, norberarena baizik ez, barnekoa.

Horrela, Marko Tulio Zizeronek, munduko herritarra, humanista, filosofoa, uda zorioneko bat igaro du, sormenezko udazken bat, negu italiar bat, botere mundutar, politikoaren erroteriatik lekutua —betiko, uste du berak—, dagoeneko bere parte-hartzea behar ez duen joko bati ezaxola. Herritarra soilik ideien errepublika ikusezinarena eta ez beste harena, ustel eta bortxazko, kontra egin gabe terrorera makurtu denarena, badi-rudi literatoen nabarmendu guratik guztiz osatua dela. Halako batean, martxoko eguerdi batean, oldarka sartu da haren etxean mandatari bat, hautsez estalia, birikak lehertu beharrean. Oraindik indarrak gelditu zaizkio albistea jakinarazteko: Julio Zesar, diktadorea, eraila izan da Erromako foroaren aurrean. Gero, zerraldo erori da.

Zizeron zurbil da. Duela zenbait aste mahai berean jan zuen irabazle bihotz-zabalarekin, eta bera buruzagi arriskutsu horren aurrean hain aurkako agertu bada ere, haren garaipen militarrek mesfidantzaz hartzen bazituen ere, bere kolkoan betiere behartua zegoen etsai bakan eta begiragarri horren espiritu beregaina, jenio antolatzailea eta gizatasuna ohoratzeri. Baina, herri-hilketaren argudio zabarrari dion ezinikusi guztia gorabehera, gizon horrek, Julio Zesarrek, bere merezimendu eta lorpen guztiekin ere, ez al du eragin heriotza mota higuingarriena, *parricidium patriae*, aberriaren hilketa? Ez al zen izan bere jenioa, hain zuzen, Erromaren askatasunerako arriskurik handiena? Litekeena da gizon horren heriotza giza ikuspegitik tamalgarria izatea, baina mesede egiten dio kausa sakratuenaren garaipenari. Izan ere, orain Zesar hilda, errepublika berpiztu ahal daiteke, eta harekin gailendu ideiarik nobleena, askatasunarena.

Horrela gainditu du Zizeronek aurreneko asaldura. Berak ez du nahi izan azpikeriazko hilketa, agian bere ametsik barnebarnekoetan ere ez da hori desiratzera ausartu. Brutok eta Kasiok —nahiz Brutok, sastakai odoleztatua Zesarren bularretik ateratzean, haren izena, Zizeronena, oihukatu duen, era horretan kredo errepublikanoaren maisua bere krimenaren lekuko ipinita— ez diote konspirazioaren berri eman. Baina orain, krimena atzera-bueltarik gabe gauzatu dela, errepublikaren onerako baliatu behar da behintzat. Zizeronek antzeman du erromatar askatasun zaharrerako bidea gorpu inperial horren gainetik igarotzen dela, eta bere eginbeharra da bide hori besteei erakustea. Hau bezalako une bat, bakana, ezin da alferrik galdu. Egun horretantxe, Marko Tulio Zizeronek bertan utzi ditu bere liburuak, bere idazkiak eta artistaren aisialdi zorionekoa, kontenplazioa. Bihotza punpaka, lasterka egin du Erromarantz, errepublika, Zesarren egiazko ondarea, bai bere hiltzaileengandik nola bere mendekatzaileengandik salbatu beharrez.

Erroman, Zizeronek hiri nahasi, mindu eta noragabe bat topatu du. Gertaeraren unetik beretik, Julio Zesarren hilketaren egintza haren egileak baino handiago ageri da. Azpikari konjukturatuen presio talde ñabarrak erailketa egiten baino ez du jakin izan, beraiek baino gehiago zen gizona garbitzen besterik ez. Baina orain, egintza horretatik abantaila atera behar denean, babesgabe gelditu dira, zer egin jakiteke. Senatariak duda-mudatan daude hilketa ontzat eman ala arbuia behar ote duten. Herria, esku gogor batek gidatua izaten ohitua, ez da iritzia ematera ausartu. Antonio eta Zesarren beste lagunak konjukturatuen beldur dira, eta laborrian daude beren bizitzagatik. Konjukturatuak, aldiz, Zesarren lagunak eta haien mendekuaren beldur dira.

Aztoramendu orokorraren erdian, Zizeron ageri da erabakitasuna erakusteko gai den bakartzat. Eskuarki zalantzakor eta beldurbera, beti bezala gogo- eta nerbio-gizakia, bera ipini da, ezbaian ibili gabe, inongo parte-hartzerik izan ez duen krimen horren atzean. Burua zut, zapaldu ditu oraino Zesarren odolak bustiriko lauzak, eta senatu batzartuaren aurrean goretzi du diktadorearen ezabatzea ideia errepublikanoaren garaipentzat. «Ai ene herria, berriro itzuli zara askatasunaren bidera!», oihiu egin du. «Zuek, Bruto eta Kasio, zuek burutu duzue ekintzarik handiena, Erromako ez ezik, bai mundu osoko ere». Baina aldi berean

eskatu die egintza berez kriminal horri zentzu jasoago bat eman diezaiotela. Konjuratuek kemenez hartu behar dute boterea, Zesarren heriotzaren ondoren jaberik ez duena, eta luzatu gabe hura erabili errepublika salbatzeko, erromatar konstituzio zaharra berrezartzeko. Antoniok kontsulatuaren kargua edukiko du, eta botere betearazlea Brutori eta Kasiori eskualdatuko zaie. Lehenbizikoz, eta askatasunaren diktadura betiko ezartzearen, legegizon hau, istant labur batez munduaren historian, lege zuruna hautsi beharrean dago.

Baina orain konjuratuen ahulezia agerian geratu da. Azpijokoan aritzeko eta hilketa bat bururatzeko gauza ziren, beste ezertarako ez. Beren sastakaiak gizon babesgabe baten gorputzean bost hazbete sakon sartzeko baino ez zuten indarrik; horrekin bukatu zen haien bipiltasuna. Boterea eskuratu eta errepublika berrezartzeko erabili beharrean, amnistia bat merke-zurrean lortzen ahalegindu dira, eta Antoniorekin negoziatzen. Zesarren lagunei elkartzeko astia eman diete, eta horrekin alferrikerik galdu dute denbora baliotsua. Zizeronek, begi-zoli, arriskua antzeman du. Konturatu da Antonio konjuratuak ez ezik, ideia errepublikanoak ere ezeztatu ahal izateko kontrakolpe bat presatzen ari dela. Gaztigu, errieta, zirika egin du, hitzaldiak eman ditu, konjuratuak, baita herria ere, deliberamenduz jokatzera behartzeko. Baina —akats historikoa!— berak ez du jokoan sartu nahi izan. Orain bere eskuetan ditu bitarteko guztiak. Senatua prest dago alde dagoela adierazteko. Herriak azken batean itxaroten duen bakarra da norbaitek asmo sendoz eta ausardiaz bere gain har ditzala Zesarren esku indartsuetatik ihes egin duten bridak. Inor ez zatekeen aurka jarriko. Denek arnasa hartuko zuketean, arinduta, orain Zizeronek gobernua beretu izan balu eta kaosaren erdian ordena jarri.

Marko Tulio Zizeronen oren historikoa, oren unibertetsala, bere hitzaldi katilinatarrez geroztik hain gartsuki mira egiten zuena, azkenik iritsi da martxoko idus horiekin. Eta haiei onura ateratzen jakin izan balu, eskolan denok ikasten dugun Historia irakasgaia bestelakoa izango zen. Zizeron izena ez zitzaigukeen Livio eta Plutarkoren urte-liburuen bitartez helaraziko idazle ospetsu soil batena bezala, errepublikaren salbatzailearena bezala baizik, erromatar askatasunaren egiazko jenioarena bezala. Ha-

rena litzateke eskuetan diktadore baten boterea eduki izan eta nahita herriari itzuli izanaren aintza hilezkorra.

Baina Historian behin eta berriz errepikatzen da gogogizakiaren tragedia, zeina, oren erabakigarrian, bere artean erantzukizunak astunduta, oso gutxitan bihurtzen baita ekintzagizaki. Beste behin ere, gogo-gizakiarengan, sortzailearengan, zatibitze bera berritzen da: bere garaiko ergelkeriak hobeto ikus-teak parte hartzera eramaten du, eta bihotz-beroaldi batean gartsu ekiten dio borroka politikoari, baina, aldi berean, zalantza egiten du bortxari bortxaz erantzun behar ote zaion. Bere barrenak atzera egiten du terrorea zertu eta odola isurtzeko ideiarean aurrean, eta duda-muda eta onberatasun horrek, hain zuzen, begirunerik eza baimendu ez ezik are exijitu ere egiten duen une bakan horretan, haren indarra geldiarazten du. Hasierako beroaldiaren ondoren, egoerari buruargitasun arriskugarriz behatu dio Zizeronek. Behatu die atzo arte goresten zituen konjuratuei, eta ikusi du koldar batzuk baino ez direla, euren krimenaren itzaletik ihesean. Behatu dio herriari, eta ikusi du aspaldi ez dela gehiago lehengo *populus romanus*, bere ametsetako herri heroiko hura, baizik plebe endekatu bat, onura eta olgetan, jan-edan eta jokoan, *panem et circenses*, beste ezertan pentsatzen ez duena, egun batean Bruto eta Kasio, hiltzaileak, bozkarioz hartu ditue-na, eta hurrengoan Antonio, haien aurkako mendekua garrasika eskatu duena, eta hirugarrenean Dolabella, Zesarren erretratu guztiak lurrera botatzeko agindu duena. Hiri endekatu horretan, aitortu du, dagoeneko inork ez du prestuki zerbitzatzen askatasunaren ideia. Soilki boterea edo beren aisetasuna nahi dute denek: alferrik hila izan da Zesar, haien denen helburu eta borroka bakarra baita haren oinordetza, haren dirua, haren legioak, haren boterea lortzea; beraien alde onura eta etekina besterik ez dute bilatzen, eta ez kausa sakratu bakarraren alde, Erromaren kausaren alde.

Bi aste horietan, berotasun goiztiarraren ondoren, Zizeron gero eta nekatuago dago, gero eta eszeptikoago bihurtzen ari da. Bera salbu, inor ez da arduratzen ari errepublikaren berrezartzeaz; nazio-sentimendua iraungi egin da, askatasun-nahia zeharo galdu. Azkenean narda gaineratu zaio tumultu ilun horren aurrean. Ezin du luzaroago jarraitu engainuari emanda, bere hitzen ezintasunari dagokionez. Bere porrotaren bistara, onartu

beharrean dago *conciliatore*-eginkizuna bukatu zaiola, ahulegia edo koldarregia izan dela bere aberria gerra zibilaren mehatxutik salbatzeko; beraz, haren patuaren menera utzietsi du. Apiril hasieran alde egin du Erromatik, eta —berriro ere etsian, berriro ere bentzutua— liburuetara itzuli da, Pozzuoli-ko bere landetxe bakartira, Napoliko golkoan.

Bigarren aldikoz, Marko Tulio Zizeron mundutik ihesi joana da bere bakardadean bizitzeko. Orain behingoz jabetu da bera, pertsona eskolatu gisa, humanista gisa, justiziaren bermatzaile gisa, hasieratik egon dela ez zegokion esfera batean, non boterea legearen kideztat hartzen den eta eskrupulu eza sustatzen, zuhertasuna eta elkar aditzea bainoago. Ikarak harturik, onartu behar izan du garai belaxka horretan jada ezinezkoa dela gauzatzea bere aberriarentzat ametsua zuen errepublika ideala, alegia, erromatar ohitura zaharren lehengoratzea. Baina berak ekintza askatzailea errealtatean, materia setatsu horretan, ezin gauzatu izanagatik ere, bere ametsa behintzat salbatu nahi du posteritate jakintsuago batentzat. Hirurogeitaka urteko bizialdi baten ahalegin eta ezaguerak ezin dira erabat galdu eta eraginik gabe geratu. Hainbatekin, gizaseme apaletsi hau bere benetako ahalaz gogoratu da, eta ondare gisa geroko belaunaldientzat idatzi du bakardade-egun horietan bere azkeneko lana eta aldi berean handiena, *De officiis*, gizaki beregainak, gizaki moralak, bere buruaren aurrean eta Estatuaren aurrean dituen betebeharren irakaskizuna. Marko Tulio Zizeronek Pozzuolin idatzi duena K.a. 44. urteko udazkenean, orobat bere bizitzaren udazkenean, bere hilburuko politiko eta morala da.

Aitzinsolasak berak erakusten du tratatu hori, norbanakoak Estatuarekin duen harremanaz diharduena, hilburuko bat dela, dimisioa eman duen eta grina publiko guztiei uko egin dien gizaki baten azken hitza. *De officiis* idazlanean bere semea-ri mintzo zaio. Zizeronek zin-zinez aitortu dio bizitza publikotik ez dela ezaxolagatik erretiratu, baizik eta, espiritu aske bezala, erromatar errepublikazale bezala, irizten diolako diktadura bat zerbitzatzea bere duintasun eta ohorearen azpitik dagoela. «Estatua oraindik hark berak hautaturiko gizonak administratua zen bitartean, nire kemena eta ideiak *res publicari* eskaini nizekion. Baina oro erori zenean *dominatio unius* pean, bakar baten menpean, ez zen herri-zerbitzurako edo aginpidea gauzatzeko

tarterik gelditu». Senatua ezeztatua eta auzitegiak itxiak izan zirenetik, zer bilatzen ahal du berak senatuan edo foroan bere buruari begirunea galdu gabe? Orain arte jarduera publikoak, jarduera politikoak, denbora gehiegi ostu dio. «Scribendi otium non erat» [idazten duenari ez zitzaion astirik geratzen], eta inoiz ez zuen formulatu ahal izan era hertsian bere mundu ikuskerara. Orain, baina, jardun gabe egotera behartua, aisia erabili nahi du bederen Eszipion-en esaldi bikainaren zentzuan, bere buruaz esan baitzuen sekula ez zela aktiboago egon egitekorik batere izan ez zuenean baino eta sekula ez gutxiago bakarrik bere baitan bakarrik zegoenean baino.

Estatuarekiko norbanakoaren harremanari buruzko ideia hauek, Marko Tulio Zizeronek bere semeari azaltzen dizkionak, ez dira sarri izaten ez berriak ez originalak. Konbinatu egiten dute irakurritakoa arruntean onartutakoarekin. Hirurogeitaka urterekin, dialektikazale bat ez da bat-batean poeta bihurtzen, ezta konpilatzaile bat sortzaile original ere. Baina Zizeronen ikuspegiak emozio-eduki berri bat erdiesten dute haien oihartzunaren oinazezko tonu mingotsa dela eta. Gerra zibil odoltsuen erdian, eta garai batean non pretoriar hordak nahiz hainbat alderdiren jendaila botere-borrokan ari diren, benetako giza gogoak osterara ere amets egiten du —beti bezala gizabanakoek antzeko garaietan— ohituren ezagueraren eta adiskidetzearen bidezko baketze orokor baten kimera eternalarekin. Zuzenbideak eta legeak bereberez izan behar dute Estatuaren habe sendoak. Barruz zintzoak —eta ez demagoak— dira boterea eskuratu behar dutenak, eta horrekin batera zuzenbidea, Estatuaren barruan. Inork ez du eskubiderik bere borondate pertsonala eta horrekin bere nahikeria herriari inposatzen ahalegintzeko, eta betebeharra da herriari gobernua indarrez kentzen dioten handinahi horiei obedientzia ukatzea, «hoc omne genus pestiferum acque impium». Bere onetik aterea, inoren mende egon gabeak uko egiten dio edozelako lankidetzari diktadore batekin, baita ere edozelako zerbitzu emateari. «Nulla est enim societas nobis cum tyrannis et potius summa distractio est».

Indarpean gauzatu aginteak edozein eskubide du urratzen, argudiatzen du. Erkidego batean egiazko harmonia sortzen ahal da soilik baldin norbanakoak, bere postu publikotik abantaila pertsonala ateratzen saiatu beharrean, komunitatearen

interesak pribatuen aurrean jartzen baditu. Soilik aberastasuna xahutzen ez bada luxuan eta barreiaduran, baizik eta kudeatzen eta gogoarentzako kultura artistiko bilakatzen; soilik aristokraziak bere harrokeriari uko egiten badio, eta plebeak, demagogoek eros dezaten utzi eta Estatua alderdi bati saldu beharrean, bere izatezko eskubideak galdatzen baditu; soilik orduan berrezartzen ahal da errepublika. Zentroaren panegirista, humanista guztiak bezala, Zizeronek desadostasunen kontziliazioa aldarrikatzen du. Erromak ez du Sila bat behar, ez Zesar bat, ezta grakotarrak ere. Arriskutsua gertatzen da diktadura, eta orobat iraultza.

Zizeronek esandakotik asko Platonek amestu zuen Estatuan aurkitzen da, eta berriro irakurtzen ahal da Jean-Jacques Rousseaurengan eta idealista utopiko guztietan. Baina bere hilburukoa hain harrigarriro bere garaia gaitetik goititzen duena da kristautasuna baino mende erdi lehenago hemen aurrenekoz hitzez adierazten den sentimendu berri hori: humanitarismoa. Ankerkeriarik lazgarrireneko garai batean, zeinean Zesarrek berak hiri bat konkistatu eta gero agintzen baitu bi mila gatiburi eskuak mozteko, zeinean martiriak eta gladiadore-borrokak, gurutziltzatzeak eta harrikatzeak baitira eguneroko eta berezko gertaerak, Zizeron da nagusikeriaren kontra protesta egiteko ahotsa goratu duen lehena eta bakarra. Basapiztien —*beluarum*— metodoa delakoan gaitzetsi du gerra, orobat bere herriaren militarismoa eta inperialismoa, probintzien esplotazioa, eta eskatu du lurraldeak kulturaren eta ohituren bidez anexiona daitezela beti erromatar inperiora, sekula ez ezpataz. Hirien arpilatzearen kontra goratu du ahotsa, eta —eskaera absurdoa orduko Erroman— errukia galdegin du legearen aurrean are babesgabeenentzat, esklaboentzat (*adversus infirmus justitia esse servandum*). Begirada profetiko batez Erromaren erorikoa aurreikusitako du haren garaipenen hurrenkera bizkorregian eta haren konkista —militar hutsak izateagatik— kaltegarrietan. Silarekin nazioak gerrak abiatu zituenez geroztik harrapakina eskuratzea beste helbururik gabe, inperioan berean zuzenbidea galdu da. Eta herri batek, beste batzuei askatasuna kentzeko bortxa baliatzen duen bakoitzean, galdu egiten du, misteriozko mendekuan, bere bakantasunaren mirarizko indarra.

Legioak, buruzagi handinahien agindupean, Partia eta Persia, Germania eta Britania, Hispania eta Mazedonia aldera

martxa hartzen ari diren bitartean, inperio baten sukar-amets iragankorra zerbitzatu beharrez, ahots bakarti batek garaitze arriskutsu horren aurkako protesta goratu du hemen, ikusi delako nola konkista-gerren odolezko hazitik gerra zibilen uzta are odoltsuagoa hazten den, eta gizateriaren aldezkari honek hotsandiro otoi egin dio bere semeari *adiumenta hominum*, gizakien arteko lankidetzaz, ohora dezan ideal goren eta behinentzat. Azkenean, denbora gehiegian erretorika-maisu, legelari eta politikaria izan dena, diru- eta ospe-truk edozein kausa, ona zein txarra, kemen berdinarekin defendatzen duena, edozein kargu lortzeko helburua izan zuen berbera, aberastasuna, jendaurreko ohorea eta herriaren laudorioa gura izan zituen, ezagumendu argi horretara iritsi da bere bizitzaren udazkenean. Amaia baino lehentxeago, Marko Tulio Zizeron, orain arte humanista huts-hutsik, gizateriaren lehen aldezele bihurtu da.

Baina Zizeron, bere bakarraldian bare eta jabal, konstituzio moral baten zentzuaz eta formaz gogoetatzen ari den bitartean, asaldura handituz doa erromatar inperioan. Ez senatuak ez herriak oraindik ez dute erabaki Zesarren hiltzaileak goretsi behar diren ala erbesteratu. Antonio prestatzen ari da Bruto eta Kasioren aurkako gerrarako, noiz ere ustekabez aurkeztu baita beste nagusi-nahi bat, Oktavio, zeina Zesarrek bere oinordeko izendatu baitzuen eta orain oinordetza horren ardura hartzea gogoko lukeena. Italian lur hartu bezain laster, Zizeroni idatzi dio haren atxikimendua irabazteko asmoz. Aldi berean, Antoniok Erromara joateko eskatu dio, eta halaber Brutok eta Kasiok deitu diote euren gotorlekuetatik. Haiek denek defendatzaile handia erakarri nahi dute beren kausa defenda dezan, haiek denak eske dabilzkio legelari ospetsuari, beren kontra eginitako bidegabekeria bidezkotasun bilakaraz dezan; usna egokiz, boterea nahi duten politikariek hura eskuratu bitartean egin ohi duten bezala, gogo-gizakia bilatzen dute —gero destainaz alboratuko dutena— euskarri moduan. Eta Zizeron oraino izan balitz behinolako politikari buruiritzi eta handigura, utziko zion bere buruari segadan erortzen.

Baina Zizeron aldez nekatuta dago, eta alde zuhur egin da, maiz modu arriskutsuan elkarren antza duten bi sentiera. Badaki orain benetako gauza bakarra behar duela: bere obra osatu, ordena jarri bere bizitzan, ordena bere pentsamenduetan.

Ulisesek bezala sirenen kantuen aurrean, bere barne-belarria itxi egin du boteredunen dei erakargarrien aurrean; ez dio erantzun Antonioren deiari, ez Oktaviorenari, ez Bruto eta Kasioarenari, ezta senatuarenari eta bere lagunarenari ere; sinetsirik baitago hitzek ekintzek baino indar handiagoa dutela eta zentzuzkoagoa dela bakarrik eustea presio talde baten erdian baino, bere liburua idazten jarraitu du, mundu honetatik joan aurreko bere azken agurra izango dela jakitun.

Hilburuko hori bukatu arte ez ditu begiak altxatu. Eta esnaera txarra da. Herrialdea, bere aberria, gerra zibilaren bezperan dago. Antoniok, Zesarren eta tenpluen diru-kutzak arpilatu dituenak, mertzenarioak biltzea lortu du lapurtutako diru-truke. Baina haren kontra armetan altxatu dira hiru gudaroste, Oktaviorena, Lepidorena eta Bruto eta Kasioarena. Beranduegi da baketzerako eta artekaritzarako. Orain erabaki behar da Erromaren gainean zesarismo berri batek agindu behar duen Antonioren pean, ala errepublikak iraun. Une horretan, denak hautatu beharrean daude. Baita zuhurrena eta burutsuena ere, beti oreka bilatu nahian alderdien gagnetik mantendu eta batzuen eta besteen artean duda-mudatan ibili zena; Marko Tulio Zizeron ere hautatu beharrean dago behingoan.

Eta orain ohiz kanpokoak gertatu da. Zizeronek bere semeari *De officiis*, bere hilburukoa, helarazi dionez geroztik, adore berri bat eskuratu balu bezala da, sentitzen duen bizitzarekiko arbuioetik haragoko adore bat. Badaki bere karrera politikoa, bere karrera literarioa amaitu dela. Esateko zeukana esana du. Bizitzeko gertzen zaiona ez da asko. Zaharra da, bere obra burutu du; zertarako defendatu oraindik hondar errukarri hori? Nola jazarraldiak ahi-turiko piztia, bere atzetik oso tarte txikira ehiza-txakurrak uluka dituela dakielarik, bat-batean itzuli eta, bukaera lasterragotzeko, oldartzen baitzaie zakur jazarleei, hala Zizeronek, bihotza herio-suharrean, beste behin ere egin du jauzi borrokaren erdigunera bere egoera arriskutsutik. Hilabete eta urtetan idazteko hegats isila baino erabili ez duenak hitzaldiaren trumoi-harria berrartu eta errepublikaren etsaien aurka jaurti du.

Ikuskari hunkigarria. Abenduan, gizon ile urdinduna berriro Erromako foroan dago, beste behin erromatar herriari eskatzeko arbasoen ohorearen dina —*ille mos vitusque maiorum*— ager dadila. Hamalau hitzaldi, *Filipikak*, eginez funditu du

Antonio, usurpatzailea, zeinak ukatu egin baitu senatuari eta herriari zor zien obediencia, erabat jakitun izanik zer-nolako arriskua dakarren armarik gabe altxatzeak aurrera jo eta hiltzeko prest dauden legioak bildu dituen diktadore baten kontra. Baina besteak bihoztunak izatera bultzatu nahi dituen ezin da sinesgarria izan, berak portaera eredugarriaz balio hori erakutsiz baizik; Zizeronek badaki jada ez dela egonean hitzekin borrokan ari behinola foro horretan bertan bezala, baizik eta oraingoan, konbentzitu ahal izateko, bere bizitza jokatu behar duela. Deliberatua, *rostratik*, hizlarien oholtzatik, aitortu du: «Artean gazte nintzela defendatu nuen errepublika. Orain zahartu naizela, ez dut ataka gaitzean utziko. Bizia emateko prest nago, nire heriotzaren bidez berrezartzen ahal bada hiri honen askatasuna. Nire desio bakarra da hiltzean atzean uztea erromatar herri askea. Jainko hilezkorrek ezin eman liezadakete mesede handiagorik». Ez da astirik geratzen, irmo eskatu du, Antoniorenkin negoziatzeko. Oktavio babestu beharra dago, hark, Zesarren odol-ahaide eta oinordekoa izanagatik ere, errepublikaren kausa ordezkatzeko duelako. Ja kontua ez da zer pertsona hautatu, zer kausa baizik, sakratuena —*res in extremum est adducta discrimen: de libertate decernitur*—, eta kausa azkeneko erabakira heldu da, muturrekoenera: askatasuna dago jokoan. Baina ondasun bortxaezin hori mehatxupearan dagoenean, makur gertatzen da edozein duda-muda. Zizeron bakezaleak, bada, galdegin du errepublikaren armadek diktadurarenei aurre egin diezaietela. Eta berak, geroago bere ikasle Erasmok bezala, oroz gain *tumultusa*, gerra zibila, gorrotatzen duenak, eskabidea egin du herrialderako emergentzia-egoera ezartzeko eta usurpatzailearen aurka deserrira agintzeko.

Hamalau hitzaldi horietan, legelari moduan badaezpadako prozesutan aritzen ez denetik, kausa ohoragarri baten defentsari moduan baizik, Zizeronek hitz egiazki hotsandiko eta kartsuak aurkitu ditu. «Bizi daitezela beste herri batzuk esklabotzan, hori bada haien nahia», oihukatu du bere herrikideen aurrean. «Guk, erromatarrok, ez dugu nahi. Askatasuna konkistatzea lortzen ez badugu, utz egiguzue hiltzen». Estatua egiaz heldu bada umiliazioetarik muturrekoenera, orduan, mundu osoan nagusi den herri bati —*nos principes orbium terrarum gentiusque omnium*— dagokio gladiadore esklabotuek hondarrean egingo luketen bezala

jokatzea. Hobe etsaiei gogor eginez hil, hilarazten uztea baino. «*Ut cum dignitate potius cadamus quam cum ignominia serviamus*». Hobe ohorez hil, laidoz zerbitzatzea baino.

Harrimenez, senatuak adi-adi entzun du. Herri batzartuak ere arretaz entzun ditu Filipika horiek. Batzuk agian konturatu dira azken aldia izango dela mendetan halako hitzak azoka-plazan aske zabaldu ahal izango direna. Han, laster, enperadoreen marmolezko estatuen aurrean makurtu beste erremediorik ez da izango. Elezuri eta salatariei gibel-asmoko murmurika bat baizik ez zaie zilegi izango, behinola zesarren inperioan nagusi izandako askatasunaren orde. Barne-zimiko bat, erdia beldur eta erdia mirespen, dabilkie entzuleei gizon zahar horrek, berak bakarrik, etsiak hartutako baten, barrutiko desesperantza baten kementaz gogo-gizakiaren independentzia eta errepublikaren legea aldeztu dituenen. Ezbaian, babesa eman diote. Baina dagoeneko hitzen su-festak ere ezin du gartu erromatar harrotasunaren leinu usteldua. Eta azokan idealista bakarti hau sakrifizioa predikatzen ari den bitartean, legioetan agintea eskrupulurik gabe daukatenek haren ezkutuan hitzartu dute Erromako historiaren itunik desohorezkoena.

Oktaviok berak, zeina Zizeronek goretsi baitu errepublikaren defendatzailetzat, eta Lepidok berak, zeinarentzat egindako zerbitzuen truke estatua bat eskatu baitio Erromako herriari, biak erretiratu zirelako Antonio usurpatzailea garbitzeko, batak zein besteak nahiago dute pribatuan negoziatu. Nola buruzagietariko bat ere, ez Oktavio ez Antonio ez Lepido, ez baita aski indartsua bere kabuz erromatar inperioaz jabetzeko harrapakin pertsonal bat balitz bezala, hiru etsai gorriak bat datoz hobe dela Zesarren oinordetza beraien artean banatzea. Zesar handiaren orde, Erromak hiru zesar txiki dauzka goizetik gauera.

Une erabakigarria da munduaren historian, zeren hiru jeneralek, senatuari men egin eta Erromako herriaren legeak errespetatu beharrean, bat egin baitute triunbiratu bat osatu eta barnean hiru kontinente hartzen dituen inperio eskerga bat banatzeko edozein gerrako harrapakin bezala. Uharte txiki batean, Boloniatik gertu, Reno eta Lavino ibaien urak bateratzen diren tokian, kanpadenda bat altxatu dute, non hiru basalapurrek elkartu beharko duten. Esan beharrik ez, hiru gerra-heroi handietariko inork ez du besteekiko batere uste onik. Beren

aldarrikapenetan maizegitan gezurti, doilor, usurpatzaile, Estatuaren etsai, gizatxar eta ohoin deitu diote elkarri, batak besteen zinismoaren berri ez izateko moduan. Baina botere-gosea duenari hura erabiltzea besterik ez zaio axola, eta ez besteen iritzia; harrapakina bakarrik, eta ez ohorea. Aurrez ahal adina neurri hartuta, hiru solaskideak hurrena hurren hurbildu dira adosturiko tokira; munduaren geroko menderatzaileek, haietako inork aliatu berriegi horiek asasinatzeko berekin armarik ez daramala ziurtatu ondoan, ez lehenago, irribarreak elkarri gurutzatu dizkiote onez onean eta dendara sartu dira, non geroko triunbiratua itundu eta eratu beharko den.

Antonio, Oktavio eta Lepido hiru egunez geratu dira dena horretan, lekukorik gabe. Hiru gairen inguruan ebatzi behar dute. Lehen puntuaz —nola egin munduaren partila— berehala bat datoz elkarrekin. Oktaviok Afrika eta Numidia jasoko du. Antoniok, Galia. Eta Lepidok, Hispania. Bigarren gaiak ere ez die kezka handirik sortzen: nola bildu dirua duela hilabeteak beren legioei eta alderdien jendailari zor dieten soldata ordaintzeko. Arazo hau agudo konpondu da, orduz gero sarritan imitatu sistema bati jarraiki. Herrialdeko gizon aberatsenei ondasunak ostuko zaizkie, eta, gorakiegi arranguratu ahal ez daitezen, aldi berean aldenarazi egingo dituzte. Eroso mahaian eserita, hiru gizonek proskripzio-zerrenda bat idatzi dute, kanporatu beharreko pertsonen izenen jakinarazpen ofiziala, Italiako bi mila gizon aberatsenak, besteak beste, berrehun senatari. Bakoitzak ezagun dituen haiek izendatu ditu, are eta gehituz norberaren etsai eta arerioak. Presazko marra pare batekin, triunbiratu berriak bukatutzat eman du lurraldeen auzia, baita ondoren gai ekonomikoa ere.

Orain hirugarren puntua da eztabaidagai. Diktadura bat finkatu nahi duenak, bere nagusigoa segurtatzeko, oroz gain isilarazi behar ditu edozein tiraniaren betiko aurkariak: jendaki beregainak, gogo-askatasuna den utopia erauztezin horren defendatzaileak. Antoniok exijitu du zerrenda horren lehen lerroan Marko Tulio Zizeron ager dadila. Gizon horrek haren egiazko zerizana ezagutu, eta den bezala izendatu du. Hura da gainerako guztiak baino arriskutsuagoa, gogo-indarra eta beregaineko nahimena dituelako. Harengandik libratu beharra dago.

Oktaviok, izututa, ezetz dio. Gaztea izaki, eta oraindik politikaren zitalkeriak ez guztiz gogortua eta pozoitua, beldur dio Italiako idazle entzutetsuena paretik kenduz bere agintaldia hasteari. Zizeron bere kausaren babesle leialena izan da, hark goretsi zuen herriaren eta senatuaren aurrean; duela hilabete gutxi, Oktaviok oraindik apalki eskatzen zuen haren laguntza, haren aholkua, agurea begirunez bere «benetako aita» gisa tratatuz. Oktaviori lotsa eman, eta bere ukoari eutsi dio. Sen egoki eta ohoragarri, ez dio latin hizkuntzaren autore ospetsuena oparian eskaini nahi soldatapeko hiltzaile batzuen sastakai laidogarriari. Baina Antonio bere teman gogortu da. Badaki espirituaren eta boterearen artean lehia eternoa dagoela, eta inor ezin izan daitekeela diktadurarako arriskutsuagoa, hitzaren maisua baino. Hiru egun dirau Zizeronen buruaren inguruko borrokak. Azkenean Oktaviok amore eman du, eta horrela Zizeronen izenak azkendu du Erromako historiaren agiririk ziur asko ahalkegarriena. Proskripzio bakar horrekin, izatez, errepublika hiltzeko epaia zigilatu da.

Zizeron, hiru etsai ordura arte amorratuen arteko itunaren berri izan duen uneaz geroztik, bereak egin duela jabetu da. Oso ondo daki ezen berak Antonio filibusteroa, zeinari Shakespearek arrazoirik gabe ospe eman baitzion espirituaren mailara igoraziz, sobera mingarriki markatu duela hitzaren burdin goriaz, diru-gosearen, hantustearen, ankerkeriaren eta eskrupulu ezaren behe-instintuak leporatu dizkiolarik, eta ezin duela Zesarren eskuzabaltasunik itxaron giza kasta basati horren eskutik. Eran-tzun logiko bakarra, bizia salbatu nahi izanez gero, azkar ihes egitea litzateke. Zizeronek lekualdatu beharko zukeen Greziara, Brutorekin, Kasiorekin, Katonekin, askatasun errepublikanoaren azken kanpamentura; han behintzat gorderik egongo zatekeen jada bidaliak izan diren soldatapeko hiltzaileengandik. Eta egiaz, bizpahirutan, proskritoak ihes egiteko deliberatua dirudi. Dena prestatu du, bere asmoaren berri eman die lagunei, badoa itsasontzira, ekin dio bideari, baina azkeneko unean bertan gelditu da; behin deserriaren atsekabea ezagutu duenak are arriskuan esperimentatzen du sorterriaren atsegalea, bai eta etengabeko ihesean ibilitako bizialdi baten duintasunik eza ere. Borondate misterioitsu batek, arrazoimenaz haragokoak eta are haren kontrakoak, zain daukan patuari aurre egitera behartzen du. Nekeak

jotako gizonak atsedenezko egun pare bat baino ez dio eskatu bere bizitza dagoeneko burutuari. Patxadaz gogoeta pixka bat gehiago egin ahal izatea, gutun pare bat idaztea, liburu pare bat irakurtzea... eta gero datorrela patuak harentzat xedatutakoa. Azkeneko hilabeteotan orain bere landetxeetariko batean, orain beste batean ezkutatu da, behin eta berriro alde egiten arriskuak mehatxatu orduko, baina inoiz guztiz ihes egin gabe. Nola gaitxo sukardun batek burukoa, hala aldatu ditu berak nola-halako ezkutaleku horiek, ez guztiz deliberatua bere halabeharrari aurre egitera, baina saihestera ere ez, hiltzeko prestasun horrekin oharkabean bete nahiko balu bezala *De senectute* bere tratatuan adierazia zuen esaldia, alegia, gizon zahar batek ez duela heriotza bilatzeko ezta geroratzeko ere eskubiderik. Datorrenean datorrela, etsi onean hartu beharra dago. *Neque turpis mors forti viro potest accedere*: arima sendoentzat ez dago heriotza laidogarririk.

Hainbestez Zizeronek, jada Siziliara bidean zihoala, bat-batean beretarrei agindu die berriro Italia etsairako norabidea hartu eta porturatzeko Caieta-n, egungo Gaeta, bertan etxalde txiki bat du eta. Amore eman dio nekadura bati, ez soin-atale-na edo kirioena soilik, bizitzaren aurreko nekadura bati baizik, amaiera-min, hilobi-min bat ere badena. Ez du besterik nahi, atsedean hartu beste behin. Beste behin arnastu aberriaren aire gozoa, eta agur esan. Agur munduari, baina atsedean hartu eta pausatu, egun bat edo ordu bat baino ez bada ere!

Begirunez diosal egin die, porturatu orduko, etxeko lareei, espiritua babesleei. Hirurogeita lau urteko gizona nekaturik dago. Itsas bidaiak leher eginda utzi du; beraz, etzan egin da *cubiculum*ean, logelan edo, hobeki esan, hil-ganberan, begiak itxita, lo axalean alde aurretik gozatzeko betiko atsedenenaren atseginez.

Baina, etzanda geratu bezain laster, konfiantzako esklabo bat sartu da itsumustuan. Susmagarriak diren gizon armatuak dabilta inguruetan. Etxeko zerbitzari batek, zeinari Zizeronek lagunkoitasantz frogak eman baitizkio betidanik, haren etorrera salatu die hiltzaileei, ordainsaria kobratzeko. Ihes egin behar du, berehala ihes egin; ohatila bat prest dago, eta beraiek, etxeko esklaboek, armak hartu nahi dituzte eta hura defendatu tarte laburrean itsasontziraino, non salbu izango den. Agureak, akiturik, ezetza eman du. «Zertarako?», dio. «Ihesi ibiltzeaz nekatuta nago, eta bizitzeaz nekatuta. Utzidazue hemen hiltzen, nik salba-

tu dudan lur honetan». Azkenean, konfiantzako mirabe zaharrak konbentzitu du; basotxo batean zehar itzulunguru bat eginda, esklabo armatuek txalupa salbatzailera daramate ohatila.

Baina bere etxean bertan saldu duenak ez du nahi bere diru lotsagarririk gabe geratu. Arrapaladan ehuntari bat, kapitain bat eta gizon armadun pare bat bildu ditu. Haiek denek basoan barrena korrika egin dute jarraigoaren atzetik, eta oraindik astia eman die harrapakina atzemateko.

Istantean, zerbitzari armatuak ohatilaren inguruan elkar-tu dira ta aurre egiteko prestatu, baina Zizeronek bertan uzteko agindu die. Bere bizitza amaitua da, zertarako sakrifikatu beste-renak eta gazteagoak? Azken unean, gizon beti zalantzati, beti ezbaiko eta bakanka baino ez bihoztun honek beldurra galdu du erabat. Sentitu du azken proba honetan erromatar bezala gaitasuna erakusten ahal duela soilik baldin eta —*sapientissimus quisque aequissimo animo moritur*— heriotzari duintasunez aurre egiten badio. Beronen aginduz, zerbitzariak aldendu egin dira. Desarmatua eta kontra egiteke, hiltzaileei eskaini die bere buru aguretua berealdiko hitz jakintsuokin: «*Non ignoravi me mortalem genuisse*», beti jakin dut hilkorra naizela. Baina hiltzaileek ez dute filosofiarik nahi, beren saria baizik. Ez dute luzaz dudatu. Ehuntariak ukaldi gogor batez lurreratu du gizon babesgabea.

Horrela hil da Zizeron, Erromako askatasunaren azken aldezea, heroikoago, gizonkiago eta irmoago bere azken orenean, bere bizitza osoko beste milaka eta milakatan baino.

Tragediari odolezko satira-antzezpena darraio. Antoniok heriotza hori agindu duen premia larritik, hiltzaileek ondorio gisa atera dute buru horrek balio berezi bat eduki behar duela; ez dute, jakina, sumatu haren balioa munduaren eta ondorengoen espirituzko testuinguruan; bai, ordea, daukan garrantzia ekin-tza odoltsu hori agindu duenarentzat. Hobaria lortzera lehia ez daitezen, burua Antoniori berari eramateko erabakia hartu dute, haren aginduak bete direla modu adierazkorrean frogatzearren. Hortaz, hiltzaileen gidariak burua eta eskuak moztu dizkio gorpuari, sartu ditu zaku batean eta, oraindik odola darion fardel hori bizkar ganean kargatuta, korrika egin du ahalik eta arinen Erroma aldera, erromatar errepublikaren aldezerik onena ohi-ko prozeduraz garbitu dutelako berriarekin diktadoreari poza emateko.

Eta gaizkin txikiak, hiltzaile horien gidariak, ondo kalkulatu du. Gaizkin handiak, hilketa agindu duenak, egindako krimenagatiko poza txanpon bihurtu du, printze baten dinako ordainsaria eskainiz. Orain, Italiako bi mila jende aberatsenak larrutu eta hilarazi dituela, Antonio eskuzabal ager daiteke azkenean. Zizeronen esku moztuak eta buru laidotua dauzkan zaku odoleztatuaren truke milioi bat sestertzio distirant ordaindu dio ehuntariari. Baina horrekin bere mendekua ez da oraindik hoztu; beraz, gizon odol-egarri honen herra sengabeak hildakoarentzat lotsaizun berezi bat asmatu du, horrekin bere burua betiko gutzian doilortuko duela konturatzeko. Antoniok agindu du burua eta eskuak iltzez josiak izan daitezela rostran, oholtzan, nondik Zizeronek herria haren kontra astindu zuen Erromako askatasuna defendatzearren.

Desohorezko ikuskizun bat dauka zain biharamunean Erromako herriak. Hizlarien oholtzan, nondik Zizeronek egin zituen bere hitzaldi hilezkorrak, dingilizka dago margul askatasunaren azken aldezkariaren buru moztua. Herdoilak jandako iltetzar batek zulatua du bekokia, milaka pentsamendu. Zurbil eta mingoski sorgortuak dira beste inorenak baino era ederra-goan latina hizkuntzaren hitz metalikoak formulatu zituzten ezpainak; itxita, betazal urdinkarek bilduak dituzte hirurogei urtez errepublika zaindu zuten begiak; indargabe zabalduak dira garaiko gutunik bikainenak idatzi zituzten eskuak.

Baina, guztiarekin ere, oholtza horretatik hizlari gailenak basakeriaren aurka, botere-eldarnioen aurka, zuzengabekeriaren aurka jaurtiriko ezein akusaziok ez du hitz egiten hain modu elokuentean bortxaren betiereko bidegabekeriaren aurka, nola orain haren buru mutu sarraskituak. Goganbeharrez pilatu da herria *rostra* lohituaren inguruan; lur jota, ahalketurik, atzera lekutzeko. Inor ez da ausartu —diktadura bat da!— ihardestera, baina hozmin batek estutu die bihotza, eta, atsekabeturik, begiak apaldu dituzte beren errepublika gurutziltzatuaren ikur tragiko horren aurrean.

2

BIZANTZIOKO KONKISTA 1453ko maiatzaren 29a

Galzoria igartzen

1451ko otsailaren 5ean, mezulari batek hogeita bat urteko Mehmed-i, Murad sultanaren seme nagusiari, bere aita hil delako berria dakarkio Asia Txikiraino. Ez bere ministroak ez bere aholkulariak ere jakitun ipintzeko hitz-erdirik esan gabe, printzeak, setatsu bezain oldarkor, eskura daukan zaldirik onenaren gainera jauzi egin eta, zaharoaz joz moxal odolgarbi bikaina, txanda batean egin du Bosforo itsasarterainoko ehun eta hogeit milaia-ko bide-tartea, eta berehala Gallipoli aldera gurutzatu, europar ertzera. Haratu arte ez die aldeko leialei jakinarazi bere aitaren heriotza. Beste edozein tronu-nahi alde aurretik zapaltzeko asmoz, tropa bikain bat biltzera lehiatu da, eta Hadrianopolis aldera gidatu du, non izatez otomandar inperioko buru aldarrikatuko baitute kontrakotasunik gabe. Orobat, bere lehen gobernu-egintzak erakutsi du Mehmeden erabakitasuna izugarri ankerra dela. Aurretiaz odol bereko edozein lehiakidez libratzeko, bere anaia adingabea itoarazi du bainuan, eta, handik geroxeago —hau ere bere maltzurkeria eta basakeriaren froga da—, ekintza hori egi-tera behartu duen hiltzailea hiltzeko agindu du.

Murad zuhurragoaren ordez Mehmed gazte kartsu eta ospe-goseduna turkiarren sultan bihurtu delako berriak izu-laborriz bete du Bizantzio. Izan ere, ehunka espioiri esker ezaguna da handinahi horrek zin egin duela munduko antzinako hiriburua beretzea eta, bere gatzetasuna gorabehera, egunak nola gauak igarotzen dituela plan estrategikoak taxutzen bere biziko egitasmoa burutzearren; horrekin, bestalde, argibide guztiek *padixah* berriaren ohiz kanpoko gaitasun militar eta diplomatikoen

berri ematen dute aho batez. Mehmed bitarikoa da: errukior eta odolgaiztoa batera, kartsu eta azpisugea, gizon ikasi eta artezale bat, Zesarren eta erromatarren biografiak latinez irakurtzen dituen, eta, halarik ere, basati bat, odola ura bezala isurtzen duena. Begi leun, malenkoniatsuko eta papagai-sudur zorrotz, mukerreko gizon hori aldi berean da langile nekaezin, gudari ausart eta eskrupulurik gabeko diplomatiko, eta indar galgarri horiek guztiak biltzen dira ideia bat berberan: lasai gainditzean Bayezid bere aitonaren eta Murad bere aitaren egitandiak, haiek erakutsi baitzioten lehenengo aldiz Europari turkiar nazio berriaren gailentasun militarra. Lehenbiziko harrapakina, ordea, hori jakina dago, hori sumatzen da, Bizantzio izango da, Konstantino eta Justiniano enperadoreen koroaren azken harribitxi bikaina.

Praktikan, ukabil deliberatu batentzat, harribitxi hori babesgabeturik eta eskumenean dago. Bizantziar inperioa, ekialdeko erromatar inperioa, behiala mundu osoa barnean hartzen zuena, Persiatik Alpeetaraino, baita Asiako basamortuetaraino hedatu ere, inperio unibertsal bat, hilabete eta hilabetetan ozta zeharka zitekeena, orain hiru orduko epean aise ingura daiteke oinez. Errukarriro, bizantziar inperio hartatik gorputzik gabeko buru bat baino ez da gelditu, erreinurik gabeko hiriburu bat: Konstantinopla, Bizantzio zaharra; eta, are Bizantzio horretatik ere, enperadorearena, *basileus*arena, zati bat baino ez da, egungo Istanbul. Bitartean, Galata dagoeneko genoarren eskuetan erori da, eta herrialde osoa, hiriko harresiez haratago, turkoenetan. Esku-barruaren tamainako luze-laburra du azken enperadorearen mendeko lurraldeak, zirkulu-formako harresi neurrigabe bat baino ez, elizen, jauregien eta Bizantzio deritzan etxe mordoiloaren inguruan. Jada behin guruztariek barne-muineraino arpilatua, izurriteak jendegabetua, herri nomadei etengabe aurre egitearen ondorioz abaildua, nazio eta erlijiozko auzi-mauziek erdiratua, hiri honek ezin du ez gudari oste ez gazte-adorerik lortu, bere-berezko indarrez atzera botatzeko alde guztietatik olagarro-erroez oratua duen etsaia. Haizezko mantu bat da Bizantzioko azken enperadore Konstantino Dragases-en purpura; bere koroa, halabeharraren jostailu bat. Baina, hain zuzen ere turkoek inguratua dagoelako, eta mendebaldar mundu osoarentzat toki sakratua delako, milaka urteko kultura komunaren bidez, Europarentzat bere omen handiaren sinboloa da

Bizantzio; soilik baldin kristau-herriak bat eginda babesten badu hondarreko gotorleku honezkero lur joarazitako hori ekialdean, Hagia Sofia izan ahalko da aurrerantzean ere fedearen basilika bat, erromatar ekialdeko kristautasunaren azkeneko katedrala, baita ederrena ere.

Konstantino berehala ohartu da arriskuaz. Mehmeden bake-promes guztiak gorabehera, beldur ulergarriz joa, hurrenez hurren mandatariak bidali ditu Italiara, mezuak Aita Santuarentzat, mezuak Veneziara, Genova, galerak eta soldaduak igor ditzatela galdez. Baina Erroma duda-mudan dago, eta Venezia ere bai, zeren Ekialdeko eta Mendebaldeko fedearen artean gero eta zabalagoa da teologia-arrakala zaharra. Greziar Elizak gorroto dio erromatarrari, eta bere Aitalehenak uko egiten dio Aita Santua artzain gorentzat aitortzeari. Aspaldian, haatik, arrisku turkoari begira, Ferraran eta Florentzian egindako bi kontzilioetan erabaki da bi Elizak berriz batzea eta, beraz, turkoen aurkako laguntza segurtatu zaio Bizantziari. Baina arriskuak Bizantziorentzat hain larria izateari utzi ahala, greziar sinodoek uko egin zioten hitzarmena indarrean jartzeari; orain, berriz, Mehmed sultan bilakatu dela, seta ortodoxoari beharra nagusitzen zaio: aldi berean, berehalako laguntza eskez batera, Bizantziok moldaeraz jokatzeko prest dagoelako berria bidali dio Erromari. Orduan galerak hornitu dira gudariz eta munizioz; itsasontzietako batean sartu da, halaber, Aita Santuaren ordezkaria, mendebaldeko bi Elizen adiskidetzeari hotsandiz gauzatu eta munduari ikusarazteko Bizantziari erasotzen dionak erronka jotzen diola kristau-herri osoari.

Adiskidetzearen Meza

Abenduko egun hartako ikuskizuna berebizikoa da: basilika ederrak, zeinaren behinolako bikaintasun dirdaitsuzko arrandia haitzurdinetan eta mosaikoetan nekez begitantzen ahal baitzaigu egungo meskitan, adiskidetzearen jai handia ospatu du. Bere inperioko dignatario guztiek inguratutako Konstantino ageri da, *basileusa*, bere aginte-koroaz betiko batasunaren aitortle eta bermatzailea izateko. Barrunbe neurrigabea, ezin konta ahala kandlek argiztatua, mukuru betea dago; aldare aurrean anai arteko eran meza eman dute Isidoro Erromako Aulkiaren ordezkariak eta Gregorio aitalehen ortodoxoak; lehenengoz eliza

honetan, berriro ere Aita Santuaren izena barne hartuko da otoi-tzetan, lehenengoz deboziozko kantika aldi berean latinez eta grekoz kulunka ari da katedral hilezkorreko gangetan, Espiridion santuaren gorpua bi apaizeria baketuek hotsandiko elizbiran daramaten artean. Fede bi-biek, Ekialdeak eta Mendebaldeak, betiko baturik dirudite, eta azkenik, liskar kriminalez beteriko urte eta urteak igaro ondoan, birbete egin da Europaren ideia, Mendebaldearen sena.

Historian, baina, arrazoimena eta onezkoak egitea gailentzen diren uneak labur eta iragankorrak izaten dira. Elizan jaierazko ahotsak otoitz komunean bat datozen bitartean, kanpoaldean, monasterio-gela batean, Gennadios izeneko lekaide jakintsua dagoeneko buru-belarri lehian ari da latindarren eta egiazko fedearen saldukeriaren aurka; ozta arrazoimenak adabatua, bake-ituna beste behin izan da fanatismoak urratua, eta nola apaizeria grekoak inondik inora ez baitarabil gogoan benetako men egitea, hala Mediterraneoaz beste muturreko aliatuak ere ez dira gogoratzen hitzeman duten laguntzaz. Bidaliak dira, bai, galera pare bat, berrehun soldadu, baina ondoren hiria bere galdu-beharraren pean utzi dute.

Hasi da gerra

Zapaltzaileak, gerra egin asmo dutenean, armez osoro hornitu bitartean, bakeaz mintzatu ohi dira luze eta sakon. Horrela, Mehmedek ere bere tronuratzean harrera egin die Konstantino enperadorearen mandatariei hitz atseginen eta lasaigarriekin; jendaurrean eta hotsandiz zin egin die Jainkoari eta haren profetei, aingeruei eta Koranari, leialki beteko dituela *basileu*-sarekin sinaturiko itunak. Aldi berean, baina, sultan elezuriak hungariar eta serbiarrekin itxia du elkarrekiko neutraltasun-hitzarmen bat, hiru urtezkoa —hain zuzen, hiru urteko epea eman dio bere buruari inork galarazi gabe hiriaz jabetzeko—. Orduan, ez lehenago, Mehmedek aski agintza eta zin egin ondoren, legea hautsaraziz ekin dio gerrari.

Orain arte Bosforoko ertz asiarra baino ez zen turkoe-na, eta horrekin itsasontziak oztoporik gabe heltzen ahal ziren Bizantziotik itsasartean zehar Itsaso Beltzaraino, euren bihitegira. Orain igarobide hori etenarazten du Mehmedek, agintzen duelarik, zurigarririk ematen ere ahalegindu gabe, baluarte bat

eraikitzeko Rumili Hissar-en, europar ertzean, eta zehazki alderik estuenean, nondik antzina, pertsiar agintepeko garaietan, itsasartearen gurutzatu baitzuen Xerxes izukaitzak. Gauetik goizera milaka, dozenaka mila landa-langile kokatzen dira europar ertzean, hitzarmenen arabera ezin harresi daitekeena —baina zer balio dute hitzarmenek indarzaleentzat?—, eta euren mantenua eskuratutzeko arpilatzen dituzte aldirietako alorrak, eta suntsitzen, etxeak ez ezik, antzinako San Migelen eliza ezaguna ere, haien hesirako harriak eskuratzearen; sultanak berak, gau-egunaz atsedean hartzeke, gidatzen du baluartearen eraikitze-lana, eta ahalmenik gabe Bizantzioko beharturik dago ikustera nola lege eta itunen aurka itoarazten dioten Itsaso Beltzerako igarobide libre. Itsaso orain arte libre pasatzen saiatzen diren lehen itsasontziak tirokatuak dira bake-aro betean, eta emaitza oneko lehen indar-erakustaldi horren ondoren beste edozein eginbide saiatzea laster alferrekoa gertatu da. 1452ko abuztuan, Mehmedek bere *baxa* eta *paxa* guztiak bildu ditu, eta argi azaldu die bere asmoa, Bizantzioko erasoan hartu eta haren jabe egitekoa. Iragarpenari laster darraio ekintza basatia, inperio turko osoan barrena heraldoak bidaliak dira, armak hartzeko gai direnak errekrutatu beharrez, eta, 1453ko apirilaren 5ean, bat-bateko itsasaldi bizi baten antzera, begipean ezin atzemaneko otomandar armada batek gainezka bete du Bizantzioko zabaldia, ia-ia harresiaren behealderaino.

Bere soldadu osten buruan, arrandiaz jantzita, zaldi gainean doa sultana, bere oihal-etxola Lykas atetzarraren aurrean muntatzeko asmoz. Baina estandarteak kartier nagusiaren aurrean haizatu baino lehen, lurrean otoitz-tapiza zabaltzeko agindu du. Oinutsik, haren gainean ipini ditu oinak, makurtu da hirutan, begitartea Meka aldera bideratua, bekokia lurreraino, eta atzean ditu —sekulako ikuskizuna— bere armadako milaka eta milaka soldadu buru-makurtze berdinarekin, norabide berdinean, erritmo berdinean, otoitz berdina berritzen Ala-ri, kemena eta garaipena eman diezazkien. Handik gerora altxatu zen sultana. Gizaseme apaetik berriro ere erronkaria jalgi da, Jainkoaren zerbitzaritik, buruzagi eta soldadua, eta kanpamendu guztian barrena korrika dabilta orain haren *tellalak*, haren aldarrikari ofizialak, danbor-hotsean eta turuta joz zabal zabal iragarztearren: «Hiriaren setioa hasi da».

Harresiak eta kanoiak

Bizantziok ahalmen eta indar bat baino ez du, bere harresiak; deus ez zaio gelditzen antzina munduaren luze-zabalean hedaturiko bere iraganetik, salbu garai handios eta zoriontsuago bateko ondare hori. Hiriaren triangelua oskol hirukoitz batez babestua da. Behegoak, baina betiere handientsuak, harrizko murruek hiriaren bi hegalak gerizatzen dituzte, Marmara itsasoaren eta Urrezko Adarraren aurrean. Masa erraldoi batek, aldiz, hedatzen du pezoi-aska kontinentearen aurrean, Teodosioren harresia deiturikoa. Jada Konstantinok, geroko mehatxuak aurreikusita, harlandu kuboidez gerrikatu zuen Bizantzio hiria, eta Justinianok jarraitu zion lubeta horren eraikitze eta sendotzeari; alta bada, berez gotorleku esandakoa Teodosioren garaian baino ez zen jaso, zazpi kilometro luzeko murruarekin, haren ziklope-indarraren lekuko izanik artean egun huntz-estalitako hondakinak. Saietera-zulo eta almenekin apaindua, ur-erretenen bidez gerizatua, dorre karratu indartsuek zaindua, lerro paralelo bikoitz eta hirukoitzetan jaso eta milaka urtean behin eta berriro osatu eta eraberritua, berebiziko harresi inguratzailerik hau jo izan zuten bere garaian armaz ezin hartuzkoaren bete-beteko ikurtzat. Nola behinola barbaroen horden eta gudu oste turkoen bridagabeko oldarrari, hala orain ere harri-mokor erraldoi horiek iseka egiten diote egundaino asmatutako edozein gerrako tresneriari; indargabe punpara erortzen dira katapulten, ahari-buruen eta are kulebrina berrien jaurtigaiak, baita morteroenak ere, haren horma-hesi garaiaren kontra. Teodosioren harresiari esker, Europan ez dago beste hiri seguruago eta hobeto babesturik Konstantinopla baino.

Mehmedek inork baino hobeto ezagun du harresi hori eta haren gotortasuna. Hilabeteak eta urteak dira bere gaubeila eta ametsetan gogoeta bat bakarrak arduratzen duela: nola hartu ezin hartuzkoa, nola errautsi ezin errautsizkoa. Haren mahaiairen gainean metatzen dira marrazkiak, neurriak, horma-hesi etsaien hozkadurak; goragune bakoitza ezagutzen du murruen aurretik eta atzetik, areka bakoitza, ubide bakoitza, eta bere ingeniariak xehetasun bakoitza aztertu dute berarekin batera. Hau etsipena, gero: haiek guztiek kalkulatu dute ordura artean erabilitako gudu-kanoiekin ezin errauts daitekeela Teodosioren harresia.

Beraz, kanoi sendoagoak lortu behar! Luzeagoak, helmen eta ahalmen handiagokoak, orain arte gerra-lanetan ezaguturikoak baino. Eta beste jaurtigai batzuk, ordu artekoak baino harri gogorragoz moldatuak, astunagoak, suntsitzailleagoak, hondagarriagoak. Artilleria berri bat asmatu behar da ezin iritsizko murruri horien aurka, beste irtenbiderik ez dago, eta Mehmed prest ageri da eraso-bide berri hori sortzeko kosta ahala kosta.

Kosta ahala kosta. Horrelako iragarpen batek betiere bere-berez iratzartzen ditu sortzeko eta bultza eragiteko gai diren indarrak. Horretara, gerra-deklaraziotik geroxeago sultanaren aurrean aurkeztu da gizon bat, munduko kanoi-urtzailerik irudimentsuen eta eskarmentudunentzat joa dena. Urbas edo Orbas, hungariarra. Kristaua da, eta dagoeneko lehenago Konstantino enperadoreari eskaini dizkio bere zerbitzuak, baina uste osoa du Mehmeden aldean ordain-sari hobea eta bere urtze-lanerako zeregina ausartagoak aurkituko dituela, eta prestasuna adierazi du, baldin mugarik gabeko bitartekoak eskura jartzen badizkiote, artean Lurrean sekula ikusi gabeko kanoi bat galdatzeko. Sultanak, zeinak, burutapen bat bakarrak hartua dagoen edonork bezala, inongo ordain-sariri ez baiteritzo goregitik, berehala esleitu dio langile-saldo handi bat, brontze-mea Hadrianopolis-era garraiatzearren milaka gurditan; hiru hilabetez, urtzaileak ahaleginaren ahaleginez prestatu du buztin-moldea mea jotzeko sugin-metodo ezkutuei jarraiki, salda goriaren galdaketa zirrargarria gertatu baino lehen. Lanak atarramentu ona du. Hodi eskerga, munduak egundaino ezagutu duen handiena, moldetik atera eta hoztu egin da, baina, murrubaten kontra lehen tiro-proba egin baino lehen, Mehmedek mandatariak bidali ditu hiri osoan barna haurdun dauden emakumeei ohartarazteko. Izugarriko burrunba-hotsez su-orratzak gorrituriko ahoak tu egin duenean harrizko bola ahaltsua eta murrubaren porrokatu tiro-proba bakar batez, Mehmedek manua eman du laster artilleria oso bat egiteko neurri erraldoi horietan.

Estreinako «harri-jaurtigailu» handia, greziar idazleek gero beldur-ikaraz kanoi horri deituko dioten bezala, horrela zorioneko erara ontzat eman izango zatekeen, baina artean ere bada arazo zailagorik: nola herrestarazi munstro hori, brontzezko herrensuge hori, Trazia osoan zehar Bizantzioko harresietaraino? Abian da inoiz ez bezalako odisea bat. Izan ere, herri oso batek,

armada oso batek herrestan darama bi hilabetez lepo luzeko koloso zurrun hori. Aurrena zaldizko tropelak, bitxia edozein erasotatik babesteko, sakabanatzen dira patruila iraunkorretan; haien atzetik ehunka eta agian milaka langile aitzurlari ahalegintzen dira gau eta egun galtzadako gorabeherak berdintzen garraio arras astuna errazte aldera, zeinak bere atzean bideak berriro zarrakatuak uzten baititu hilabetetarako. Berrogeita hamar idi pare gurdi-kordari kakotuak izan dira, eta haien ardatzen gainean —behiala hartan obeliskoa nola, Egiptotik Erromara bide egin zuenean—, metalezko hodi eskerga ipini dute, hazta guztia zehaztasunez banatuta; uneoro berrehun gizonak eskuin aldean eta ezkerrean eusten diote astunaren astunez zabuka dabilen hodiari, eta aldi berean berrogeita hamar orgari eta arotz eten-gabe arduratzen dira zurezko alperrak aldatu eta koipeztatzeaz, euskarriak finkatzeaz, zubiak ipintzeaz; ulertzekoa da itzelezko karabana horrek soil-soilik urratsez urrats bide egin ahal izatea mendietan eta estepan barrena, idien pausoan. Sor eta lor, herrietan pilatu egiten dira nekazariak, zeinatu eta aitaren egiten dutelarik brontzezko tuturru hori ikustean, gerra-jainko bat bezala haren zerbitzari eta apaizek garraiatzen baitute herrialde batetik bestera; baina laster haren anaiak, brontze urtuko ama molde berdinekoak, atotian ipiniak dira modu berean; berriz ere, ezina ekinez egin du giza nahimenak. Jada horrelako hogeit edo hogeita hamar kolosok euren mutur belztuak erakusten dituzte Bizantzioren aurrez aurre; bertan artilleria astunari sarbidea eman zaio gerraren historian; eta zeingehiagoka hastera doa ekialdeko erromatar enperadorearen harresiaren eta sultan berrriaren kanoien artean.

Berriro ere itzarobidean

Astiro, temaz, baina eutsi ezinekoak, alimaleko kanoiek birrin eta irin egiten dituzte ñirñirazko hozkadekin Bizantzioko harresiak. Hasieran bakoitzak eguneko sei edo zazpi tiro baino ezin eman ditzake, baina, eguna joan eta eguna etorri, sultanak beste batzuk paratzeko agindu du, eta, hauts- eta hondakin-hodei artean, erauntsi banaren ondoan bretxa berriak irekitzen dituzte behera datorren hargin-lanean. Egia da gauean setiatuek zulo horiek adabatzen dituztela gero eta beharrezkoagoak diren oholesiz eta mihise-kanaz, baina, hala ere, ez da gehiago lehen-

go harresi sendo, ukigabea. Izu-laborrian, murruren atzealdean borrokatzen diren zortzi mila biztanleek premia-orduan pentsatzen dute, ehun eta berrogeita hamar mila mahomatarrek oldarrean azken erasoari ekingo diotenean honezkeru azpiak jandako gotorlekuaren aurka. Garaia da, orain ala inoiz ez, Europak, kristau-herriak, bere hitza gogoratzeko; emakume-samaldak egun osoan elizetan paratuak daude beren umeekin erlikia-ontzien aitzinean belauniko, talai-dorre guztietarik gau eta egun zelatan daude soldaduak, ea itsasontzi turkoek zehar-katuriko Marmarako itsasoan ageri den azkenik Aita Santuak eta Venezia hitz emandako sorospen-ontzidia.

Azkenik, apirilaren 20an, goizeko hiruretan, dirdira egin du seinale batek. Urrunean bela da suma lausoki. Ez da amestutako kristau-ontzidi ahaltsua, baina, edonola ere, haizeak astiro bultzatuak, lema zuzen daramate hiru genoar itsasontzi handik eta haien atzetik laugarren batek, txikiagoa, labore-garraiorako bizantziar ontzi bat, erdian doana beste hiruen babespean. Berehala Konstantinopla hiri osoa elkarretaratu da gogo berotitas hegiko murruetan, laguntzera datozenei ongiatorri egitera. Aldi berean, haatik, Mehmed, jauzi batean bere zaldi gainean, lauhazka handian abian doa kolore purpurako bere oihal-etxolatik ontzidi turkoa ainguratua dagoen kaialdera, eta bertan manatu du kosta ahala kosta itsasontzi horiei eragotz diezaietela Bizantzioko portuan, Urrezko Adarrean sartzea.

Flota turkoak ehun eta berrogeita hamar ontzi ditu, txikiagoak alabaina, eta agudo milaka arraun uren palastan ari. Abordatze-kakoz, suzirik eta katapultaz hornituak, ehun eta berrogeita hamar karabela horiek lau galeoietara hurreratu dira, baina, haize-bolada gogor batek bultzatuak, lau itsasontzi ahaltsuek balantza betean aurrea hartu diete tiroka eta oihuzalapatuz tuka ari diren turkoen txalupei. Goitasunez, belak betean, erasotzaileen axolagabeen, Urrezko Adarraren portu segurura jo dute, bertan kate ospetsuak, Istanbuletik Galatara tinkatua dagoenak, babes iraunkorra eskaini behar dielarik eraso eta oldartzeen kontra. Lau galeoiak oso gertu daude orain beren helburutik: ikusten ahal dute murruetan pilatu milaka norbanakoren aurpegi bakoitza, gizon-emakumeak ahuspez lurrera jausten Jainkoari eta santuei eskerrak emateko hotsandiko sal-

bamendua dela eta, jada katearen durunda sakona zabaldu da portuan, sorospen-ontziei abegi emateko.

Orduan zerbait ikaragarria gertatu da. Haizea behingoan gelditu da. Iman batek atxikiak iduri, lau belaontziak guztiz hilik geratu dira itsasoaren erdian, salbade duketen kaitik harrikada pare batera, eta, bozkariozko basa-garrasi batean, etsaien arraunontzi aldra guztiak erasoari ekin dio lau galeoi herbalduen gainera, lau dorrenen antzera higige baitaude uraren gainean iltzatuta. Orein batekin ankerrak izaten diren artzain-txakurrak nola, ontzi txikiak abordatze-kakoez zintzilikatu dira handien alboetan, zurerian aizkora-ukaldi zorrotzak emanez hondorazteko, talde beti berrituekin katuka igoz aingura-kateetatik, haize-oihalen aurka zuziak eta ilintiak jaurtikiz, irazekitzeko asmoz. Armada turkoaren kapitainak, bipil, beraren bandera-ontzia aurrerarazi du garraio-ontziaren kontra, erasoan hartzeko; dagoeneko bi itsasontziak bata bestearen barruan ahokaturik daude eraztunen gisan. Genoar marinela, euren karelaren garaiak eta kota-mailek babestuta, hasieran oraindik atzera botatzen ahal dituzte gorantz igotzen ari direnak, oraindik oldartzaileak uxatzen dituzte kako eta harriekin eta su grekoaz. Baina laster hesialdiari amaiera eman behar zaio. Gehiegi dira gutxi-gutxi batzuen aurka. Genoar itsasontziak galduta daude.

Ikuskizun lazgarria harresietatik begira dagoen jendetzarantz. Herriak hipodromoan atsegin handiz borroka odoltsuak behatu ohi zituen distantzia berean, holako hurbiltasun mingarriaz begiets dezakete orain itsas gudu bat zuzenean, orobat beretarren hondoratze agidanean halabeharrezkoa, gehienez ere bi ordu falta dira-eta lau itsasontziak garaituak izateko etsaien alduren aurka itsas hondarrean. Alferrik etorri dira haiei laguntza ematera, alferrik! Konstantinoplako murruetan dauden greko etsiak hartuak, beren anaiengandik doi-doia harrikada batera, ezinaren amorruan oihuka ari dira ukabilak borobildurik, beren salbatzailei laguntzarik eman ahal ez izateagatik. Batzuk keinu basekin saiatzen dira guda-aliatuei gogoia berotzen. Beste batzuek, eskuak zerurantz altxaturik, hel egiten diete Kristori eta San Migel goiaingeruari eta beren eliza eta monasterioetako santu guztiei, mende eta mendetan Bizantzioren babesle izandakoei, mirari bat egin dezaten. Baina aurrez aurreko ertzean, Galatan, turkoak zain daude halaber hainbateko jaierez oihuka eta otoiz-

ka beretarren garaipenaren alde. Itsasoa antzetzoki bilakatu da; itsas gudu bat, gladiadore-joko. Sultanak berak laster egin du honaino lauhazka handian. Bere *paxaek* inguratua, zaldi gainean ur sakonetan sartu, tunika busti egin, eta, hots-tutu moduan eskuak uztaiturik, ahots suminean oihuka agindu die beretarrei kristauen itsasontziak kosta ahala kosta hartzeko. Bere barkuetako bat atzera botea den bakoitzean, irain eta mehatxuka erausi egiten dio bere almiranteari zimitarra astinduz. «Irabazi ezean, ez zaitetz bizirik itzuli».

Oraindik eusten diote lau itsasontzi kristauek. Baina borrokaldia amaitzear dago. Jada agortzen hasiak dira barku turkoak atzera botatzeko darabiltzaten jaurtigaiak; ordutan borrokan ibili eta gero, jada marinelen besoa akituz doa berrogeita hamar aldiz nagusiago direnen aurka. Eguna apaltzen ari du, eguzkia ostertzean amiltzen. Ordubete gehiago, eta ontziak, nahiz eta orain-oraino turkoek aboratuak izan ez diren, babesik gabe atoian eramango dituzte tirainek turkoen mendeko bazterrerantz, Galata atzean. Haienak egin du, galduak dira, kito!

Orduan zerbait gertatu da, intziri eta lantu-joka etsipenean dagoen Bizantzioko jende-araldeari mirakulu iduri zaiona. Behingoan itsas arnasa mehe baten ufakoa hasi du, behingo-behingoan harrotu du haizea. Eta berehala lau itsasontzien oihalak puztu dira, bete. Haizea, mira egindako, galdaturiko haizea esnatu da berriro! Triunfoan altxatu da galeoien branka, kolpe batean belak hanturik ontziek aurrea hartu eta bat-bateko oldarrean gaudituz dituzte haien inguruan jirabiraka dabiltzan jazarleak. Aske dira, bizirik atera dira. Murruetan dauden milaka eta milaka lagunak bozkariozko burrunbaren erdian, lehenengo, bigarrena, hirugarrena, laugarrena errenkadan sartu dira orain kai seguruan; berriro aditu da ixte-katearen hots karrankaria babesle tenkatzerakoan, eta haien atzean, itsasoan barreiu, indargabe geratu da turkoen barku txikien aldra guztia; beste behin, itxaropen-poza airean dago hodeitzar purpura-kolore baten moduan hiri itzal eta etsituaren gainean.

Mendiaz gaindi bide egin du ontzidiak

Gau bakar bat dirau setiatuen poztasun beroak. Iluntasunak, betiere fantasiaz beterik, zentzumenak kitzikatzen ditu, berebat itxaropena eta ametsen eden goxoa nahasten. Soilik gau

batez sinetsi dute setiatuek onik eta segurik daudela. Ezen nola lau itsasontzi horiek zori onez lehorreratu baitituzte soldaduak eta hornigaiak, hala orain, asterik aste, beste batzuk helduko dira, amesten ari. Europak ez ditu ahaztu, eta beren itsumustuko itxaronaldietan ikusi dute jada amaitua setioa, adoregabetu eta garaitua etsaia.

Alta bada, Mehmed ere ameslari bat da, beste mota bateko ameslaria eta askoz bakanetakoagoa, euren irmotasunaz ametsak errealitate bihurtzen dakiten horietakoa, alegia. Eta galeoietakoek Urrezko Adarreko portuan seguru daudela uste duten bitartean, hark plan bat diseinatu du, ausarkeria hain fantastikozkoa, non gerraren historian parekatzen baita Hanibalen eta Napoleonen egitandi adoretuekin. Bizantzio haren aurrean kokaturik dago urrezko fruitu bat bezala, baina hark ezin du harrapatu: sartu eta beretzeko oztopo nagusia da sakon ebakitako itsas-muturra, Urrezko Adarra, luzakin itxurako golko hori, Konstantinoplaren hegaletako bat segurtatzen duena. Itsasadar horretan barruratzea ia ezinezkoa da, sarbidean baitago Galata genoar hiria, Mehmedek neutraltasuna zor diona, eta handik zehar-lerroan burdinazko katea hedatzen da hiri etsairaino. Aurrez aurreko erasoz, beraz, bere flota ezin da golkoan barrendu; barnealdeko sakonunetik, genoarren eremua bukatzen den tokitik baino ezingo lezake flota kristaua eskuratu. Baina, nola eraman flota bat barne-baia horretaraino? Eraiki egin liteke bat, jakina, baina horrek hilabete eta hilabete hartuko luke, eta egon-narri gutxikoak ez du hain luze itxaron nahi.

Orduan Mehmedi asmo jeniala bururatu zaio: ateratzea bere ontzidia kanpo-itsasotik, non guztiz alferrikakoa den, eta, lur-zerrendan gaindi, Urrezko Adarraren barne-porturaino garraiatzea. Hatsa zintzurrean trabatzeko moduko ideia ausart honek —ehunka barkurekin lur-zerrenda menditsu baten haraindira igarotzea— aurretiaz hain zentzugabe, hain ezin eginetza dirudi, non bizantziarrek eta Galatako genoarrek ia ez baitzuten kontuan izaten euren kalkulu estrategikoan, lehenago erromatarrek egin bezala Hanibalekin eta geroago austriarrek Napoleonekin, Alpeetan gaindiko igaro azkar haietan. Eskarmentu lurtar guztiaren arabera, itsasontziak ur gainean baino ezin ibil daitezke, sekula ez flota bat mendi baten gainean. Horixe bera da, halere, garai orotan, deabruzko borondate baten benetako

bereizgarria, ezina errealtate bihurtzeko gai izatea; horretanxe da beti ezagun jenio militar bat, gerra bitartean gerra-arauez iseka egiten duela eta, hala gerta baledi, inprobisazio sortzailea erabiltzen duela metodo frogatuen orde. Horrela hasi da egundoko ekintza bat, historiaren urtekarietan ozta-ozta parekorik duena. Ezkutuan, Mehmedek ezin kontatuzko zurezko arrabolak ekarrarazten ditu, arotzek narak bihurtzen dituztenak, haien gainean gero itsasotik ateratako ontziak finkatu beharrez, ditxo lehor higikor baten gainean bezala. Aldi berean milaka laborari ari dira jada lanari ekiten, Pera-ko muinoan gora eta gero behera egiten duen mandabide estua ahal den neurrian garraiorako berdintzearren. Baina hainbeste beharginen bat-bateko metatzea etsaiaren aurrean estaltzeko, sultanak agindu du egun eta gau oroz Galata hiri neutralaren gainetik izugarritzko mortero-sua hausteko, bere-berez zentzugabea dena eta zentzu bakarra duena, arreta desbideratzea eta muino-eta-sakanean barna egiten ari diren ur batzuetatik besteetarako itsasontzien garraioa ostentzea. Etsaiak lanpeturik dabiltzan bitartean eta lurretik baino susmatzen ez dutela erasorik, zurezko alper biribil kontaezinak, olio eta gantzetan oparo zopatuak, abian jarri dira, eta itzelezko arrabola horren gainean, bakoitza bere lerroko irristailuan, barku bat bestearen atzetik mendian gora narran eraman dituzte hamaika idi-parek marinel bultzagileen laguntzaz. Gautu orduko, edozein begiradaren gordean, miraritzko aurrerabidea hasi da. Isil-isilik, nola ekintza handi oro, eta aurrez pentsatua, nola azeri-langintza oro, halaxe burutu da mirariaren miraria: ontzidi oso bat aitzinatuz doa mendiaz gaindi.

Gerla-ekintza denetan funtsezkoa da beti ezusteko alderdia. Eta hona hemen Mehmeden ohiz kanpoko talentuaren froga guzi-guzizkoa. Inork ez die inolako susmorik hartu haren asmoei —«Nire bizarreko ile izpi batek nire gogapenen berri jakingo balu, erauzi eginen nuke», esan omen zuen behin jeniozko zin-hausle honek—, eta ordena hobezinean, kanoiek arranditsu murruek ondoan burrunba egiten duten bitartean, haren agindua bete egin da. Apirilaren 22ko gauean, hirurogeita hamar barku itsaso batetik bestera garraiatuak dira mendi eta sakanean zehar, mahasti eta alor eta basoetan barrena. Biharamun goizean, Bizantzioko herritarrak ametsetan ari direlakoan daude: ontzidi etsai bat, aztikeriaz bezala ekarria, itsasoan dabil, bandera eta

xingolez apaindua eta eskifatua, haien golko ustez iritsezinaren barru-barruan; begiak igurtzi dituzte mirari hori nondik nora gertatu den ezin sinetsirik, baina turuta, tinbal eta danborrak ari dira jada poz-oihuka orain arte portuak babesturiko alboko murruren pean; Urrezko Adar guztia, salbu flota kristaua metatua dagoen Galatako gune estu neutral hura, kolpe jenial horri esker sultanarena eta bere armadarena da. Inork galarazi gabe berak ahal guztia du orain zubi mugikorretik bere osteak murru hauskorrago horren kontra gidatzeko: horrekin, hegal ahula mehatxatua da eta defentsa-lerro jada urria eremu zabalagoan mehetua. Gero baino gero estuago hertsirik da burdinazko ukabila biktimaren zintzur inguruan.

Europa, lagundu!

Setiatuak honezkero ez dira engainatzen. Badakite: orain urraturiko hegalean ere erasanak, zortzi milaren aurka ehun eta berrogeita hamar mila, ezin aurre egingo diete luzaz euren harresi eraitsien atzean, ahalik eta arinen laguntza iritsi ezean. Baina ez al du handikiro hitzeman Veneziako jaurerriak barkuak bidaltzea? Aita Santua ezaxola gera al daiteke Santa Sofia, kristaudiaren elizarik arranditsuena, paganoen meskita bihurtzeko arriskuan dagoela? Akaso Europa, liskarren gatibu, jelsia makur ugariak zatitua, ez da oraindik ohartu mendebaldeko kulturarentzako arriskuaz? Agian —horrela arintzen dute bihotza setiatuek— sorospen-flota aspalditik gertu dago eta haien egoera ezagutzen ez duelako beste ezerगतिक ez da deliberatzen belak betean honatzera, eta aski litzateke haiei jakinaraztea luzamendu hilgarrari honen erantzukizun eskerga.

Baina nola jakitun ipini flota veneziarra? Marmarako itsaso barku turkoez ase eta bete da; flota osoarekin ihesari ematea galbidea hartzea litzateke eta, gainera, norbanako bakoitzak axola duen defentsa ehun pare bat inguru soldadutan ahultzea. Hortaz, eskifaia eskaseko itsasontzi txiki bat baino ez arriskatzea erabaki da. Hamabi gizon guztira —historian justizia balego, haien izenak argonautenak bezain ospetsuak izan beharko lukete, eta, alabaina, bakar bat ere ez dugu ezagun— menturatu dira egitandiarri ekitera. Brigantin txikiaren gainean bandera etsaia igo da. Hamabi marinela turkoez eran jantzi dira turban edo tarbuxarekin, inoren arreta ez erakartzeko. Maiatzaren 3an, gauerd

aldean, kaiko ixte-katea laxatu egin da zaratarik atera gabe, eta ontzi ausarta arraun-kolpe motelduaz lerratuz doa kanporantz, ilunpean babestuta. Eta horra: miraria gertatu da, eta potinak, ezagutezina, Dardaneloen itsasartearen igaro du Egeo itsasorantz. Beti ausartasun gehiegia izaten da hain zuzen aurkaria herbalaztzen duena. Dena pentsatua du Mehmedek, ezin irudikatuzko hori salbu, potin bakan bat hamabi heroirekin mentura zedila argonauten dinako bidaia bat egitera bere flotan zehar.

Baina ametsondoaren gozakaitza: ezein veneziar oihalek ez du dirdira egiten Egeo itsasoan. Inongo ontzidirik ez dago laguntzera joateko prest. Veneziak eta Aita Santuak, denek ahaztu dute Bizantzio, denek, kanpandorre-politika txikian jardunda, alde utzi dituzte ohorea eta zin egina. Behin eta berriz errepi-katzen dira Historian une tragiko hauek, ezen, beharrezkoa litzatekeenean indar batu guztien juntadurarik gehiena europar kulturari babesa ematearren, printzeak eta estatuak ez direla gauza ezta lipar batez ere beren aurkakotasun txikiak bridatze-ko. Genoarentzat garrantzitsuagoa da Venezia atzeraraztea, eta Veneziarentzat, ostera, Genoa, ordu batzuetan bat eginda etsai komuna borrokatzea baino. Hutsik da itsasoa. Etsi-etsita, hama-bi zangarrak abant eta abant doaz euren intxaur oskol gainean uhartez uharte. Baina nonahi etsaiak okupatuak ditu portuak, eta honezkeru barku aliatu bat ere ez da barneratzen gerran dagoen lurraldean.

Zer egin? Hamabiotako batzuk arrazoiz daude adoregabe. Zertarako itzuli Konstantinoplara, ostera ere bide arriskutsua egitera? Harako itxaropen-bide handirik ez. Agian hiria erori da dagoeneko; nolana ere, bihurtuz gero, zain dute gatibutza ala heriotza. Baina —gain-gainekoak beti inork ezagun ez dituen heroiak!— itzultzera erabaki ziren gehienak. Mandatu bat eman diete, eta bete egin behar dute. Berri bila bidali dituzte, eta berriak etxeratu behar dituzte, etsigarrienak badira ere. Hartara, kala-potin hau, bakarrik, atzera menturatu da Dardaneloak, Marmarako itsasoa eta etsaiaren flota artetik zehar. Maiatzaren 23an, abiatu eta hogeitau egun geroago, jada aspalditik Konstantinoplan ontzia galdutzat hartu dutelarik, jada inork ez berririk ez itzulerarik buruan duelarik, hara hor tanpez harresitik zentinelaren pare bat banderak astinka, arraun-kolpe zorrotzekin itsasontzi txiki bat aitzina dator-eta Urrezko Adarretik. Orain turkoak,

setiatuen bozkario burrunbatsuak ernarazita, zurturik ohartu direnean brigantin hori, beraien uretan zehar lotsagabeki igaro dena bandera turko pean, barku etsai bat dela, oldarrean beren txalupetara jo dute alde guztietatik, oraindik kai babeslearen aurreanxe hura atzemateko. Une batez, Bizantziok dar-dar egin du milaka poz-oihurekin, Europak gogoan dituela eta ontzi hori mezulari moduan aurretik bidali duelako uste zori onezkoan. Baina gauean egia latza zabaldu da. Kristau-herriak ahaztu egin du Bizantzio. Setiatuak, beren kabuz onik atera ezean, bakarrik daude, galduta daude.

Erasoaren aurreko gaua

Sei aste ia eguneroko borroketan eman ondoren, sultana egonezin dago. Bere kanoiek harresiak errautsi dituzte puntu askotan, baina manatu dituen oldarraldi guztiak atzera botreak izan dira odoltsuki. Gudalburu batentzat bi aukera baino ez dira gelditzen: edo setioari uko egin edo, ezin konta ahalako eraso bakanen ostean, erauntsi handi erabakigarria prestatu. Mehmedek bere *paxak* gerra-kontseiluan bildu, eta bere borondate kartsuak kezka guztiak garaitu ditu. Maiatzaren 29rako finkatu da oldar gaitza, erabakigarria. Sultanak, bere ohiko irmotasunaz, prestalanak egin ditu. Jaiegun bat antolatu da, ehun eta berrogeita hamar mila gizonak, lehenengotik azkenekoraino, islamak agintzen dituen arau nagusi guztiak bete behar dituzte, zazpi garbaldiak eta egunean hiru aldiz otoiitz handia. Oraindio gelditzen zaizkien bolbora eta jaurtigaiak erresalbatu dira artilleria-karga bortxaturako; hiria erauntsia izateko umoturik egon dadin, hainbat soldadu talde sakabanatu dira erasorako. Goizean goizetik gauera arte, Mehmedek bere buruari ez dio ondo-atse-denik batere eman. Urrezko Adarretik Marmarako itsasoraino, kanpamentu eskergaren luzera osoan, kanpadenda batetik bestera dabil zaldi gainean, buruzagi bakoitzari berak berez adore ematen diola, soldaduei gogo berotzen diela. Psikologo ona denez, badaki nola ondoen piztu ehun eta berrogeita hamar mila baten borroka-garra muturreraino; eta hartara, promes ikaragarri bat egin du, bere ohore eta desohorerako ezin hobeki bete zuena. Promes hori haren aldarrikariek danbor eta turuten hotsetan zabaldu dute lau haizeetara: «Mehmedek zin dagi Alaren izenean, Mahomaren eta lau mila profeten izenean, zin dagi bere

aitaren, Murad sultanaren arimaz, bere umeen biziagatik eta bere sableagatik, ezen hiria armaz hartu eta gero bere soldadutropari emango diola hiru egunez arpilatzeari ekiteko eskubide mugagabea». Harresi horien barruan dagoen guztiak —etxeetako hornidura eta ondasunak, edergai eta bitxiak, txanpon eta altxorrak, gizonak, emakumeak eta haurrak— soldadu garaileena izan beharko du, eta berak uko egin dio dagokion zatiari, salbu ekialdeko erromatar inperioaren azken gotorlekua irabazkidatu izanaren omenari.

Soldaduek amorruzko bozkarioz hartu dute aldarrikapen basati hori. Zurrunbilo bat bezala, milaka askoren pozezko zaratots ozena eta «Allah-il-Allah» oihu amorratuak eroki hanturik heldu dira izuak harturiko hiriraino. «Jagma, Jagma!» Harrapakara, Harrapakara! Hitza gerra-orro bilakatu da, zirtaka ari dena danborren soinuarekin, marruka turuta eta tinbalekin, eta gauaz argi-itsaso alaia bihurtu da kanpamentua. Ikarak hartuta, setiatuek ikusi dute harresietatik ehunka argi eta zuzi sutan zabalduan eta muinoetan, eta zelan etsaiek tronpeta, txilibitu, atabal eta danbolinez ospatzen ari diren garaipena are garaitu baino lehen. Apaiz paganoen hil-opari aurreko zeremonia lazgarri eta zaratsua bezalakoa da. Orduan, baina, bat-batean, gauerdi irian, argi guztiak itzali dira kolpe batez Mehmeden aginduz; supituki, milaka ahotsen soinu suhar horri amaia eman diote. Alta bada, bat-bateko mututzeak eta ilunaren astunak bere mehatxuzko larderiaz oinaze are beldurgarriagoa eragin die durduzaturik belarri-erne daudenei, argitasun zalapartatsuen bozkario frenetikoak baino.

Azken meza Hagia Sofian

Setiatuek ez dute inongo mandatariren, inongo desertoreren beharrik, gertakizun zaiena jakiteko. Badakite, oldarraldia manaturik dago, eta gaitzezko beharkizun eta arrisku baten aierua pisu zaie hodeitzar ekaiztsu baten gisa hiri osoaren gainean. Biztanleria, erlijio-epalketa eta -liskarretan zatitua, elkartu egin da azken orduotan; beti muturreko premiak lortzen du Lurrean batasunaren ikuskizun paregabea sortzea. Denok jakitun izan daitezen zer aldeztera behartuak dauden —fedea, gain-gaineko iragana, kultura komuna—, *basileus*ak zeremonia zirrargarri bat antolatu du. Haren esanera, herri osoa elkartu da, ortodoxoak

eta katolikoak, apaizak eta legoak, zahar-gazteak, prozesio bakar baterako. Inork ez du behar, inork ez du nahi etxean geratu. Aberatsenetik behartsueneraino ilaran jarri eta denok Kyrie eleison abestu dute jaieraz, aurrena hiri-barrua eta gero kanpo-harresiak ere ibili dituen hotsandiko segizioan. Elizetatik ikono eta erlikia sakratuak atera eta errenka-buruan ipini dituzte; harresian arrakalak egin diren leku guztietan santuren baten irudia zintzilikatu dute, fedegabeen erauntsia atzera bota dezan mundu honetako edozein armak baino hobeto. Aldi berean, Konstantino enperadoreak senatariak, nobleak eta komandanteak bildu ditu, hondarreko hitzaldi batekin haien bihotzetan kemena pizteko. Eta, nahiz ezin dizkien agindu Mehmedek bezala neurrigabeko harrapakinak, hitz egin die kristaudiarentzat eta mendebaldeko mundu osoarentzat lortuko duten ohoreaz, atzera botatzen badute azkeneko oldarraldi erabakigarri hori, eta gal-arriskuaz, su-emaileak garaituak badira. Mehmedek eta Konstantinok, bata-biok dakite: egun horretan dago mende eta mendetako Historia.

Orduan hasi da azkeneko eszena, Europarentzat hunkigarrietako bat, ezin ahantzizko gainbehera-estasi bat. Hagia Sofian, artean munduko katedralik guztiz ederrenean, bi elizen arteko adiskidetze-egun hartatik bataren zein bestearen fededunek abandonatu izandakoan, elkartu dira herioak begiz joak. Enperadorearen inguruan bilduta gorte osoa dago, leinargia, apaizeria greko eta erromatarra, soldadu eta marinel genoar eta veneziarrak, denak burdin soinekoz jantzita eta armak eskura: eta haien atzean belaunikaturik, isilik eta begirunetsu, milaka eta milaka itzal marmarrean... kezkek eta ikarak hartutako herria; eta kandlek, neketan ganga trenkatuen ilunarekin borrokan, argi egin diote aho bateko gorputz bakar bat bezala otoitz ari den jendetza abaildu horri. Bizantzio da, buru eta bihotz, Jainkoari erreguka dagokiona. Patriarkak orain ahotsa goratuz deialdia egin die, kantuz kantu erantzun diote koruek, berriz ere barrunbe horretan soinu egin du Mendebaldeko betiko ahots sakratuak, musikak. Orduan, bata bestearen atzetik, lehenik enperadorea, aldarera igo dira, fedearen pozgarria jasotzera, eta otoitzaren etengabeko uhinaldiak durundi eta burrunba egin du barrunbe itzelean, airean gora gangetaraino. Hasi egin da ekialdeko erromatar inperioaren azken hil-meza, fede kristauak azkenengoz bizi du-eta Justinianoren katedralean.

Zeremonia urragarri honen ondoren, enperadorea bizkor itzuli da bere jauregira, bere agindupeko eta zerbitzari guztiei barkamena eskatzeko, inoiz bere bizialdian haien kontra egin izandako edozelango bidegabekeria dela eta. Gero, zaldi gainean jarri eta —Mehmed bere aurkari handiaren antz-antzera, ordu berean— alderik alde inguratu ditu harresiak, soldaduak akuilatzerara. Honezkeroko gau iluna da. Ahotsik batere ez da entzuten, ezta arma-hotsik ere. Bihotza kolkoan, haatik, milaka gizon-emakume egunaren eta herioaren zain daude harresien barruan.

Kerkaporta, atzenduriko atea

Goizeko ordu batean erasorako agindua eman du sultanak. Estandarte ikaragarri handia zabaldu da eta «Allah, Allah il Allah» deiar-hots bakarrean ehunka mila gerrari-jende arma eta zurubiekin, soka eta arpoiekin oldarrez amildu dira harresien kontra; aldi berean, danbor guztiak errepikan, turuta guztiak orroka, dunbal, tinbal eta txirulen zalaparta zorrotzak lotu zaizkie jende-samalden alarauei eta kanoien burrunbari, aldagoi bat bakarra sortzeraino. Errukirik gabe, hasieran trebatu gabeko osteak, *basi-bozukurak*, jaurtikiak dira harresien kontra: haien gorpuz erdi biluziek, sultanaren eraso-planaren arabera, balio dute nolabait kolpetako moduan baino ez, etsaia unatu eta ahultzera igorriak, tropa nagusiek eraso erabakigarriari ekin baino lehen. Ehunka zurubi daramatzatela, korrika doaz ilunpetan, zartailuak akuilaturik, almenetan gora dabilta, behera botek dira, oldar eta oldar, behin eta berriz, ez baitute beste itzulbiderik. Haien atzetik, baliorik gabeko giza gaia, soil-soilik hil-opari gisa eskainia, jadanik tropa nagusiak daude, behin eta birritan aitzinekoei bultzaka baitatoz herio ia ziurrera. Oraindik defendatzaileek eusten diote nagusitasunari, haien kota-mailen aurka ez dute zer eginik ezin konta ahalako gezi eta harriek. Baina benetakoa arriskua —eta hori Mehmedek zuzen kalkulatu du— nekea da. Armadura astunetan iraunkorki borrokan aritzeak, aldi oro eraso gune batetik bestera jauzian behin eta berriro oldartzen diren tropa arinen aurka, agortu egiten du haien indarren gehiena defentsa behartu horretan. Eta orain —bi orduz borrokan egin ondoan goiz-argia egun-atari da— bigarren atake-tropak, anatoliarrenak, aurrera egin duenean, gudua arriskutsuago bihurtu da. Izan ere, anatoliar horiek gerlari diziplinatuak dira, ongi

entrenatuak eta berdin kota-mailaz gerrikatuak; gehiago dira, gainera, eta guztiz atsedenduta daude, defendatzaileek inbasio-tik orain gune bat orain bestea babestu behar duten bitartean. Alabaina, oraindik ere erasotzaileak alde guztietarik atzeraziak dira, eta sultanak bere azken erreserbak erabili behar ditu, jenezaroak, oinezko soldadu-tropa bikaina, otomandar armadaren eliteko zaintzaileak. Hura bera jarri da hamabi mila soldadu gazte hautatuen buruan, garai hartan Europan ziren onenak, eta oihu bat bakarria entzunda jauzi egin dute arerio akituen gainera. Orain da berebiziko ordua hirian kanpai guztiak jo eta jo aritzeko, haien deira harresietara etor daitezen borrokari lotzeke geratzen diren azkenekoak, itsasontzietara joateko marinelen bila, orain abian da-eta zirt edo zart egiteko benazko gudua. Defendatzaileen zoritxarrerako, harrikada batek jo du genoar troparen buruzagia, Giustiniani kondotiero bipila, larri zauriturik ontzietara buruz atoian eramana, eta gertaera horrek une-unean kordokarazi du defendatzaileen kemena. Baina ja enperadoreak berak aurrea hartu du lasterka larderiatzko inbasioa eragozteko, berriro ere lortu dute erasorako zurubiak lurrera botatzea: bi ir-motasun aurkez aurke, azken muturreraino, eta, hatsaldi batez, badirudi Bizantzio salbatua dela, bizibehar gorena nagusitu da erasorik basenaren aurka. Hartan-honetan, kolpetik, ezusteko makur batek, Historiak batzuetan bere ezin ulertuzko xede-helburuetan berekin dakarren segundo misterioitsu horietako batek, Bizantzioren patua erabaki du.

Gutziz egiantzik gabeko zerbait gertatu da. Harresiaren kanpoko aldean egindako arrakala askoetako batetik, berez eraso-gune esandakotik ez oso urruti, isilka sartu dira pare bat turko. Ez dira barruko harresiaren kontra arriskatu. Horratik ere, hiriko lehenengo eta bigarren hesien artean noraezean ikusmiran dabilzan bitartean, aurkitu dute hiriko barne-hormako ate txikietako bat, Kerkaporta deiturikoa, hutsegite ulertezin baten kariaz zabalik geratu dela. Ate txiki bat besterik ez da, bake-aroan oinezkoek erabiltzen dutena portale handiak artean itxita izaten diren ordu horietan; ikuspegi militarretik inongo garrantzirik ez duelako hain zuzen, bart gaueko asaldura orokorrean izan badela ere ahaztu dute nonbait. Jenizaroei, bada, beren harrimenaren handiz gertatu zaie tinko zainduriko gotorlekuaren erdian ate hori zabaldu dietela baratxe-baratxe. Hasieran susmatu dute

gerra-amarru bat dela, egiantz gutxiegiak eta zentzugabea baiteritzote, bestenez ere baluartearen arrakala bakoitzaren, artesi bakoitzaren, sarbide bakoitzaren aurrean milaka gorpu pilatzen diren eta olioak irakinean eta gezi-zaparradak jausten ari zaizkien bitartean, hemen hiriaren erdigunera daraman atea, Kerkaporta, zabalik egoteari igande bare-atsegin batean bezala. Edozelan ere, laguntza bila doaz, eta, ezelango trabarik gabe, soldadu talde oso bat sartu da hiri barnera, kanpoko murruren defendatzaile oharkabeei ezustean eta atzetik erasoka. Gudari batzuek beren lerroen atzean antzeman zituzten turkoak, eta zorigaiztoz goratu da gudaldi orotan kanoi guztiak baino hilgarriagoa izaten den garrasi hori, zurrumurru aizunaren garrasia: «Hiria erori da!». Gero eta gorago, orain turkoak zantzoka ari dira: «Hiria erori da!», eta garrasi horrek erresistentzia oro puskatu du. Tropa mertzenarioak, salduak izan direlakoan, erretiratu dira beren postuetarik, portuan eta barkuetan garaiz babespean jartzeko. Alferrikakoa da Konstantino zenbait leialekin oldarrean atera izana sarkinen aurka; nahasialdiaren erdian, inork ezagutzeke zauritua gertatu da, eta biharamun arte, gorpu multzo batean aurkitu ziren urrezko arranoarekin apainduriko oinetako purpura kolorekoei esker, ezingo da egiaztatu Ekialdeko azken enperadoreak bizia galdu duela ohorez erromatar maneran, bere inperioarekin batera. Halabeharrek fits batek, Kerkaportak, atzenduriko ateak, erabaki du munduaren historia.

Gurutzea lur joa

Batzuetan Historiak jolas egiten du zenbakiekin, zeren mila urte zehatz igaro ondoren bandaloek buruturiko Erromako arpilatze gogoangarritik, orduantxe hasten baita Bizantziokoa. Izugarritzko, bere zinetan leial, Mehmedek, garaileak, emandako hitzari eutsi dio. Itsumustuan, lehenbiziko masakrearen ostean, bere gerrariei harrapakintzat eman dizkie etxeak eta jauregiak, elizak eta monasterioak, gizon-emakumeak eta haurrak, eta infernuko txerrenak bezala milaka oldartu dira kaleetan barrena, bata bestearen hurren aurrea hartzeko. Lehen erauntsia elizen kontra jo dute, han diz-diz egiten dute urrezko ontziek, han bitxie argia darie, baina etxe batean indarka barruratzen direnean, segituan goititzen dituzte zutoihalak, atzetik datozenek jakin dezaten hor bilkina jadanik dagoela bahiturik; eta bilkin horiek

ez dituzte huts-hutsik osatzen harribitxiek, oihalek, diruak eta garraia daitezkeen ondasun guztiek, emakumeak ere salerosgai dira haremetarako, gizon eta haurrak esklabo-merkaturako. Saldoka, elizetan babes hartu duten dohakabeak gidatuak dira zartailuaren pean; zaharrak, alferreko aho eta ezin salduzko kargatzat joak, erailak; gazte-jendea, kabalen eran elkar lotuak, handik narras eroanak, eta lapurretarekin batera piztu da amorrzko suntsiketa zentzugabea. Gurutzariek beren arpilatze ziur asko berdinki lazgarriaren ostean nahikoa eta gehiegi izanda utziko zuten erlikia baliotsu eta artelanan multzoa ere txikitu, triskatu, tarratatu egin dute garaile amorratuek; irudi preziatuak zehatuak dira, estatuarik ederrenak mailu-dangaka birrinduak; liburuak, non mendetako jakinduria, greziar pentsamendu eta poesiaren aberastasun hilezkorra gordailutu behar zen betiraun guztirako, erraustuak dira edo koplarik gabe boteak. Gizadiak sekula ez du oso-osorik ezagutuko ondikozko une hartan Kerkaportako ate irekitik barrena sartu zen makurraren heina, ezta ere espirituaren munduak zenbat galdu zuen Erroma, Alexandria eta Bizantzioko arpilatzeetan.

Arratsaldera arte, garaipen handiaren ondoan, dagoeneko sarraskia bukatu denean, Mehmed ez da hiri konkistatuan sartu. Harro eta beltzuri, bere zaldi arin-ederraren gainean doa harra-paketaren eszena basatien aitzinean, begiak bihurtzeke; bere hitzari eutsirik, garaipena eman dioten soldaduei ez die eragotzi euren izu-laborrizko afera. Bere lehenbiziko ibilia, baina, ez du etekina ateratzeko asmoz egin, dena irabazi du eta; burgoi zamalkatu da katedralari buruz Bizantzioko buru argi-jariorantz. Berrogeita hamar egun pasatuxe, mineriz beterik, begiz joa eduki du bere kanpadendatik Hagia Sofiako ezin iritsizko kupula distiratsua; orain ahal du, garaile moduan, haren brontzezko atea zeharka igaro. Baina berriz ere Mehmedek galga eman dio bere irrikari: lehen-lehenik Alari eskerrak eman nahi dizkio, eliza hori hari sagaratu baino lehen menderen mendetan. Apalkiro, sultana zalditik jaitsi da eta burua lurreraino makurtu du otoitz egiteko. Gero eskukada bat lur hartu eta bere buruaren gainean barreiatu du, hilkorra dela eta bere garaitzaren handiusteaz harrotzerik ez duela gogoratzeko. Eta orain, ez lehenago, Jainkoari bere umiltasuna erakutsi ondoren, sultana zutitu eta sartu da,

Alaren lehenen zerbitzaria, Justinianoren katedralean, Jainkotiar Jakinduriaren elizan, Hagia Sofia elizan.

Jakin-min eta hunkiduraz, sultanek jauretze bikaina begietsi du, bobeda garaiak, haitzurdin eta mosaikoen erlantz dizdizariak, arku leunak, ilunpetik argirantz goititzen; bera barik, bere Jainkoa dela sentitu du, otoitzerako sekula eraiki izandako jauretze gailen horren jabea. Berehala iman bat deiarazi du, pulpitura igo dena bertatik kredo mahomatarra aldarrikatzera; bien bitartean, *padixahak*, begitartea Meka aldera itzulia, mintzoa goratuz lehen otoitza egin dio Alari, munduen jaunari, basilika kristau horretan. Biharamunean, lehengo fedearen ikur guztiak erauzteko mandatua jaso dute beharginek; aldareak errotik atereak dira, mosaiko deunak gainean kareztatuak, eta Hagia Sofiako gurutze txit altua, zeinak mila urtez bere besoak zabaldu dituen Lurraren min oro besarkatzeko, amildu da burrunba ilunean lurra joz.

Harrizko soinu ozenak durundi egin du ozenki elizan barrenara, eta handik urrutira barreiatu da, erorketa horren ondorioz dar-dar egin baitu Mendebalde osoak. Lazgarri, albistea Erroman zabaldu da, Genoan, Venezian, Florentzian; ostots ohartarazle bat bezala, oihartzuna du Frantzian, Alemanian gaindi, eta, ikarak hartuta, Europak ezagun du ezen, bere ezaxola elkorrari esker, Kerkaportan zehar, atzenduriko ate galgarrian barrenara, oldarka sartu dela ezbeharreko botere suntsitzaile bat, mendeak joan mendeak etorri haren indarrak bridatu eta geldiaraziko dituen. Historian, alabaina, gizakion bizitzan bezala, damu izateak ez du aukera galdu bat itzultzen, eta milaka urtean ez da berrerosten ordubete bakar batean huts egindakoa.

3

IHESA HILEZKORTASUNARI BURUZ OZEANO BAREAREN AURKIKUNTZA

1513ko irailaren 25a

Itsasontzi baten tresnatzea

1493an, Amerika aurkitu berritik bere itzultze-bidaian, Kolonek, bere garaipenezko sarraldian Sevillako eta Bartze-lonako kale mukuru beteetan zehar, ezin konta ahala gauza baliotsu eta bitxitasun erakutsi ditu. Arraza ordu arte ezezagun bateko azal gorridun gizakiak; egundo ikusi gabeko animaliak, papagai koloretsu oihulariak, tapir geldoak; landare eta fruitu arraroak, laster European beren sorgunea aurkituko dutenak, indi alea, tabakoa eta koko-intxaurra. Hori guztia miresgarri zaio poz-oihuka ari den jendalde ikusnahiari, baina errege-erregina bikoteari eta haien aholkulariei zirrarakik handiena eragin ziena dira pare bat kutxatxo eta saskitxo urre. Ez da asko Kolonek India Berrietatik dakarren urrea, indigenekin trukatu edo haiei erauzitako apaingarri gutxi batzuk, barratxo pare bat eta zenbait eskukada pikorta solte. Urre hautsa, urrea baino gehiago. Harrapakin osoak gehienez ere berrehun bat dukat egiteko balio izango zuen. Baina Kolon ameslari jenialak, zeinak, fanatiko, beti sinetsi baitu hain zuzen sinetsi nahi zuena, eta bere India-rako itsasbidearekin zuzen zegoela frogatu baitu aintzaz beterik, zinezko beroaldi batean ahoberokeriaz dio hori lehen erakuskari mendrena besterik ez dela. Bide zuzenetik jakin omen du uharte berri horietan urre-meatzte itzelak daudela; han, metal baliotsua axal-axalean dagoke, lur-geruza mehe baten azpian. Pala arrunt batekin erauzi egin liteke aise baino aiseago. Hegoalderago, baina, badira erresumak, non erregeek zurrut egiten duten urrezko ontzietan eta non metal horrek balio duen Espainian beruna baino gutxiago. Gogoia bahiturik, erregeak, beti-beti diru premian,

entzun egin du berea den Ofir berri horretaz mintzatzten. Oraindik ez da aski ezaguna Kolonen erokeria noblea, bere agintzez duda egiteko. Berehala tresnatu dute flota handi bat bigarren bidaldirako, eta orain ja ez da beharrezkoa atabalariek hots handia ateratzea marineleria errekrutatzeke. Ofir aurkitu berriaren albisteak, urrea esku hutsez bil daitekeela, alegia, Espainia osoa eroarazi du: ehunka, milaka aurkeztu dira El Doradorantz, urrearen erresumarantz, abiatzeko.

Alta bada, a zer-nolako jende-parrasta uher diru-gosea, orain ugari hartaratzten dena hiri, herri eta auzo guztietarik. Aurkezten dira ez bakarrik beren armariak goitik beheraino urreztatu nahi dituzten aitoren seme prestuak, ez bakarrik abenturazale ausartak eta soldadu bulartsuak, baizik Espainiaren zolda eta zabor guztia ere jarioan doa Palos eta Cádiz aldera. Lapur sutan markatuak, urre-lurrean irabazi handiagoko langintza bilatzen duten bide-ohoinak eta mandilak; hartzedunengandik ihesi nahian dabiltzan zorpetuak, emazte liskartiengandik itzuri nahi duten senarrak; etsiak hartutako *desperado* eta bizitzaren itsasoan galdutako guztiak. Burdina goriak markatuak edo aguazilek bilatuak aurkezten dira flota osatzeko, porrot egindako gizoste askotariko bat, ukaldi batez aberasteko erabakia, eta hartarakoxe edozein basakeria eta edozein delitu egiteko prest dagoena. Hainbestekoa da bridarik gabeko buru-berotzea batak bestea konbentzitzeko Kolonen fantasiaz, alegia, lurralde haietan urre-mokorrak begi aurrean distira daitezen pala-kolpe bat besterik behar ez dela, ezen joankinetan estutasunik gutxien dutenek morroiak eta mandoak hartzen dituzten azkar eta kopuru handitan metal baliotsua eraman ahal izateko. Espedizioan onartua izatea lortzen ez duenak bortxaz baliatuta erdiesten du; menturazale oiesek, errege-baimena eskatzen asko tematu gabe, beren kabuz tresnatzen dituzte itsasontziak, lehenbailehen haratu eta urrea, urrea, urrea pila-tzeko asmoz; zartada bakar batean, bazter-nahasle eta gizatxar arriskutsuenetarik libre gelditu da Espainia.

Hispaniola —geroago Santo Domingo edo Haiti— uharteko gobernariak izu-larriz ikusten ditu bere gomendio utzitako uhar-tea gainezka betetzen duten deitu gabeko kanpotar horiek. Urtetik urtera, itsasontziek zama berria ekartzen dute, eta laneko lagun gero eta petralagoak. Baina heldu berriak ere mingoski atzipetuak sentitzen dira, hemen ez delako inondik inola kausitzen urrea

solte kaleetan, eta astakirten horiek oldartzen zaizkien indigena dohakabeei ezin zaie kendu ezta urre-ale bakar bat gehiago ere. Beraz, aldra horiek alderrai eta alferkerian ibiltzen dira hara-hona lapurretan, indio zorigabeak izuarazten, gobernaria izuarazten. Hau alferrik saiatzen da haiek kolono bihurtzen, lurrak emanez, haiei aziendak banatuz eta are giza azienda ere ugari, bakoitzari hirurogei edo hirurogeita hamar inguru indigena esklabo gisa, alegia. Baina bai leinu oneko kapareek nola lehengo bidelapurrek ez dute baserri-lanetan aritzeko asmo handirik. Ez dira honaino etorri aletegiak eraiki eta azienda begiratzeko; ereintza eta uz-taz arduratu beharrean, indio dohakabeak martiritzen dituzte —urte gutxiren buruan, biztanleria osoa sakailatuko dute— edo leotzetan itxita bukatzen dute. Denbora laburrean gehienak hainbesteraino daude zorpetuta, non, euren etxaldeen gain, longaina, kapela eta azkeneko atorra ere saldu behar dituzten, lukurari eta salerosleek lepotik gora zorpetuta.

Hargatik, Hispaniolan dauden porrot egindako haien-tzat guztientzat gogo-altxagarria suertatzen da ezen uhartean ospe ona duen gizon lege-kontuetan aditu batek, *batxiler* Martín Fernández de Encisok, 1510ean zuzkitu dezala itsasontzi bat eskifaia berriarekin *terra firmako* bere koloniarri laguntza emateko. 1509an bi abenturazale ospetsuk, Alonso de Ojedak eta Diego de Nicuesak, pribilegioa jaso zuten Fernando erregearengandik Panamako itsasartearen eta Venezuelako kostaldearen inguruetan kolonia bat fundatzeko, presaka antzean Urrearen Gaztela deitu ziotena. Izen ozenaren lilurapean eta amarruek nahasia, mundu gutxi ikusitako sasiletraduak bere ondasun guztia bahian eman zuen ekimen horretan. Baina Urabako golkoan San Sebastian sortu berriko koloniatik ez dator urrerik batere, hel-oihu zorrotza baizik ez. Tripulazio erdia deuseztatua izan da bertakoekiko borroketan, eta beste erdia gosez hil. Diru inbestitua berreskuratzeke, Encisok bere ondasun hondarra arriskatu eta hel-espedizio bat antolatzen du. Hispaniolako gaiztagin eta alfer zorri guztiek, Encisok soldaduak behar dituela jakitun egin orduko, aukeraz baliatu nahi dute handik hanka egiteko. Handik ospa egin behar dute, hartzekodunengandik, gobernari zurrunaren zaintzapetik ihesi! Baina hartzekodunak ere jakinaren gainean daude. Konturatzten dira beren zordunik handienak sekulakotzat itzuri nahian dabilzkiela, eta, hortaz, gobernaria hertsatzen dute inori ere utz

ez diezaion haren baimen berezirik gabe alde egiten. Gobernariak ameto ematen die haien desirei. Kontrol estu bat ezartzen da: Encisoren itsasontziak portutik kanpo geratu behar du, gobernuaren txalupak patruilan ibiltzen dira, inor ontzian ezkutuka sartzea eragozteko. Eta, neurrigabeko herraz, *desesperado* aborrituek, heriotzari beldur gutxiago diotenak lan zintzoari edo zorreatatik kartzelari baino, ikusten dute nola Encisoren itsasontziak abenturarako bidea hartzen duen oihalak betean eta haiek gabe.

Kutxa handiko gizona

Oihalak betean, badao Encisoren ontzia Hispaniolatik kontinente amerikarrera; dagoeneko, uhartearen soslaiak itsasoarekin berdintzen dira ostertz urdinean. Itsasbide lasaia da, eta behingoz ez dago ezer ohargarririk; izatekotan ere, soilik ezen ohiz kanpoko indarra duen ehiza-zakur beldurgarri batek —*Bece-rrico* ospetsuaren semea da, eta bera ere *Leoncico* izenpean ospetsu egin da— korri egiten duela urduri gainaldean alde batetik bestera, han-hemen usainka. Inork ez daki norena den ikaragarritzko aberea, ezta nola ontziratu den ere. Azkenean konturatu dira zakurra ez dela aldentzen azkeneko egunean ontzira igo zuten bizigai-kutxa bereziki handi batetik. Horratx, bada, orduantxe arras ustekabea, kutxatzarra bere-berez ireki eta bertatik atera da, ezpata, kasko eta ezkutuz ongi hornitua, Santiago Gaztelako santua bezala, hogeita hamabost urte inguruko gizon bat. Vasco Núñez de Balboa da, horrelaxe eman baitu bere ausardia eta asmamen harrigarriaren lehen froga. Jerez de los Caballeros-en familia leinargi batean sortua, soldadu soil gisa Rodrigo de Bastidas-ekin batera mundu berrirako bidean itsasoratu eta, azkenean, hainbat itzulinguru eman ostean, Hispaniolaren parera hondoratu zen. Gobernaria alferrik saiatu da Núñez de Balboa kolono on bihurtzen; hilabete gutxiren ondoren, berari esleituriko lurak bertan behera utzi ditu, eta hainbestearaino dago porrot egin, non ez baitaki nola libratu bere hartzedunengandik. Baina beste zordun berankorrek ukabilak itxita Encisoren itsasontzian ihes egitea ezindu dieten gobernuaren txalupai tinko begira daudela, Núñez de Balboak adorez iskin egin dio Diego Kolonek paraturiko segurtasun-lerroari, bizigai-kutxa huts baten barruan ezkutatua bere konplizeek ontzira eramana azaldu delarik, non joaneraren tarrapatari inor ez den ohartu amarru mutiriaz. On-

tzia berarengatik ez itzultzeko moduan kostatik aski urrutiratu dela ziur dagoenean baino ez du agerraldia egingo bidaiari ezku-tuak. Orain han dago bera.

Enciso *batxilerra* legegizona da eta, sasiletradu gehienak bezala, erromantikorako isuri mendrea du. Kolonia berriko Al-kate gisa, poliziaburu gisa, ez dago prest han jasateko ordaindu gabe alde egiten duten bezeroak eta ustelak. Horregatik, zakar azaldu dio Núñez de Balboari ez duela berekin eramateko asmo-rik, baizik begiztaturiko aurreneko uhartean utziko duela, bertan inor bizi den zein ez berdin diolarik.

Alta bada, ez doa hain urruti, zeren itsasontziak Urrearen Gaztelarako norabidea hartu ahala topatu baitu —zerbait mira-rizkoa garai hartan, noiz ere itsaso oraindik ezagungabe haietan ibiltzen baitziren dozena pare bat ontzi gehienez— beste kara-bela bat, eskifaia oso ugaria duena, laster bere izenak mundu zabalean sona handia izango duen gizon baten agindupean, Francisco Pizarro. Haren bidaiariak Encisoren koloniatik datoz, San Sebastiandik. Hasieran matxinoak direla uste dute, eta euren postuak indarka utzi dituztela. Baina Encisoren izurako jakina-razi diete jada ez dela San Sebastian existitzen, haiexek direla kolonia ohiko azkenekoak, Ojeda komandanteak handik alde egin duela itsasontzi batekin, eta gainerakoek, bi brigantin baino ez zeukatenez, hirurogeita hamar bat pertsona gutxi-gehiago hil zitezen arte itxaron behar izan zutela bi ontzi txiki horietan leku aurkitzeko. Bi brigantinetako batek, bestalde, hondoa jo du; Piza-rroren hogeita hamalau gizonak dira Urrearen Gaztelatik bizirik ateratako azkenak. Orain nora joan? Encisoren jendeak, Pizarro-ren istorioak entzun ondoren, gogo gutxi dauka bertan behera utzitako kokaguneko zingira-klima izugarriaren eta bertakoen gezi pozoituen arriskupean jartzeko. Hispaniolara itzultzeari au-kerak bakarria deritze. Une arriskutsu horretan, Núñez de Balboak aurea hartu du hitzetik hortzera. Rodrigo de Bastidasekin egin lehen bidaiatik ezagun du —hala mintzo da— Erdialdeko Ame-rikako itsasertz osoa, eta gogoan du orduan ibai-bazter urrez aberats batean aurkitu zutela Darien izeneko leku bat, non ber-tatiarrak onez-onezkoak ziren. Han eta ez beste toki zorigaiztoko horretan ezarri behar dute jendegune berri bat.

Aurki tripulazio osoa Núñez de Balboaren alde jarri da. Bere aholkuari men eginda, Darien aldera jo zuten, Panamako ist-

moan, han behingoz ohiko sarraskia eragin zutelarik bertakoen artean. Eta, harrapaka kentzen dizkieten ondasunetan urrea ere aurkitzen dutenez, bertan kokaleku bat eraikitzea erabaki dute, hiri berriari —esker oneko keinu elizkoi batean— Santa Maria de la Antigua del Darien izena emanda.

Maila-igoera arriskugarria

Laster, *batxiler* Encisok, koloniako zoritxarreko finantziariak, ikaragarri deitoratuko du kutxatzarra —eta haren barruan Núñez de Balboa— bota ez izana garaiz karel gaintetik, handik aste gutxira gizon ozarregi horrek botere osoa dauka-eta bere eskuetan. Diziplina eta ordenaren ideian hazitako sasiletratu moduan, alkate nagusi gisa, Enciso, gobernari bat aurkitzen ez den aldian, saiatzen da kolonia Espainiako Koroaren mesedetan administratzen, eta indiar txabola txirotik bere ediktuak promulgatzen ditu hain zuzen bere Sevillako bulegoan balitz bezain artoski eta zorrozki. Artean gizakiek inoiz zanpatu gabeko oihan horren erdian, soldaduei debekatu die indigenengandik urrea merke-zurrean eskuratzea, Koroaren erreserba bat delako; jende-elementia horri ordena eta zuzenbidea ezartzen saiatzen da, baina abenturazaleak sen hutsez arma-gizonaren alde jarri eta letra-gizonaren aurka matxinatzen dira. Sarri Balboa da koloniarren egiazko nagusia. Encisok ihes egin behar du bizirik aterako bada, eta azkenean, *terra firman* ordena ezartzeko erregeak izendatu gobernarietako bat, Nicuesa, heldu denean, Balboak ez dio lehorreratzen ere utzi, eta dohakabea, erregeak maileguz emandako lurretik egotzia, ito egin da itzultze-bidaldian.

Núñez de Balboa, kutxatzar batetik irtendako gizona, koloniaren nagusia da orain. Baina, arrakasta gorabehera, ez dabil bere gogara, erregearen kontrako matxinada-delituan erori delako eta, hark izendaturiko gobernariak bere erruz heriotza aurkitu duenez, ezin duelako inolatan barkamenik itxaron. Badaki Enciso ihes eginga Espainiarako bidean doala bere salaketarekin eta goiz edo berandu epaitegietara eramán beharko dela bere matxinada. Baina, edonola ere, Espainia urruti dago, eta berari, itsasontzi batek ozeanoa birritan gurutzatu dezan arte, aski denbora gelditzen zaio. Azkar bezain ausart, botere usurpatua ahalik eta luzaroen bermatzeko bide bakarra bilatzen du. Badaki garai hartan arrakastak edozein krimen zuritzen duela eta Koroaren altxorrera

igorririko urre sail oparo batek edozein zigor-auzibide baretu edo luzatu ahal duela; beraz, lehenbizikoa urrea lortzea da, urrea bostere baita! Francisco Pizarroekin batera, inguruetakoa indigenei uztarrria ezarri eta lapurreta egiten diete, eta ohiko sarraskien erdian garaitza erabakigarri bat lortu du. Kazikeetariko batek, izenez Careta, zeinari azpikeriaz oldartu zaion eta haren abegi ona modurik zabarrenean bortxatu duen, aholku eman dio, jada hiltzeko xedatua, ezen indioak etsai bilakatu beharrea hobe lukeela bere tribuarekin itun bat ixtea, eta leialtasun-bermetzat bere alaba eskaini dio. Núñez de Balboa berehala ohartu da bertakoeren artean lagun ahaltsu eta fidagarri bat izatearen garrantziaz; Caretaren eskaintza onartu du, eta, are harrigarriago dena, bere azken ordua arte harreman ezin samurragoa izango du neska indiar horrekin. Careta kazikearekin batera inguruetakoa indio guztiak menderatu ditu, eta haien artean halako aginpidea bereganatu du, non azkenean tribu-buru ahaltsuenak, izenez Comagre, adeitsuki gonbidatu baitu berarekin jatera.

Tribu-buru ahaltsuenari egindako bisita horrek berekin dakar erabaki historiko bat Vasco Núñez de Balboaren bizialdian, orain arte *desperado* eta Koroaren aurkako matxino bat besterik izan ez baita, eta Gaztelako auzitegien aldetik urkabea edo aizkora besterik itxaroterik ez baitzuen. Comagre kazikeak bere harrizko etxe zabalean hartu du, zeinaren aberastasunak erabat txundituta utzi baitu Vasco Núñez, eta bere-berez bere mahailagunari opari egin dio lau mila ontza urre. Baina orain kazikeari suertatzen zaio txunditzea, zeren, hainbesteko begirunez hartu dituen zeruaren semeek, jainkoen pareko kanpotar ahaltsuek, urrea ikusi orduko, adio gero haien duintasunari. Kateetatik lokabetutako txakurrak bezala, jauzi egin dute batak bestearen gainera, ezpata zorrotik ateratzen, ukabilak ixten, elkarren aurka garrasiz eta amorrusuz, nor bere urre parte aldarrika. Zurturik eta arbuioz beterik, zalaparta amorratuari beha gelditu da kazikea: halaxe txunditzen dira Lurreko bazter guztietan naturkume oro kulturkumeen aurrean, zeintzuei eskutada bat metal horizta baliotsuago iruditzen baitzaie euren kulturaren erdiespen espiritua eta tekniko guztiak baino.

Azkenik kazikeak hitz egin die. Urre-goseak inarrosita, espainiarrek interpreteak itzuli diena aditu dute. Bai harrigarria, dio Comagrek, zuek halako huskeriengatik elkarrekin liskar-

tzea, hain metal arruntarengatik zuen bizitzak deserosotasun eta arrisku handienetan jartzea. Haratago, mendi garai horien atzean, itsaso mugagabe bat dago, eta itsaso horretara isurtzen diren ibai guztiek urrea daramate. Han bizi da zuek bezala oihal eta arraunekin itsastatzen duen herri bat, eta haien erregeek urrezko ontzietan edan eta jaten dute. Han aurkitu ahal izango duzue horrenbeste gutiziatzen duzuen metal horizta hori. Bidea arriskutsua da, tribu-buruek ziur aski igarotzea galaraziko dizue- te eta, baina egun gutxiko joanaldia da.

Vasco Núñez de Balboa bihotzean joa sentitu da. Azkenik aurkitu du urteetan eta urteetan amestu duen urrearen lurralde alegiazkoaren arrastoa; toki guztietan, ipar-hegotan, bere aurre-koek begiztatu uste izan zuten, eta orain, kazike horrek egia esan badu, bidaia-egun gutxitara baino ez dago. Azkenik bermatzen da halaber beste ozeano horren existentzia, harako bidea Kolon, Cabot, Corte Real eta nabigatzaile handi eta ospetsu guztiek alfe-rrik bilatu zutena: horrekin berebat aurkitua izango da lurbiraren inguruko ibilbidea. Itsaso berri hori ikusten lehena izan eta bere aberriarentzat beretuko duenaren izena sekula ere ez da iraganen. Eta Balboak antzeman du bere askatasunaren ordain-saria eros- teko eta betiereko aintza lortzeko burutu behar duen balentria: lehena izatea istmoa bestalderaino igarotzen Indiara daraman Hegoaldeko Itsasorantz, eta Ofir berria irabazkidatzea Espainiako koroarentzat. Oren horretan, Comagre kazikearen etxean, eraba- kia da bere patua. Une horretatik aurrera, ausazko abenturazale horren bizitzak garaiaren gaineko zentzu goitar bat hartu du.

lhesa hilezkortasunerantz

Ez dago gizabanako baten patuan zorion handiagorik, bizialdiaren erdian, helduaroko adin sortzailean, bere egitekoa aurkitu izana baino. Núñez de Balboak badaki zer duen jokoan, heriotza errukarri bat urkabea ala hilezkortasuna. Ezer baino lehen, onezkoak egin behar ditu Koroarekin; gero, bere krimena, boterearen usurpatzea, legitimatu eta legeztatu. Horregatik orain, atzoko matxinoak, manupekoetan prestuenaren tankeran, Comagrek egin diru-oparitik Hispaniolako errege-diruzain Pasamonteri bidali dio ez bakarrik Koroari legez dagokion bos- tena, baizik eta, praktika mundutarretan eskarmentu handiagoa baitauka Enciso sasiletradu idorrak baino, bidalketa ofizialari

erantsi dio dohaintza pribatu bat ere diruzainarentzat, bidenabar erregutuz bere postuan berretsi dezala koloniaren jeneral goren-
tzat. Hori egiteko, ordea, Pasamonte diruzainak ez dauka inolako
eskuduntzarik; hala ere, jasotako urre kopuruagatik esker onez
igorri dio Núñez de Balboari behin-behineko dokumentu bat,
egiaz baliorik gabea. Baina, aldi berean ere, Balboak, bere burua
erabat segurtatu nahian, Espainiara bidali ditu bere gizon fida-
garrietako bi, gortean Koroaren aldeko bere zerbitzuez hitz
egin dezaten eta kazikeari esanarazi dion albiste garrantzitsua
barreia dezaten. Behar duen bakarra, hedarazten du Balboak
Sevillan, mila gizoneko tropa bat da; harekin bere burua lotzen
du Gaztelaren alde egiteko berak baino lehen ezein espainiarrek
sekula egin ez duena. Bere burua behartzen du itsaso berria aur-
kitzera eta azkenean erdiestera Kolonek alferrik promestu eta
berak, Balboak, konkistatuko duen urrearen alegiazko herria.

Orain dena onera aldatu izan bide da gizon galdu, matxino
eta abenturazalearentzat. Hala eta ere, Espainiatik datorren hu-
rrengo itsasontziak albiste txarrak dakartza. Bere matxino-lagun
batek, berak bere garaian hara bidalia gortearen aurrean Enciso
bortxaz gabetuaren akusazioak indargabetzeko asmoz, jakinara-
zi dio kontuak harentzat arrisku-antza duela, are bizia arriskuan
duela. Batxiler iruzurtuak, lapurren kontrako bere kereilarekin,
bere boterea gailenarazi du auzitegi espainiarren aurrean, eta
Balboa kondenatu dute hari kalte-ordaina ematera. Salbatu ahal
izango zukeen berria, aitzitik, Hegoaldeko Itsaso hurbilaren ko-
kapenari buruzkoa, ez da oraindik iritsi; nolnahi ere, hurrengo
itsasontziarekin justizia-ordezkarri bat porturatuko da Balboari
matxinadaz kontuak eskatzeko eta hura bertan epaitu edota Es-
painiara katez lotua eramateko.

Vasco Núñez de Balboa konturatzen da galdua dagoela.
Bere zigorraren ezarpenak aurrera egin du, Hegoaldeko Itsaso-
aren eta urre-kostaren albiste haratu baino lehen. Esan gabe doa
onura aterako diotela bere burua hondarraren gainera biraka
amiltzerakoan. Ametsetan darabilen balentria besteren batek
burutuko du; honezkero berak ezin du deus gehiagorik itxaron
Espainiatik. Kontu jakina da erregearen legezko gobernaria he-
riotzara bultzatu duela, alkatea bere postutik egotzi duela bortxa
baliatuz. Begi onez hartu beharko du epaia, espetxea besterik
ezartzen ez badiote eta bere ausarkeria larrutik ordaindu behar

ez badu. Lagun ahaldunengandik laguntza izango duelakoan ezin egon daiteke, berak ere ez baitu dagoeneko inolako ahalmenik, eta bere arartekorik onenaren ahotsa, urrearena, oraindik ahulegia da barkamena ziurtatzeko. Gauza batek baino ezin du orain salbatu bere ausarkeriagatiko zigorretik. Beste ausarkeria handiago batek. Haraindiko itsasoa eta Ofir berria aurkitzen baditu legegizonak lehorreratu aurretik eta haien eskumakilek bera atzeman eta eskuburdinak ipini baino lehen, bizirik atera daiteke. Hemen, mundu biztanduaren beste muturrean, ihes mota bat baino ez zaio geratzen, ihesa oroz gaineko egitandi baten bidez, ihesa hilezkortasunerantz.

Ezin ahaztuzko unea

Panamako itsasartearen zeharkaldia Coibako probintzian hasten da, Careta kazikearen erreinu txikian, zeinaren alaba den Balboaren bizikidea. Núñez de Balboak, geroago frogatuko den bezala, ez du lekurik meharrena hautatu, eta ez-jakite hori dela eta, egun batzuetan luzatu du igaroaldi galbidetsua. Baina ezezagunaren bila doan halako ekinaldi ausarditsu baterako, berarentzat garrantzizkoa izan behar zuen oroz gain tribu indio aliatu baten hurkotasuna ziurtatzeak errefortzu zein erretirarako. Hamar kanoa handitan, Dariengo garnizioak Coiba aldera jo du, ehun eta laurogeita hamar soldadu lantza, ezpata, arkabuz eta baleztekin armatuak, lagun harturik beldurgarriko ehizatxakur saldo sekulako bat. Kazike aliatuak bere indioak jarri ditu zama-abere eta bide-erakusle gisa, eta irailaren 6an hasi dute martxa aintzagarri hori istmoan barna, zeinak are abenturazale hain ausart eta asko-ibilientzat ere eskatzen baitu pairu eta borondate itzela. Ekuatore-bero zakar eta ahulgarriaren erdian, espainiarrek gurutzatu behar dituzte aurrena zabaldiak, zeinen lur zingiratsu, gaitzez ernariek milaka lagun hilko baitzituzten gero Panamako ubidearen eraikitze-lanetan. Lehen ordutik, miantu gaberanzko bidea aihotz- eta ezpata-kolpeka ireki behar da liana-oihandi edentsutik zehar. Baztergabeko meategi berde batean barrena bezala, taldeko lehenak sasitza garbituz doaz abar artean zulo-bide estu bat egiteko, gero konkistatzaileen armada igaro dadin gizonez gizon ilara luze azkengabe batean, betiere armak eskuetan, une oro, gau eta egun, buru-belarriak erne eta zelatan, bertakoen bat-bateko eraso bat atzera botatzearren. Be-

roa itogarri gertatzen da erruki gabeko eguzki kiskalgarri baten azpian arbola tantaien ganga hezeak eratzen duen lurrunezko ilunpe lodi, sargoritsuan. Izerleketan eta ezpainak egarririk, soldadu taldea herrestan doa bere armadura astunetan, legoaz legoa aurrera eginez; gero deblauki berriro ere euri-jasa bortitzak erortzen dira, errekek ibai oldartsu bihurtzen dira arnasa batean, zeharka nahiz artez azkar gurutzatu behar dituztenak indioek inprobisatutako zuntzezko zubi kordokarietarik. Hazkurri moduan, espainiarrek eskutada bat arto besterik ez dute. Logurak erretzen, gose-egarriak hilik, odolusten dituzten elementia bat intsektu ziztakorrez inguratuta, lehiatzen dira arantzek urratutako arropa eta oin zaurituekin aurreraka egitera, begiak sukaturik eta masailak eltxo burrunbatsuen eztenkadek puzturik, atsedetik gabe egunez, lorik gabe gauzez eta laster jada arras akiturik. Lehen martxa-astearen ondoren, taldekideetarik gehien-gehienek ezin diete gehiago eutsi sufrikarioei, eta Núñez de Balboak, peril handiak oraindik ere etortzekoak direla jakitun, agindu du gaixo sukardun guztiak eta lur jota daudenak atzean geratzeko. Abentura erabakigarrian barrendu nahi du bere troparen hautenarekin soilik.

Azkenik, lur zelaia goratzen hasi da. Oihana, zabaldi zingiratsuetan baino hedatu ezin duena bere narotasun tropikal betea, gero eta soilago bihurtzen da. Orain, ordea, itzalak jada babesten ez dituela, ekuatoreko eguzki itsugarri eta berunkara galda goritan jausten da haien armadura astunen gainera. As-tiro eta etapa laburretan, soldadu ahituek lortzen dute urratsez urrats eskualde malkartsu hori eskalatzea mendilerrorantz, zeinak bizkarrezur baten antzera bereizten baitu bi itsasoen arteko tarte estua. Arian-arian ikuseremua zabalagoa da, gero aireak freskatzera egiten du. Hemezortzi eguneko eginahal heroikoen ondoren, zailtasun handienak gaudituta bide daude; jada haien aurrean goititzen diren mendi-gailurretarik, gida indiarrek azaldu dutenez, litekeena da begipean izatea bi ozeanoak, Atlantikoa eta Barea, artean ezagutu eta izendatu gabea. Baina hain zuzen orain, naturaren aurkaritza temati eta amarruz beteak behingoz garaitua dirudiela, bidera irten zaie etsai berri bat, eskualde hartako kazikea, bere gerlarien ehunka zenbaitekin arrotzei bidea ebaki diena. Núñez de Balboak badu ordurako eskarmentu ugaria indioekiko borrokan. Aski da arkabuzetarik tiro-jasa bat egitea,

eta berriz ere trumoi eta tximista artifizialek erakusten dute beren botere magikoa, indigenen gainean aurrez ere frogatua. Ikarak airean, ihesari ematen diote garrasi batean, espainiarak eta zakurrak atzetik segika dituztela. Baina, garaipen erraz horretaz poztu beharrean, Balboak, konkistatzaile espainiar guztiek bezala, hari desohore egin dio doilorkeria ankerrez, bide eman baitu gosez hamikatutako zakur saldoak gatibu babesgabe eta estekatu batzuk —zezenketen eta gladiadore-jokoan ordezko— bizirik zatikatu, zirtzilatu eta irensteko. Sarraski nardagarri batek zitalki zikindu du azkeneko gaua, Núñez de Balboak hilezkortasuna ezagutuko duen egunaren bezpera.

Azaltzen zaila den nahasketa bakana, espainiar konkistatzaileen izaera eta jokabidean ematen dena. Jainkozale eta fededun, kristauak orduan inoiz ez bezala, bihotz-bihotzetik Jainkoari dei egiten diote eta aldi berean Historiako izugarrikeria lotsagarrienak egiten dituzte haren izenean. Adorearen, sakrifizioaren merezimendu bikain eta heroikoenetarako, baita pairamenean jasateko ere gai izaki, elkarren aurka liskarrean eta engainuan aritzen dira erarik lotsagabeenean, eta, hala ere, euren zapokerien erdian, arrandiaz erakusten dute bai ohorearen sentimendu nabarmen bat nola beren egitekoaren handitasun historikoaren mirarizko zentzu benetan mirezgarri bat. Núñez de Balboa bera, bart arratsean bertan gatibu errugabeak zakurreta-
ra jaurti dituena eta, gogo-aserik, agian giza odol oraino freskoa turrustan zerien piztien ahutzak ferekatu zituena, ziur-ziur dago bere ekintzaren garrantziaz gizadiaren Historian eta, une erabakigarrian, denbora guztien denboretan ahaztezin gelditzen diren berealdiko jestu horietako bat topatu du. Badaki irailaren 25. hori egun historiko bat izango dela. Miragarrizko dramatikotasun espainiar peto batekin, eskrupulurik gabeko abenturazale zaildu honek erakusten du nondik noraino konprenitzen duen bere misioaren esanahia garaiaren gainetik dagoela.

Honatx, bada, Balboaren berealdiko jestua. Gauean, odol bainuaren osteantxe, indigena batek hurbileko mendigain bat erakutsi eta aditzera eman dio handik jada begietsi ahalko lukeela itsasoa, Hegoaldeko Itsaso ezezaguna. Berehala Balboak bere neurriak hartzen ditu. Zaurituak eta lur joak herri arpilatuan uzten ditu, eta aurrera egiteko gai direnek —hirurogeita zazpi guztira, Dariendik bidelagun hartu zituen ehun eta laurogeita

hamarretatik— mendi hori igotzeko manua ematen du. Goizeko hamarrek aldean gailurretik gertu daude. Erpin txiki soildu bat eskalatzea besterik ez da gelditzen. Gero, ikuspegia eremu ezin zabalagoan hedatuko da.

Une horretan, Balboak geratzeko agindu dio osteari. Inork ez dio jarraitu behar, inorekin partekatu nahi ez duelako ozeanoaren lehenbiziko ikuspegi hori. Bakar-bakarra izan nahi du sekula guztirako, lehen espainiarra, lehen europarra, lehen kristataua, gure unibertsoa beste ozeano fingingabe hori, Atlantikoa, zeharkatu izan eta gero, azkenik beste hau, artean ezagutugabea, Barea, begietaratzen. Astiro, bihotza taupa-taupa, burua unearen esanahiaz bete-betea, erpineraino igo da, ezker eskuan bandera eta eskuinean ezpata, silueta bakartia lurbira mugarrigabearen erdian. Astiro igo da, presarik gabe, honezkero benetako egintza burutua da eta. Oraino urrats pare bat baino ez, gero eta gutxiago. Eta zinez, gailurrera iristerakoan, bere aurrean ikuspegi mugagabe bat azaldu zaio heda-heda. Malda beherako mendien, basoz beteriko muino berdeen atzean datza amaigaberik metal distiratsuzko disko izugarri handi bat: itsasoa, itsasoa, berria, ezezaguna, orain arte amestua soilik eta behin ere ez ikusia, alegiazkoa, urtetan-urtetan Kolonek eta bere ondorengo guztiek alferrik bilatua, zeinaren uhinek Amerikako, Indiako eta Txinako itsasbazterrak bainatzen dituzten. Vasco Núñez de Balboa begira-begira dago, harro eta zorioneko, gozamenen jakinik bere begiak direla europar baten lehenak ur handi horren urdin azkengabea islatzen.

Vasco Núñez de Balboa beha-beha dago, luze eta sakon, urrutira. Geroago arte ez die kamaradei deitu bere poza eta harrotasuna partekatzeko. Urduri, kilikaturik, hatsanka eta oihuka, lau hankan malda gora korrika eginez, harri eta zur gelditu dira, liluretan, eta begirada suharrekin harantz seinalatzen. Halako batean haiekin lagunkide doan aita Andres de Vara *Te Deum laudamus* kantatzen hasi eta segituan oihu-zalaparta eten da. Soldadu, abenturazale eta gaizkile horien guztien ahots zakar eta latzak batu dira koru debotera. Harri eginda, indioek ikusi dute nola apai-zaren hitz batera zuhaitz bat bota duten gurutze bat eraikitzeko, nola enborrean Espainiako erregearen inzialak grabatu dituzten. Eta gurutze hori altxatzen denean, bere bi beso zurezkoek itsaso

bi-biak, ozeano Atlantikoa eta Barea, haien ezin ikusizko urruntasun guztiekin, barnean hartu nahi balituzte bezala da.

Beldurrezko isiltasunaren erdian, Núñez de Balboak aurea hartu eta hitzaldi bat egin die bere soldaduei. Ongi egingo lukete ohore eta grazia hau beraiei eman izana Jainkoari eskertzea, eta hari eskatzea itsaso hori eta lur horiek guztiak berentzeko aurrerantzean ere lagun diezaiela. Berarekin leialki jarraitu nahi badute orain arte bezala, India Berri horietatik espainiar aberatsenak bihurtuta itzuliko dira. Handikiro, banderari lau haizetara eragin dio, haize horiek harantz-honantz dabiltzan eremu guztia Espainiarentzat jabetzan hartzeko. Gero Andres de Valderrabano eskribauari deitu dio, ekitaldi arranditsuaren erregistro-agiri bat idatz dezan; Andres de Valderrabanok pergamino bat desbildu du, berak oihanean barrena dandarrez eroan duena zurezko kutxa txiki batean tintontzi eta antzara-lumarekin batera, eta dei egin die «zaldun eta kapare eta soldadu zintzoei, Hegoaldeko Itsasoaren aurkikuntzan jaun jaukal eta oso prestu, kapitain Vasco Núñez de Balboa, Bere Gorentasunaren gobernariarekin batera egon zirenei» baiets dezaten «aipatu Vasco Núñez jauna izan zela itsaso hori ikusi zuen lehengoa eta gainerakoei erakutsi ziena».

Gero, hirurogei eta zazpiek gailurretik behera egin dute. 1513ko irailaren 25az geroztik, gizateria osoak ezagun du Lurreko azken ozeanoa, ordura arte ezezaguna.

Urrea eta perlak

Jadaneko ziur daude. Ikusi dute itsasoa. Baina orain itsasaldera jaitsi behar dute, uhinen bustia sentitu, ukitu, haztatu, dastatu eta haren hondartzetako harrapakina bildu! Egun bi dirau jaitsierak eta, geroan mendietatik itsasorainoko biderik azkarrena ezagutzeko asmoz, Núñez de Balboak hainbat multzotan zatitu du bere taldea. Hirugarren multzokoak, Alonso Martínen agindupean, hondartzara iristen lehenak dira, eta, soldadu soilak izanda ere, hain dute burua betea aintzaren hutsalaz zein hilezkortasun-egarriaz, ezen gizon apal horrek ere, Alonso Martínek, berehala agindu baitu eskribauak idatziz jaso dezala ur oraindik izengabe horietan oina eta eskua bustitzen lehena bera izan dela. Era horretan bere ni tipiarri hilezintasun apurño bat eragin izan ondoren, ez lehenago, Balboari komunikatu dio itsasoa iritsi duela, bere eskuekin ukitu dituela haren uhinak. Denbora galtzeke, Balboak

beste antzeppen patetiko bat gertatu du. Biharamunean —San Migel eguna kalenderraren arabera— hondartzan agertu da, bere kideetako hogeita birekin soilik, zertara eta, santua nola, halakreta estutua, itsaso berriaren jabe egitera hotsandiko zeremonia batean. Ez du zuzen-zuzen uretara jo, baizik, haien jaun eta jabea bailitzan, harro, zuhaitz baten pean paratu da atsedentzera, zain, itsasgora-bultzaz uhinak noiz harenganatuko zaizkion eta txakur otzan bat bezala mihiaz oinak noiz laztanduko dizkioten. Ordu-ra arte baino ez da zutitu, bizkarreratu du ezkutua, eguzki-izpien dirdaipean ispilu baten antzo, hartu du esku batean ezpata eta bestean Gaztelako zutoihala Jainkoaren amaren irudiarekin, aurrera egin du urari buruz. Ez uhinak aldaketara iritsi zitzaizkion baino lehen, ur handi ezezagun horietan zeharo sartuta dagoe-la, Núñez de Balboak, ordu arte matxino eta *desperado*, orain bere erregearen zerbitzari leial eta triunfante, estandarte astindu du alde guztietara eta goraki mintzo da: «Bizi bitez monarka garai eta ahaltsu don Fernando eta doña Juana Gaztelako, Leongo eta Aragoiko, zeinen izenean eta Gaztelako Errege Koroaren faboretan hartzen eta atxikitzen baitut itsaso eta lur eta kosta eta portu eta irla hauen guztien egiazko eta gorputzezko jabetza iraunkorra, eta zin dagit, baldin beste printze edo kapitain, kristau edo fedegabe edo zeinahi lege edo sekta edo gisakoren peko batek gura erakusten badu lur eta itsaso hauen eskubidea izateko, ni prest eta gertu nagokio hari gura hori gezurtarazteko edota jagoteko Gaztelako oraingo eta geroko erregeen izenean, zeinena baita izanon jaun-tasuna..., orain eta noiznahi munduak dirauen artean hilkorren azken epai orotarikoa arte».

Espainiar guztiek berretsi dute zina, eta istant batez itsas orroaren oihartzunaren gainetik ozendu dira haien hitzak. Banan-banan itsas uraz hezetu dituzte ezpainak, eta berriz ere eskribauak lur-itsasalde berriak beretu izanaren agiria idatzi eta hitz hauekin amaitu du: «Hogeita bi garenok eta Andres de Valderrabano eskribaua izan ziren lehen kristauak oinak ipini zituztenak Hegoaldeko Itsasoan eta hango ura beraien eskuekin ahoan sartu eta dastatu zutenak ikusteko gazia ote zen, beste itsasoarena den bezala. Eta hala zela ikusirik, esker eman zioten Jainkoari».

Burutu da egitandia. Orain, ekintza heroikoari abantaila materiala ateratzeko ordua da. Espainiarrek zerbait urre harrapatu edo trukatu zuten zenbait indigenarekin. Baina beren

garaipenaren erdian ezuste berri bat dute zain, indioek esku bete-
teka dakarzkietelako balio handiko perlak, gertuko uharteetan
ugari aurkitzen direnak, besteak beste, *Peregrina* izeneko bat, zeina
goretsi baitzuten Cervantesek eta Lopek biek ala biek, zeren,
perla guztietan ederrenetariko bat izaki, Espainiako eta Inga-
laterrako errege-koroa apaindu baitzuen. Espainiarrek poltsa
guztiak, zaku guztiak gainezka bete dituzte bitxi horiekin, hemen
balio ez dutenak maskorrek edo hondarrak baino askozaz gehia-
go, eta, irrikatsu, beraiei gehien axola zaienaz, urreaz, galdetu
dutenean, kazikeetako batek seinalatu du harantz, mendien le-
rroa ortzi-mugan margultzen den aldera. Han, argitu du, badago
lurralde bat, altxor kopuru eskergak gordetzen dituena; hango
buruzagiek urrezko ontzietan eskaintzen dituzte oturuntzak,
eta lau hankako animalia handi batzuek —llamak ditu buruan
kazikeak— zamarik bikainenak herrestatzen dituzte erregearen
gordailuraino. Eta herrialdearen izena aipatu du, itsasoaren he-
goaldean, mendiez bestaldean. Hotsa du *Birú* antzeko zerbait,
melodikoa eta ohiz bestekoa.

Vasco Núñez de Balboa, kazikearen esku luzatuari jarraituz,
sor eta lor geratu da harantz begira, urrutira, mendiak histen
eta zeruan galtzen diren lekura. Hitz leun, zorarazle hori, *Birú*,
bere gogoan idatzita geratu da. Ezinegonez, pilpiran du bihotza.
Bigarrenez bere bizitzan, mandatu handi bat jaso du ustekabe-
an. Aurrenengo mezua, Comagreren mezua itsaso hurbilaz, bete
egin da. Perlen itsasbazterra eta Hegoaldeko Itsasoa aurkitu du.
Agian bigarrena ere lortuko du, inken inperioaren aurkikuntza
eta konkista. Urrearen lurraldea.

Gutxitan ematen dute jainkoek...

Mineriz beteriko begiradaz, Núñez de Balboak urrutira be-
gira jarraitu du. Gogoan hitz hori, *Birú*, *Peru*, dardaraz dabilkio
urrezko kanpai bat bezala. Baina —uko-egite mingarria!— orain-
goan ezin du argibide gehiago jaso. Bizpahiru dozena gizon
akituegirekin ezin konkista daiteke inongo erreinurik. Beraz,
aurrenik Darien aldera itzuli behar da eta, beranduago, behin in-
darberrituz gero, bideari ekin Ofir berrirantz. Baina itzulera ez da
gutxiago nekeza. Berriz ere espainiarrek borrokatu behar dute
oihanean zehar, berriz ere bertakoen erasoei aurre egin. Eta ho-
nezkerok ez dira gudurako prest dagoen tropa bat, baizik talde

txiki bat sukarrez jotako gizon gaixoz osatua, beren azkeneko indarrekin kordoka mugitzen direnak —Balboa bera hiltzeko zorian dago eta indioek eramana da hamaka batean—. Azkenik, 1514ko urtarrilaren 19an, lau hilabetez sufrikariorik latzenak jasan ostean, atzera Darienen daude. Historiako egitandirik handienetako bat burutu dute, gero. Balboak bere agintza bete du. Berarekin batera ezezagunean ausardiaz barneratu ziren kideetako bakoitza aberastu egin da; haren soldaduek Hegoaldeko Itsasoaren kostaldetik altxorrek sorterriratu dituzte Kolonek eta beste konkistatzaileek sekula ez bezala, eta gainerako kolono guztiek ere beren partila hartu zuten. Bosten bat Koroarentzat erresalbatu da, eta, harrapakina banatzerakoan, inork ez dio irabazleari leporatu saria eman diezaiola Leoncico bere zakurrari indigena fedegabeen haragia bipilki urratu izanagatik, hartara ordainsarian hari ere beste edozein gerlariri bezala parte harraraziz eta bostehun peso urrezko estalgarri batez jantzia izan dadila aginduz. Horrelako atarramentuaren ondoren kolonian inork ez du jada zalantzan jartzen haren aginpidea gobernari gisa. Abenturazale eta matxinoari omenaldi egiten zaio jainko baten pare, eta, Kolonez geroztik, Gaztelako Koroarentzako egitandirik loriosena berak burutu duelako mezua igortzen ahal du Espainiara, harrotasunez. Itsumustuko igoaldian, bere zoriaren eguzkiak barreiatu egin ditu egundaino bere bizitza astuntzen zuten hodei guztiak. Orain zenitean dago.

Baina Balboaren zori onak ez dirau luze. Hilabete gutxi geroago, ekaineko egun distiratsu batean, Dariengo biztanleak harri eta zur pilatuta daude hondartzan. Kandela-argi batek diz-diz egin du ostertzean. Eta hori ja mirari bat bezalakoa da munduko bazter galdu horretan. Baina horra, alboan bigarren-go bat ageri da, hirugarren-go bat, laugarren-go bat, bosgarren-go bat, eta laster hamar dira, ez, hamabost, ez, hoguei, ontzidi oso bat portura bidean. Eta laster ohartu dira hura guztia Núñez de Balboaren gutunaren ondorioa dela, baina ez bere garaipenaren berria zeramanarena —hori oraindik ez da Espainiara iritsi—, baizik beste harena, lehenagokoa, non lehen aldiz helarazten zuen kazikearen berria Hegoaldeko Itsaso hurbilaren eta urrearen lurraldearen existentziaz, eta eskatzen mila gizoneko armada bat lur horiek konkistatzeko. Espedizio horretarako, Koroa espainiarrak ez du zalantza egin horrelako ontzidi han-

dientsu bat bidaltzeko. Baina Sevillan eta Bartzelonan ez dute inondik ere pentsatu hain garrantzi handiko betekizuna Vasco Núñez de Balboa bezalako hain ospe txarreko abenturazale eta matxino bati fidatzerik. Kolonian azkenean ordena ezartzeko, orain arte egindako delituengatik zuzenbidea nagusiarazteko, Hegoaldeko Itsaso hori aurkitu eta errearen herrialdea konkistatzeko, erregearen gobernaritzat gizon egokiago bat bidali dute, aberats, handiki eta errespetatua, hirurogeita hamar urtekoa, Pedro Arias Davila, arrunki Pedrarias deitua.

Orduan egoera sumingarri bat gertatu da Pedrariasentzat. Alde batetik, mandatua du Núñez de Balboa matxinoari kontuak eskatzeko behinola gobernaria egotzi izanagatik eta, hura erruduna dela frogatuz gero, katez lotzeko, edo bestela aske uzteko. Bestetik, Hegoaldeko Itsasoa aurkitzeko ardura eman diote. Baina bere itsasontzia lehorreratu bezain laster jakinarazten diote auzipetu beharreko Núñez de Balboa delako horrek bere kabuz burutu duela berealdiko egitandia, matxino horrek dagoeneko ospatu duela hari zegokion garaipena eta espainiar Koroari zerbitzurik handiena egin diola Amerikaren aurkitzea eta gero. Esan gabe doa orain ezin duela agindu hori bezalako gizon bati burua moztea gaizkile arrunt bati bezala. Jendetasunez agurtu behar du, tolesik gabe zoriondu. Baina, une horretatik aurrera, Núñez de Balboarenak egin du. Pedrariasek sekula ez dio lehiakideari barkatuko berari emana zitzaion eta betiereko aintza segurtatu ahalko liokeen mandatua hark beregain burutu izana. Kolonoak garaia baino lehen ez haserretzeko, heroiaen kontrako herra ezkutatu behar du; auziaren zuzemenak atzeratuak dira eta are bake aizun bat ezartzen da, zeinaren arabera Pedrariasek Espainian geratu den bere alabaren ezkon-hitza ematen baitio Núñez de Balboari. Baina Balboari dizkion gorrotoa eta bekaitza inola ere ez dira arintzen, baizik areagotzen, noiz eta Espainian, azkenik Balboaren balentria ezagun izandakoan, promulgatu baita dekretu bat, non behinolako matxinoari dagokion titulua aitortzen zaion, *adelantado* izendatuz, eta Pedrarias agintzen zaion hari aholkua eska diezaion edozein egiteko garrantzitsutan. Lurralde hori txikiegia da bi gobernarirentzat. Bietako batek aldendu beharko du, bietako batek hondora joan. Vasco Núñez de Balboa konturatu da gainean ezpata duela, Pedrariasen eskuetan daudelako botere militarra eta justizia. Hortaz, bigarren aldiz ihesa

saiatu du, lehenengoan hain emaitza bikainak eman zizkiona. Ihesa hilezkortasunerantz. Pedrariasi espedizio bat prestatzeko baimena eskatu dio, helburua izanik Hegoaldeko Itsasoaren kostaldea esploratzea eta haratagoko inguruak konkistatzea. Matxino zaharraren ezkutuko asmoa, haatik, da beste itsasertzean edonongo kontrolpetik beregain bihurtzea, berak flota bat eraikitzea, bere probintzia propioaren nagusi egitea, bai eta, ahal bestean, alegiazko Birú, Mundu Berriko Ofir hori konkistatzea ere. Pedrariasek onartu du, ez gibel asmorik gabe. Balboa ekinaldian galtzen bada, hainbat hobe. Balentria burutzea lortzen badu, berari oraindik denbora geldituko zaio gizon handinahiegi horrengandik libratzeko.

Horrela, bada, Núñez de Balboa lotu zaio bere ihesaldi berriari hilezkortasunerantz; bere bigarren ekinaldia agian are egundokoagoa da lehenengoa baino, pareko osperik gorde ez izanagatik beti arrakastadunak baino goersten ez dituen Historian. Oraingoan Balboak, bere troparekin istmoa gurutzatu ez ezik, milaka indigena ere behartu ditu lau brigantin eraikitzeko beharrezkoak diren egurra, oholtzarrak, sokateria, belak, aingura, debiletak herrestatzera mendien gainetik. Zeren han, beste aldean, flota bat eraikitzea lortzen badu, kosta guztiak bertu ahalko ditu, perlen uharteak konkistatu, eta Peru, alegiazko Peru. Baina oraingo honetan ausartaren kontra dago zoria, eta behaztopa berriak aurkitzen ditu etengabe. Oihan hezean barrena ibilian doazela, pipiak zura jaten du, oholak ustelduta heltzen dira, eta erabilgaitzak suertatzen. Bere burua adoregabetzera utzi gabe, Balboak agindu du Panamako golkoan beste enbor batzuk moztu eta ohol zabal berriak prestatzeko. Bere kemenak gauzatu du egiazko miraria, jada dena ongi atera bide da, jada eraikiak dira brigantinak, Ozeano Bareko lehenak. Orduan, bat-batean, tornado batek bultzaka uhanditzen ditu ibaiak, eta ja prest zeuden ontziak itsasoraino narrastu eta hondoratuak dira. Oraindio hasi beharrean daude hirugarrenaldi batez; eta orain azkenean lortzen dute bi brigantin bukatzea. Balboak beste bi, beste hiru gehiago baizik ez du behar. Orduan abiatu ahalko da eta konkistatu ahalko du, kazike hark esku luzatuaz hegoaldea erakutsi eta berak lehen aldiz Birú hitz xorarazle hori entzun zuenez geroztik, gau eta egun amesten duen lurraldea. Behar du beste pare bat ofizial zangar etorrarazi, indarberritzeko soldadu

talde on bat eskatu, eta bere erresuma sortzen ahalko du. Zenbait hilabetetsu gehiago izan balitu, zori poxi bat alde gehitu izan balitzaio barruko adorea, eta munduaren historiak ez zukeen izendatu behar izango Pizarro, bera baizik, Núñez de Balboa, inken garaile, Peruko konkistatzaile.

Baina are bere begikoekin ere, patua ez da beti eskuzabal azaltzen. Gutxitan errendatzen diete jainkoek hilkorrei egitandi hilezkor bakar bat baino gehiago.

Gainbehera

Núñez de Balboak izugarrizko kemenez gertatu du bere ekimen handia, baina lorpenaren azarriak hain zuzen arriskua dakarkio, zeren, artega, Pedrariasen begirada goganbehartsuak gertutik azterkatzen baititu bere manupekoaren asmoak. Agian traizio bidez jakin izan du Balboaren aginte-amets handiguren berri; agian, soilki jeloskor, behinolako matxinoaren bigarren arrakasta-kolpe baten beldur da. Nolanahi ere, halako batean oso gutun bihotzetiko bat igorri dio Balboari, esanez ezen, noizbait ere haren konkista-espedizioa hasi baino lehen, itzuli ahal litekeela elkarrekin hitz egiteko Acla-n, Darien ondoko hiri batean. Balboak, laguntza-tropak jasotzea espero duenez Pedrariasen aldetik, gonbidapena onartu du eta berehala itzuli da. Hiriko ateen aurrean soldadu talde txiki bat harenganatu da, itxuraz hari ongietorria emateko; alaitsu, bidera irten zaie haien aginpidea duena, urte askotan bere arma-laguna, Hegoaldeko Itsasoaren aurkikuntzan lagun izan duena, bere uste osoko adiskidea, Francisco Pizarro, besartean estutzeko asmoz.

Baina Pizarrok eskua sorbalda gainean jarrita atxilo egin du. Hura ere hilezkorra izateko gose-egarritan dago, hark ere konkistatu nahi du urrearen lurraldea, eta bera baino aurrerago doan gizon ausartegi hori bidetik lekutu duela jakitea ez zaio inondik ere atsekaitz. Pedrarias gobernariak prozesua ireki dio ustezko matxinadagatik. Azkar eta bidegabeki, justizia egin da. Egun gutxi geroago, Vasco Núñez de Balboa urkamendira doa bere bidelagun leialenekin; diz-diz egin du borroaren ezpatak, eta pirritan lurrera erori den buruan betiko itzali da gure Lurra biltzen duten bi ozeanoak aldi berean ikusmenean hartzen lehen izan zen begirada.

4

GEORG FRIEDRICH HÄNDEL-EN PIZKUNDEA 1741eko abuztuaren 21a

1737ko apirilaren 13ko eguerdian, Georg Friedrich Händelen otseina, jardunik bitxienean ari zela, Brook Street-eko etxabeko leiho aurrean paratua zegoen. Muturturik, ohartua zen bere tabako-hornigaia bukatua zela, eta, nahiz azken batean aski izango zukeen bi kale harago lasterkatzea pipa-belar freskoa eskuratzeko Dolly bere adiskidearen denda-zuloan, ez zen etxetik ateratzera ausartu, bere jaun eta maisu haserrekorraren beldurrez. Georg Friedrich Händel probasaiotik etxeratua zen amorruz gainezka, begitartea galgalka irakin odolez gorri-gorritua, eta lokietako zainak handituak. Atea danba batean joaz itxia zuen, eta orain —otseinak entzuten ahal zuen— lehen solairuan oinez zebilen hain oldar gehiegian batetik bestera, non dar-dar egiten zuen sabaia: ez zen gomendagarria holako haserre bizizko egun batean laxo ibiltzea zerbitzuan.

Beraz, jardunen bat bilatu izan zuen asperduratik lekutzeko asmoz, eta orain ke urdinezko eraztun ederrak barik xaboi-burbuilak aterarazten zituen bere buztinezko pipa motzetik. Xaboi-aparrez betea zuen azpil txiki bat, eta jostan ari zen leihotik burbuila ñabarrak kalera jaurtitzen. Handik igarotzen zirenak gelditu eta, olgetan, burbuila koloretsuren bat edo beste makilaz leherrarazten saiatzen ziren; barre eta keinu egiten zuten, batere harritzen ez baziren ere, Brook Streeteko etxe hartatik edozer espero zitekeen eta. Bertan gauetz bet-betan durunda egiten zuen klabikordioak. Bertan emakume kantariei entzuten zitzaien uhuriz eta zotinez, aleman suminkorrek hiragorriturik mehatxatzen zituenean, oktaba bat tonu gorago edo beherago

kantatu izateagatik. Grosvenor Square-ko auzoek aspaldi eroetxetzat zeukaten Brook Streeteko 25a.

Otseina isil eta temati putz eta putz ari zitzaien burbui-la irisatuei. Lipar baten buruan nabarmen hobetua zen haren antzea. Bolatxo urdin-zurixkak gero eta potoloago eta finagoak ziren, gero eta gorago eta arinago aireratzten ziren, eta are haie-tako batek pareko etxearen lehen solairua gainditu zuen. Hartan, bat-batean ikaran jarri zen, etxe osoak dardara egin zuelako dan-bateko idor batez. Edontziek tintin egin zuten, errezelak zabuka hasi ziren; izari handiko zerbait astunak lur jo izana behar zuen goiko solairuan. Otseinak jauzi egin, eta korrika batean eskaile-ra-mailak igo zituen langelari buruz.

Maisuak lan egiten zuen besaulkia hutsik zegoen, gela ere hutsik, eta otseina lasterka hastera zihoala logelarantz, Händel ediren zuen, geldi lurrari josia, begiak finko, eta jarraian, otseina lehen ikaratik oneratu zenean, arnasestu sor, larri bat aditu zuen. Gizontzarra ahoz gora zetzan, intzirika, edo, hobeto esanda: intziri bakanen bat itzuraraziz astinaldi labur, gero eta ahulagotan.

Hil hurren da, pentsatu zuen otsein ikarak hartuak, eta axkar belaunikatu zen ia kordetik joanda zegoenari laguntzeko. Hura altxatzen saiatu zen, sofaraingo herrestan eramaten, baina gizon handikotearen gorputza mardulegia zen, astunegia. Beraz, lepoko zapi estua lasaitu zion, eta segituan intziria eten egin zen.

Baina orduan beheko solairutik iritsi zen Christof Schmidt, mirabea, maisuaren laguntzailea, berriki aria batzuk kopiatzen jarria zena; hari ere ikara eragin zion eroriko sorrak. Bien artean gorputz astuna jaso —besoak laxo behehitu zitzaizkion hildako batenak nola— eta oherarazi zuten, burua jaso.

«Erantzi ezak», agindu zion Schmidtek otseinari, «korrika noak medikuaren bila. Eta ihinzta ezak uraz, esna dadin arte».

Christof Schmidt lasterka hasi zen jakarik gabe, ez zuen astirik galdu, Brook Street zeharkatu zuen Bond Street aldera, keinuak eginez trosta galantean eta alkandora hutsik hatsanka zihoan gizon lodiarik kasurik gutxiene egin gabe aurretik pasatzen ziren zalgurdi guztiei. Azkenean bat gelditu zen, lord Chandosen kotxe-gidariak ezagutu zuen Schmidt, zeinak, etiketa guztia ahantzirik, ataka ireki baitzuen zakarki. «Händel hil hurren da!» hoska hasi zitzaion dukeari, bai baitzekien musikazale handia eta bere maisu kutunaren babeslerik onena zela, «mediku ba-

tenera joan behar dut». Berehala kotxera igotzera gonbidatu zuen dukeak. Zaldiek zigorraren ausikia dastatu zuten, eta hala joan ziren Jenkins doktorearen bila Fleet Streeteko kontsultara, non premiaz lanpetua zegoen gernu-lagin bat aztertzen. Bere kabrioletetan atoa joan zen Schmidtekin Brook Streeteraino. «Errua nahigabe ugariena da», kexu etsia zen mirabearena, kotxea aurrera zihoala, «herioraino torturatu dute kantari eta castrato madarikatu horiek, koipe-jario eta maiseatzaile horiek, zorne-zaku nardagarri horiek guztiek. Aurten lau opera idatzi ditu antzokia salbatzeko, baina besteak emakumez eta gortez baliatzen dira, eta batez ere italiarrak eroturik ipintzen ditu denak, castrato horrek, tximino oihulari amorratu horrek. Atx, zer ez diote egin gure maisu Händel gizajoari! Bere aurrezki guztiak inbertitu ditu, ehun mila libra, eta orain gogaitarazten dute pagakizunekin eta herioraino jazartzen. Inoiz ez du gizon batek lortu hain emaitza bikainik, inoiz ez da inor hain osoki lanera eman, eta horrek erraldoi bat ere hautsi behar du. Oi, nolako gizona, nolako jenioa!».

Jenkins doktoreak entzun zuen hotz eta isilik. Etxera sartu baino lehen, beste zupada bat kendu zion pipari eta, kankateko pare bat emanda, katilutik atera zuen errautsa. «Zenbat urte ditu?».

«Berrogeita hamabi», erantzun zuen Schmidtek.

«Adin txarra. Lanean leher gaizto egin du zezen baten moduan, nahiz indartsua ere baden zezen baten modukoa. Tira, ikusiko dugu zer egiten ahal den».

Otseinak azpilari heldu zion. Christof Schmidtek Händelen besoa jaso, eta medikuak zaina ziztatu zuen. Turrusta bat odol gorri argi, beroa jariatu zitzaion, eta hurrenik arindurazko hasperen bat atera zen ezpain estutuatarik. Händelek arnasa sakon hartu eta begiak ireki zituen. Artean nekatuak ziren, bes-terenak eta korde gabeak. Distira itzalia zuten.

Medikuak loturaz bildu zion besoa. Ez zegoen askoz gehiago egiterik. Alde egitera zihoala, Händelen ezpainak mugitzen zirela konturatu zen. Ondoratu zitzaion. Arinki oso —hatsalditxo bat besterik gabe— arnasestuka ari zen Händel: «Nireak... nireak egin du ... indarrrik ez... indarrrik gabe ez dut bizi nahi...». Dr. Jenkins gehiago makurtu zen haren gainean. Begi bat, eskuina, zurrun zeukala eta bestea biziago antzeman zuen. Proba egiteko,

beso eskuina jaso zuen. Atzera erori zen, hilik bezala. Gero ezker-
ra jaso zuen. Ezkerrekoa jarrera berrian gelditu zen. Harrezkero
Dr. Jenkinsek bazekien aski.

Gela utzi zuenean, Schmidt eskaileretaraino jarraiki zi-
tzaion, beldurrean, durduzan. «Zer da?».

«Apoplexia. Eskuineko aldea perlesiak jota du».

«Eta on...?», Schmidt hitzik gabe geratu zen. «Onera itzu-
liko al da?».

Jenkins doktoreak arrandiaz sudur-hauts puskatxo bat
hartu zuen. Holako galderak ez zituen batere gogoko.

«Agian. Dena da gertagarria».

«Eta elbarri geldituko al da?».

«Gertaeraza da, miraririk izan ezean».

Baina Schmidtek, bere zainetako odol-tanta bakoitzarekin
maisuari lotua, ez zuen amore eman.

«Eta ahalko, itzuli ahalko du behintzat lanera? Ezin du
bizi, sortu gabe».

Jenkins doktorea dagoeneko eskaileretan zegoen.

«Hori sekula gehiago ez», ahopeka esan zuen. «Agian gi-
zona mantendu ahal izango dugu. Musikaria galdu egin dugu.
Joaldia burmuineraino iritsi da».

Schmidtek begiak landatu zizkion. Hain etsi gaiztoak har-
tuak zituen, medikua asalaturik sentitu baitzen. «Esandakoa»,
erantzun zuen, «miraririk izan ezean. Oraindik ez dut, noski, bat
ere ikusi».

Lau hilabetez indarrrik gabe bizi izan zen Georg Friedrich
Händel, eta indarra zen haren bizitza. Gorputzaren eskuineko
aldea hilik zeukan. Ezin ibil zitekeen, ezin idatz zezakeen, ezta
soinu bakar bat ere atera ziezaiekeen giltzei. Ezin zuen hitz egin.
Ezpaina zintzilik okertua zuen, gorputzari erasana zion tarratada
izugarria zela eta; hitz motel eta itoak baino ez zerizkion ahotik.
Lagunek harentzat musika egiten zutenean, argi-bristada bat be-
gietaratzen zitzaion, gero gorputz astun, uzkurak zirkin egiten
zuen gaixo batek ametsetan bezala; erritmoari jarraitu nahi zion,
baina soin-atalak izoztuak zituen, zurruntasun lazgarri baten
mende. Beso-zangoen zainek, giharrek, ez zioten gehiago eran-
tzuten; gizon behiala tantaia zurtz sentitzen zen, hobi ikusezin
baten horma artean hesitua. Musika amaitu bezain laster beta-
zalak jaisten zitzaizkion, eta berriz etzanda geratzen zen, hilotz

baten gisa. Finean, medikuak etsi-etsian —maisua agidanez ez zuen sendabiderik— aholkatu zuen gaixoa Akisgrango bainu beroetara eramanez zezatela, beharbada hobexera egingo zuela.

Baina estalgarri zurrunaren azpian, lur azpiko ur bero misteriotsu haien antzera, ezin eutsizko indar batek bizirik zirauren: Händelen borondateak, bere izatearen senezko kemenak —hura ez zen joaldi suntsitzaileak ukitua izan— ez zuen nahi hilezkor zena irauungi zedin gorputz hilkorrean. Gizon ikaragarri hark oraindik ez zuen etsi izan, oraindik irrikaz zegoen, oraindik bizi nahi zuen, sortu nahi zuen, eta nahimen horrek miraria egin zuen izadi-legearen aurka. Akisgranen medikuek behin eta berriz ohartarazi zioten ur beroetan hiru ordu baino gehiago egoteko arriskuaz, bihotzak ez zion eutsiko, hilaraz lezake. Baina borondateak bizia arriskatu zuen biziaren eta bere osatu gura menderakaitzaren amoregatik. Medikuen laborrirako, Händelek egunean bederatzi ordu ematen zituen bainu beroan sartuta, eta borondatearekin batera indarra hazi zitzaion. Aste baten ondoren arrastaka joaten ahal zen, bigarrenaren ondoren besoa mugitzen ahal zuen eta, borondatearen eta uste onaren garaipen itzela, berriro ere balbearen besarkada geldiarazleari itzuri zitzaion, bizia besarkatzeko gogo beroagoz, lehen baino gartsukiago, eriondoan dagoenak baino ezagun ez duen poztasun ikaragarri horrekin.

Azkeneko egunean, bere gorputzaren guztiz jabe, Akisgrandik abiatzera zihoala, Händel elizaren aurrean gelditu zen. Inoiz ez zen bereziki elizkoia izana, baina orain, mirariz berreskuratua zuela ibiltzeko gaitasuna, organoa zegoen korurantz aitzinatzean, ezin neurtuzkoak hunkitua sentitu zen. Ezker eskuaz haztamuka, doi-doian ukitu zuen klabierra. Eta klabierrak hots egin zuen, argi eta garbi hots egin ere leku jabalean zehar. Ondoren, zalantzan, eskuinak saiatu zuen, denbora luzean itxia, uzkurtua egondakoak. Eta hona non, haren pean ere soinuak oihartzunez ihardetsi zuen zilarrezko iturri antzo. Apurka-apurka jotzen hasi zen, bat-batean asmatzen, eta joaira handiak herrestan eramanez zuen. Miragarriri, harlandu hosdunak goititu eta elkar gainkatu ziren ikusezinerantz; galanki, gora eta gora zihoaz haren jenioaren eraikuntza lirainak itzalik gabe, materiagabeko argitasun, soinuazko argi. Behean, lekaime eta fededun izengabeek belarriak luzatuak zituzten. Horrela jotzen egundo ez

zuten aditu izan lurtarrik. Eta Händel, apalki burua makurtuta, jo eta jo ari zen. Berriro aurkitua zuen Jainkoarekin, betiraunarekin eta gizakiekin mintzatzeko zerabilen hizkuntza. Berriro musika ontzen ahal zuen, berriro sortzen ahal zuen. Soilik orain sentitu zen osatua.

«Hadesetik itzulian nator», esan zion harro, bular zabal-puztuz eta beso zaintsuak luzatuz, Georg Friedrich Händelek Londresko medikuari, zeinak saihesterik ez baitzuen medikuntzaren mirari hura mirestea.

Eta indar guztiaz, gudari bipil baten adore berberaz, luze gabe eta bi halako eginahalean, eriondoan zegoena lanera osoki eman zen. Berrogeita hamahiru urteko adindunak borrokarako grina zaharra berreskuratua zuen. Opera bat idatzi zuen —bikain erantzun zion esku sendatuak—, bigarren bat, hirugarren bat, *Saul* eta *Israel Egipton* oratorio handiak eta oda bat, *L'Allegro e il Penseroso*; aspaldi isuri gabeko iturbegi batetik bezala birsortzen zen ezin agortuzko laket sortzailea. Baina garaia haren kontra dago. Erreginaren heriotzak eten ditu entzunaldiak, gero Espainiako gerra hasi da. Plaza agerietan egunero jendetza biltzen da oihuz eta kantuz, baina antzokia hutsik egoten da, eta zorrak metatzen. Gero negu gorria dator. Londres gainera halako hotza jausten da, non Tamesis izoztuan lerak baitabilta gainazal dirdaitsuaren gainean kaskabiloen tintin-hotsetan; sasoi larri honetan aretoek itxirik diraute, inongo musika zerutarrak ez bailioke aurre egingo lokal haietako hotzari. Orduan gaixotzen dira kantariak. Kontzertuak hurrenez hurren bertan behera utzi behar dira; gero eta okerragotzen da Händelen egoera koloka. Hartzekodunek estu hartu, kritikariek iseka egiten dute, jende gehiena ezaxola eta mutu dago; pittinka, adore gabe geratzen da etsi-etsian borrokan dabilena. Ongintzako emankizun batek libratu berri du zorreatatik presondegira joatetik, baina hau lotsa eskale moduan ogia irabazi behar izatea! Händel gero eta gero bakartzen da, eta bere aldarte gero eta goibelago bihurtzen. Ez al zen hobe gorputzaren alde bat elbarri izatea, ezen ez orain bezala arima osoa? 1740. urtean, Händel berriro ere gizon garaitua sentitzen da, erreka joa, behialako loriaren zepa eta errautsa. Eginahala eginda, lehenagoko musika-lanen pasarteak bildumatzen ditu. Noiz edo behin, artean gai da balentria txikiren baterako. Baina emari handia agorra da, eta horrekin ere berezko indarra

gorputz suspertuan; lehen aldiz nekaturik sentitzen da gizon erraldoia, lehen aldiz borrokalari errimeak garaitua ikusten du bere burua; lehen aldiz, akiturik, plazer sortzailearen goaia sa-kratua, zeinak duela hogeita hamabost urtez geroztik mundu bat gaineztu baitzuen emankor, geldi dago. Berriz ere harenak egin du, berriz ere. Eta hark, osoro etsiak hartuak, badaki edo jakin uste du: nireak egin du sekula guztiko. Zertarako, egiten du hasperen, berpitzarazi nau Jainkoak eritasunetik, gizakiek berriro lurpera nazaten? Hobe hil izan banintz, mundu honen hoztasunean, hustasunean alderrai ibili beharrean, neronen itzal. Eta suminez, batzuetan marmarrean aritzen da gurutzean josia izan zen haren hitzak esaka: «Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zeren abandonatu nauk?».

Gizon galdu, etsi bat, bere buruaz unatua, federik gabe bere indarrean, federik gabe agian ere Jainkoagan, hilabete eta hilabetetan hara-hona ibilian dabil gauaren erdian Londresen barrera. Oso berandu baino ez da ausartzen etxetik ateratzera, egun-argiz hartzekodunak etxe aurrean zain baititu pagakizun-txartelekin, bera harrapatzeko; eta kalean narda zitzaizkion herritarren begirasun ezaxola eta mespretxuzkoak. Batzuetan hausnartzen du ez ote lukeen Irlandara itzuri beharko, han oraindik sinesten dutelako bere omenean —atx, ez dute susmatzen zein ahulduak dauden haren indarrak—, edo Alemaniara, edo Italiara; baliteke han berriro ere barneko hotza desizoztea, berriro ere doinuak, hego-haize gozoak bultzaturik, jarioan etortzea arimaren harkaizti errautsietatik. Ez, ez du jasaten deus sortu, deus eman ezin hori; ez du jasaten, Georg Friedrich Händelek, garaitua izatea. Batzuetan eliza baten aurrean gelditzen da, berbek ezelango gozagarririk ematen ez diotela jakinda ere. Beste batzuetan taberna batean esertzen da; baina sormenezko hordialdi jaso, dohatsu eta garbia ezagutzen duenari nazka ematen dio kalitate txarreko pattarrak. Eta zenbaitetan, zubitik begiak josiak ditu Tamesisean, gaueko ur-laster beltz, mutuan, galdezka ez ote litzatekeen hobe bulkada irmo batez hantxetik bere burua botatzea! Edozer, salbu hustasun horren lorra eramaten jarraitzea, bakardadearen laztura, Jainkoaz eta gizakiez abandonatua.

Beste behin ere alderrai ibilia zen gaeuz. Egun sargoria izan zen 1741eko abuztuaren 21 hura. Metal urtua bezala, Lon-

dresen gaineko zerua itogarri eta oso sapa zegoen; arratsean Händel irten izan zen Green Park-en haizetxo doi bat arnasteko. Bertan, zuhaitzen gerizpe ezin zundatuan, inoren begi bistatik at, inoren eragozpenik gabe, eseri izan zen, nekaturik, zeren gaixotasun baten eran pisutsua baitzizaion nekadura hura, mintzatzeko, musika ontzeko, jotzeko, pentsatzeko nekadura, sentitzeko nekadura, bizitzeko nekadura. Zertarako, bada, edo norentzat? Mozkor baten tankeran, bere etxe aldera jo zuen, Pall Mall eta St. James Streeten luzera osoan, beti-bateko pentsamendu bakarrak mugiturik: lo egin, lo egin, besterik ez jakin, pausatu soilik, atsedean hartu, ahalik bezainbatean betiko. Etxean, Brook Streeten, inor ez zegoen esna. Astiro —ai ene, noraino zegoen abailduta eta gizakiek jazarrita!—, lau oinean igo zituen eskaile-rak, pauso akitu bakoitzean karraska egin zuen egurrak. Azkenik bere gelan zegoen. Pizgailuari eraginez sutu zuen atril gaineko kandela: pentsatu gabe egin zuen, mekanikoki, urtetan egin be-zala, lanean jartzeko. Izan ere, garai batean —intziri errukarri bat nahi gabe atera zitzaion ezpain artetik—, paseo bakoitzetik etxera itzulian ekartzen zuen doinu bat, kantu-aire bat, gero arrapaladan idazten zuena, bururaturikoa loaldi bitartean ez ahaztearren. Orain, aldiz, mahaia hutsik zegoen. Han ez zen batere partiturarik. Errota sakratuaren gurpila geldiegonen zegoen ur-laster izoztuan. Ez zen deus hastekorik, ezta burutze-korik ere. Mahaiak hutsik zirauen.

Ez, alabaina: hutsik ez! Ez al zuen distiratzen han laukizu-zen argiaren gainean paper antzeko zer edo zer zuriak? Händelek hartu egin zuen. Pakete bat zen, eta bertan zerbait idatzia antzeman zuen. Rast, zigilua puskatu zuen. Gainaldean gutun bat zegoen, Jennens poetarena, Saulen eta Israel Egiptonen libretoak idatzi izan zizkiona. Horra hor, dio, konposizio berri bat, eta es-pero du ezen, bihozbera, musikaren jenio garaia, *phoenix musicae* delakoa, erruki dadila haren hitz landerrez eta garraioan erabil ditzala haren hegoez hilezkortasunaren eterrean gandi.

Ikarak hartu zuen Händel, zerbait ezatseginak ukitua edo. Jennens horrek nahi ote zion hari maiseo egin, hari, hil hu-rrinari, elbarriari? Tarrata batez gutuna txirtxilatatu, zimurtuta lurrera jaurti eta zanpatu zuen. «Bilaua! Gizatzarra!», orro egin zuen; trakets horrek zauririk sakon, gorienean jo zion, behazu-na dastaraziz, haren arimaren mingostasunik mikatzeneraino

iritsiz. Haserre, kandelari putz egin, bere logelaraino haztamuka jo durduzan eta ohantzera jaurti zuen bere burua: malkoak tanpez begietaratu zitzaizkion, eta gorputz osoak dar-dar egin zion ezinaren amorruaz. Mundu madarikatua, non behartsuari oraindik ere iseka egiten zaion eta pairatzaileari estira ematen! Zerendako dei egin hari, bihotza hozmindua zuenari eta kemena ments? Zerendako are obra bat eskatu hari, arima herbaldurik zuenari eta zentzumenak erkindurik? Eta orain lotara, sorgor animalia bat nola; atzentzera, izateari uztera, eta kito! Astunki, gizon nahasia, galdua, bere ohe gainean etzan zen.

Baina lo ezin harturik egon zen. Ezinegona zebilakion, suminak iraulia nola ekaitzak itsasoa, egonezin gaizto eta misteriotsu bat. Bira egin zuen ezkerretik eskuinera eta atzera eskuinetik ezkerreara, baina gero eta itzarriago zegoen. Ez ote zuen jaiki behar eta libretoaren hitzak aztertu? Ez, gero; zer ahalmen izan zezakeen artean hitzak harengan, hilarengan? Ez, jada ez zegoen harentzako pozkidarik, Jainkoak leizean erortzera utzia zuenarentzat, biziaren joaira sakratutik urrunaraziz! Eta hala ere, oraindik bazebilakion beti pilpiraka bulkada indartsu bat berari, misterioski jakin-mindunari, eta bere ezinak ezin izan zion hari buru egin. Händel jaiki zen, bere kabinetera itzuli, eta esku zirraraz dardaraziekin berriz piztu zuen argia. Mirari batek ez ote zion jada behin libratu izan gorputzaren perlesiatik? Agian Jainkoak ezagutzen zuen berebat arimarentzako senda- eta poz-biderik. Händelek argimutilla jaso zuen orri idatzien aldera. *The Messiah*, zioen lehen orrialdean. Tira, berriro oratorio bat! Azkenekoek porrot egin zuten. Baina urduri, hala baitzegoen, lehen orria itzuli zuen eta irakurtzen hasi zen.

Estreinako hitzak ikusita, ikarak hartu zuen: «Comfort ye», horrela hasten zen testua. «Kontsola zaitzete!». Hitz hori xirmi-xarma bezalakoa zen. Ez, hitza ez: erantzuna zen, jainkozkoa, aingeru-deia zeru goietatik haren bihotz uzkuartuari bidalia. «Comfort ye». Nola hots egiten zuen hitz sortzaile, ongile hark, nola inarrosten zion arima izuari barrena. Eta ozta irakurria, ozta barrundatua, Händelek musika jarrita entzun zuen, notetan esekita, deiadar, xuxurla, kantu bihurtuta. Hau zoriona, irekiak ziren atakak, berriro sentitzen, berriro entzuten zuen musika!

Eskuek dar-dar egin zioten orrialdeak hurrenez hurren pasatzerakoan. Bai, dei egina, hel egina izan zen; hitz haietako

bakoitza haren barruan sartzen zen ahalmen eutsiezin batekin. «Thus saith the Lord» («Hala mintzatu zen Jauna!»), hitzok ez al ziren berarentzat, eta berarentzat baino ez? Hura ez al zen lurrera botea izan eta gero orain dohatsuki behetik altzarazi izan zuen esku bera? «And he shall purify» («Hark araztuko zaitu»). Bai, hori gertatu izan zitzaion berari; ilun beltzak behingoz aienatuak izan ziren bere bihotzetik; klartasuna oldarrean sartu zen, eta doinu eztizko argiaren araztasun kristalkara. Nork bestela zeragiokeen halako indar bizkorgarririk Jennens gizagaixo, Gopsall-eko sasipoeta haren lumari, Hark baizik, bere estualdia ezagutzen zuen bakarrak? «That they may offer unto the Lord» («Opagaiak eskain diezazkiotela Jaunari»). Bai, opari-sugar bat piztea, bihotz kartsutik jarioan, zeruraino dadin, erantzuna emateko, berebiziko dei horri erantzuna. «Aldarrika ezazu ahaltsuki zure hitza» hura beretzat esana zen, bere-beretzat baino ez. Oi, hura aldarrikatzea, aldarri egitea tronboi durunditsuen, abesbatza suharren oldarraz, organoaren trumoi-orroaz; eta beste behin ere, lehen egunean bezala, hitzak, logos sakratuak, iratzar ditzala gizakiak, guzti-guztiak, besteak, oraindik ilunpean etsirik dabilzanak, zeren eta egiatan, «Behold, darkness shall cover the earth», oraindik ilun beltzak betetzen baitu Lurra, oraindik haiek ez baitute ezagutzen une horretan berari gertatu zaion erredentzioaren dohaina. Eta, irakurri ahala, bur-bur egiten du bere baitan, erabat garatua, esker-oihua: «Wonderful, counsellor, the mighty God». Bai, hura gorestea, Aholkulari miragarria, Goi-goikoa, zein hitza zein egintza, biak ezagutzen zituena; hura, bihotz artegari bakea bihurtzen ziona! «Jaunaren aingerua agertu baitzen haien aurrean». Bai, zilarrezko hegoekin jaitsia zen haren gelaraino, eta doi-doi ukitu eta erredimitu izan zuen. Nolatan holakorik ez eskertu, nolatan poz-oihu alairik ez egin milaka bozekin eta berearekin batera, nolatan ez abestu eta aintzatu: «Glory to God!».

Händelek burua makurtu zuen orrien gainean, ekaitz bortitz baten pean bezala. Nekadura guztia joana zen. Egundo ez zuen horrela sentitu izan beronen indarra, egundo ere ez zuen sentitu izan antzeko jario atergabean sormenezko poztasun hura guztia. Eta berriz ere haren gainera hitzak zetozkion zurrustan, argi bero, urtzailezko galda nola, bakoitzak haren bihotza zuelarik jomuga, erregutuz, askaraziz! «Rejoice» («Bozkaria zaitetz»).

Nola kantu koral hura askatu baitzen hotsandiko, hark burua jaso zuen, nahi gabe, eta besoak luzatu zitzaizkion. «Bera da egiazko erredentorea». Bai, horren aitorra eman nahi zuen, inoiz izaki hilkor batek egin ez bezala, eta bere lekukotasuna goititu iragarki argitsu baten gisara munduaren gainean. Bost sufritu duenak baino ez du poza ezagutzen. Neurtua izan denak baino ez du barkamenaren azken ontasuna barrundatzen, eta hari dagokio gizakien aurrean pizkundeaz fede ematea, herio pairatu zuenaren amoregatik. Händelek hitzok irakurri orduko: «He was despised» («Mesprezatua izan zen»), oroipen latz bat atzera etorri zitzaion gogora, soinu ilun, hertsagarri bihurtua. Jada garaitua zutelakoan zeuden, jada haren gorputz biziduna hobiratua zutelakoan, isekaz jazarria izaki. «And they that see him, laugh». Eta ikusten zutenek irri egiten zioten. «Eta ez zen gero inor izan oinaze-jasaileari bihotz-altxagarririk eman ziezaionik». Inork ez zion lagundu izan, inork ez haren ezintasunean bihotza arindu, baina hara, indar mirarizkoa: «He trusted in God», uste osoa izan zuen Jainkoagan, eta horra non Hark ez zion utzi hobian geratzen. «But thou didst not leave his soul in hell». Ez, Jainkoak ez zuen eskutik utzia haren arima etsipenaren hobian, ezintasunaren infernua; harena, pertsona hertsatu, atzendu batena. Ez, berriz ere dei egina zion, poztasun-mezua gizakiengana eraman zezan. «Lift up your heads» [«Altxa itzazue buruak»], nola zerion durundiz hura, deikunde-agindu larria, barne-barnetik! Eta bat-batean ikarak hartu zuen, zeren han berean zegoen, Jennens gaixoaren eskuak idatziz jaso: «The Lord gave the word».

Hatsa tratatu zitzaion. Hor bazen halabeharrezko giza aho baten bidez adierazitako egia: Jaunak bidalia zion hitza, goitik bidalia zitzaion. «The Lord gave the word»: Harengandik zetorren hitza, Harengandik zetorren soinua, Harengandik grazia! Harengana itzuli behar zen, Harengana goratu behar zen bihotzaren marea-goran; Haren laudoriotan kantatzea zen edozein sortzaileren poza eta eginbearra. Oi, ulertzea eta gogoan edukitzea, jasotzea eta astintzea, hitza, tenkatzea eta hedatzea, Lurra bezain naroa izan zedin, barnean har zezala existentziaren poz-ikara guztia, hura emana zuen Jainkoa bezain handia izan zedin, oi, hitza, hilkor eta galkorra, edertasun eta mugagabeko jaiera baten bidez atzera betikotasun bilakatua! Eta hara non, hantxe zen idatzia, han soinu egina zen, hitza, azkengabeki erre-

pika, eralda zitekeena, hantxe zen: «Aleluia! Aleluia! Aleluia!». Bai, bildu behar ziren Lurreko ahots guztiak, argiak eta ilunak, gizonezkoaren kementsua, emakumezkoaren malgua, haiek hanpatu eta areagotu eta antzaldatu, haiek elkartu eta banakatu koru erritmikotan, haiei gora eta beheara eragin Jakobon tonuzurubian, haiek leundu biolinaren zimikatze eztiarekin, haiek su eta gartu turuten jotze zoliarekin, haiei orro eragin trumoi-hotsean: Aleluia! Aleluia! Aleluia! Hitz haren bidez, esker onez, poz-irrintzi bat sortu, Lurretik ostera oihartzunduta gauza guztien egilearengana!

Malkoek Händelen begiak lausotu zituzten, hain zen itzela hertsatua zuen jaidura. Orriak zeuden oraindik irakurtzeko, oratorioaren hirugarren atala. Baina «Aleluia! Aleluia!» haren ondoren ezin izan zuen jarraitu. Ahots-bozkario hark betetzen zion barnea, tenkatzen eta hedatzen zen, min eragiteraino, turrustan atera eta gainezkatu nahian lebilkiokoen su isurkor baten eran. Oi, nola estutzen, hertsatzen zuen, harengandik nahi zuelako kanpora atera, nahi zuelako gora jo eta zerura itzuli. Arrapaladan, Händelek lumari heldu eta nota batzuk marraztu zituen, bizkortasun magikoz itxuratzen ziren ikurrak hurrenez hurren. Ezin gelditu zitekeen; ekaizpean oihalak beteak dituen itsasontzi bat bezala, aurrera jo zuen, aurrera. Inguruan isilik zegoen gaua, iluntasun umela ganean zuen hiri handiak. Beregan, haatik, burrustan zerion argia, eta ezarian gelak durunda egiten zuen unibertsoaren musikaz.

Biharamun goizean otseina begiratuki sartu zenean, Händel oraindik eserita zegoen lan-mahaian, idazten ari. Ez zuen erantzun, Christof Schmidtek, bere laguntzaileak, lotsaz galdetu zionean zerbait onurazkorik egiten ahal zuen eskuz kopiatzen. Maisua mehatxuzko kurrinka sor batez baino ez zen esplikatu. Inor ez zen ausartu gehiago harenganatzerara, eta hiru astean Händelek ez zuen gela utzi, eta, jatena zekarkiotenean, lehiatsu ogi apur batzuk birrintzen zituen ezker eskuaz, eskuinak idazten jarraitzen zuen bitartean. Izan ere, ezin zen gelditu, hura zen mozkorraldi handi bat gaineratu balitzaio bezala. Zutik jarrita gelan barrena zebilenean, goraki kantatuz eta neurria joaz, besteren behakoa zuten bere begiek; inork hitz egiten bazion, ikaratu egiten zen, eta bere erantzuna ausazkoa eta guztiz nahasia izaten zen. Bitartean otseinak lanak izan zituen egun haietan.

Hartzekodunak azaldu ziren, zorrak kobratzera; kantariak azaldu ziren, oroitzapenezko kantata bat eskatzera; mezulariak azaldu ziren, Händel erregeren jauregira gonbidatzera. Otseinak muzin egin behar izan zien guztiei, zeren, haren lanean hain buru-belarri zegoenari hitz soil batez zuzentzen saiatzen zenean, amorraraziaren hira lehoikara baino ez zuen topatzen. Azkeneko asteotan, Georg Friedrich Händelek ez zuen gehiago jakin izan denboraz eta orduetz, ez zituen gehiago bereizten eguna eta gaua, osoro bizi izan zen denbora erritmo-konpasetan soilik neurtzen den esfera hartan, egonezinez higitzen zen soilik beragandik zerion goaiak herrestaturik, gero eta basago, gero eta premiazkoago bihurtzen baitzen lana ur-jauzi sakratura hurbildu ahala, amaira. Bere baitara bildua, urrats zanpatzaileekin konpasa eroaten, behin eta berriz neurriak hartzen zizkion bere gelan sortua zuen leotzari. Kantuz aritzen zen, klabikordioa jotzen, gero berriz esertzen zen eta idatzi eta idatzi egiten zuen, eriak gori-gori eginda jarri arte; bizitza osoan zehar egundo behin ere ez zitzaion gainezkatu hura lako sormen-ernaldi oldartsurik, egundo behin ere ez zuen antz horretara bizi, antz horretara sentitu izan musika.

Azkenik, hiru aste doiren buruan —zerbait pentsaezina oraindik eta betierean!—, irailaren 14an amaitua zen lana. Hitzaren soinua bihurtua zen. Zimelezin loratzen zen eta durundi zegieen ordu arte elesta idor, gozakaitza baino ez zena. Arima gartuak nahimenaren miraria zuen gauzatua, nola behinola gorputz elbarrituaren gainean pizkundearena. Dena idatzia, sortua, taxutua zen, melodian eta oldar gaitzean garatua. Hitz bat baino ez zen ments, azkenekoa: «Amen». Eta «Amen» hari, bi silaba labur, lasterroi, Händelek orain ekin zien, haien bidez zerrurainoko soinua-eskala mailakatu bat eraikitzeko xedez. Ahots batzuetara jaurti zituen, eta gero besteetara koru mudakorrean; luzatu zituen, bi silabok, eta beste behin bata bestetik bereizi, are suharkiago haiek galdatan urtzeko berriz ere. Eta jainkozko arnasa nola, bere jaiera barrendu zen bere otowitz handiaren azkeneko nota horietan, lurbira bezain zabalak gertatu zirenak eta haren betearen betetik osatu. Hitz bakar hark, azkenekoak, ez zuen bera utzietsi, eta berak ere ez zuen hura bertan behera utzi. Hotsandiko fuga batean eraiki zuen «Amen» hura lehen bokaletik aurrera, A durunditsua, hatsarreko lehen hotsa, katedral bat

bihurtzeraino, burrunbari eta betea, eta gainerakoarekin zerua jo zuen, gora-goraka igoaz, berriro jaitsian eta berriro igoan, harik eta, azkenean organoaren erauntsiak atziturik, ahots bateratuen indarrak behin eta berriz abailan gorantz jaurtirik, esfera guztiak mukuru bete zituen arte, esker onezko ereserki hartan aingeruak ere kantuz ariko bailiren, eta sabaia haren gainera puskaka eroriko balitzan betiereko «Amen! Amen! Amen!» hori dela eta.

Nekeak neke zutitu zen Händel. Luma eskutik erori zitzaion. Non zegoen ere ez zekien. Ez zuen gehiago ikusten, ez entzuten. Nekea besterik ez zuen sentitzen, ezin neurtuzko nekea. Hormetan bermatu behar izan zuen, zabuka zebilen. Ahitua zitzaion indarra, heriozko nekadura zuen gorputzak, nahasiak zentzumenak. Itsu baten moduan haztamuka egin zuen aurrera hormaren luzera osoan. Gero, ohe gainera erori eta zerraldo lo egin zuen.

Goizean otseinak hirutan atea jo zuen emeki. Maisuak lotan jarraitzen zuen; geldirik, marmol-harritan zizelkatu antzean, asmatu ezinezko begitartearen zuek. Eguerdian, otseina laugarrenez esnatzen saiatu zen. Marranta-etzula egin eta atea jo zuen zoli. Alferrik. Lo bete haren sakonera neurrigabetik ez zen hotsik atera, ezta hitz erdirik ere. Arratsaldean, Christof Schmidt azaldu zen hari laguntzera. Händel oraindik hala-hala zetzan zurrin. Lo zegoenaren gainean makurtu zen: hala nola heroi bat gudu-zelaian hilik garaipena lortu izan ostean, berdinki zetzan hura bertan, nekeak jota egitandi ikaragarriaren ostean. Baina Christof Schmidt eta otseina, haiek ez zeuden inondik ere jakitun ez egitandiaz, ez garaipenaz. Hartan ere, hura hain luzaro etzanda, hain lazki geldirik ikusita, izu-larritu egin ziren; bel-durrez zeuden beste joaldi batek tanpez eraman ote lezakeen. Eta gauean, astinduka erabili izanagatik ere Händelek esnatu nahi gabe jarraitzen zuenez —baziren hamazazpi ordu horrela zetzala, sor eta zurrin—, Christof Schmidt korrika joan zen berriro medikuarenera. Ez zuen berehala aurkitu, Jenkins doktoorea, arrats beheara atsegina baliaturik, arrantzara joana baitzen Tamesiseko ur-bazterrera, eta, azkenik topo egindakoa, marmarka hasi zen ezorduko traba zela eta. Händeli buruzkoa zela entzun arte ez zuen arrantzu-tresneria bildu; hainbatekin, bere kirurgia-lanabesen bila joan zen —denbora handia emanda—,

seguruenik odolustea aplikatzeko, eta azkenean poneya trostan joan zen biekin Brook Street aldera.

Bertan zegoeneko zain zeukaten otseina, bi besoez haiei keinuka. «Berpiztua da», oihuka esan zien kalean gaindi. «Eta orain jaten ari da dozena-erdi bat zamaketariren pare. Janaldi batean urdaiazpiko egosiaren erdia garbitu du. Lau pinta garagardo bete behar izan dizkiot, eta berak are gehiago nahi».

Izan ere, hantxe zegoen Händel, errege moduan, mahai bete-bete baten aurrean eserita, eta, gau-egun batez hiru asteko loa egina zuen bezala, orain bere gorputz itzelaren laket bizian jan-edanean zebilen suharrez, behingoz berritu nahian-edo as-tetan bere lanaren kariaz emanak zituen indarrak. Doktorea ikusi orduko hasi zen barreka, eta, ezari-ezarian, ezin zabalago, durunditsu, burrunbari, hiperboliko bihurtu zen barre-algara; Schmidt gogoratu zen iragan asteotan irribarre bat ere ikusi gabe zegoela Händelen ezpainetan, tentsio eta sumina baizik; orain, aldiz, eztanda zegien bere izaeraren berezko izanik baratua izan zen alaitasun jatorrizkoak, durunda zegien hala nola itsasgorak harkaitzen kontra, kiribiltzen eta hausten zen hots indartsutan: bere bizi guztian, Händelek egundo ez zuen barre egin izan orain, medikua heltzen ikustean, bezain bere-berez, sentituz egundo ez bezala onik zela eta bizi-poza barnetik zeriola atertu gabeko zalapartan. Pitxerra gora jaso, eta beltzez jantziarengana astindu zuen agur antzean. «Aiei, mila deabru!», oihukatu zuen harri eta zur Jenkins doktoreak. «Zer duzu? Zer-nolako elixirra edan duzu? Leher egiteko zaude osasunez! Zer gertatu zaizu?».

Händelek begiratu zion, barrez, begiak distirant. Gero, apur-apurka, ganorazko jarri zen. Astiro zutitu eta klabikordiora alderatu zen. Haren aurrean eserita, eskuak giltzen gainetik joan zitzaizkion, ukitzeke. Gero biratu zen, barre bitxia egin zuen eta eztiro jotzen hasi zen, erdi mintzaz, erdi kantuz, erreztatiboaren melodia: «Behold, I tell you a mystery» («Adizazue, sekretu bat kontatuko dizuet»)... *Messiathen* hitzak ziren, eta txantxa-giroan hasia zen. Baina hatzak aire epelean murgildu orduko, herrestan eraman zuen. Jotzen ziharduen artean, besteez eta bere buruaz ahaztu zen; ongiro, berezko joairak eroan zuen arras-taka. Bat-batean berriro murgilik zen obraren erdian, abesten, jotzen zituen orain arte ametsetan bezala baino ez itxuraturiko azkeneko koruak; orain, ordea, lehen aldiz aditzen zituen ernai:

«Oh death where is thy sting» («O herioa non da hire eztena?»), barne-barnean sentitu zituen, biziaren garrak zeharkatuak, eta ahotsa goragotu zuen, koruak bezala, bozkariotan, pozaren handiz, eta jarraitu zuen jo eta jo, eta kantuz kantuz «Amen, Amen, Amen» delakoraino. Eta gela, nota haien kariaz, doi-doi ez zen behera etorri, hain bizi, hain oldar betean jaurti zuen bere indarra musikan.

Jenkins doktorea sorgor antzean zegoen. Eta, Händel azkeanean zutitu zenean, herabeki miretsita esan zuen, zerbait esate aldera beste gabe: «Ene bada, gizona, sekula entzun gabea nintzen holakorik. Bai eiki, deabrua daukazu gorputzean».

Orduan Händeli ilundu zitzaion begitarte. Bera ere ikaraturik zegoen lotan bezala gertatu izan zitzaizkion obra eta grazia zirela eta. Bera ere lotsa zen. Bira egin eta ahopeka, besteek ozta entzun ahal izateko moduan, esan zuen: «Uste dut, aitzitik, Jainkoa nirekin egon dela».

Zenbait hilabete geroago, ongi jantzitako bi gizonezko atea jo zuten Abbeystreet-en errentan hartua zuen etxean, non Londresetik etorritako apopilo prestua, Händel maisu handia, bizi zen Dublinen. Begirunez, eskaera bat zekarten. Hilabete horietan Händelek gozarazi izan zuen Irlandako hiriburua hain obra bikainekin, nola sekula entzunak ez baitziren inguru hartan. Aditzea zutenez, bere oratorio berria, *The Messiah*, han ere eszenaratu nahi omen zuen lehenbizikoz; ez zen ohore txikia hark hiri hari hain zuzen, Londresi baino lehen, eskaini nahi izatea bere sortze-lan berrienaren lehen emanaldia, eta kontuan hartuz halako kontzertu baten ohiz kanpokoak, itxarotekoak ziren etekin bereziak. Hortaz, etorriak ziren galdetzera ea maisuak, bere eskuzabaltasun denontzat ezagunean, ez ote lizkiekeen helarazi nahi izango estreinako entzunaldi haren irabaziak beraiek ordezkatzeko ohorea zuten ongintzako elkarteei.

Händelek adiskidetsu begiratu zien. Hiri hura maite zuen, elkarrenganako maitasuna zen, eta bihotza zabal-zabalik zuen. Gogo onez egingo luke, eta irribarre egin zuen. Aski zuten esatea etekinak zein elkartetara xedatuko ziren. «Presoen babesera espetxe batzuetan», esan zuen lehenengoak, ile zuriko gizon onbera batek. «Eta Mercier ospitaleko gaixoentzat», erantsi zuen besteak. Hala ere, esan beharrik ez, bihotz handiko eskaintza

hori lehenengo entzunaldiaren irabaziei baino ez zegokien, bes-teenak maisuarentzako izango lirateke.

Baina Händelek uko egin zuen. «Ez», esan zuen apal, «lan honen truke dirurik ez. Sekula ez dut dirurik kobratuko hargatik, sekula ez; horretan beste batekin nago zorretan. Gaixoentzat eta presoentzat izango da beti, ni neu izan naizelako gaixo bat, bai eta haren bidez sendatu ere. Eta preso bat ere izan naiz eta hark askatu ninduen».

Bi gizonetakoak begiak altxatu zituzten, miraz edo. Ez zuten osoroan ulertzen. Baina behin eta behin eskerrak eman, buru-makurka agurtu eta alde egin zuten albiste ona Dublinen barrena zabaltzera.

Azken probasaioa 1742ko apirilaren 7an egiteko asmoa zuten. Sartzeko bidea bi katedraletako koru-abeteslarien ahai-de gutxi batzuei baino ez zitzaien eman, eta, aurrezte aldera, Fishamble Streeteko Music Hall-eko barrunbea motel argiztatua izan zen. Bakan eta barreiu, han bikote bat eta hemen talde bat, eserita zeuden banku hustuetan, Londresetik jiniko maisuaren opus berria aditzeko, areto zabala, itzal eta hotz, ilunpean zegoelarik. Baina koruak, oiharrots handiko katarata antzo, orroka hasi zirenean, ohi ez bezalako zerbait gertatu zen. Nahi gabe, talde banakak elkarren aldera egin eta, pixkana, entzundakoaz mirarituriko bloke bakar eta ilun bat osatu zuten, bakoitzari iduritzen baitzitzaion egundo entzun gabeko musika haren oldarra norberetzat, ale banako gisa, larregizkoa zela, aurrean hartu eta eramane behar balu bezala. Elkarrengana hurbildu ziren gero eta estuago, bihotz bat bakarrarekin entzun nahiko balute bezala zen, eliz komunitate bat bakarra bezala jaso itxaropen mezua, zeinak, aldiro bestelako eran adierazia eta formulatua, oihartzunez ihardesten baitzuen elkarri josiriko ahots haietan. Bakoitza ahul sentitzen zen hatsarreko indar haren aurrean, eta halere dohatsu, hark atzitu eta arrastatua. Atseginezko inarrosaldi bat ibili zen guztion artean, gorputz bat bakarra balira legez. Noiz ere lehenengoz durunda egin baitzuen *Aleluiak*, tanpez zutitu zen bat edo bat, eta beste guztiak, astinaldi batez nola, denbora berean altxatu ziren. Sentitzen zuten ezin zitezkeela gelditu lurrera itsatsita. Indar hark gatibaturik, zutik jarri ziren, euren ahotsekin Jainkoagandik hazbete bat gertuago egoteko eta, hari zerbitzatzeko prest, euren begirunea eskaintzeko. Gero joan zi-

ren eta atez ate kontatu zuten Lurraren gainean egundo sortu gabeko musika-artelan bat entzuna zutela. Eta hiri osoa dardarak hartu zuen irrikaz eta poztasunez, maisulan hura aditzeko asmotan.

Sei egun geroago, arratsean, jendetza pilatua zegoen ateen aurrean. Damak kotapekorik gabe ziren etorriak, eta gizonak ez-patarik gabe, entzule gehiagori leku eman ahal zekion aretoan; zazpiehun pertsona bertaratu ziren, inoiz iritsi gabeko kopurua, halako abailan zabaldu izana zen musika-lan haren ospea; musika hasi zenean, ordea, ez zen inoren hats-hartzerik aditzen, eta entzunaldia gero eta isilago egin zuten. Baina orduan koruek urakan indarrez kantatzeari ekin zioten eta bihotzak dardaratzten hasi ziren. Händel organoaren ondoan zegoen. Bere obra zaindu eta zuzendu nahi zuen, baina itzuri egin zitzaion, eta bertan galdu zen, besteren egin zitzaion, berak sekula aditu izan ez balu bezala, sekula sortu eta taxutu ez, berriro ere turrustak berak herrestan eramanda. Eta amaieran «Amen»a emeki goititu zenean, ohartzeko, ezpainak zabaldu zitzaizkion, eta koruarekin batera abestu zuen, abestu, bere bizian egundo abestu ez bezala. Hala ere gero, besteen zoramenak aretoa bete zuenean txaloka eta oihuka, bera zegoen lekutik aldaratu zen, eskerrak ematearren ez hari eskertu nahi zioten pertsoneri, obra hura eskaini izan zion graziari baizik.

Ur-atea ireki izana zen. Urtetan eta urtetan, soinu-jarioak eman eta eman jarraitu zuen. Ordutik gero deusek ezingo luke Händel makurrarazi. Deusek ezingo lur joarazi berpiztu izandakoari. Berriro bankarrot egin zuen berak Londresen sortu opera taldeak, berriro zorrekin jazarri zitzaizkion hartzekodunak: oraingoan, baina, zutik egon zen eta buru egin zien makur guztiei. Axolagaberik, hirurogeitaka urtekoak bidea ibili zuen bere lanen mugarrietan zehar. Zailtasunak bata bestearen atzetik izanagatik ere, haiek gainditzen jakin zuen glorian. Adinak haren osasunari azpijana egin zion apurka, besoak herbaldtu zitzaizkion, hezueriak zurrundu zizkion zangoak, baina gogo nekaezinez aritu zen sortu eta sortu. Azkenik begien argia galdu zuen; bere *Jephta* idatzi bitartean itsutu zen. Alta bada, are begi itxiekin, Beethoven belarri itxiekin bezala, jardun eta jardun egin zuen sormenezko lanean, nekaezin, garaiezin. Are eta apalago

ere Jainkoaren aitzinean, zenbat eta handiagoak izan bere garaitzak munduan.

Artista zinezko eta zorrotz orok bezala, Händelek ez zituen aintzatzen beronen obrak. Bat halere maite zuen, *Mesiasa*, esker-ordaintzat maite ere, onik aterarazi zuelako bere buruaren erroitzetik, haren bidez bere burua berrerosi zuelako. Urterik urte emanaldiak izan zituen Londresen, eta aldiro diru-sarrera osoa, aldiro bostehun libra, erietxeen hobekuntza-lanetarako igorriak izan ziren. Sendatua izan zenaren aldetik, premian zirenentzat; lokabetu izan zenaren partetik, artean ziegetan lotuak ziren haientzat. Eta Hadesean gora igo zen obra honekin nahi izan zuen ere agur esan. 1759ko apirilaren 6an, jada gaixo handi, hirurogeita hamalau urteko maisuak onartu zuen Covent Garden-go podiumerantz eraman zezaten ostera ere. Eta han zutik egon zen, gizon erraldoi itsua, bere leialen erdian, inguruan musikariak eta kantariak zituela: bere begi huts, itzaliekin ezin ikus zitzaketen. Baina burrunba-hots handiz doinuaren uhinek harenaganaino egin zutenean, ehunka ahotsei zerien ziurtasun bozkarioa urakan antzo hanpatu zenean, orduan begitarte unatua argitu eta kemena itzuli zitzaion. Besoak zabukatu zituen konpasa joz, kantatu ere bai halako ganoraz eta fedez, apaiz modura bere hilkutxaren buruan balego eta guztiekin batera bere eta gainerakoen salbamenaren alde otoitz egingo balu bezala. Soilki behin, tronpetak durundiz hasi zirenean «The trumpet shall sound» hel-deiari erantzunez, dardara txikia egin eta begi finkoekin so egin zuen gorantz, ordukoz Azken Judiziorako prest balego bezala; jakitun zen bere obra ondo egina zegoela. Burua zut aurkezten ahal zen Jainkoaren aitzinean.

Hunkiturik, lagunek etxera eraman zuten itsua. Haien ere agurra zelako sentipena zuten. Ohean, oraingoraindik ezpainak higitzen zituen emaro. Marmarrean hasi zen, Ostiral Santuan hil nahi zuela. Medikuak harri eta zur gelditu ziren, ez zioten ulertzen, ez baitzekiten Ostiral Santu hura apirilaren 13a zela, esku larriak lurrera jaurti zuen eguna, bai eta haren *Messiah* lehen aldiz munduan joa izan zen eguna. Beregan dena hila zen egun berean berpiztu izan zen. Berpiztu izan zen egunean hil nahi zuen, betiko bizitzara berpiztuko zela segur izateko.

Eta egiaz, borondate paregabe hark ahalmena eduki zuen, biziaren gainean bezala, are herioaren gainean ere. Apirilaren

13an, Händeli huts egin zioten indarrek. Ez zuen deus ere gehiago ikusten, ezta entzuten ere; geldirik zetzan gorputz neurrigabea kuxin artean, oskol huts, astun bat. Baina hala nola maskor hutsen oihartzuna eragiten baitu itsasoaren burrunbak, halaber haren barneari zeragion ezin entzunezko musika baten firfirak, hark sekula ez aditurikoa baino bitxiago eta ederragoa. Astiro, haren premiazko goraldiak arimaren lotura eten zuen gorputz abaildutik, hura pisugabetasunaren eremura garraiatzeko. Uhalde batetik bestera, amaigabeko oihartzunetik amaigabetasunaren esferara. Eta biharamunean, artean esnatzeke zirela pazko-kanpaiak, hil zen azkenik Georg Friedrich Händelen baitan hilkizun zena.

5

GAU BATEKO JENIOA Marseillesa, 1792ko apirilaren 25a

1792. Bi, hiru hilabete jada Frantziako Nazio Biltzarrean ezbaian dutela erabakia: gerra kaiser eta erregeen koalizioaren kontra, edota bakea. Luis XVI.a bera zalantzan dago; iraultzaileen garaipen baten arriskua du susmo, bere porrotarena ere bai. Erabaki gabe daude halaber partiduak. Girondinoek, aginteari atxikitzeko, gerrarantz egiten dute bultza; Robespierre eta jakobinoak bakearen alde borrokatzen dira, bitartean beraiek botereaz jabetzeko. Egunetik egunera gero eta tenkagoa da egoera; berripaperak hautsak harrotzen; klubetan eztabaidan dihardute. Burrunban barreiatzen diren zurrumurruak gero eta alegiazkoagoak dira, herri-iritzia are eta areago gartuz. Erabaki bat hartzen denero, lasaibide moduko bat bihurtzen da, apirilaren 20an bezala Frantziako erregeak azkenean Austriako kaiserrari eta Prusiako erregeari gerra deklaratu dienean.

Odola irakiteko adinako tenkaldi latza asterik aste hondoratuz doa Paris gainean; baina are hertsagarriago, are mehatxagarriagoa da mugaldeko hiriei gaineratzen zaien asaldura astuna. Kanpamentu guztietan elkartuak dira honezkero soldadu osteak. Herri bakoitzean, hiri bakoitzean errekrutatzen dira borondatezkoak eta milizianoak. Nonahi gotorlekuak konpontzen dira, eta batez ere Alsazian, jakina baita hango zotal gainean, beti bezala Frantzia eta Alemania artean, epai printzipala emango dela. Rhin ibaiaren ertzetan dago etsaia, aurkaria, zeina ez baita Parisekoa bezala ideia patetiko-erretoriko lauso bat, baizik bertan egote ikuserraz, sentigarria; gotorturiko zubiburuan eta katedraleko dorretik begi hutsez hauteman daitezke prusiarren erregimentuak, hurbiltzen ari. Gauean eta ilargitan,

soraio, bris-bris egiten duen ibai handiaren gainetik, jira eta biraka aurrera doan artilleria etsaiaren asotsa, iskiluen tintina, turuta-deiak dakartza haizeak. Eta denek dakite: aski da hitz bakar bat, dekretu bakar bat, kanoi prusiarren aho isiletarik tximistak eta trumoiak hustu daitezen, berriro ere has dadin milaka urteko borroka Frantzia eta Alemania artean... oraingoan askatasun berriaren izenean aldeetako batean, eta ordena zahar-raren izenean bestean.

Horregatik, egun bakana da 1792ko apirilaren 25a, postariak gerra deklaratu delako albistea dakarrenean Parisetik Estrasburgora. Berehala kale eta etxe guztietarik herria trumilka doa plaza agerietara, soldadu talde osoek gerrarako prest desfilatzen dute azkenekoz, erregimentuz erregimentu. Plaza nagusian zain dute Dietrich auzapeza, soin-enborrharen inguruan zerrenda hiru-kolorea, xingola arrosa kapelan, hari eragiten diola agur-keinuz soldaduen aldera. Turuten joak eta danbor-errepikiek isil-deia dakarte. Boz goraz, Dietrichek gerra-deklarazioaren testua irakurri du frantsesez eta alemanez plaza horretan eta hiriko beste plaza guztietan. Haren azken hitzen ondoren, erregimentuko musikariek Iraultzaren lehen gerrakantua, behin-behinekoa, abestu dute. *Ça ira* delakoa. Funtsean dantzarako doinu piperdun, lotsagabe, trufazko bat da, nahiz eta abia hartutako erregimentuen pauso-hots sorgarriek ukitu militarkara ematen dioten. Gero jendetza gartuta sakabanatu da, gogo beroa berekin eramaki kalezulo eta etxe orotara; kafeetan, klubetan hitzaldi sutsuak egiten dira eta aldarriak banatzen. «Aux armes, citoyens! L'étendard de la guerre est déployé! Le signal est donné!»; horrelako edo antzeko deialdiekin hasten dira, eta nonahi, mintzaldi orotan, berripaper orotan, afixa orotan, ezpain orotan errepikatzen dira deiadar kolpekari eta erritmodunak, hauek kasu: «Aux armes, citoyens! Qu'ils tremblent donc, les despotes couronnés! Marchons, enfants de la liberté!», eta behin eta berriro jendaldeak orroka hartzen ditu ele gartsuak.

Gerra-deklarazio baten ondoren jende gehien-gehienek beti alegeraz oihu egiten dute karrika eta enparantzetan, baina zoramenezko aldiuneotan mobilizatzen dira halaber beste ahots batzuk, apalagoak, erditik kenduak; beldurra eta kezka ere ernatzen dira gerra-deklarazio baten kariaz; aldea da ahots horiek ahopeka ezkutuan aritzen direla ganbaretan edota isilik geratzen

direla ezpain zurbiletan. Betiere eta nonahi izaten dira amak, beren artean diotenak: Atzerriko soldaduek ez ahal dituzte nire semeak hilko. Erresuma guztietan badira euren etxaldeen, euren alorrez, euren bordez, euren aziendez, euren uztez kezkatzen diren laborariak. Aldra basatiek ez ote dituzte euren ereintzak oinkatuko, ez euren etxeak arpilatuko, ez odolez ongarrituko euren lurlantza? Alta bada, Estrasburgoko auzapezak, Friedrich Baron Dietrich-ek —aristokrata bat funtsean, Frantziako aristokrazia onena bezala, askatasun berriaren kausaren alde bihotz osoz engaiatua— nahi duen bakarra da oihartzun ozeneko ahots baikorrak entzunaraztea; jakinaren gainean, herri-festa bilakatu du gerra-deklarazioaren eguna. Bularraren inguruan zerrenda duela, lasterka doa batzar batetik bestera, biztanleei adore emateko. Ardoa eta jangaiak banarazi ditu frontera joango diren soldaduentzat, eta gauean, Place de Broglie-ko bere etxe lekutsuan, jeneralak, ofizierak eta administrazioko enplegatu nagusiak elkarrarazi ditu agur-festa baterako, jada haste-hastetik gogo beroak eman diolarik garaipen-ospatze baten tankera. Bertan buru dira jeneralak, beti bezala irabazteaz segur baino segurago; ofizial gazteek, gerran asetzen baitute euren bizitzen zentzua, mintzo-askatasuna dute. Batak bestea su eta gartzen du. Dantzatzen dituzte ezpatak, topa egiten dute denak besarka loturik, eta ardo onaz bustiriko hitzaldiak gero suharrago bilakatzen dira. Eta berriz ere solasaldi guztietan arraberritzen dira paper eta aldarrietako akuilu-ele berdinak: «Armetara, herritarrok! Goazen! Salba dezagun aberria! Laster dar-dar eginen dute errege koroatuek. Orain, garaipen-bandera zabaldua dela, heldu da eguna munduan barna hiru-kolorea eramateko! Nork bere onena eman behar du orain, erregeren, banderaren, askatasunaren alde!». Horrelako uneetan, herri osoak, erresuma osoak batasun sakratu bat osatu nahi du garaipenaren uste osoan eta askatasunaren kausaren alde gogoberotzeko.

Bat-batean, hitzaldien eta topa-egiteen erdian, Dietrich auzapeza bihurtu da bere ondoan eserita dagoen garnizioko kapitain gazte batengana, izenez Rouget. Gogoratu berri du urte-erdi dela, Konstituzioaren aldarrikapena zela bide, ofizier adeitsu, ez, egia esan, galant baina atsegin horrek idatzi izana zuela, txukun askirik, askatasunaren aldeko ereserki bat, zeinari Pleyel-ek, erregimentuko musikariak, fite jarria zion musika. Eta

gertatu zen lan laño hura kantagarria zela, banda militarrek probasiaoak eginak zituen, plaza agerian joa zeukatzen eta koroak abestua. Gerra-deklarazioak eta osteen abiatzeak ez al zuten bide ematen antzera ospatzeko? Hartara, Dietrich auzapezak, axola emateke, are elaire bati mesede-eske baletorkio bezala, galdetu dio Rouget kapitainari —ezein eskubiderik gabe handikitu dena bere buruari Rouget de Lisle izena emanez— ez ote lukeen nahi izango, estakuru aberkoia profitaturik, abiatu behar duten soldaduentzat zerbait paratu, gerra-kantu bat biharamu-nean etsaiaren aurka aterako den Rhineko armadarentzat.

Rouget gizon xume, ezdeus bat da, bere burua musikagile handitzat sekula eduki ez duena —haren operak baztertuak izan ziren, eta haren bertsoak nehoiz ez argitaratuak—, eta badaki ez zaiola batere neke izaten noiz nolako neurtitzak idazlumara isurtzea. Goi-funtzionarioari eta lagun onari atsegin emate aldera, prest dagoela ihardetsi du. Bai, ahalegina egingo du. «Bravo, Rouget», topa egin du haren aitzinean eserita dagoen jeneral batek, eta premiatu kantua izan orduko gudu-zelaira igortzeko; Rhineko armada, erantsi du, urrats bizkorreko martxa aberkoi baten beharrean egon liteke. Bitartean, beste bat su-mintzaldi bat botatzen hasten da. Berriro trinka eta topa, zalaparta, edan egiten da. Baga gero eta puztuagotan, gogo bero orokorra zorizko eleketatik tipitik harago doa. Tripa-festa are sutsuago, zaratatsuago eta frenetikoago bihurtuz doa, eta gauerdia arta askorik gabe aspaldi iragan da, gonbidatuak auzapezaren etxetik erretiratu direnean.

Berandu da, gauerdi ondoa. Apirilaren 25a, gerra-deklarazioaren data, hain egun zirrargarria Estrasburgoko hiriarentzat, azkenetan da. Egiaz, honezkero egundu du apirilaren 26ak. Gauiluna da etheen gainean, baina ilun tronpagarria da, hiria oraino sukarraren mende baitago asalduragatik. Kasernetan, soldaduak paratzen ari dira martxan jartzeko, eta, sareta hetsien giblean, zuhurren arteko zenbaitzu, apika ere ihesirako, ezkutuan. Kaleetan batailoi banaka batzuek desfilatzen dute; haien artean, ziztuz lauhazkatzen diren posta-zaldien apatxak entzuten dira. Gero ondotik iragaten da artilleria astuneko beste konboi baten burrunba, eta behin eta berriz, betiberdin, begirarien deiadarrak durunda egiten du postu batetik bestera. Gertuegi dago etsaia, eta sobera koloka, sobera asaldatua hiriaren arima, horren une erabakigarrian begiak biltzeko moduan.

Orobat Rouget, oraintsu katuka egin duena eskailera biribilkaretan gora Grande Rue-ko 126 zenbakiko bere gelatxo xumeraino, bihotza mugitua sentitu da bitxiki. Ez zaio promes emana ahanzi, ahal bezain fite gerra-kantu bat egiten ahalegintzekoa Rhineko armadarentzat. Urduri, alde batetik bestera dabil bere gela estuan. Nondik hasi? Nondik hasi? Oraino dauzka buruan aldarrien, hitzaldien, topa-egiteen deiadar gartsuen burrunba-hots kaotikoak. «Aux armes, citoyens! ... Marchons, enfants de la liberté! ... Écrasons la tyrannie! ... L'étendard de la guerre est déployé! ...». Haatik, gogoan ditu halaber iragatean entzun dituen beste eleka batzuk, beren semeengatik dardaraz auden emakumeen ahotsak, laborarien kezkek, ez ote dituzte kohorte arrotzek oinpean erabili eta odolez ongarrituko Frantziako alorrak. Erdi oharkabean idazten ditu lehenengo bi lerroak, deiadar horien oihartzun, durundi, erreberberazio baino ez direnak.

*Allons, enfants de la patrie,
Le jour de gloire est arrivé!*

Gero gelditu, eta zurturik geratu da. Hatsaren hotsean, ahotik belarrira. Ez da haste txarra. Orain ments den bakarra erritmo egokia aurkitzea da, hitzoi legokien doinua. Arrabita atara du armairutik, probatzeko. Eta miraria: jada lehen neurrietan erritmoa ezin hobeki egokitzen zaie hitzei. Arrapaladan idazten jarraitu du, honezkero gogoahituta, honezkero beragan hats hartzen duen indarrak herrestan eramanda. Eta behingoan oro pilatzen da kolpean: une horretan askatu diren sentimenduak oro, kalean eta oturuntza bitartean entzun dituen hitzak oro, tiranoen kontrako herra, sorterriarekiko lotseria, garaipenean uste betea, askatasunari maitazarrea. Rougetek ez du deus inprobisatu, asmatu behar, errima osatu besterik ez du behar, gaur, egun bakan horretan, ahoz aho ibili diren hitzei bere melodiaren erritmo liluragarria eman, eta, horrekin, herriak arimaren sakonenean sentitzen duen oro adierazi, oro erreproduzitu eta oro kantatu ahal izango du. Eta ez du konposatu behar, zeren leiho-sareta hetsietatik zehar barneratzen baitzaio kalearen, mementoaren erritmoa, soldaduen pauso martzialean, turuten hotsean, kanoien burrunban dagoen erronkaren eta hordagoaren kadentzia hori. Agian berak ez du aditzen, ezta bere belarri

erneak ere, baina gau bakan hartan haren gorputzean ostatatu den orenaren jenioak hari aditu dio. Eta doinuak, gero eta ma-
naerrazagoa, men egiten dio herri oso baten taupada den neurri mailukari, bozkariotsu horri. Besteren agindu baten pean beza-
la, Rougetek tarrapatan eta geroago tarrapatanago idazten ditu hitzak, notak. Ezustean gaineratu zaio sukar-bulta bat, ordura arte ez bezala haren arima burges estua marruka zeharkatzen duena. Harena ez den goraldi batek, beroaldi batek, segundo ba-
kar eta zartagarri batean kontzentratu ahalmen magiko batek, diletante gizajoa herrestatzen du haren beraren mugen oso gai-
netik eta, tximistaren gisa, jaurtitzen du —lipar batez, argi eta gar izpitsu— izarretaraino. Gau batez, Rouget de Lisle kapitain lotinantari onartzen zaio hilezkorren haurride izatea: hasieran kaletik, berripaperetarik maileguz hartu eta bereganatu dituen deiadar horietarik osatuz doa mezu sortzailea, gora igotzen dena eratua geratu arte ahapaldi batean, zeina bere formulazio poeti-
koan hain iragangaitza baita nola doinua hilezkorra.

*Amour sacré de la patrie,
Conduis, soutiens nos bras vengeurs!
Liberté, liberté chérie,
Combats avec tes défenseurs!*

Gero oraino bosgarren ahapaldi bat, azkenekoa, eta bihotz-zirrara batetik hasi eta buka ondua, bikaintasunez josiz hitza eta doinua, egunsentia baino lehen azkendua dago eresi hilezkorra. Rouget, argia itzalitakoan, ohe gainean etzan da. Zer edo zerk, ez daki zer, goitiarazi egin du bere sentsuek egundo ez sentitu argiune batera; zer edo zerk hondoratzen du orain akidura sor batean. Lo hagitz dorpe bat dagi, herioren antza duena. Eta egiaz, honezkero beregan hil da berriro sortzailea, poeta, jenioa. Mahai gainean, alabaina, deslotua lotan dagoenagandik, zeina eskierki mirari horrek murgildu baitu hordialdi sakratu batean, kausitzen da lan betegina. Herri guztien historian nekez gertatu-
ko da birritan kantu bati hitzak eta doinua batera jarri izana hain azkar eta halako bikaintasunaz.

Münster-eko kanpaiek beti bezala goiztiri berri bat iragartzen dute. Noizbehinka, Rhin ibaitik honantz, tiroren bat edo beste dakar haizeak, lehen gudu tipiak hasi dituzte. Rouget itzartzen da. Neketan eta haztamuka ageriratu da loaren lei-

zetik. Zerbait gertatu da, sentitzen du lañoki, berekin gertatu ere, lausoki baino gogoratzen ez duen zerbait. Orduan lehenik konturatzen da mahaiaren gainean dagoela paper orri idatzia. Bertsoak? Noiz idatzi ditut? Musika, nik neure eskuaz? Noiz ondua? Hots, bai, zera da, atzo Dietrich bere lagunak eskatu kanta, Rhineko armadarentzako kanta! Rougetek bere bertsoak leitu ditu, ahopeka darabil doinua, nahiz eta, beti bezala artistak beren obraren aurrean, guztiz ez-ziur sentitu. Baina erregimentu-kide bat bizi da ondoan, hari erakutsi eta kantatu dizkio. Lagunak gogobeterik dirudi eta aldaketa ttipi batzuk baino ez ditu proposatu. Lehen baietz horrekin, nolabaiteko uste ona irabazi du Rougetek. Egile batek bere-berea duen egonezin osoarekin eta harro bere promesa hain fite bete izana dela eta, berehala agertu da Dietrich auzapezaren etxean, zeina goizeko pasieran baitabil lorategian eta bat-batera hitzaldi berri bat prestatzen. Nolatan, ba, Rouget? Honezkero bukatua? Ba, segidan egingo dugu probasarioa. Badoaz biak lorategitik etxeko gela nagusira, Dietrichek piano-laguntza egin dio, Rougetek testua kantatu. Ezusteko musika goiztiarrak erakarrita gelaratu da auzapezaren emaztea, eta bere burua lotu du kanta berriaren kopiak egin eta, musika ikasia denez, fite piano-laguntza hobetzera, zertarako eta beranduago etxeko lagunei eskainiko dieten gau-jaialdian bertan denetarik abestien artean jo ahal izateko. Dietrich auzapezak, bere tenor ahots atseginaz harro, bere gain hartu du kanta arretaz lantzeko ardura, eta apirilaren 26an, ordu txikietan hitzak eta musika ondu ziren egun bereko gauean, jotzen da lehen aldiz zorizko lagunarte baten aitzinean auzapezaren gela nagusian.

Agidanean entzuleek txalo egin zuten atseginaz, eta oso litekeena da bertan zegoen egilea ez zela geratu mota guztietako ele onen eskasean. Baina, esan gabe doa, Strasburgoko plaza nagusiko Hôtel de Broglieko gonbidatuek arrastorik ere ez zuten jakin gau hartan melodia hilezkor bat hasi berria zela ezin ikusizko hegoak astintzen euren presentzian. Bakanetan ulertzen dute garaikideek lehen behakoan gizon baten edo obra baten handitasuna, eta zer puntutaraino auzapezaren emaztea ez zen harrigarritzko memento haren jakitun erakusten du bere anaia-ri igorri zion gutunak, non mirariari garrantzia kentzen baitio lagunarteko gertaera hutsaltzat joaz. «Badakizu etxean jende asko hartzen dugula eta beti zerbait berria asmatu behar dela

solasaldian libertimendua bilatzeko. Hortaz, nire gizonak buru-tapena izan zuen pasamoduko kanta bat moldatzea agintzeko. Ingeniari-kidetzako kapitain batek, —Rouget de Lisle, poeta eta musika-ontzaile adeitsua— gerra-kantu baterako musika pres-tatu du fite. Nire gizonak, tenor-ahots polita duenez, segidan kantatu du pieza, zeina kilikagarria den eta mentsik ez duen nolabaiteko bitxitasuna. Gluck baino hobea da, biziagoa, alaiagoa. Neure aldetik, neure dohainaz orkestratzen lagundu dut eta partitura arranjatu piano eta beste musika-tresna batzuetarako, hortik oso lanpeturik egon izana. Pieza gure etxean aurkeztu zen, hona bildutako guztien oso-osoko gogarako».

«Lagunarte guztiaren oso-osoko gogarako»... horrek egun dirudigu harri eta zurtzeko moduko hoztasuna. Baina iduripen soilki atseginezko eta oniritzi soilki epel horiek ulergarriak dira, estreinako entzunaldi horretan oraino *Marseillesak* ezin agerrarazi izan zuelako bere benetako indarra. *Marseillesa* ez da zeinahi bertso sail tenor-ahots gozo baterako jendaurrean erakusteko, ezta areto burges ttipi batean erromantza eta aria italiarren artean bakarlari batek abesteko ere. «Aux armes, citoyens», herriarrei armak hartzera dei egiten duten erronkazko konpas mailukari, lumak galtzeko modukoak dituen kantu bat masa batengana zuzentzen da, jendeketa batengana, eta dagokion instrumentazioa da arma-hotsa, turuten durunda, erregimentuak abian. Ez zen pentsatua eroso eta hotzepel eserita goza duketen entzulerentzat, gogaide, gudularientzat baizik. Ereduzko martxa, garaipen-kantu, herio-kanta, abesti aberkoi hori, herri oso baten nazio-ereserkia, ez da soprano edo tenor-ahots batek laguntzarik gabe kanta dezan, jende oste handi baten milaka eztarrirentzat baizik. Lehenbizian sortua izan zeneko gogoberotasunak soilik eman zion Rougeten kantuari indar sutzaile hori. Oraino kantuari ez zaio sua lotu, oraino ez hitzek, euren oihartzun magikoaz, ez doinuak ez dute erdietsi nazioaren gogoia, oraino gudarosteek ez dute ezagun euren martxa, euren garaipen-eresia, ez eta iraultzak bere gudu-kanta betierekoa.

Ez Rouget de Lislek berak, zeinari gauetik biharrera agitu zaion mirari hori, ez besteek ez dakite hark, somnanbulu eta jenio ezleial batek gidatua, gau bakar batean sortu duenaren berri. Diletante jator, prestua pozik dago, noski, gonbidatuek txalo beroak eskaini dizkiotelako eta autorea den aldetik ele onak

jaso ditu eta. Gizaki tipi baten burgoitasun tipiarekin saiatzen da bere txokoko adiskideen artean arrakasta tipitik abantaila ateratzen. Kafe-etxeetan bere kamaraden artean kantatzen du melodia berria, kopiak eginarazi eta Rhineko armadaren jeneralei igorri dizkie. Bitartean, auzapezaren aginduz eta agintari militarren mandatuz, Estrasburgoko banda militarrek *Rhineko armadarentzako gerra-kanta* saiatu du, eta lau egun geroago, ostean irteerarekin batera, Estrasburgoko Guardia Nazionaleko bandak plaza nagusian jo du martxa berria. Keinu aberkoi batean, Estrasburgoko editorea ere prest agertu da *Chant de guerre pour l'armée du Rhin* inprimatzeko, Luckner jeneralari bere agindupekoen aldetik begirunez eskainia. Baina tropen aitzinabidean Rhineko armadako ezein jenerali ez zaio bururatu doinu berri hori jo edo kantaraztea, eta horretara badirudi ezen, Rougeten lehengo saio guztiak bezala, *Allons, enfants de la patrie* horren gizarteango arrakasta ez dela izango goiz bateko lore baino, probintzia-kontu bat ezdeustzat ahaztekoa.

Baina epe luzean obra baten berezko indarra ez dago ezkutatzerik edo entzungor egiterik. Artelan bat ahazten ahal da denboraz, debekatua eta baztertua izan daiteke; behin betikoak, alabaina, azkenean beti kentzen dio garaipena behin-behinekoari. Hilabete bat edo biz ez da ezer entzuten Rhineko armadaren kantaz. Inprimaturiko edo eskuz idatziriko aleak esku ezaxoletan erortzen dira. Baina aldiro aski da obra batek gizaki bakar bat gartzea, benetako kar bizia bere-berez baita sortzailea. Frantziako beste muturrean, Marseillan, Konstituzioaren Lagunen Klubak banketea egin du ekainaren 22an frontera joango diren borondatezkoentzat. Mahai luzean bostehun gazte sutu eserita daude Guardia Nazionaleko beren uniforme berrietan; zirkulu horretan, doiki, apirilaren 25ean Estrasburgon zen sukar-bulta bera dardaritzen da, are beroago, gartsuago eta grinatsuagoa bada ere, marseillarren aiurri hegotarrari esker, eta ez inondik ere hain hantustez garaipenean seguruak nola gerra-deklazioaren lehen orenetan. Izan ere, jeneral haiek ahoberokeriaz agertu ziren ez bezala, tropa iraultzaile frantsesek ez zuten berehala martxa hartu Rhin gainetik, ezta nonahi besoak zabalik hartuak izan ziren ere. Aitzitik, etsaia barren-barrendu da lur frantsesean, askatasuna mehatxupean da, eta askatasunaren kausa, arriskuan.

Halako batean, banketearen erdian, Mireur delako bat, medikuntza-ikaslea Montpelliergo Unibertsitatean, bere godale-ta joaz batera altxatzen da. Denek isilik harenganutzen dituzte begiak. Hitzaldi bat, adoretzeko ele batzuk itxaroten dituzte, baina horren ordezt gazteari, beso eskuina jaso, ahora datorkio haietariko nehork ezagutzen ez duen kantu bat, inork ez jakinki nola heldu den haren eskuetara, *Allons, enfants de la patrie*. Eta orain honetan pizten da txinparta, bolborategi batean erori izan balitz bezala. Senti eta senti, betiko poloak ari dira elkar jotzen. Bihar abiatzekoak izan, askatasunaren alde borrokatu nahi eta aberriaren alde hiltzeko prest diren gazte horiek denek sentitzen dute hitz horiek beren nahirik barnekoenak, beren gogoetarik berezkoenak adierazten dituztela; ezin eutsiz, erritmoak ahobatezko gogo-goraldia askatzen du haiengan. Ahapaldiz ahapaldi zinkaz hartzen dute, eta berriro ere, bigarren aldiz abestu behar da, behin melodia berenganatu dutenean. Dagoeneko denok batera kantatzen dute errepika trumoitsua, zutik jarririk, zirrara dabilkiela eta edontziak jasoaz. *Aux armes, citoyens! Formez vos bataillons!* Kaletik jakin-minez jendaki zenbait sartzen dira bertan hain oldar bizitan kantatzen ari dena entzutearren, eta haiek ere hasten dira kantari; hurrengo egunean, melodia milaka eta ehun milaka ezpainetan dabil. Inprimatze berri batean zabaltzen da, eta uztailaren 2an bostehun borondatezkoak abiatzerakoan, haiekin aitzin egiten du ereserkiak. Errepidean nekaturik doazela, urrats unatua nabaritzean, aski da batek kantua intonatzea, eta mugimendu aitzinarazleak orori ematen die bulkada berritua. Herri batean gaindi iragan, eta zurturik laborariak eta biztanleak jakin-minez elkarretaratzen direnean, denok batera kantatzen dute. Haien kanta bilakatu da. Rhineko armadarako egina zela jakin gabe, nork eta noiz ondu zuen susmatu gabe, berenganatu dute, beren batailoiares ereserkitzat hartuz, bititze hilkizun haren aldeko kredotzat. Beraiena da, bandera den bezala. Eta, aurrrera-bide suharrean, munduan barrena eramane nahi dute.

Marseillesaren lehenbiziko garaipen handia —horrela deituko baita laster Rougeten eresia— Parisen agitu da. Uztailaren 30ean, batailoia aldirietan zehar aitzina doa, bandera buruan, eta kanta. Haiek heldu zain milaka eta milaka daude kaleetan, jai-giroan harrera egiteko. Eta marseillarrak hurreratu ahala, bostehun gizon ereserkia abesten, errateko maneran, eztarri

bakarretik eta pausoa erritmorra errenditua, jendetzak adi-adi entzuten du. Zer-nolako ereserki eder tentagarria da marseillarrek kantatzen dutena? Zer-nolako turuta-hotsoa *Aux armes, citoyens* horrena, bihotzetan barneratzen baita, danbor-errepika gorgarriek lagunduta? Bizpahiru oren beranduago, leloak soinu egiten du jada karrika-xoko guztietan. Atzendua da *Ça ira* hura, atzenduak martxa zaharrak, kantika modatik joanak: Iraultzak bere-bere ahotsa ezagutu du, Iraultzak bere ereserkia ediren du.

Elur-jausi baten antzera zabaltzen da, garaile-lasterrean geldiezin. Ereserkia oturuntzetan abesten da, antzoki eta klubetan, gero are elizetan ere *Te Deum* ostean, eta geroxeago *Te Deum* orde. Hilabete batean, bitan, *Marseillesa* herriaren kanta bihurtu da, eta armada osoarena. Servan lehen gerla-ministro errepublikanoak, begi-zoli, antzeman du halako borroka-kantu baten indar suspergarria, aupatzailea. Berehalako ordenak eman zituen ehun mila ale pelotoi orotarik bana zitezen, eta bizpahiru gauean ezezagunaren kanta hedatuagoa da Molière, Racine eta Voltaire egileen obra guztiak baino. Ez dago festarik, *Marseillesarekin* bukatzen ez denik, ezta gudurik, erregimentuko musikariek aitzinetik jotzen ez dutenik askatasunaren gerra-kanta. *Jemappes-en* eta *Nerwinden-en* erregimentuak, denak batera kantuz, prestatzen dira azken erasorako, eta jeneral etsaiek, euren soldaduak ezin akuila ditzaketenenak pattar-anoa bikoitzaren errezeta zaharrarekin baino, izu-larritz ikusten dute ez dutela deus buru egiteko ereserki *ikaragarri* horren indar lehergarriari, zeina, bago durunditsu bat iduri, burrunban jaurtitzten baita euren lerroen aurka, milaka eta milaka ahotsek batera kantatzen dutenean. Frantziako gudu guztien gainetik, konta ezin ahala gizaki herrestaka eramaki lehia bizira zein heriora, airean dago orain *Marseillesa*, nola behiala hartan Nike, garaipenaren jainkosa hegalduna.

Bizkitartean, Hüningen-go garnizio tipian, kapitain arras ezezagun batek, Rougetek, baluarte eta lubakiak proiektatzen ditu eginahalean. Agian ahaztua du jada 1792ko apirilaren 26ko gau aspaldiko hartan berak ondu *Rhineko armadarentzako gerra-kanta*, eta orain, kazetetan kausitzen duenean beste ereserki hori, Paris oldar betean hartu duen beste gerra-kanta hori, ez da ausartzen susmatzera ere ezen, hitzez hitz eta neurritz neurritz, *Marseillarren kantu* garaipenezko hori ez dela deus besterik gau

hartan beragan eta beragandik agitu zen miraria baizik. Zeren, halabeharrenden bitxikeria ankerra, zeru guztietan durundaka, izarretaraino makakorroka ari den doinu horrek bere baitarik goietara ez daraman gizaki bakarra baita hain zuzen ere hura ondu zuena. Frantzia osoan inori ez zaio axola Rouget de Lisle kapitaina. Berealdiko aintza, kantu batek egundo erdietsi duen handiena, beretzat baino ez da, kantuarentzat, eta arrastorik ere ez zaio egokitu Rouget haren sortzaileari. Bere izena ez da ageri testuan, eta bera ere inortxo ere ohartu gabe gertatuko zen garaiaren nagusientzat, asperrerraino arreta erakarri izan ez balu. Izan ere —paradoxa jeniala, Historiak bakarrik eratzen dituen bezala—, Iraultzaren ereserkiaren sortzailea ez da ezein iraultzaile; aitzitik, bere kantu hilezkoarren bidez beste inork ez bezala Iraultzari bihotz eman dionak hura indar guztiekin bridatu nahiko luke. Marseillarrek eta Pariseko herri xeheak, haren kantua ezpainetan, Tuileriak oldarrean eraso eta erregea kargugabetzen dutenean, Rouget de Lisle nazkatua dago Iraultzaz. Uko egiten dio Errepublikari zin egiteari, eta nahiago du zerbitzua utzi, jakobinoak zerbitzatu baino. Gizon zintzo honentzat, *liberté chérie* esapidea, bere ereserkiko askatasun maitea, ez da ezein hitz huts: ez ditu higuin mendreago tirano berriak eta Konbentzioko despotak, nola herra baitzien mugaldeen haraindiko koroadun eta gantzutuei. Argi eta garbi airatzen du bere nahigabea Salbamen Publikorako Batzordearen aitzinean, gillotinara herrestan eramanean direnean bai bere lagun Dietrich auzapeza, *Marseille*-saren aitabixia, bai Luckner jenerala, zeini eskainia baitzion, bai ofizier eta noble guztiak, gau hartan haren lehenengo entzuleak izan zirenak. Eta laster gertatzen da egoera isekagarria, Iraultzaren poeta espetxean sartzen baitute iraultzakontrakoa izatea zio, eta auzipetzen, hain zuzen ere bera, aberriaren saltzailatzat salatua. Soilik thermidorraren 9ak, Robespierrearen erorikoarekin espetxeak irekitzerakoan, aurreztu egin dio Frantses Iraultzari bere kanta hilezkoarren egilea *labana nazionalaren* mende jarri izanaren ahalkeizuna.

Nolanahi ere, heriotza ohoragarri bat izango zatekeen eta ez lokuma tamalgarri bat ilunpean, Rougeti bortxaz ezarri zitzaionaren tankerakoa, zeren berrogei urte baino gehiagoz, milaka eta milaka egunean, dohakabeak bizirik diraukiolako bere bizitzako egun benetan sortzaile bakarrari. Uniformez gabetu egin dute

bortxaz, pentsioa kendu ere bai; idazten dituen poemak, operak eta testuak ez dira inprimatzen, ezta behin ere antzetzen. Hala-beharrak ez dio barkatzen deitua izan gabe hilezkorren artean lerrokatu den diletanteari. Gizon xumeak mota guztietako diru-afera xume, ez beti garbiekin luzatzen du bere bizialdi xumea. Alferrekoak dira Canotek eta Bonapartek, gupidak mugiturik, hari laguntzeko egiten dituzten ahaleginak. Rougeten jitean, haatik, zerbait ezinbestez pozoitua eta zitaldua dago zorizko gorabehera haren ankerra dela eta, zeinak bide eman baitzion hiru orduz Jainko eta jenio izateko eta gero, erdeinuz, berriro jaurtiki baitzuen bere ezdeuskeriaren zulora. Rougetek liskar eta auzi ematen die agintari guztiei. Bonaparteri, lagundu nahi izan zion arren, gutun lotsagabe eta patetikoak idazten dizkio, plebisiztuan haren aitziz bozkatu izanaz harropuzten da jendaurrean. Bere diru-aferek saltsa ilunetan nahaspilatzen dute, eta, areago, ordaindu gabeko truke-letra batengatik ezagutu beharko du Sainte-Pélagie berankorrenzako presondegia. Toki guztietan desgogara hartua, hartzekodunek jazarria, poliziak tai gabe zaindua, azkenean probintzia-txokoren batean geratzen da ezkutatuturik. Eta handik, hilobi batetik bezala, bakartu eta ahaztua, barrandan du bere kantuaren patuak; oraindik lekuko da ezen *Marseillesa* soldadu-samalda garaileekin batera aitzinatuz doala Europako herrialde guztietan barrena, eta gero Napoleonek, bere burua enperadore izendatu berri, programa orotarik ezabarazten duela iraultzaileegia izateagatik, eta ondoren borboitarrek debekatzen dutela hertsiki. Jada agure, mingostua, nolabaiteko harridura baino ez du nabaritzen, belaunaldi bat geroago 1830eko uztailako Iraultzak haren hitzak, haren melodia, lehen bezain gihartsu arrapitzarazten dituenean Pariseko barrikadetan, eta ber gauza gertatzen da Luis Filipe errege hiritarrak poetari pentsioño bat onartzen dionean. Gizaseme atzenduari, aienatuari, ametsa iduritzen zaio oraino beraz oroit daitezela, oroipen tipi bat baino ez bada ere. Eta hirurogeita hamasei urteko adinduna azkenean 1836an Choisy-le-Roi udalerrian hiltzen denean, inork ez du gehiago aipatzen eta ezagutzen haren izena. Berriz ere, beste belaunaldi batek iragan behar du: mundu-gerra heldu, eta *Marseillesa*, aspaldi ereserki nazional bihurtua, borroka-airez ari da gibelera oihartzuna izaten Frantziako fronte guztietan, manua emango da Rouget kapitain tipiaren gorpua ehortzia izateko

Bonaparte lotinant tipiarenaren gune berean, Elbarrien kupularen pean. Eta kari horretara, ereserki betiereko baten sortzaileen artean den gutien ospetsuak atsedean hartzen du azkenik, bere aberriko omentsuen panteoian, gau bakar bateko poeta besterik ez izanaren etsipenetik.

6

WATERLOO: MINUTU UNIBERTSALA Napoleon, 1815eko ekainaren 18a

Halabeharrak boteretsuak eta bortitzak bulkatzen ditu. Urtetan gizabanako bakar baten —Zesar, Alexandro Handia, Napoleon— eskumakila otzan eta manukor bihurtzen da, bera den atxiki ezinezko elementuaren iduriko gizaki elementala maite du eta. Batzuetan, alabaina, bakan-bakanetan garai orotan, umore bitxiz zeinahi axolagaberen oinetara jaurtitzen da. Batzuetan, eta hauek izaten dira munduaren historiako unerik harrigarrienak, patuaren haria lipar batez esku zeharo faunetan erortzen da. Unibertsoaren indar-joko heroikoan nahasten dituen erantzukizunaren enbata pean, halako gizakiak, dohatsuak bainoago, ikarak hartuak sentitzen dira, eta ia beti uzten diote gaineratu zaien halabeharrari esku dardartien artetik ihesi egiten. Oso bakanka baino ez du haietakoren batek, kementsu, parada goستن eta harekin bere burua. Izan ere, handitasuna lipar batez soilki errenditzen zaio ezdeusari; aukera alferrik galtzen duenari sekula ez dio bigarrena ematen.

Grouchy

Vienako Batzarraren dantzaldi, amodio-kontu, azpijoko eta eztabaiden artean, Napoleon lehoi kateatuak Elba uharteko bere kaiolatik ihes egin duelako berria hedatzen da kanoi-bola durunditsu baten antzera txistu eginez; eta jarraian beste mezu batzuk datoz: Lyon bereganatu du, erregea egotzi du, tropak batzen zaizkio fanatismoaren bandera pean, Parisen dago, Tuillierietan, alferrik izan dira Leipzig eta hogeiterra gerra-urte gizeraile. Atzaparka batek helduak bezala, ministroak, arestian oraino eztabaidan eta marmarrean ari zirenak, ikarak hartzen ditu.

Armada ingeles bat, prusiar bat, austriar bat eta errusiar bat mobilizatzen dira, beste behin eta orain behin betiko boterearen usurpatzailea erabat garaitu beharrez: kaiserraren eta erregeen zilegizko Europa inoiz ez zen jarri hatsarreko izu-bulta honetan bezain ados. Iparretik aitzinatzen da Wellington Frantziaren aurka; bere aldetik, Blücher-en agindupean gudaroste prusiar bat hurbiltzen da hari laguntzera; Rhin aldean Schwarzenberg ari da osteak mobilizatzen, eta erreserba gisa erregimentu errusiarrek Alemanian zehar dabilta astiro eta astunki.

Begikaldi batez, Napoleonek heriozko arriskua hautematen du. Badaki ez duela denbora alferrik galtzerik ehiza-saldoa elkartzan den bitartean. Laurdenkatu behar ditu, banan bereiz jo —prusiarrak, ingelesak, errusiarrek—, armada europarra bihurtu eta bere inperioa deuseztatu baino lehen. Presatu behar du, bestela espak ernatuko dira-eta bere herrialdean bertan. Irabaztuna izan behar du errepublikanoek legitimistekin elkarturik indar hartu baino lehen; Fouché mihi-bikoitz eta sumaezinak, Talleyrand bere lehiakide eta ispiluarekin elkar hartuta, gibeletik zainak moztu diezazkion baino lehen. Bulta bakar batean egin behar du, armadaren entusiasmo zalapartatsua baliatuz, bere etsaiak funditu; egun bakoitza galera da, ordu bakoitza arrisku. Beraz, arrapaladan dado dilindaria botatzen du Europako gudu-zelai odoltsuenaren gainean: Belgika. Ekainaren 15ean, goizeko hiruretan, armada napoleoniko handiaren, honezkeroko bakar-raren, abangoardiak gurutzatzen du muga. Jada 16an Ligny-n eraso hasten du armada prusiarraren aurka, eta gibelarazten. Lehoi ihes eginaren lehen atzaparkada da, beldurgarria, baina ez hilgarria. Garaitua, nahiz ez deuseztatua, armada prusiarra Brusela aldera erretiratzen da.

Orduan Napoleonek bigarren kolpea gertatzen du, Wellingtonen kontra. Ezin du arnasa hartu, ezta laxatu ere, zeren egun bakoitzak azkartzea dakarkio arerioari, eta bere bizkarrera duen erresumak, frantses herri odolustu eta egonezinak behar du garaipen-doinuzko buletinaren suzko pattarrarekin mozortu. 17an bertan bere armada osoarekin aitzinatzen da Quatre-Bras aldeko muinoetaraino, non Wellington, altzairuzko nerbiodun arerio hotza, lubakiz inguratua dagoen. Napoleonen neurriak inoiz ez ziren zuhurragoak izan, ezta bere agindu militarrek argiagoak ere, egunotan baino: gogoan darabiltza erasoaldia ez

ezik, haren arriskuak ere bai, Blücheren armadak, garaitua baina ez deuseztatua, bat egin ahalko balu bezala Wellingtonenarekin. Hori eragozteko, ezpaldu egiten du bere tropen zati bat, urratsez urrats esetsi diezaion armada prusiarrari eta eragotz dezan ingelesekiko bat egitea.

Jazarpen-armada horren agintea eskura ematen dio Grouchy mariskalari: gizon ertain, zintzo, prestu, zuzen, fidagarri bat. Zaldizkoen gudaiburu bat, eskarmentu handikoa, baina hori baino ez, zaldizkoen gudaiburu bat. Ez da gerlari amorratu, suhar eta bipil bat Murat bezala; ez da estrategia bat Saint-Cyr edo Berthier bezala, ez heroi bat Ney bezala. Ezein gerra-korazak ez du haren bularra apaintzen, ezein mitok handiagotzen haren antzirudia, ezein ageriko bertutek ez dio ospe eta gradurik ematen elezahar napoleonikoaren idulki heroikoan: bere zorigaitzek, bere ezbeharrek baizik ez dute ospetsu egin. Hogei urtez borroka egin du gudaldi guztietan, Espainiatik Errusiaraino, Holandatik Italiaraino. Poliki gudaritza-maila garaietara igo da mariskal-dignitatea erdiesteraino, ez merezi txarrez, baina egitandi nabarmenik gabe. Austriarren balak, Egiptoko eguzkia, arabiarren sastakaiak, Errusiako izotza, bere aurretikoak garbituz joan dira, Marengon Desaix, Cairon Kléber, Wagramen Lannes: duintasun gorenerainoko bidea ez du erasoz hartu, baizik eta tiroka irekiz joan zaio hoge gerra-urtez.

Grouchy ez dela ez heroi ez estrategia bat, besterik gabe gizon fidagarri, leial, zintzo eta zentzudun bat baizik, ongi daki Napoleonek. Baina bere mariskalen erdiak lurpean daude, gainerakoak beren etxaldeetan gogo txarrez gelditu dira, etengabe kanpamentuz kanpamentu joateaz nazka eginda. Hortaz, ekin-tza erabakigarria gizon ertain bati fidatu beharrean dago.

Ekainaren 17an, goizeko hamaiketan, egun bat Lignyko garaipenaren ondoren, egun bat Waterloo baino lehen, Napoleonek lehenengo aldiz Grouchy mariskalari eskura ematen dio bereizirik tropa bat. Une batekoz, egun batekoz, Grouchy apala hierarkia militarretik irteten da munduaren historian sartzeko. Une batekoz baino ez, baina a zer-nolako unea! Napoleonen aginduak argiak dira. Berbera ingelesen gainera abiatzen den bitartean, Grouchy, armadaren heren batekin, prusiarren atzetik segika joan behar du. Mandatu erraza, itxuraz, zehatz eta ezbaierik gabekoa, baina halaberean malgu eta aho bikoa, ezpata baten

parekoa. Zeren, jazarraldi horrez gainera, Grouchyri hertsatzen zaio aldiro gudarostearen zati handienarekin harremanetan egotera.

Duda-mudakor, mariskalak agindua jasotzen du. Ez dago beregain jokatzera ohitua; berea inizatibarik gabeko izaera zuhurra izaki, ez da seguru sentitzen enperadorearen begiratu jenialak ekintza gomendatuz gero baino. Gainera, ezkutuan bere jeneralen pozik eza sumatzen du. Eta agian ere, agian, patuaren hegakada iluna. Kartier jeneraleko hurbiltasunak baino ez du la-saitzen: izan ere, hiru martxa-orduk besterik ez dute bereizten armada inperialaren zatirik handienetik.

Euri-jasa pean, Grouchyk agur egiten du. Astiro, lur ha-rro, lohitsuan barna, bere soldaduak prusiarren atzetik mugitzen dira, edo behintzat Blücher eta beretarrak daudela susmatzen duten aldera.

Gaua Caillou-n

Iparreko euria ibaika ari du. Artalde melatu baten mo-duan, Napoleonen erregimentuak ilunean aitzinatzen dira, gizon bakoitzak bi libra lokatz bere zoletan; inon ez aterperik, ez etxe ez teilaturik. Lastoa bustiegia da ganean etzateko; beraz, hamar edo hamabina soldadu elkarren kontra estutzen dira eta, eserita, bizkarra bizkar kontra lo egiten dute euri-jasa pean. Enperado-reak ere ez du atsedetik hartzen. Sukar-asaldura batek behin eta berriz itzarrarazten du, arakatzeek huts egiten dutelako ekaitz barneraezinean; miatzaileek gehienez ere berri nahasi bat edo beste ematen dute. Berak oraindik ez daki ea Wellingtonek gudua onartzen duen, eta Grouchyren aldetik ez da prusiarrei buruzko albisterik. Horrela, are goizeko ordu batean alde batetik bestera joaki —zaparrada burrunbatsuari ezaxolarik—, aitzin-postuen luzera osoan ibilian dabil kanoi-tiro bateko distantziara ingeles kanpamentuetarik, noizetik noizera laino artean era-kusten baitute argi motel, ketsu bat, eta eraso diseinatzen du. Argia urratu arte ez da itzultzen Caillouko etxola txikira, bere kartier jeneral landerrera, non aurkitzen duen Grouchyren lehen presako posta; berri ez-argiak prusiarren erretiraz, haiei jarrai-tzeko promesa lasaigarria gertatzen zaion arren. Pixkanaka euria atertzuz doa. Egon ezinda, enperadorea goiti-beheiti dabil gelan,

eta, ostertz beilegiari finko begira, behingoz noiz garbituko zain dago erabakia hartzeko.

Goizeko bostetan —euria atertu du— deliberoarean barneko hodeitza ere garbitu du. Bederatzietan armada osoa moldatu eta erasorako prest egoteko agindua helarazten da. Ordenantzak alde guztietara barreiatzen dira. Laster danbor-errepikak hasten dira ilarak eratzeko. Orain, lehenago ez, Napoleonek landa-ohartzera jaurtitzen du bere burua, bi orduz lo egiteko.

Waterlooko goiza

Goizeko bederlatziak dira, baina tropak oraindik ez dira inork hutsik egin gabe bilduak. Lurrazalak, hiru eguneko euriak puztua, nekezago bihurtzen du mugimendu bakoitza eta oztopatzen artilleriaren aurreratzea. Doi-doia pixkanaka ateratzen da eguzkia, haize zorrotzaren pean dirdaika, baina ez da Austertitz-eko eguzkia, distira betekoa eta zantzu onekoa, ezpada iparreko argi hori, erlantz laru hiletsia zabaltzen duena. Finean gudarosteak gertu dira, eta orain, gudua hasi baino lehen, Napoleonek berriro ere bere behor zuriaren gainean zamalkatzen da frontearen luzera osoan. Zutoihaletako arranoak makurtzen dira haize azkar baten eraginpean bezala; zaldizkoek ezpatak dantzatzen dituzte martzialki; agur gisa, infanteriakok baioneta muturrean beren hartz-larruzko txanoak altxatzen dituzte. Danbor guztiak errepiketari ari dira eromenezko zirimolan, turutek beren algara zorrotza jaurtitzen dute jeneral gudalburuari buruz; hots izarniarazle horien guztien gainetik, ordea, nagusi da, gorgarri, soldaduen hirurogeita hamar mila eztarrietarik jalgiriko bozkariozko oihu ozen, suharra: «Vive L'Empereur!».

Napoleonen loriak iraun zuen hogeitau urteetan, ezein tropa-ikuskatze ez zen izan hotsandikoago eta beroagorik hau baino, azkenekoa. Ozta iraungi dira deiadarrak, hamaiketari —bi ordu aurreikusia baino beranduago, adur gaiztoko bi ordu baino beranduago!— kanoi sutunpariek agindua hartzen dute muinoan dauden kasaka gorrien gainera metraila jaurtitzeko. Orduan Ney, *le brave des braves*, oinezkoekin aitzina doa; Napoleonen oren erabakigarria hasi da. Gudu hau ezin konta ahala bider deskribatu da, baina bat ez da aspertzen haren markur hunkigarriak irakurtzeaz, nahiz Walter Scotten irudikapen berebizikoan edo Stendhalen episodikoan. Berealdikoa eta as-

kotarikoa da, gertutik zein urrundik begietsita, bai gudaiburua zelatan jarri den muinotik nola korazadunaren zelatik. Beldur eta itxaropenezko harat-honat etengabearekin, zeina deblauki disolbatzen den muturreko katastrofe-memento batean, tentsio eta dramazko artelan bat da, egiazko tragedia baten eredu, zeren patu banakako horretan erabakitzen baitzen Europa osoarena, eta, beste behin ere, Napoleonena bezalako existentzia baten su-festa fantastikoak eztanda egiten baitu suziri baten gisa zero orotan, tupusteko eroriko batean betiko itzali baino lehen.

Hamaiketarik ordu bata arte erregimentu frantsesak oldartzen zaizkie muino-gailurrei, herriak eta kokaguneak hartzen dituzte, esetsiak dira eta berriro oldarrari ekiten diote. Dagoeneko dozenaka mila hilek estaltzen dute lur huts haren muino busti-lohitsuak eta, hala ere, oraino hango-hemengoan akidura besterik ez da lortu. Armada biak leher eginda daude, gudaiburu biak artega. Biek dakite garaipena indarberritzekoak lehenik erdiets ditzanarena izango dela, Wellingtonek Blücherenak, Napoleonek Grouchyrenak. Behin eta berriz Napoleon, urduri, teleskopioaz baliatzen da; berriz eta berritan laguntzaileak bidaltzen ditu. Mariskala garaiz helduz gero, Frantziaren gainean distira egingo du berriro Austerlitzeko eguzkiak.

Grouchyren hutsegitea

Bitartean Grouchy, ohartu gabe Napoleonen zoria bere eskuetan duena, aginduen arabera ekainaren 17ko gauean abiatzen da eta alde zurretik markaturiko norabidean doa prusiarrei jarraika. Euria atertu du. Kezkarik batere gabe konpainia gazteak, atzo azkeneko aldiz bolboraren dasta izan zutenak, poliki aitzinatzen dira herrialde baketsuan barna: betiere etsaia ez da inon ageri, betiere armada prusiar garaituaren arrastorik ere ez dago.

Orduan, mariskala baserri batean presako gosari bat hartzen ari den unean bertan, zoruak dar-dar egiten dio arinki oinen azpian. Adi entzuten dute. Berriz eta berriz soinu gor eta jada hildua hurbiltzen ari: kanoiak dira, bateriak desarratzen urrun, ez urrunegi hala ere, gehienera jota hiru orduren tartean. Ofizier pare bat lurrera botata jartzen dira, indioen eran, hotsa nondik datorren argi entzuteko. Jarraiki eta gor, burrunba egiten du urrutiko oihartzunak. Saint-Jean mendiko kanoiak dira, Waterlooren hasiera. Grouchyk aholku eskatzen du. Suhar eta kartsu,

Gerardek, haren komandanteordeak, irmo eskatzen du bizkor abiatzeko kanoikaden aldera: «il faut marcher au canon». Beste ofizier kontsultatu bat ados dago: hara joan behar da, eta fite-fitea! Inork ez du zalantzarik egiten enperadoreak ingelesekin topo egin eta gudu latz bat hasi duela. Grouchy ez dago seguru. Esana egitera ohitua, beldurrez, idatzitakoari dagokio, enperadorearen aginduari, prusiarrei esesteko haien gibelatzean. Gerard, hura ezbaian ikustean, fermuago bihurtzen da: «Marchez au canon!». Hogei ofizier eta zibilen aurrean, komandanteordearen galdeak agindu-hotsa du, ez eskari. Horrek gozakaizten du Grouchy. Gero eta hertsiago eta zurrunago azaltzen du ezin direla beren egin-beharretik aldendu, enperadorearen kontragindua heltzen ez den artean. Ofizierak etsipena emanda daude, eta kanoiek zala-parta egiten dute desatseginezko isiltasun baten erdian.

Orduan Gerardek azkeneko ahalegin bat egiten du: arren eta arren eskatzen du bide eman dakiola dibisio batekin eta zalditeriaren zati batekin gudu-zelairatzeko, eta obligatzen da bere kokagunera garaiz itzultzera. Grouchyk hausnar egiten du. Segundo batez hausnarrean.

Munduaren historia istant batean

Segundo batez Grouchyk hausnar egiten du, eta segundo horrek eratzen du bere patua, Napoleonena eta munduarena. Hark erabakitzen du, segundo horrek Walhaim-eko baserrian, hemeretzigarren mende osoa, eta gizon zintzo baina ertain baten ezpainerarik zintzilik dago, hilezkor. Istant hori dago, argi eta garbi, eri urdurien artean enperadorearen zorigaitzoko agindua zimurtzen duten eskuetan. Grouchy, bere buruaz eta seinale nabariaz fidaturik, gai izango balitz oraintxe adore nahikoa bildu eta agindua ez betetzeko, salbu litzateke Frantzia. Baina agindupeko gizakiak beti men egiten dio idatzita dagoenari, eta sekula ez patuaren deiari.

Beraz, Grouchyk ezezko keinua egiten du fermuki. Ez, arduragabea litzateke hain gudaroste ttipia berriro zatitzea. Bere betebeharrak galdatzen du prusiarrei jazartzea, beste deusik ez. Eta enperadorearen aginduen aurka jokatzeari uko egiten dio. Ofizierak, zapuzturik bada ere, isilik daude. Bere inguruan isiltasuna da nagusi. Eta beragan, ezeztazekin, iheska doa hegan,

honezkero hitzek eta egintzek geldiarazterik ez dutena... segun-
do erabakigarria. Wellingtonek irabazi du.

Eta abiatzen dira berriro. Gerard eta Vandamme, ukabilak
amorruz estuturik; Grouchy, laster urduri eta ordutik ordura za-
lantzatiago; izan ere —arraroa da—, prusiarrak oraino ere ez dira
begi-bistan, nabari da bazter utzi behar izan dutela Bruselarako
norabidea. Laster, mezulariek igorri zenbait zantzuren arabera,
susmatzekoa da haien erretira eraldatu dela hegaletariko batetik
gudu-zelairainoko aitzinatze bihurtuz. Oraindik astirik luke-
te, azken unean, enperadoreari laguntza ematera joateko, eta
Grouchyk gero eta irrika handiagoz itxaroten du gibeleratzeko
agindua. Berririk ez dator, gero. Kanoiak baizik ez dabilta are
eta urrunago lur dardaraziaren gainetik. Waterlooko burdinazko
dadoak dira.

Waterlooko arratsaldea

Bitartean, ordu bata da jada. Egia da lau oldarraldi urrun-
duak izan direla, baina nabarmen astindu dute Wellingtonen
armadaren erdigunea; hala bada, Napoleon eraso erabakigarri-
rako gertatzen da. Bateriak Belle-Alliance herrixkan ipinarazten
ditu, eta, kanoikaden suak bere errezel hodeitsua muinoen
artean jaurti baino lehen, azken behako bat ematen dio guda-
lekuari.

Une horretan, geriza ilun bat hautematen du, iduriz ba-
soen artetik isurtzen dena ipar-ekialdetik aurreratzen: tropa
berriak! Berehala haratu egiten dira prismatiko guztiak: Grouchy
ote da, ausart, aginduak hautsiz, mirariz une-unean heldu dena?
Ez, gerrako preso batek komunikatzen du von Blücher jenera-
laren armadaren aitzinaldea dela, tropa prusiarrak. Lehen aldiz
enperadoreak susmatzen du armada prusiar garaituak jazarral-
dia saihestu behar izan duela, ingelesekin garaiz batzeko, eta
bitartean bere armada propioaren heren bat alferrik ari dela hu-
tsartean maniobratzen. Jarraian gutun bat idazten dio Grouchyri,
manatzen diolarik kosta ahala kosta elkaturik mantendu eta
prusiarrak guduan nahastea galarazteko.

Aldi berean, Ney mariskalak erasorako agindua hartu du.
Wellington lurreratu behar dute prusiarrak iritsi baino lehen:
hain aukera mendreen aurrean, zeinahi ekintzak ez dirudi jada
ausartegia. Arratsalde osoan, ordokiaren gainean bata bestearen

atzetik datoz infanteria aldiro berrituaren eraso beldurgarriak. Etengabe oldarrez sartzten dira kanoiek suntsitu herrietan; behin eta berriz atzera urrunduak dira; etengabe, bandera inarrosien pean, ekiten diote infanteria zehatu baten koadroen kontra. Baina Wellingtonek oraino ere buru egiten dio etsaiari, eta betiere ez da Grouchyren berririk. «Non dago Grouchy? Non gelditu da Grouchy?», marmar egiten du urduri enperadoreak, prusiarren aitzinaldea pixkanaka esku hartzen ari dela ikusten duenean. Haren meneko komandanteak ere egonezinik dabilta. Eta behingoz amaia emateko asmo erabakia, Ney mariskalak, Grouchy zuhur bezain ozar —ibiliai zituen zaldietariko hiru hilak dira jada tiroen azpian—, kolpe batez zalditeria frantses osoa jaurtitzen du eraso bakar batean. Dozenaka mila korazadun eta dragoi lotzen zaizkio herioranzko ibilaldi ikaragarri horri. Suntsitzen dituzte infanteriako koadroak, eraisten dituzte kanoilariak eta leherrarazten lehen ilarak. Nahiz beraiek ere beherantz bultzatuak diren, armada ingelesaren indarra agortzen ari da. Bere atzapar artean muino hari eusten dion ukabila laxatzen hasten da. Eta zalditeria frantses zafratuak tiroen aitzinean gibelera egiten duenean, Napoleonen azkeneko erreserba, guardia zaharra, urrats motel eta astunka aitzina doa erasoz hartzeko muinoa, zeinaren jabetzak bermatzen baitu Europaren zoria.

Erabakia

Alde bietarik, laurehun kanoi goizetik ari dira dunbotsa ateratzen. Frontean, zaldizkoak beren ezpaten tintin-hotsera zamalkatzen dira tiro egiten dutenen kontra, danbor-larru burrunbarien gainean errepikaz darauntsate zotzen zartadek, ordoki osoa dardaraka daukate askotariko soinu-zaratek! Han goian, baina, bi muinoen gainean, gudaiburu biak begi-erne eta asots guztiei belarriak so daude giza ekaitzaren gainetik. Hotsik mendreenaren zelatan daude biak ala biak.

Bi ordulari, tik-tak apal batez, bi txoriren bihotzak nola, hoska ari dira haien eskuetan masa mehatxatzailearen gainetik. Napoleonek eta Wellingtonek, biek etengabe heltzen diote kronometroari eta zenbatzen dituzte azkeneko laguntza erabakigarria ekarri behar dieten orduak, minutuak. Wellingtonek badaki Blücher hurbil dagoela, eta Napoleon Grouchyren zain dago. Bietariko inork ez du erreserba gehiagorik, eta agertzen lehenak

erabakia izango du gudua. Biek teleskopioz barrandatzen dute baso-mugarantz, nondik orain, hodei xehe baten gisara, azaltzen hasten den abangoardia prusiarra. Baina guduxka txiki bat al da, edo armada bera, Grouchygandik ihesean? Ingelesen erresistentzia azkenetan da jada, baina oste frantsesak ere indargetzen ari dira. Bi borrokalariren antzera hatsanka, bata bestearen aurrean daude beso honezkerok herbalduekin, arnaska bizian, azkenekoz elkarriz lotu baino lehen. Ebazpenaren oren apelaezina iritsi da.

Azkenean armada prusiarren hegala batean durunda egiten dute kanoiek: guduxka, fusilen sua! «Azkenik Grouchy!». Azkenik Grouchy! arnasa hartzen du Napoleonek. Hegala dagoeneko segurtatua duelako uste osoa izanik, bere hondarreko soldadu taldea bildu eta berriz ere jaurtitzen da Wellingtonen armadaren erdigunearen aurka, Brusela aurreko maratila puska-ka erorarazteko, Europaren atea zartarazteko.

Baina fusilen su oker hura izan da prusiarrek, beste uniformeez nahastuta, Hannoverrekoen kontra hasi duten gezurrezko guduxka soil bat, besterik ez: berehala sua utzi eta orain, inolako oztoporik gabe, zabal-zabalak eta kementsuak, euren soldadum masak irteten dira basoetatik. Ez, ez da Grouchy bere tropekin gerturatzen ari dena, Blücher baizik, eta harekin galbidea. Berria agudo zabaltzen da tropa inperialen artean. Gibelera egiten hasten dira, nolabaiteko ordenan oraino. Baina Wellington unearen larriaz jabetzen da. Zaldika inguratzen da arrakastaz defendaturiko muino-hegalera, kapela goititu eta bere buruaren gainetik astintzen du erretiran doan etsaiaren parean. Berehala beretarrak garaipen keinua ulertzen dute. Zirt-zart, oste ingelesetarik oraino gelditzen dena altxatu eta arrapaladan ihes egiten duen masaren aurka jaurtitzen da. Aldi berean, albotik zalditeria prusiarra oldar gaitzean jausten da armada akitu eta abarrikatuaren gainera. Heriozko garrasiak belarria jotzen du: «Sauve qui peut!». Minutu pare bat, eta Grande Armée delakoa ez da lauhazkako beldur-bulta bridagabe bat baino, bere igaroan oro herrestatzen duena, Napoleon barne. Babesgabeko ur hotzpele bat balitz bezala, zalditeriak ezproiak sartzen ditu gibelera egiten duen goaia laster eta isurkor horren barruraino. Ihesean, izu-laborritan garrasika ari den bitsaren artetik zehar, Napoleonen zalgurdia, gudarostearen altxorra, arrantzatzen dute, eta artilleria osoa. Gau-iluntzeak ez beste ezerk salbatu zion enperadoreari bizia

eta askatasuna. Baina gauerdian, zikin eta durduzatu, herrixka batean ostatu xume bateko besaulkian abailduta erortzen deanean, jada ez da enperadore. Bere inperioa, bere dinastia, bere patua kito dira. Gizaki txiki, ertain baten epelkeriak ezereztu du hogei urte heroikotan gogo bipilenak, buru-zorrotzenak eraiki izan zuena.

Berrerortzea egunerokoan

Ozta ingelesen erasoak suntsitu du Napoleon, eta gizon orduan ia ezezagun bat zalu doa kalesa batean Bruselarako errepidetik eta handik itsasora, non zain duen itsasontzi bat. Londres aldera doa, gobernuaren postariak baino lehen haratzeko asmoz. Eta eskerrak oraino albistea ezagutzen ez den, Burtsa zartaraztea lortzen du: Rothschild da, maisu-ukaldi honen bidez beste inperio bat sortzen duena, dinastia berri bat. Biharamunean, Ingalaterra garaipenaz jabetzen da. Eta Parisen, Fouché, betiko traidorea, porrotaz: jada Bruselan eta Alemanian oihartzunetan ari ziren gurenda-ekilak.

Hurrengo goizean pertsona bat bakarrak ez du oraino Waterlooren berri, nahiz lau ordura baino ez egon zoria erabaki den lekutik: Grouchy dohakabeak. Temati, planei egokituz, aginduei hain zuzen, gertutik esesten die prusiarrei. Baina, arraroa, ez ditu inon aurkitzen, eta horrek ezinegonez betetzen du haren gogo. Eta aldi oro kanoien dunbotsak gero eta hurrago entzuten dira, gero eta ozenkiago, laguntza eske deiadar egingo balute bezala. Usnatu, lurra dardaraka eta tiro bakoitza bihotzeraino usnatzen dute. Denek dakite ez dela guduxka bat, baizik eta itzelezko gudu bat piztu dela, gudu erabakigarria.

Urduri, bere ofizieren artean zaldizka dabil Grouchy. Harekin eztabaidatzea saihesten dute: euren aholkua ja baztertua izan da.

Horregatik, Wavre herrian azkenik topatzen direnean prusiarren armada gorputz batekin, Blücherren atzegoardiarekin, nekea arindua sumatzen dute. Berehala, amorraturik, oldarrean ekiten diote lubakien kontrako erasoari; Gerard denen buruan doa, bihozkada ilun batek bultzatua, heriotza bilatuko balu bezala. Bala batek lurreratzen du: Grouchyri zer egin behar zen gorakien ohartarazi ziona mutu gelditu da. Gau-iluntzean herria hartzen dute, baina garaipen txiki hori atzegoardian jada inolako

zentzurik ez duela sentitzen dute, zeren behin betiko, handik, gudu-zelaitik, erabateko isila baitator. Mututasun ikaragarria da, larriki baketsua, izugarrizko hil-isila. Eta denek barrundatzen dute hobe zutela dunbotsen burrunba, eze ez onetarik ateratzen dituen ziurgabetasun hau. Gudua dagoeneko erabakia izan dateke, Waterlooko gudua; azkenean Grouchy —beranduegi!— jakitun egiten da, Napoleonek laguntza eskeko oharra jasotzerakoan. Gudu itzelak ja erabakia izan behar duke, baina noren alde?

Eta gau osoan zain daude. Alferrik! Inondik ez dator berririk. Zera da, Armada Handiak ahaztu balitu eta haiek, hutsik eta zentzugabe, igaro-ezinezko eremu batean ibiliko balira bezala. Goizean eraisten dute kanpamentua eta berriro abiatzen dira, pot eginda eta aspaldi etsirik beren aitzinatze eta maniobra guztiek ez dutela ezertarako balio. Azkenean, goizeko hamarretan, Buruzagitzako ofizier bat agertzen da. Zaldi gainetik jaisten lagundu eta galderez josten dute. Baina hark, aurpegiera izu-larriak suntsitua eta ileak lokietara itsatsiak, ahalegin ikaragarria dela eta dardaraka, ozta ezin konprenituzko hitzak esaten ditu zezelka, haiek ulertzen ez dituzten hitzak, ulertu ahal eta nahi ez dituztenak. Erotzat, mozkortzat hartzen dute, noiz eta esaten baitie honezkero ez dagoela ez enperadorerik ez armada inperialik, Frantziarenak egin duela. Baina pixkanaka egia osoa ateratzen diote, mezu funditzailea, herio geldiarazlea. Grouchy zurbil dago eta, dardari, sablean bermatzen da: badaki orain bere bizitzaren martirioa hasia dela. Baina, erabakia, bizkarrera jasotzen du erru osoa bere gain hartzeko esker txarreko betekizuna. Agindupeko morroi kikila, deliberoaren segundo berebiziko baina hauteman ezinezkoan porrot egin zuena, orain, parez pare duela peril hurbila, gizon bilakatuko da, eta ia gizuren. Berehala ofizier guztiak bildu eta —amorruta eta minezko malkoak begietan— hitzaldi labur bat egiten die, non bere duda-mudak zurituaz batera deitoratzen dituen. Haren ofizierek, atzo oraindik ezinikusia ziotenek, isilik entzuten diote. Edonork salatu ahal lezake eta iritzi zuzenagoa eduki izanaz harropuztu, baina inork ez du hori egiteko ausardiarik ezta borondaterik ere. Isil-isilik daude. Amorrutako doluminak denak mutuarazi ditu.

Eta une horretantxe, alferrik galdutako orenaren ondoren erakusten du Grouchyk —bai, beranduegi— bere kemen

militar osoa. Bere bertute handi guztiak —apaltasuna, iaioetasuna, zuhurtzia eta zorroztasuna— ageriraten dira bere buruan uste osoa duenean eta ez idatzitako aginduetan. Indar bost aldiz handiago batek inguratua, berriz bideratzen ditu bere tropak —ikuspegi taktikotik, lorpen bikaina— lerro etsaien artetik, kanoi bakar bat, gizon bakar bat ere galdu gabe, eta onik ateratzen du Frantziarentzat, inperioarentzat, bere azkeneko gudarostea. Baina, etxeratzean, jada ez dago enperadorerik hari eskerrak emateko, ezta aurrez aurre tropak jartzeko etsairik ere. Beranduegi heldu da, beranduegi betiko; eta, itxura guztien arabera oraino goititzen dutenean, komandanteburu eta Frantziako pare izendatua izanda, eta ardura ematen dioten postuetariko bakoitzean gizonki eta antzez jarduten badu ere, jada deusek ezin itzul diezaioke bera patuaren jabe egin zuen baina haren maila berean egon ez zen memento hura.

Horrelako latza da mendekua, norekin eta, bidegabeki deitua, lurtarron bizitzan hain bakanetan gertatzen diren segundo horietariko bati onura ateratzen ez dakienarekin. Bertute burges guztiak —oharmena, obediencia, lehia eta diskrezioa—, haiek guztiak urtzen dira, indargabe, betiere jenoari hots egiten dioten eta irudi iraunkor batean gauzaturik geratzen diren patuaren gora handiko une horietako baten galda bizizko suan. Destainaz, berebiziko oren horrek morroi kikila errefusatzen du; bere beso kartsuetan, bipila baino ez du goresten, Lurraren gaineko beste jainko bat nola, heroien izarrartera jasoz.

7

MARIENBAD-EKO ELEGIA GOETHE, KARLSBAD ETA WEIMAR ARTEAN 1823ko irailaren 5a

1823ko irailaren 5ean postako zalgurdi batek astiro egiten du aurrera Karlsbadetik Eger alderantz. Jada udazkeneko hozkirriak inarosten du goiza, haize zorrotzak zeharkatzen ditu uzta bildutako soroak, zero urdina hedatzen bada ere lurralde zabalean gaindi. Kalesan eserita doaz hiru gizon: Saxonia-Weimarko artxidukearen aholkulari begikoa v. Goethe (gorespenez agertzen den bezala Karlsbadeko bainuetxeko zerrendan) eta haren bi zerbitzari leialak, Steidelmann, mirabe zaharra, eta John, idazkaria, mende berriaren hasieratik Goetheren ia lan guztien lehen kopiak transkribatu dituen. Bietatik inork ez du solas egiten, zeren eta, Karlsbadetik irten ondoren, non zenbait neska eta dama gaztek abiatzear zegoena inguratu duten musu eman eta agur esateko, agurearen ezpainetarik ez baita hitz erdirik ere atera. Higige dago kotxean eserita, bere baitan bildutako begirada pentsakorrak beste ezerk ez du adierazten barneko higitikera. Lehenbiziko geralekuan bera jaisten da, bi bidelagunek ikusten dute hitz batzuk harrapaka idazten dituela arkatz batez paper-txatal batean, eta gauza bera errepikatzen da bide osoan Weimarraino, bidaldi zein geraldietan. Zwotau-n, heldu berri-tan; Hartenberg-eko gazteluan, hurrengo egunean; Egerren eta gero Pösneck-en berdin, nonahi den, egitekorik behinena du presazko idazkeran bidean barrundatuaz oharrak hartzea. Eta egunerokoak adierazten du txoil lakoniko: «Poema izkiriatzea» (irailak 6), «Igandean poemarekin jarraitzea» (irailak 7), «Poema bidean berrirakurtzea» (irailak 12). Weimar den helburura iristerako, idazlana amaitua da. Zer da, eta *Marienbadeko Elegia*, bere zahartzaroko poemarik garrantzitsuena, barru-barrukoena eta

horregatik berak ere maitatuena, bere azken agur heroikoa eta bere hasiera berri gizandi baten dinakoa.

«Barne-egoreen egunkaria», horrela izendatu zuen poema hau Goethek behingo hizketaldi batean, eta beharbada bere egunerokoaren ezein orri ez zaigu ageri hain modu irekian, hain argi sorburuan eta erabidean nola dokumentu hau, non tragikoki errosta egiten duen eta galde bere bihotzaren sentierarik ezkutue-
nez. Gazte-urteetako ezein gainezkatze liriko ez zaio ernatu hain zuzenkiro motibo batetik, gertakari batetik abiatuta. Bere obren arteko ezein ere ez dugu behatzen ahal urratsez urrats, ahapal-diz ahapaldi, unez uneko garabidean halako punturaino nola «dispentsa ematen digun *lied* miragarri» hau, poema berankor hau, zinezko udazken-goritasuna duena, sakonena, onduena, hirurogeita hamalau urteko adinean sartua dagoen gizonarena. «Ezin gehiagoko maitemina produktu» honek, berak Eckermann-en aurrean definitu zuenez, bildu egiten du halaber formarekiko mendetasunik jasoena: horrela, modu ageriko eta aldi berean misteriosuan, mamitu egingo da bizi-unerik suharrrena. Are egun, ehun urte baino gehiago igarota ere, deus ez da zimeldu ez ilaundu bere bizitza jori gorabeheretz betearen orrialde bikain horretan, eta irailaren 5. hau menderik mende gordeko da etorkizuneko belaunaldi alemanen oroia eta sentimenean.

Orrialde horren, poema horren, gizon horren eta memento horren ganean goratzen da dirdaitso jaioberritzearen izar bakana. 1822ko otsailean eritasun larri bat jasan zuen Goethek. Sukarraldi bortitzek astintzen diote gorputza, orduetan konortea galtzen du eta berak ere ez dirudi gutxiago galdua. Sendagileak, inongo sintoma bereizgarririk antzeman ez eta soilik arriskua sumatzen baitute, zer egin jakin gabe daude. Baina bat-batean, etorri bezalaxe, aienatzen da gaitza: ekainean Goethe abian da Marienbad aldera, guztiz eraldatua, ia ematen du-eta gaixoaldi hura barne-gaztetz baten, «pubertaro berri» baten seinale baino ez dela izan. Gizon isilkoi, enbortu, pedante honek, zeinaren baitan alderdi poetikoa erudizio-zolda bihurtu baita ia erabat, hamarkadak dira ez diola beste ezeri obeditzen sentimenduari baizik. Musikak «destolestu egiten du», berak dioenez; ozta entzuten ahal du pianoa jotzen, eta bereziki Szymanowska bezalako hain dama eder batek jotzen badu, begiak malkotu gabe; sen barnekoenak hartaratua joaten da gazteriaren bila, eta bere

lagunkideek zur eta lur ikusten dute hirurogeita hamalau urteko gizona emakumeekin hegaldaka dabilela gauerdia arte. Eta ikusten dute, aspaldiko urteetan bezala, dantzaldia batzen dela, eta halakoetan, berak harro kontatzen duen bezala, «dama-aldatzeetan sorkaririk politenak zetozkidan eskura». Uda horretan bere izate zurruna urtu egin da magikoki, eta zabal-zabalik, bere arima orain dagoen bezala, amore ematen dio xarma zaharrari, magia betikoari. Egunerokoak «amets atsegingarriak» aipatzen du salatari, berriro «Werther zaharra» ernai dago bere baitan: emakumeen hurbiltasunak poema laburrak inspiratzen dizkio, hitz-jolasak eta txantxak, mende erdi bat lehenago Lili Schönmann-ekin zerabiltzanak bezalakoak. Ezbaiko, zalantza egiten du hautatzeko orduan: aurrena Polin ederra da, gero ordea hemeretzi urteko Ulrike von Levetzow, eriondoko sentiberatasuna pilpirarazten diona. Hamabost urte lehenago haren ama maitatu eta gur egin zuen, eta ozta duela urtebete, aitakiro soilki, trufan aritu da «alabatxo»arekin, baina orain jaidura handituz doa supituki irrika bihurtzeraino; orain beste gaixotasun bat jabetzen da bere izate guztiaz, sentikizunen mundu bolkanikoa astinduz are eta hondorago, aspaldiko partez beste edozein bizipen ez bezala. Hirurogeita hamalau urteko poeta buru-berotu egin da mutiko bat bezala: ahots jostaria pasieran entzun orduko, lana utzi eta, kapela eta makila gabe, korri egiten du sorkari alaitsuaren aldera. Baina gortean ere egiten du gazte baten, gizon baten moduan: ikuskari groteskoa hastera doa, satirak aise du gertu tragedia.

Sendagileari aholkua ezkutuan eskatu eta gero, bihotza zabaltzen dio bere lagunkideetan adindunenari, artxidukeari, eta arren egiten dio bere izenean mandatu egin diezaiola Levetzow andereari, beronen alabarekin ezkontzeko. Eta artxidukeak, gogoan hartuz berrogeita hamar urte atzeragoko gau-ibilera jostagarriren bat emakumezko lagunartean eta beharbada, isilik eta maleziaz, barre eginez Alemaniak eta Europa osoak jakintsuetan jakintsuentzat, mendeko adimenik helduen eta bareentzat gurtzen duen gizonaren kontura, izarrak eta dominak hotsandiz jantzi eta amarengana jotzen du hirurogeita hamalau urteko gizonarentzat hemeretzi alabaren eskua eskatzera. Erantzuna ez da zehazki ezagutzen, badirudi zain geratu zela geroko luzamendutan. Horrelakoa da Goethe gorteatzaile segurgabea, zoriotsu

musu iheskorren batekin, maitasun-hitzekin, berriro gaztetasunaren jabe izateko desirak hain figura gurian alderen alde zeharkatzen duelarik gero eta gartsuago. Berriro betiko zazpikiak borrokan egiten du aldiuneko mesederik handiena erdiesteko: leialki kutunaren atzetik doa Marienbadetik Karlsbadera, non bere desiraren oldarrak ez duen aurkitzen ziurgabetasuna baino. Eta uda apaltzearekin batera areagotuz doa bere estira. Azkenean agurraren ordua hurbil da, batere agintzarik ez, den gutien bermerik ere ez, eta, kotxea abian delarik, dena barrundatzen duen gizon handi honek susmoa du gaitzeko zerbait amaitu dela bere bizian. Alta, oinazerik bizenaren betiko laguntzaile, hor da ordurik itzaltsuenean pozkida-emaile zaharra: pairatzailearen gainera jaisten da jenioa, eta Lurrean gozagarririk aurkitzen ez duenak hel egiten dio Jainkoari. Berriro ere, beste hainbatetan bezala eta ez azkenengoz, Goethek bizipenetik poesia barrura egiten du ihes, eta, azken grazia honengatik biziki eskertua, hirurogeita hamalau urtekoak bere poema honi idazpurua jartzen dio berrogei urte lehenago bere *Torquato Tassorako* moldatu bertso batzuekin, ostera ere haiekek harriduraz biziberrituz:

*Gizakia bere estiran mutu ohi denean,
jainko batek eman dit min dudana azaltzea.*

Pentsakor, aurrera egiten duen kotxean doa agurea, bere barruko galderen ezbaian abailduta. Goizean goiz, Ulrike bere ahizparekin harengana hurbildu da korrika «agur zalapartatsua» egiteko. Musu eman diote ezpain gazte maiteok, baina musu hori amodiozkoa al zen, edo alaba baten gisakoa? Hark bera maitatu ahalko ote zuen, ez al zuen ahaztuko? Eta ondare aberatsaren zain berantetsita dauden semeak, errainak, jasango al lukete ezkontza? Eta munduak, ez al dio iseka egingo? Geurtz ez al da zaharregia izango harentzat? Eta ostera ikusten badu, zer itxaron dezake berriz biltzeaz?

Egon ezinda inarrosten dira galderak. Eta bat-batean haie-tako batek, funtsezkoak, forma hartzen du lerro batean, ahapaldi batean. Galdera, herstura, Jainkoak eman dion poema bihurtzen da, «min dudana azaltzea». Zuzen-zuzenik, biluz-biluzik, garrasia oldarka sartzen da poemari, barne-asalduzko bulkada bortitza:

*Zer itxaron ahal dut birtopatzeaz,
egungo lore oraino itxiaz?
Zeru ala infernu, zure aurrean;
ekurugaitz dago gogo kikila!*

Eta orain oinazea dario ahapaldi kristalezko, norbere nahasmenduak miragarriki araztuetan. Eta halabeharrez, alde-rrai dabilelarik miseria kaotikozko barne-egoera, «sapa-giro», horren erdian, begirada goititzen du poetak. Abian doan kotxetik begiesten du Bohemiako paisaia goizeko baretasunean bildua, jainkozko bake hori bere ezinegonaren aurkez aurke, eta lurralde ikusi berriaren irudia isurtzen da jada bere poemari buruz:

*Ez al zaizu, ba, mundua geratzen? Harkaitzak
ez ote dira itzal gurenak koroatuak?
Uzta, ez dea umotzen? Larre berde zeinahi bat
baso-lahar artean ez al du ur-ertzak muga?
Eta ortziaren handiak, noiz forma anitzez,
noiz forma gabarik, ez dua mundua biltzen?*

Baina mundu hori sobera bizigabea gertatzen zaio. Hone-lako une gartsuan ezin du saihestu maitearen irudiarekin lotzea dena, eta oroipena, antzaldatua eta eraberritua, trinkotu egiten da magikoki:

*Zeinen arin eta fin, bilbe sotilekoa,
den ager, serafin nola, hodei hits artetik,
eter urdinean gaindi, haren antzekoa,
irudi lerden bat gandu mehezko gardenik!
Hala zenekusan bera, poz, dantzan gailena,
sortu diren maitagaietan maitagaiena.
Aldiz istant batzuk baino ezin duzu etsi
bere lekuan ispilatze bati eustera.
Bihotzera berriz! Egoitza hoberik ezin,
hor zirkinka ari da antzalda egiten bera.
Mila iruditan bakar Bat derrigorrezkoa,
hain aldabera, eta aldiro ederragoa.*

Ozta gogora ekarria, aurkez dago jada, ordea, Ulrikeren irudia bere forma sentigarrian. Poetak azaltzen du hark nola egin zion harrera eta bihurtu zuen «koskaz koska zoriontsuago», nola

hondarreko musuaren ondoren are «hondarrekoena» eman zion ezpainetan. Eta, oroitzapen dohatsuaren pozkidan, maisu zahar-
rrak orain molderik gorenean ondu egiten du inoiz hizkuntza
alemanean eta beste edozein batean sorturiko ahapaldi biribile-
netako bat, elkarri emate eta elkar maitatzearen sentimenduz:

*Gure barren arazenean taupaz ari da,
esker onez, borondatez, izaki gorago,
arrotz, aratzago bati emateko grina,
betiko Ez-izendatuaren enigma joz.
Debozio deritzogu! Halako omenean
partaide senti naiz harekin nagoenean.*

Baina egoera ezinago dohatsu horren hautematean hain
zuzen ere, presenteko bereizketa dela-eta sufritzen du aban-
donatuak, eta horretara eztanda egiten du txitezko poemaren
elegia-giro goitarra ia urratzen duen min batek, sentieraren zi-
nezkotasun batek, nola urtetan behin bakarrik mamitzea lortzen
baitu zuzeneko bizipen baten eraldatze espontaneoak. Eta auhe-
na hunkigarria da:

*Dagoeneko urruti nago! Memento honi,
zer dagokio? Azaltzen ez nuke jakingo.
Edertasuna gozagai eskaintzen dit jori;
zama denari, baina, jaregin behar diot.
Mira hezigaitz batek narama hara-hona,
beste irtenbiderik ez, baizik negar-malkoak.*

Gero altxatzen da, doian igotzeko gai, azken deiadarra,
lazgarriena:

*Bidelagun leialok, hemen utz nazazue,
bakarka haitz, mortu eta lokazti artean!
Aurrera beti! Mundua agerian duzue,
zabal lurra eta goitar izarrartea.
Ikus, iker, bil itzazue xehetasunak,
segi natur misterioen atzetik usnan.*

*Nerau, behin jainkoen kutuna izandakoa,
neure burua eta den oro galdua nago;
proba modura igorri zidaten Pandora,*

*dohainetan naro, arriskutan naroago.
Ezpain opatsuetara ninduten bulkatu,
haietarik bereiztean berdin hondoratu.*

Ordu arte poetak, bestela neurritsua, behin ere ez zuen antzeko ahapaldirik ondua. Gaztetan bere burua ezkututzen eta jada gizondua kontrolatzen jakin zuenak, bere sekreturik sakonena ia beti ispilu-joko, giltza-hitz eta sinboloen bidez baizik ezagutarazi ez zuenak, hemen, ja agure, lehenbiziko aldiz modu aske bikainean erakusten du bere bihotz-barrena. Duela berrogeita hamar urtez geroztik, gizaki sentibera, poeta liriko handia, beharbada ez da inoiz egon orrialde ahaztezin honetan, bere bizitzaren bihurgune gogoangarri honetan bezain bizirik.

Hain misteriotsu, patuaren grazia bitxi antzora hartu zuen Goethek ere poema hau. Weimarrera itzuli bezain laster, beste edozein lan edo etxeko konturi ekin aurretik egin duen lehenengo gauza da elegiaren kopia antzetsu bat eskuz idaztea. Hiru egunez, lekaide bat bere gelan bezala, kaligrafia larri arranditsuz poema transkribatu du bereziki hautatu paper batean, eta isilean gorde du baita gehien fio den etxelagunengandik ere. Liburua josteaz ere bera arduratu da, norbaiten zuhurtziarik ezaz bere orduan baino lehen zabal ez dadin, eta eskuizkribuari zetazko kordoi batez lotu dio azala, ahuntz-larruki fin gorritzkoa (haren orde zergoago beste bat ipinaraziko du, miragarria, mihise urdinezko xingoladuna, oraindik ere egun ikusgai dena Goethe eta Schiller Artxiboan).

Egunak muzin eta gogaikarri bihurtu zaizkio. Etxean bere ezkontza-planak ez du iseka besterik aurkitu, are gorrotoaldi gordinak eragin dizkio semeari. Bere olerkien hitzetan beste inon ez da maitearekin egokitu ahal. Bakarrik Polin ederra, Szymanowska, berriz bisita egitera datorkionean, berritu egiten da Marienbadeko egun argien sentiera, eta jendekinago bihurtzen da. Urriaren 27an azkenean deiarazten du Eckermann, eta jadanik irakurraldia gertatzeko darabilen modu hanpurutsuan nabari da poema honi dion atxikimendu berezia. Mirabeak bi kandela jarri behar ditu idazmahai gainean; orduan baino ez, erregutzen dio Eckermannari argien aurreko jarlekuan esertzeko eta elegia irakur diezaiola. Beste batzuen entzumenera ere iristen da pixkanaka, konfiantza handikoenera badere, Goethek babestu egiten duelako «erlikia bat bezala», Eckermannen hitzen

arabera. Bere bizitzan garrantzi berezia duela erakusten dute hurrengo hilabeteek. Gaztetuaren ongizate hazkorrari laster darraio kolapso bat. Berriro badirudi hurbil duela heriotza, herrestan doa ohetik besaulkira, besaulkitik ohera, bakerik aurkitu gabe. Erraina kanpoan da, semea gorrotoz beterik. Inork ez du zaintzen ez aholkatzen bazterreratua, gaixo zaharra. Orduan, Berlindik datorkio, agi denez lagunek deitua, Zelter, bere bihotzeko adiskide mina, eta berehala atzematen dio barneko sua. «Zer kausitu dut?», idazten du zurturik, «norbait, iduriz gorputzean maitasuna daukana, maitasun osoa gaztaroko larriminekin batera». Hura sendatu beharrez, behin eta berriz ozen irakurtzen dio, «kidetasun minean», haren poema, eta Goethe ez da entzuteaz nekatzen. «Berezkoa zen gero», idazten du beranduago eriondoan zegoenak, «ezen zure ahots samur sentiberaz sarritan entzunarazten zenidala neure buruari ezin aitortzeraino maite dudana». Eta geroago jarraitzen du idazten: «Ez dut eskuetatik uzten ahal, baina elkarrekin bizi bagina, irakurri eta errezitatu beharko zenidake buruz ikas zenezan arte».

Halaxe, Zelter adiskideak dioenez, sendatzea «zauritu izan zuen gezitik» dator. Goethe salbatu —zuzen esanda— egiten da poema honen bidez. Finean gaudituz du larrimina, garaitu du azken itxaropen tragikoa, amaitu da «alabatxo» kutunarekiko ezkonbizitzaren ametsa. Badaki ez dela inoiz gehiago itzuliko Marienbadera ez Karlsbadera, sekula gehiago arduragabeen olgeta-mundu alaitsura. Hemendik aurrera, bere bizitza lanari emana izango da zeharo. Proban emanda, uko egin dio patuaren hasiera berri bati; horrekin, bere bizitza beste lehia handi batek gidatuko du, bere obrari buru emateak, alegia. Seriotasunez zuzentzen du berriz ere soa bere obrari buruz, zeinak hirurogei urte hartzen baititu barne. Ezpalkatua ikusten du, barreiatua, eta, eraikitzen jarraitzeko ahalik ez duenez, erabakitzen du bederen biltzea; azkendu egiten du bere lan guztiak argitaratzeko kontratua, egile-eskubideak erdietsi. Beste behin, berriki hemeretzi urteko neska baten atzean noragabe ibili ostean, maitemina ernatzen zaio bere gaztaroko bi bidelagun zaharrenen aldera. «*Wilhelm Meister*» eta «*Fausto*». Kementsu ekiten dio bere obrari. Orri horixketan berriz abiatzen du iragan mendeko egitasmoa. Laurogei urte bete baino lehen, «*Wilhelm Meister-en ikasturteak*» bukatzen du, eta laurogeita batekin heroi adorez heltzen dio bere

bizitzako «negozio nagusi»ari, «Fausto»ri, zeina bukatzen baitu zazpi urte *Elegiaren* halabeharrezko egun tragiko haiek igaro ondoren, eta munduaren aurrean begirunezko jaiera berarekin gordetzen baitu sekretuaren zigilu pean.

Sentimenaren bi esfera horien artean, azken desiraren eta azken uko egitearen artean, zerbait berria hastearen edo eginari buru ematearen artean, aurkitzen da, erpin gisa, barne inflexiozko une ahaztezin gisa, irailaren 5. hura, agurra Karlsbadi, agurra maitasunari, betikotasun bilakatua auhen hunkigarriaren bidez. Oroigarrizat har dezakegu, poesia alemanak ezagutu ez duelako, sentsuei dagokienez, data hori baino une txitezkoagorik, noiz eta sentimenik lehen-lehena isuri baitzen poema lehenen honetara.

8

ELDORADO-REN AURKIKUNTZA J. A. Suter, Kalifornia. 1848ko urtarrila

Europarekin gogaitua

1834. Bapore amerikar bat itsasoratzen da Le Havre-tik New York-erako norabidean. Ontzian doa, ehunka *desesperado* aborrituren erdian, haien arteko bat gehiago, Johann August Suter, Rynenberg-ekoa, Basileatik gertu, hogeita hamaika urtekoa, estu eta presak hartua dagoena itsasoa tarteka dadin beraren eta epaitegi europarren artean, bankarrot egina, lapur eta moneta-faltsutzaitzat salatua; bere emazte eta hiru haurrei huts eman die, Parisen gezurrezko nortasun-agiri batekin zerbait diru lortu du eta orain bizitza berri baten bila dabil. Uztailaren 7an lehorreratzten da New Yorken, eta han bi urtez diren eta ez diren irabazpide guztietan dihardu, paketatzaile, drogista, dentista, osasungaien saltzaile, tabernari. Azkenik, hein batean ostatu batean finkatua, hura atzera saldu eta, garaiko erakarmen magikoari jarraiki, Missouri aldera jotzen du. Han nekazari egiten da, eta denbora gutxian jabego txiki bat beretzen du, lasai bizi ahal izateko lain. Baina haren etxe aurretik atertu gabe igarotzen dira pertsona asko, larruketariak, ehiztariak, menturazaleak, soldaduak, sartaldetik datozenak, sartaldera doazenak, eta hitz horrek, Sartalde, arian-arian soinu magiko bat egiten du haren belarrietara. Lehenik, kontu ezaguna da, estepak dira, bison-te saldo izugarriekiko estepak, egunetan, astetan gizajenderik alerik ere gabeak, haietan zehar azal-gorriak baino ez dabiltzanak lauhazka handian; gero mendiak datoz, garai, iritsezinak; geroago azkenean beste lur hura, zeinaz inork ez baitaki ezer zehatzik, hango aberastasuna guztiz ospetsua izan arren, Kalifornia, artean esploratu gabea. Esnea eta ezitia darizkion lur bat,

hartu nahi duenaren helmenean... Urrun dago, ordea, azkengabe urrun, eta, haratzekotan, bizia arriskatu behar da.

Johann August Suter, alabaina, menturazale odolekoa da, ez du erakartzen geldirik egoteak eta bere landa-lurra on-tzeak. Egun batean, 1837an, ondasun guztiak saldu, gurdi, zaldi eta abelburuz hornituriko espedizio bat gaitu, eta bidea hartu du Fort Independence-tik ezezagunerantz.

Kaliforniarako bidean

1838. Bi ofizial, bost misionista eta hiru emakume abiatzen dira bufaloek tiratu orgatan mugagabeko hutsarterantz. Estepak estepei, azkenik mendietan gaindi, Ozeano Barerako norabidean doaz. Hiru aste dirau bidaiak, urriaren amaieran Fort Vancouver-a iristen diren arte. Ofizial biek jada lehenago abandonatu dute Suter, misionistek ez dute aurrera egingo, hiru emakumeak gabezia hil dira bidean.

Suter bakarrik dago, alferrik saiatzen dira Vancouverren atxikitzen, enplegu bat eskaintzen diote; hark uko egin dio denari, izen magikoaren lilura paratu zaio zainetan. Be-laontzi nolabaiteko batekin Pazifikoa gurutzatuz du, aurrena Sandwich uharteetara eta gero, Alaskako itsasaldean zailtasun bukaezinak pairatu ondoren, leku utzietsi batean lehorreratzen da, izenez San Frantzisko. San Frantzisko, ez gaur egungo hiria, lurrikara ondoan hazkundera bikoiztu duena milioika biztanle ar-teraino, ez, arrantzale-herri lander bat baizik, frantziskotarren misioagatik horrela deitua; ezta ere behinola Kalifornia izan zen probintzia mexikar ezezagun hartako hiriburua, eskualde bertan behera utzia, landugabea, elkorra, kontinente berriaren alderik jorienean lugorri dagoena.

Bertan nagusi da anabasa espainiarra, zeinahi autori-taterik ezak, erreboltek, zamari eta gizakien eskasiak, ekimen mentsak areagotua. Suterrek zaldi bat hartzen du alokairuan, behera jotzen Sacramento haran narorantz: nahikoa du egun bat ohartzeko hemen lekurik dagoela etxalde baterako, lursail handi baterako ez ezik, erresuma baterako ere bai. Biharamunean zal-diz doa Monterrey hiriburu errukarrira, aurkezten da Alvarado gobernariaren aurrean, azaltzen dio eremua luberritzeko asmoa duela. Kanakoak ekarri izan ditu uharteetatik, langile saiatu ko-loredunok etorrarazi nahi ditu handik erregulariki eta obligatzen

da kokaguneak eraikitza eta erresuma berri bat fundatza, Helvetia Berria.

«Zergatik Helvetia Berria?» galdetu du gobernariak. «Ni suitzarra naiz eta errepublikazalea», erantzun du Suterrek.

«Ondo. Egizu nahi duzuna. Kontzesio bat emango dizut hamar urtez».

Ikusten denez, han azkar zerratzen ziren negozioak. Edozein zibilizaziotatik mila miliatara, pertsona bakar baten kemena etxean ez bezala balioesten da.

Helvetia Berria

1839. Karabana bat aitzina doa astiro Sacramentoren urbazterren luzeran, ibaian gora. Buruan Suter zaldi gainean, fusila sorbaldan; haren gibelean bizpahiru europar, gero ehun eta berrogeita hamar kanako alkandora motzetan, gero bufaloek tiraturiko hogeita hamar gurdi janari, hazi eta munizioekin, berrogeita hamar zaldi, hirurogeita hamabost mando, behi eta ardi; gero, tropelaren atzealde urri bat: horra Helvetia Berria irabazki-datu nahi duen armada guztia.

Haiekin batera itzulika dabil suzko baga erraldoi bat. Su ematen diete basoei, ebakiz soilteza baino prozedura erosoagoa. Eta ozta inguratu du lur-gaina sugarrezko hodei lodiak, lanean hasten dira artean kea darien zuhaitz-enborren gainean. Eraikitzen dituzte biltegiak, hondeatzen putzuak, ereiten dute golde-lanik behar ez duen lurzorua, eskortak egiten dituzte abere talde ugarientzat; apurka alderrietatik, bertan behera utzitako misionista-kolonietatik, jarioan dator emendioa.

Kolosala da arrakasta. Berehala ehuneko bostehun ematen dute ereintzek. Aletegiak mukurua beterik daude, laster zenbatu ezin ahala dira abere taldeak, eta, nahiz erresuman handituz doazen zailtasunak, indigenen aurkako espedizioak gorabehera, behin eta berriz ausarkeria baitute kolonia jorian indarka sartzeko, Helvetia Berria garatuz doa tropiko aldeko eskualdeen neurri kolosalean. Ubideak, errotak, faktoriak sorrarazten dira, ibaie-tan gora eta behera nabigatzen ontziak, Suterrek hornitzen ditu Vancouver eta Sandwich uharteak ez ezik, Kalifornian porturatzen den edozein belaontzi ere bai; hark fruitu-arbolak landatzen ditu, gaur egun hain ezagun eta onetsia den Kaliforniako fruta. Eta hara non, mardul ernamuindu ere, eta mahats-orpoak ekarra-

razten ditu Rhin eta Frantziatik, urte gutxiren buruan lur-eremu zabalak janzten dituztenak. Berarentzat eraikitzen ditu etxe eta landetxe narotsuak, agindua ematen du Pleyel piano bat Parisetik ekartzeko ehun eta laurogei eguneko bidaiaren ondoren, baita lurrun-makina bat ere, hirurogei bufalok herrestatua New Yorketik kontinente osoa gurutzatzen duena. Baditu kreditu eta hartzekoak Ingalaterra eta Frantziako diru-etxe handienetan, eta finean, berrogeita bost urte dituelarik, bere arrakastaren gailurrean, gogoratu du hamalau urte lehenago emakume bat eta hiru haur utzi zituela munduan nonbait. Idatzi eta gonbidatu egin die berarekin etortzera bere erresumara. Orain, oparotasuna eskuak betean, Helvetia Berriaren jabe eta nagusi da, munduko gizonik aberatsenetako bat, eta izaten jarraituko du. Azkenean, Estatu Batuek ere eskuetatik erauzten diote Mexikori kolonia zabartua. Orain ziurtaturik eta kate motzean loturik dago dena. Urte pare bat gehiago, eta Suter munduko gizonik aberatsena izango da.

Adur gaiztoko palakada

1848, urtarrila. Bat-batean Johann August Suterren etxean ageri da oso urduri James W. Marshall, haren arotza. Harekin hitz egin behar du hutsik gabe. Suter harriturik dago, atzo bertan Colomako bere etxaldera bidali zuen-eta han obratan ipin zezan zerrategi berri bat. Eta orain baimenik gabe itzuli da gizona, asalduzko ikaraz aurkezten da bere aurrean, bultza egiten dio gela batera, ixten du atea eta sakelatik ateratzen du eskukada bat hondar, non dir-dir egiten duten pare bat pikor beilegik. Atzo aitzurketan ari zela aurkitu zuen metal bitxi hori, urrea dela uste du, baina besteei esanez gero irri egingo zioten. Suter serio jartzten da, pikorrek hartu eta proba kimikoa egiten du: urrea da. Erabakia hartzen du berehala biharamunean etxaldera joateko Marshallekin, baina honezkero arotz-maisua da aurki mundua inarrosiko duen sukar izugarriak hartutako lehena: gau berean, ekaitzaren erdian itzuli doa zaldiz, berresteko irrikan.

Hurrengo goizean, Suter koronela heltzen da Colomara. Presa bat eginez ura bildu, eta hondarra aztertzen dute. Aski da bahe bat hartu, hara-hona pixka bat eragin, eta sare beltzaren gainean dirdaitsu jalkitzen dira urre-pikorrek. Suterrek biltzen du han dagoen zuri-jendea eta hitz emanarazten die zerrategia azkendu arte isilean gordeko dutela kontua; gero, serio eta

deliberatua, zaldiz doa bere etxaldera itzulian, neurriz goitiko burutapenek asaldatua. Oker ez badago, urrea inoiz ez da ageri izan hain erraz, hain ukigai lurean, eta lur hori berea da, Suterren jabegoa da. Hamarkada bat gau batean iragan dela dirudi. Munduko gizonik aberatsena da.

Oldarraldia

Gizonik aberatsena? Ez. Behartsuena, gupidagarriena, lur honetako eskekorik etsiena. Zortzi egun geroago isilpekoa salatua izan da, emakume batek —beti emakume bat!— handik igarotzen zen bati kontatu eta pare bat urre-pikor eman dio. Eta gertatzen dena itzela da. Behingoan Suterren gizon guztiek lana uzten dute, errementariak sutegia, artzainek artaldeak, mahastizainek mahastiak, soldaduek armak, denek grinaren menpeko dirudite eta korrika doaz rast hartutako hondar-bahe eta lapi-koekin, legarretik urrea ateratzeko. Gauaz bertan behera utzia geratu da eskualde osoa. Esne-behiek, inork ez jetziak, marru eta leher egiten dute. Bufalo saldoek eskortak apurtzen dituzte, zanpatzen soroak, non laborea belarpean usteltzen den. Gaztandegietan lana uzten dute. Aletegiak behera datoz. Enpresa erraldoiaren makineria eskerga gelditzen da. Telegrafoek promes urrezkoa zabaltzen dute itsasoz eta lehorrez. Eta jendea nondik-nahitik heltzen da. Hirietatik, portuetatik. Marinelek beren itsasontziak uzten dituzte; administrazioko enplegatuek, beren postuak. Ilara luze, azkengabetan, sortaldetik, sartaldetik, oinez, zaldiz eta gurdiz ailegatzen da jende oldea, giza oti-izurrittea, urre-bilatzailleak. Bridagabeko aldra basati bat, ukabila beste legerik ezagutzen ez duena, ezta errebolberrarena ez den beste agindurik, barreiatu egiten da kolonia oparoan barrena. Haienztat deusek ez du jaberik, inor ez da ausartzen *desesperado* horiei aurre egitera. Lepoa mozten diete Suterren behiei; eraisten dituzte haren aletegiak, etxeak eraikitzeko; oinpean darabiltzate haren ereintzak, lapurtzen haren makinak. Gauetik goizera, Johann August Suter zorria baino txiroago bihurtu da, bere diruan itoa, Midas erregea bezala.

Eta urrearen atzetiko erauntsi lazgarri hau gero eta bortitzago bihurtzen da. Albistea munduko jendartera hedatu da, soilik New Yorketik itsasoratzten dira ehun barku. Alemaniatic, Ingalaterratik, Frantziatic, Espainiatic, 1848 eta 1851 urteen

bitartean, haraino inguratzen dira abenturazale samalda alimalekoak. Batzuk Hornos lurmuturraren ertzetik datoz, egonarri gutxienekoei luzeegia gertatzen bazaie ere; beraz, biderik arris-kugarriena aukeratzen dute, Panamako istmoan zehar. Denbora gutxian, lasterka eta muturka, egonarri gutxikoek bizpahiru aste aurreztu eta urrea lehenago erdietsi ahal zezaten beste gabe, konpainia batek burdinbide bat eraikitzen du istmoan, non milaka langilek behea jotzen duten sukarren erruz. Kontinentean zehar aurrera doaz karabana azkengabeak, arraza eta hizkuntza guztietako gizon-andreak, eta denak induska hasten dira Johann August Suterrenak diren landa-lurretan beraienak balira bezala. San Frantziskoko lurzoruaren gainean, haren jabetza baita gobernuak zigelaturiko agiri baten arabera, hiri bat hazten da ametsezko abiadura batean; atzerritar jendeak elkarri saleros-ten dizkiete haren lur eta onibarrak, eta Helvetia Berriaren izena, haren erresuma, ezkututzen da ele magiko baten gibelean: Eldorado, Kalifornia.

Johann August Suter, berriro bankarrot eginda, geldi antzean geratzen da herensuge erraldoi horren haziari beha. Lehenik, bera ere aitzurtzen saiatzen da eta aberastasunari onura ateratzen bere otsein eta lankideekin, baina denek bertan behera uzten dute. Hortaz, urrearen barrutitik basabazterreko etxalde batera erretiratzen da erabat, mendialdean, ibai madarrikatu eta zorigaitzeko hondarretik urruti, Eremitage izeneko bere etxaldera. Han elkarganatzen dira azkenean bera eta bere emaztea, hiru haur koskortuekin, baina heldu eta berehala andrea hiltzen da bidaiaren sufrikarioen ondorioz. Orain, hala ere, hiru semeak ditu bertan, zortzi beso, bereak barne, eta beraiekin nekazaritzan aritzen da Johann August Suter; berriz ere, orain bere semeekin, isileko eta nekaezin, aberasbidean gora jotzen du, lur horren emankortasun izugarriaz baliatuz. Berriz ere proiektu handi bat du hegalpean eta ezkutuan.

Epaiketa

1850. Ameriketako Estatu Batuetako kide bihurtua izan da Kalifornia. Azkenik Batasunaren diziplina gogorraren pean, aberastasunaren ondotik, ordena dator urreak harturiko lurraldera. Anarkia bezatua izan da, berriro nagusi da legea.

Eta orain behingo batean agertokian sartzen da Johann August Suter bere eskakizunekin. San Frantzisko hiria eraikia izan den lurzoru osoa, galdatzen du, berea da legez eta bidez. Estatua- ren eginbidea da lapurretaren kariaz haren jabegoan izandako kalteak ordaintzea; bere lurretan erauzitako urre guztitik da- gokion zatia eskatzen du irmoki. Auzi bat hasten da, gizateriak oraindaino ezagutu ez duen tamainakoa. Johann August Sute- rrek bere lursailetan kokatu diren hamazazpi mila berrehun eta hogeita bi laborari auzipetzen ditu, eta dei egiten die ostutako funtsak hutsaraz ditzaten. Kaliforniako estatuari 25 milioi dolar galdatzen dizkio, berak eraikitako gurdibideak, ubideak, zubiak, antaparak eta errotak, alegia deus ez, beretu izan dituela eta. Batasunari, beste 25 milioi dolar, ondasunen txikizioa dela-eta kalte-ordain gisa; horrezaz gainera, erauzitako errearen bere partea. Seme nagusiari, Emil, lege-ikasketak eginarazi dizkio Washingtonen, auziaren ardura izan dezan, eta bere etxalde berrietarik ateratako irabazkin itzelak baliatzen ditu soil-soilik kostu handiko auzi horren zorra kitatzeko. Lau urtez, bulkatua dago instantzia guztietara jotzera.

Azkenean, 1855eko martxoaren 15ean ematen da epaia. Kaliforniako magistratu nagusia den Thompson epaile eros- tezinak legezko eta ukiezintzat aitortzen ditu Johann August Suterren funtsen gaineko eskubideak.

Egun horretan itu-itan jo du Johann August Suterrek. Munduko gizonik aberatsena da.

Amaiera

Munduko gizonik aberatsena? Ez, berriro ez, eskalerik txi- roena baizik, dohakabeena, ostikatuena. Berriro patuak heriozko kolpea ematen dio; oraingo honek, halere, jo eta lurrean zerraldo uzten du betiko. Epaiaren berri jakindakoan, matxinada batek eztanda egiten du San Frantziskon eta herrialde osoan. Ehunka mila lagun altxatzen dira, jabe mehatxatu guztiak, kaleko po- pulu xehea, jendaila beti arpilatzeari ekiteko presta. Oldartzen zaizkio Justizia Jauregiari eta su ematen diote, badoaz epailearen bila lintxatzeko asmoz, eta abian da, jende elemenia bat, Johann August Suterren jabetza guztiak harrapakatzeko xedez. Seme nagusiak, gizatxar osteak hertsaturik, bere buruari tiro egiten dio; bigarrena eraila da; hirugarrena, ihesari eman eta gero, etxe-

rako itzulbidean ito egiten da. Su-baga bat dabil Helvetia Berrian gaindi. Suterren basetxeak erraustu izanak dira; haren mahastiak, ostikopetuak; haren altzariak, haren bildumak, haren dirua, lapurtuak. Eta gupidagabeko amorrazioz basamortu bihurtzen da jabego eskerga. Suter bera ozta-ozta ateratzen da bizirik.

Ezbehar horrez gero Johann August Suter inoiz ez zen berriz oneratu. Bere lanegina deuseztatua izan da. Bere emaztea, bere semeak, hilak dira. Bere gogo-aldarte, nahasia: burutapen bakar bat dar-dar dabilkio oraindio sorgor bilakatu buruan korapilatua: justizia, prozesua.

Hogeita bost urtez, adimen maskaleko agure gaizki jantzi bat hara-honaka ibiltzen da Washingtingo Justizia Jauregiaren inguruan. Hango bulego guztietan ezagutzen dute bere milioiak erreklamatzan dituen beroki zikineko eta zapata txikituekiko «jenerala». Eta betiere kausitzen dira abokatu, menturazale eta azeri zaharrak gerturik daudenak haren pentsioaren azken ardita ateratzeko eta beste behin ere auzitara eramateko. Berak, bere aldetik, ez du ezein dirurik nahi, gorroto dio urreari, behartsu bihurtu baitu, bere hiru semeak erail baitizkio, baita bizitza apurtu ere. Justizia egitea ez du besterik nahi, eta horren alde borrokatzen da monomaniako auzizale baten amorruez. Erreklamazioa egiten du Senatuaren aitzinean, Kongresuaren aitzinean; bihotza zabaltzen die mota guztietako laguntzaileei, zeintzuek, ponperiaz aferaren brida hartuz, jeneral-uniforme irrigarri bat janzten dioten eta malerusa txorimalo antzo narrasean daramaten bulegoz bulego, artekariz artekari. Honek hogeit urte dirau, 1860tik 1880ra, eskean emandako hogeit urte errukarrizko. Egunak joan egunak etorri, arlotekerian ibiltzen da Kongresuaren Jauregiaren inguruan, funtzionario guztien iseken helburu, kaleko alproja koskor guztien jostailu, nor eta bera, Lurreko erresumarik aberatsenaren jabea izana eta zeinaren onibarren gainean jasotzen den eta gelditzeke hazten inperio erraldoiaren bigarren hiriburua. Baina aldi-aldeetarik lekorean dagoenari itxoinarazi egiten zaio. Eta han, Kongresuaren Jauregiaren eskaileretan, 1880ko ekainaren 17ko eguerdian, azkenik jo zuen bihotzeko jaregileak: handik lorrean daramate eskale hil bat. Eskale hil bat, baina sakelan auzi-idazki bat daramana, zeinak mundu honetako lege guztien arabera segurtatzen bai-

tie berari eta bere oinordekoei historia unibertsaleko ondasunik handienaren gaineko eskubidea.

Inork ez du oraindik oraindaino Suterren oinordekotza erreklamatu, ez dago bere eskabidea jakitera eman duen ondorengorik. Egun artio San Frantzisko, lurralde oso bat, besteren lurzoru gainean dago jaso. Egun artio ez da justizia egin, eta soilik artista batek, Blaise Cendrars-ek, aitortu dio bederen Johann August Suter atzenduari patu handirako eskubide bakuna, mi-respenezko oroitzapenerako eskubidea, geroko gerorako.

9

MEMENTO HEROIKOA **DOSTOIEVSKI, SAN PETERSBURGO, SEMIONOV PLAZA** **1849ko abenduaren 22a**

Gauaren erdian loalditik erauzi dute,
ezpata-hotsa kasamatetan,
ahotsak aginduka. Ezbaitasunean,
mehatxatzaile eta espektralak, itzalak uzkur.
Aurrerantz bultzatzen dute, korridore batean barrena,
luze eta iluna, ilun eta luzea.
Morroilo baten kurrinka, ate baten hotsa;
gero zerua sentitzen du, eta aire izoztua,
eta gurdi bat zain, kripta bat gurpil gainean:
horra dute presaka bultzatu.

Haren ondoan, burdinez ankerki kateatuta,
isilik eta begitartea zurbil,
bederatzi burkideak.
Inork ez du hitz egiten,
norberak susmoa baitu
gurdiak nora daraman,
eta azpian jiraka doan gurpil horrek
euren bizia duela izpien artean.

Orduan gelditzen da
gurdi burrunbatsua, karranka egiten du atepak:
burdin saretik zehar, begirada goibel logaletuaz,
so egiten die
mundu zati ilun batek.

Teilatu apalekiko eta antzigar zikineko
etxe sail batek inguratzen du
ilunduraz eta elurrez betetako plaza bat.

Lainoak xingola gris batez biltzen du
hil-horma,
eta goizak, odola darion argi izozgarri batez,
urrezko eliza baino ez du ferekatzen.

Isilik eratzen dituzte ilarak.
Lotinant batek epaia irakurtzen du:
Heriotza saldukeriagatik bolboraz eta berunez.
Heriotza!
Hitza, harri bat oldarrean nola,
baretasunaren ispilu hotzean erortzen da,
indarrezko hotsa du,
zerbait bitan zatituko balu bezala.
Gero oihartzun hustua
hondoratu egiten da goizaren
izotzezko geldotasunaren hilobi isilean.

Ametsetan bezala
sentitzen du gertatzen ari zaion guztia
eta dakien bakarra da orain hil behar duela.
Batek aurrera egin eta hitzik gabe
hil-atorra zuri, nasai bat ipintzen dio.
Azkeneko hitz bat lagunei agur esateko,
eta begirada suharrak,
oihu mutu bat,
muin egiten dio hark Berrerosleari
popeak serio, hertsakor, luzatzen dion gurutzean;
gero haiek denak
hamarrak, hironaka,
zutoinei sokaz lotzen dituzte.

Badator
berantetsita kosako bat,
hari begietan lotura ipintzeko fusilen aurrean.
Orduan haren begiradak, itsutasun handia baino lehen,

atzematen du irrikaz –badaki, azkenengoz!–
han goian zeruak eskaintzen dion
mundu puska txiki hura:
goizeko argitasunean eliza ikusten du;
gainaldea, azken afari santurako prest antzean,
gori dago,
egunsentiak sutua.

Eta berak bat-bateko poz batez hura iristeko eskua luza-
tzen du,

Jainkoaren bizia balitz bezala heriotzaren ostean...

Orduan gaua lotzen diote begien inguruan.

Baina barruan
odol orain kolorezkoa hasten da isurtzen.
Ispiluzko marea batean
bizitza iruditan
goratzen da odol isuritik,
eta hark sentitzen du ezen
segundo horretan, heriotzak seinalatuta,
galdutako iragan guztiak
bainatzen duela berriro bere arima:
bere bizitza guztia esnatzen da ostera
eta iruditan ageri zaio bere bularrean zehar;
haurtzaroa, zurbila, galdua eta grisa,
aita eta ama, anaia, emakumea,
hiru papur adiskidetasun, bi katilu plazer,
loriazko amets bat, fardeltxo bat lotsaizun;
eta gaztaro galduko irudien erasoak
zainen bidea egiten du suharki,
beste behin bere izate guztia sentitzen du oso sakon,
zutoinari lotu zioten
istanta arte.
Gero duda batek bere itzalak jaurtitzen ditu,
beltzak, astunak,
haren arima gainean.

Eta orduan
norbait hurbiltzen zaiola sumatzen du,

pauso beltz, isil batzuk sumatzen ditu,
hurbil, oso hurbil,
eta eskua jartzen diola bihotzean,
zeina ahulago... eta ahulago... pilpiratzen baita,
eta jada batere ez
—minutu bat gehiago—, gero akabo.

Kosakoek

ilara dirdaitsua eratzen dute beste aldean...
uhalak kulunkan... eskuak karraskan...
Danborrek burrunbaz urratzen dute airea.
Segundo horrek milaka urte zaharrarazten du.

Orduan garrasi bat:

Geldi!

Ofiziala

aurreratzen da. Paper bat zuria airean astinka.
Bere ahotsak, argi eta garbia, mozten du
ikusminezko isiltasuna:

Tsarak

beronen borondate sakratuaz
epaia indargabetu du
zigor arinago batez ordezteko.

Hitzak oraino arrotzak

gertatzen zaizkio. Ezin die zentzua antzeman,
baina odola

bere zainetan gorria da berriz,
gora doa eta kantatzen hasten da leun-leun.

Heriotza

zalantzakor herrestan doa soin-atal hozminduez kanpo,
eta begiek, oraino beltzez lausotuak, hautematen dute
betiko argiaren agurrak inguratzen dituela.

Aguazilak

isilik askatzen dizkio sokak,
bi eskuk lotura zuria kentzen diote
urki baten azal itzela balitz bezala
lokietatik garretan.

Itsumandoka begiak hobitik irteten dira

eta haztaka, ahul eta baldar,
berriro sartzen dira
jada uko egina zioten existentziara.

Eta orduan ikusten du
elizako urrezko teilatu berbera,
orain mistikoki sutan dagoena
goizaren lotsagorritze hazkorrean.

Oskorriaren arrosa onduak
otoitz debotekin antzo inguratzen dute,
kapitel dirdaitsuak
seinalatzen du bere esku gurutzean iltzatuaz
ezpata sakratu bat, han goian
hodei-arrai gorrituen ertzean.
Eta han, goizeko argitasunean horditurik,
zeru-ganga hedatzen da elizaren gainean.

Argi-korronte batek
gori-goritan jaurtitzen ditu bere uhinak
zeru durunditsu osoan barrena.

Lainoaren lurrinak
bafadaka igotzen dira, lureko
iluntasun guztiaren pisuaz kargatuta antzo,
jainkozko goiz-txinta,
eta sakonetatik nota batzuk igotzen dira,
mila ahotsek batera
oihukatuko balute bezala.
Eta orduan lehenengoz entzuten du
nola giza larrimin guztiak
bere atsekabe bizia
oihukatzen duen Lurraren gainean.

Entzuten ditu txikien eta ahulen ahotsak,
euren burua alferrik eskaini zuten emakumeenak,
euren buruei irri egiten zieten prostitutenak,
beti gaixo daudenen laztura hitsa,
irribarre batek igurtzi gabeko bakartiak.

Haurrak entzuten ditu, negar-zotinka, lantu-joka.
Eta ezkutuan limurtu izandako emakumeen
ezintasun-oihua.

Entzuten ditu zigorrak euren gain hartzen dituzten
guztiak,

tornuko umeak, gorrak, laidoztatuak,
kalezulo bakoitzeko, egun bakoitzeko
koroarik gabeko martiriak.

Euren ahotsak entzuten ditu eta entzuten du
nola hatsarreko doinu batez
goratzen diren zero zabalerantz.

Eta ikusten du

soilik minak daramala Jainkoaganantz,
gainerakoak bizitza astunak berunezko poz batez
lurrera iltzez josten dituen artean.

Baina han goian argia zabaltzen da amaierarik gabe
giza oinazearen
goranzko koruen

jasa pean;

eta berak badaki Jainkoak guztiei,
guztiei entzungo diela atseginez.

Beronen zeruak errukiz gainezka daude!

Pobreak

ez ditu Jainkoak epaitzen,
urrikalmenu mugagabe batek
garretan jartzen du barruti sakratua betiereko argi batez.

Apokalipsiko zaldizkoak barreiatzen dira,
oinazea atsegin bihurtuko da eta poza estira
heriotzan bizia esperimentatzen duen harentzat.

Eta jada hegan egiten du lurrerantz

suzko aingeru batek

eta minetik sortutako maitasun santuaren izpiaz
zulatzen dio sakon eta dirdai
ikarak hartutako bihotza.

Orduan belauniko erortzen da
jota antzean.

Behingoan sentitzen du mundu osoa

erreala eta haren atsekabe mugagabeen.
Bere gorputzak dar-dar egiten du,
hagun zuri batek hortzak bainatzen dizkio,
konbultsio batek hazpegiak desitxuratu dizkio,
baina malko zorionekoek
hil-jantzia blaitzen diote.
Sentitzen baitu ezen lehenbizikoz,
heriotzaren ezpain mingotsak igurtziz geroztik,
bere bihotzak biziaren ezta esperimentatzen duela.
Bere arimak dirdira egiten du martirio eta zaurien ostean,
eta konturatzen da
une horretan
beste Hura izan dela,
milaka urte batzuk lehenago gurutzean egon zena,
eta berak, Hark bezala,
heriotzaren musu gorria sentituz geroztik
minaren amoreagatik maitatu behar duela bizitza.

Soldaduek zutoinetik aldentzen dute.
Zurbil
eta itzali antzean du aurpegiera.
Zakarki
ilara aldera bultzatzen dute berriro.
Bere begirada
besterena da eta guztiz dago barnerantz hondoratua,
eta bere ezpain uzkurduetarik zintzilik du
Karamazovtarren barre-algara horia.

10

LEHEN HITZA OZEANOAN GAINDI Cyrus W. Field, 1858ko uztailaren 28a

Erritmo berria

Milaka eta beharbada ehunka mila urteotan zehar, gizaki deritzan sorkari bereziak lurra oinpean darabilenez gero, ez zen izan zaldi baten lasterra, gurpil bat abian edo ontzi bat belan edo arraunean baino beste ezein lurgaineko ibilbide-modu garaiaorik. Aurrerapen teknikoen ugaitasun guztiak, barnean harturik munduaren historia deitzen dugun esparru mehar eta jakitateak argitu hori, ez zuen berekin ekarri izan ezein azeleratze nabarmenik mugimenduaren erritmoan. Wallenstein-en gudarosteek ozta-ozta aurrera egiten zuten Zesarren legioek baino azkarrago. Napoleonen armadek ez zuten fiteago egiten Gengis Khanen hordek baino. Nelsonen korbetek itsasoa zeharkatzen zuten doi azkarxeago bikingoen pirata-belaontziek eta feniziarren merkataritza-ontziek baino. Lord Byronek *Childe Harold*-en *Erromesaldian* kontatu bidaietan ez zuen egunean legoa gehiago gaintitzen Ovidiok bere erbeste poetikoan Ponto-rako bidean baino. Goethek XV. mendean ez zuen funtsean erosoago edo arinago bidaiatzen San Paulok gure aroaren hasieran baino. Herrialdeak, aldaezinik urrunduta espazio eta denboran, Napoleonen garaian elkarrengandik bananduago zeuden erromatar inperioaren pean baino. Materiaren erresistentzia oraindik ere gailentzen zaio giza nahimenari.

Soilik XX. mendean eraldatzen da oinarriz lurgaineko abiaduraren neurria eta erritmoa. Haren lehen eta bigarren hamarraldietan herriak, lurraldeak elkarren ondora

hurbiltzen dira aurreko milurtekoetan baino lasterrago. Burdinbidez, lurruntziz, lehenago egunak zirauten bidaiak bakar batean egiten dira; orain arte ordu amaiezinak behar zituztenak, ordu laurden batean edo minutu batzuetan. Baina, nahiz eta garaikideek burdinbide eta lurruntziaren lasterragotze berri hauek triunfoan hartu zituzten, nolana ere asmaketa horiek uler daitekeen errealitatearen eremukoak dira oraindik, zeren, ibilgailu horiek bost, hamar, hogeitaz bider emendatu arren ordu arte ezaguturiko abiadurak, artean ere kanpoko begiradak eta barneko senak jarraitzen ahal dituzte eta itxurazko miraria azaltzen. Guztiz ezustekoak euren eraginetan, ordea, ageri dira elektrizitatearen lehen emaitzak, zeinak, Herkules bat sehaskan oraino, lurrera botatzen dituen ordu arteko lege guztiak, eta indarrean diren neurri guztiak errausten. Geroago sortu ginenok inoiz ezin sentituko dugu belau-naldi hark sentitu zuen harridura telegrafo elektrikoaren lehenbiziko emaitzen aurrean; itzelezko gogo-berotasun txundigarria ernarazi zuen zerk-eta txinparta elektriko tipi, ozta sentigarri horrexek berak, atzo arte kraska egiteko gauza ez zenak Leiden-en botilatik hazbeteko distantzian baino, bat-batean irabaz zezala deabruzko indarra lurralde, mendi eta kontinenteen gainetik jauzi egiteko; edo ideia oraindik ozta azkeneraino barrundatuak, hots, hitz idatzi berria segundo berean jaso, irakurri eta ulertu ahal zedila milaka eta milaka kilometrora; edo arku voltaiko ñimiño baten bi poloen artean dar-dar egiten duen korronte ikusezina hedatu ahal zedila lurbira osora mutur batetik bestera; edota laborategietako jostailuzko gailu horrek, atzo doi-doia gauza baitzen beira-xafla baten marruskaduraz paper zatitxo pare bat erakartzeko, ahalmena eduki zezala mila eta milaka milioitan gizakien gihar-indarra eta abiadura berretzeko, mezuak ekarriz, trenak mugituz, kaleak eta etxeak argiztatuz, eta Ariel bezala airean igeri egon zedila ikusezin. Soilik aurkikuntza honen bidez, espazio-denbora erlazioak eraldatzerik erabakigarriena izan zuen munduaren sorreratik.

Mundu osorako ondore handiko urte hori, 1837, noiz ere lehenbizikoz telegrafoak lortu baitzuen giza esperientzia

orduraino bakartua aldi berekoa izatea, gutxitan jasoa egoten da gure eskola-liburuetan, ondikoz jarraitzen du-te-eta garrantzi handiagoa ematen hainbat jeneral eta nazioen gerra eta gurendak kontatzeari, gizadiaren bene-tako, orenak izateagatik, garaipenez jardun orde. Eta hala ere, historia berriagoan ez dago beste datarik, ondorio psikologikoei dagokienez, denboraren balioaren eraldatze horri alderatzekorik. Mundua aldatu egin da posible denez gero Parisen jakitea zer gertatzen ari den minutu berean Amsterdamen, Moskun, Nepalen edo Lisboan. Egiteko dago azken urratsa besterik ez, eta munduaren beste zati batzuk ere barne hartuak izango dira elkarrekiko lotura berariazko horretan eta sortua izanen da gizadi osoaren kontzientzia erkidea.

Baina izadiak oraindik aurre egiten dio azken bat-egite horri, oraindik tartean jartzen du oztopo bat, oraindik bi hamarralditan desloturik daude herrialde horiek guztiak, itsasoa dela zio elkarrengandik bakartuak. Zeren, telegrafoaren hagaxketan portzelanazko kanpai isolatzaileei esker txinpartak libre zartaka jarraitzen duen bitartean, urak xurgatu egiten du korronte elektrikoa. Linea bat itsa-soan zehar ezinezkoa da, bide bat aurkitzen ez den artean kobrezko eta burdinazko hariak elementu bustian zeharo isolatzeko

Zorionez, aurrerabidearen aroan asmaketa batek beste bati eskua luzatzen dio lagunkiro. Lehorrez telegrafoa instalatu eta urte gutxira gutapertxa aurkitzen da, gai egokia uretan linea elektrikoak isolatzeko; orain has daiteke europar sare telegrafikora konektatzen herrialderik garrantzitsuena kontinenteaz harago, Ingalaterra. Brett izeneko ingeniari batek lehen kablea jartzen du itsasartearen leku berean, zeinaren gainean Blériot, geroago, aurrenengoa izango baita aireko batean hegaldatzen. Gorabehera baldar batek galarazten du berehalako arrakasta, zeren arrantzale batek Boulogne-n, aingira bereziki lodi bat aurkitu izanaren ustean, erauzten baitu jada jarritako kablea. Baina 1851ko azaroaren 13an, bigarren saialdiak ondore ona dakar. Horrekin, Ingalaterra loturik geratzen da, eta horren bidez, lehenbizikoz Europa egiaz Europa da,

izaki bat, garun bakar batekin, bihotz bakar batekin, aldi berean bizi dituen garaiko gertakari guztiak.

Hain lorpen itzelak hain urte gutxian —izan ere, zer esan nahi du hamarraldi batek gizadiaren historian, begi-kliska bat baizik?— iratzarri behar izan zuen, esan beharrik ez, adore neurrigabea belaunaldi hartan. Saiatzen den guztiak arrakasta du, eta dena ametsezko arineketan. Urte pare bat baino ez, eta Ingalaterra bere aldetik Irlandarekin baturik dago telegrafo bidez, Danimarka Suediarekin, Korsika lehorrarekin, eta jada ari da ahaleginetan Egipto eta harekin India sarera konektatzeko. Kontinente bat, baina, garrantzizkoena hain zuzen, badirudi kondenturik dagoela mundu osoa biltzen duen kate horretatik baztertze iraunkorrera: Amerika. Ezen, nolatan zeharkatu kable bakar batez ozeano Atlantikoa edo Barea, euren zabalera mugagabea bietariko batek ere bide ematen ez badu bitarteko geralekuak sortzeko? Elektrizitatearen haurtzaroko urte haietan, faktore denak ez dira artean ezagunak. Ozeanoaren sakonera ez da artean neurtu, itsas hondoaren egitura geologikoa artean ez da zehaztasunez ezagutzen, ez da artean frogatu halako sakoneran finkaturiko kable batek jasan ahal izango duen ur-masa hain izugarri altuen presioa. Eta are teknikoki ahal balitz ere modu seguruan halako sakoneran kable amaiezin bat landatu, non da itsasontzi bat beharrezko neurriekin bertan bi mila milia hari kobrezko eta burdinazkoren zama garraiatu ahal izateko? Non dinamoak, aski indar duketenak korrante elektriko bat etenik gabe bidali ahal izateko distantzia batera, zeina lurruntziz zeharkatzeko beharko ziren bi edo hiru aste behetik jota? Aurretiko baldintza guztiak falta dira. Oraindik ez da ezagutzen ozeanoaren sakonean eratzten ote diren korrante elektrikoak desbidera lezaketen korrante magnetikoak. Oraindik ez da edukitzen isolagailu nahikorik, ez doitasunezko neurgailurik, oraindik Elektrizitatearen lege nagusiak baino ez dira ezagutzen, hain zuzen begiak ireki dizkigutenak ehunka urtetako oharkabetasun-loaditik esnarazteko. «Ezinezkoa! Zentzugabea!», espantu larriz ukatzen dute jakitunek, ozeanoa kableztatzearen plana ahotan hartu

ordukoxe. «Beranduago agian», deritzote teknikarietan bulartsuenek. Are Morse-ri, telegrafoak orain arte betetasunik osoena zor dion gizonari, kalkulatu ezineko ekintza arriskutsua iduri zaio plana. Nahiz eta profetiko erantsi ezen, arrakasta izanez gero, kable transatlantikoa paratzeak adieraziko lukeela «the great feat of the century», mendearen handieneko mugarrria.

Mirari bat edo mirarizko zerbait burutzearren, betebeharreko lehen baldintza beti izaten da norbanako batek mirari horretan sinestea. Ez-aditu baten ausardia xaloa gai izan daiteke adituek zalantza egiten duten hantxe berean sor-bulkada emateko, eta, gehienetan bezala, hemen ere zori hutsa da berebiziko ekintza aurrerarazten duena. Ingeniari ingeles batek, Gisborne izenez, 1854an kable bat bota nahi duenak New Yorketik Amerikako gune ekialdekoenera, Ternuara, hartara itsasontziek bidalitako berriak jaso ahal zitezen egun pare bat lehenago, geldialdia egin behar du lanen erdian, finantza-baliabideak agortu zaizkio eta. Beraz, New Yorkera bidaiatzen du han jende finantzatzaile bila. Bertan zori hutsez, hainbeste egintza loriosen abiapuntu, topo egiten du gazte batekin, Cyrus W. Field, artzain protestante baten semea, negozio-kontuetan hain atarramentu ona eta bizkorra izan duena, non dagoeneko mutiletan erretira daitekeen bizitza pribatura dirutza handi baten jabe. Gisborne saiatzen da zereginik gabeko gazte hori irabazten, New York eta Ternua arteko kable-jartzea amaitzeko. Cyrus W. Field —ia esatea dago: beharrik!— ez da teknikaria ez espezialista. Ez daki ezer elektrizitateaz, inoiz ez du kable bat ikusi. Baina artzainaren semeak odolean darama konfiantza gartsua, amerikar ekintzailearen ausartasuna. Eta Gisborne ingeniari espezializatuak zuzeneko helburua besterik behatzen ez duen tokian, alegia, New York Ternuara konektatzea, gizakume gazte gogo-beroak haratago ikusten du berehala. Zergatik ez batu berdin gero Ternua Irlandarekin itsaspeko kable baten bidez? Eta edozein oztopo gainditzeko adinako kemen irmo batez —urte horietan gizon honek hogeita hamaika joan-etorri egin zituen ozeanoan zehar bi kontinenteen artean—, Cyrus W. Fieldek lanari ekiten dio

berehala, sendo deliberatua une horretatik aitzina bere esku dagoen eta bere alde daukan oro egitandi horretan ematera. Horrekin burutua da jada sutze-puntua, zeinari esker ideia batek erdiesten baitu errealitatean zapart-indarra. Argindar berria, mirarigilea, elkartu egin da biziaren beste osagai dinamiko indartsuenarekin: giza nahimena. Gizon batek bere bizi-misioa aurkitu du, eta misio batek, bere gizona.

Prestalanak

Ez sinetsizko gogoz eta lehiaz ekiten dio Cyrus W. Fieldek lanari. Harremanetan jartzen da espezialista guztiekin, gobernuak setiatzen ditu lizentziak eskuratu beharrez, kanpaina bat abiatzen du kontinente bietan beharrezko dirua biltzeko, eta hain da indartsua gizon guztiz ezezagun honi darion bulkada, hain kutsakorra bere barneko uste sendoaren grina, hain bortitza argindarrean duen fedea indar berri onuratsu bezala, ezen hirurehun eta berrogeita hamar mila liberako oinarrizko kapitala izenpetua izango den Ingalaterran egun gutxi epean. Aski da Liverpoo-len, Manchesterren eta Londresen merkatari aberatsenei konbokatzea «Telegraph Construction and Maintenance Company» delakoa sortzeko, eta dirua turrustan dator. Baina izenpetzaileen artean aurkitzen dira baita ere Thackeray eta Lady Byron izenak, ekimena sustatu nahi dutenak inongo interes ekonomikorik gabe eta entusiasmo hutsez; ezerk ez du hobeto azaltzen Stevenson, Brunel eta gainerako ingeniari ingeles handien garaian teknika eta makineria orori dagokionez nagusi zen optimismoa, nola baita ezen dei bakar bat nahikoa dela hain zenbateko eskerga à *fonds perdu* hornitzeko ekimen zeharo fantastiko baterako.

Zeren kableztatzearen gutxi gorabeherako kostuak dira hastapenotan nolabaiteko doitasunez kalkulatu ahal izan den bakarra. Egiazko gauzatze teknikorako ez dago inolako eredurik. Hemeretzigarren mendean ez da oraindik inoiz pentsatu ez planifikatu halako tamainako deus ere. Zeren nolatan elkarrekin alderatu kable bat ozeano oso batean zehar hedatzearen lantegia eta Dover-Calais arteko ur ze-

rrenda mehar hori igarotzearena? Han nahikoa izan zen gurpil-bapore baten gainalde irekitik deskribiltzea hogei-ta hamar edo berrogei milia kable, astiro biraka amilduz joan zena nola aingura debiletatik. Kanalean kablea jarri bitartean litekeena izan zen lasai egotea egun bereziki bare baten zain, zehazki ezagutzen zuten itsas hondoaren sakonera, aldi oro agerian izan zuten itsas hegi bat edo bestea eta horrekin saihestu edozein arrisku-egoera; egun bakar baten epean eroso egin ahal izan zen lotunea. Nabigazio jarraituko hiru aste gutxienez behar den zeharkaldi batean, aldiz, haril ehun bider luzeago eta ehun bider astunago bat ezin da utzi ontzigainean eguraldi zakar guztien mende. Gainera, ez dago garai hartako itsasontzi aski handirik bere sotoan burdina, kobre eta gutapertxaz egindako kuskurraldoi hori hartu ahal izateko, ezta ahalmen aski handikorik zama hori jasateko. Bi itsasontzi bederen behar dira nahitaez, eta bi ontzi nagusi horiei, berriz, lagun egin beharko liekete beste batzuek, ibilbide laburrena jarraitu eta edozein gorabeheraren aurrean so-rospena eman ahal ziezaieten. Xede horretarako, gobernu ingelesak eskaini du *Agamemnon*, bere gerraontzi handienetako bat, bandera-ontzi bezala ibili izana Sebastopoleko setioan; eta gobernu amerikarrak *Niagara* delakoa, bost mila tonako fragata (garai hartan luze-zabal handienekoa). Alabaina bi itsasontziok espresuki berreraikitze premia izango dute, bakoitzak erdi bana biltegiratu baino lehen bi kontinenteak elkarrekin batu beharko dituen kate azkengabea. Arazo nagusia oraindik ere kablea bera da, noski. Ezin imajinatuzkoa eskatzen zaio bi mundu zatiren arteko zilbor-heste erraldoi horri. Batetik, altzairuzko harria bezain tinko eta hautsezina izan behar baitu, eta aldi berean elastikoa, aise hedatu ahal izateko. Behar du edozein presio jasan, edozein zamari eutsi, eta halere nekerik gabe desbilde zetazko harria bailitzan. Behar du barne-betea izan, eta halere ez lodiegia, batetik sendoa eta bestetik halere hain zehatza, uhin elektriko apalena bi mila milia haratago transmititzeko bezain. Urraturik txikienak, den gutieneko irregulartasunak soka itzel horren gune bakar

batean transmisioa suntsitzen ahal du hamalau eguneko itsasketa horretan.

Menturutzen dira, ordea! Gau eta egun ardazketan ari dira fabrikak. Gizakume horren deabruzko borondateak ibilarazten ditu gurpil guztiak. Burdina- eta kobre-meatze osoak ahituak dira soka bakar hori ekoizteko; kautxu-arboladi osoak izerdigabe behar dituzte, halako distantzia esker- ga egin beharrez gutapertxazko zorroak fabrikatzeko. Eta ezerk ez ditu argiago azaltzen ekimenaren berealdiko proportzioak, ezen kable horretan hirurehun eta hirurogeita zazpi mila milia alanbre biltzen direla baino, alegia, hamahiru bider beharrezkoa litzatekeena lurbira besarkatzeko, edota lerro batean Lurra ilargiarekin batze- ko adinakoa. Babelgo dorrearen eraikuntzaren ondoren, gizateria ez da menturatu ikuspuntu teknikitik ezer egun- dokoagorik egitera.

Lehen abiatzea

Urtebetez zitzu bizian dabilta makinak. Etengabe, piru mehe eta isurkor baten antzera, alanbrea harildu egiten da lantegietatik bi itsasontzien barruraino, eta azkenean, milaka eta milaka itzulbira eta gero, kablearen bi erdieta- ko bat bildua geratzen da itsasontzietako baten harilean. Eraiki eta dagoeneko instalatu ere egin dira makina be- rri eta astunak, balazta eta atzerakoz hornituak, tiraldi bakarrean orain aste batez, bi astez, hiru astez etengabe kablea hondoratu beharko dutenak ozeanoaren sakonean. Elektrikari eta teknikari onenak, Morse bera tartean, bor- nuan bilduta daude, beren gailuekin kokatze-prozesu osoan korronte elektrikoa eten ez dadin kontrolatzeko asmoz. Berriemaile eta marrazkilariek lagun egiten diote ontzidiari, hitzez eta irudiz deskribatzeko itsasaldia, zirra- ragarriena Kolon eta Magallaes geroztik.

Azkenik abiadarako prest dago dena, eta ordu arte eszeptikoak nagusi ziren bitartean, orain Ingalaterra osoaren interes publikoa zuzentzen da ekimen honen al- dera kartsuki. Ehunka txalupa eta ontzik inguratzen dute kable-flota, 1857ko abuztuaren 5ean, Irlandako Valentia uharteko portu txikian, une historikoaren lekuko izate-

ko, noiz eta kablearen mutur bat txalupetan kostaraino eramane eta kaketua geratuko baita Europako lur finkoan. Nahi gabetanik ere, agurra hotsandiko ospakizun bihurtzen da. Gobernuak ordezkariak bidali ditu, hitzaldiak egiten dira, mintzaldi hunkigarri batean apaizak Jainkoaren bedeinkapena eskatzen du ekinaldi ausartaren alde. «O, Jainko betierekoa», hasten du, «zeuk bakarrik dituzu zeruak zabaltzen eta itsasoaren uhinaldiak gobernatzen, zure esanekoak baitira haizeak eta mareak. So egiezu bihozbera zure zerbitzariari hemen behean... Mendera ezazu zure nahiaz edozein oztupo, albora ezazu lan garrantzitsua honen burutzea galaraz lezakeen edozein eragozpen». Eta ondoren hondartzatik nahiz itsasotik jada milaka esku eta kapela keinuka ari. Astiro ilunduz doa lurra. Gizateriaren amets ozarretariko bat errealtate bihurtzeko bidean dago.

Ezbeharra

Jatorrian asmoa zen bi itsasontzi handiek, *Agamemnon* eta *Niagara*, kablea erdi bana garraiatu, elkarrekin itsasta zezatela aurrez kalkulatu puntu bateraino ozeanoaren erdialdean eta bertan egin zedila bi kable erdien kaketzea. Gero itsasontzietako batek lema gobernatu beharko luke sartaldera, Ternuara buruz, eta besteak sortaldera, Irlanda aldera. Baina ausartegi deritzote kostu handiko kable osoa arriskatzeari lehenengo saio honetan; hortaz, hobesten dute lehenengo ibilbidea lehorretik egitea, artean ez baitago segurtasunik itsaspeko transmisio telegrafiko batek ondo funtzionatu ote duen halako distantzietan.

Bi ontzietatik, *Niagarari* egokituko zaio lehorretik kablea itsasoaren erdiraino botatzearen zeregina. Astiro, zuhurki haraino doa fragata amerikarra, nola armiarma bat etengabe haria laxatuz lihoakeena bere gorputz ahaltsuaren atzetik. Astiro, erregulariki, kablea askatzen duen makina karranka ari da ontzian: itsasoko jendeak ongi ezaguna duen zarata zaharra da, ainguraren errotorea debiletatik lokabetzean ateratzen dena. Eta ordu gutxiren buruan atertu gabeko burrunba-hots horri jada arreata gutxia-

go jartzen diote tripulazio kideek beren bihotz-taupadei baino.

Haratago eta haratago itsasoan, etengabe bota behar dute kablea gilaren atzetik. Abentura honek ez dirudi batere menturazkoa. Beste gaberik gela berezi batean eserita daude eta adi-adi elektrikariak, etengabe seinaleak trukatzen irlandar lur finkoarekin. Eta mirarizkoa da: itsasertza aspalditik gehiago ikusten ez bada ere, igorpena itsaspeko kablearen bidez argia da zeharo, europar hiri batetik beste batera egingo balitz bezala. Jada utzi dituzte ur ez oso sakonak, jada Irlanda ostean altxatzen den itsaso sakoneko plataforma izenekoa zeharkatu dute alde, eta oraindik ere lokarri metalikoak segitzen du korri egiten harea-ordulari baten erregulartasunaz gila atzean behera, mezuak bidaliz eta mezuak jasoz aldi berean.

Jada hirurehun eta hogeita hamahiru milia jarri dute, hamar aldiz Dover eta Calais arteko luze-laburra. Jada ziurgabetasunezko bost egun, bost gau gainditu dituzte. Seigarren arratsean, abuztuaren 11n, Cyrus W. Field, lan-eta asaldura-ordu askoren ondoren, ohera doa atseden mereziaren bila. Hartan bat-batean —zer gertatu da?—, karranka hotsa gelditzen da. Eta ziztuan doan tren batean lotan dagoena banpez esnatzen den bezala lokomotorra tupustean geratzen denean, errotari bat izu-ikaritzen den bezala errotarria bat-batean geratzen denean, ixtantean tripulazio kide guztiak esnaturik, arrapaladan doaz ontziganera. Aurreneko begi-kolpeak derakusa: harila hutsik dago. Kablea debiletatik irristatu da; ezina zen ihes egingdako muturra garaiz berreskuratzea, eta are ezinagoa da orain itsasoaren sakonean galdutako muturra aurkitu eta berriro gora ekartzea. Lazgarria gertatu da. Akats tekniko txiki batek urtetako lana deuseztatu du. Hain deliberatuki abiatu zirenak garaituen gisara itzultzen dira Ingalaterrara, non, zeinu eta seinale guztien mututze bat-batekoa dela eta, jada prestaturik dauden albiste txarrerako.

Ostera ere ezbeharra

Cyrus W. Fieldek, ezin hautsizko bakarrak, heroi eta merkatari batera, alde onak eta txarrak neurtu ditu. Zer galdu

da? Hirurehun milia kable, ehun mila libera inguru akzio kapital eta, agian areago oinazetzen duena, urte oso bat, ordeztezina. Zeren espedizioak udan baino ezin itxaroten baitu giro izatea, eta oraingoan urtaroa aurreregi doa dagoeneko. Zerbait garbi atera dute, bestalde. Lehenengo ekinaldi honetan benetan kontuan hartzeko esperientzia puska bat irabazi dute ikuspuntu praktikotik. Kablea bera, baliozkoa dela erakutsi duena, birmatazatu eta gorde egin daiteke hurrengo espediziorako. Kablea botatzeko gailuak baizik ez dira aldatu behar, horiek izan baitira adur gaiztoko hausturaren errudunak. Horrela, itxaronaldi eta prestalaren artean, urtebete igaro da berriro. Harik eta 1858eko ekainaren 10ean itsasontzi horiexek, kemen berrituaz eta kable zaharraz zamaturik, aingura jasotzen duten arte berriz ere. Eta lehen bidaian seinale elektrikoen igorpenak arazorik gabe funtzionatu zuenez gero, plan zaharrera itzuli dira, kableztatzea hastera ozeanoaren erditik abiatuz alde banatara, alegia. Bidaia berri honen lehen egunak aipatzekorik gabe igarotzen dira. Zazpigarren egunean eta aurretiaz kalkulatu gunean, hasi beharko dute kablea finkatzen eta horrekin egiazko lana. Ordura arte txango bat da edo dirudi denak. Makinak jardueragabe daude, marinelek atsedean hartzen ahal dute eta eguraldi atsegina gozatzan, oskarbi dago eta bare, agian sobera bare, itsasoa.

Baina hirugarren egunean egonezin ezkutu bat oldartu zaio *Agammenon* ontziko kapitainari. Barometroari emandako begiraldiak erakutsi dio zein abiada asaldagarritz hondoratzen ari den zilarbizi-zutabea. Mota bereziko ekaitz batek gerturatzen egon behar du, eta, egiaz, laugarren egunean leher egin du enbatak, itsas jende asko-ibiliek bakanetan baino ikusi ez duten bezalakoa ozeano atlantikoan. Eta aldagoi honek gehien erasaten duena itsasontzi ingelesa da, *Agammenon*, hain zuzen ere. Berez ontzi bikaina, itsaso guztietan baita gerran ere probarik gogorrenak gaingitutakoa, itsas armada ingelesaren bandera-ontziak egon behar zuen orobat erauntsi larri horren maila berean, baina zorigaitzez zeharo eraberritua izan da kable-zama eskerhari ostatu eman ahal izateko. Hemen pisua ezin da

sotoan ipini alde guztietan berdinean banatuta zamaontzi batean bezala, baizik eta haril itzelaren pisu osoa erdian darama, eta zati bat baino ez da brankan biltegiratu, ondorio are okerragoa duena, zeren gora eta behera bakoitzean bikoizten baita pendulu-kulunka. Horrela, jolasik arrisksuenari ekin diezaioke erauntsiak bere opagaiarekin: ezker-eskuinka, atze-aurretik, berrogeita bost graduko angelu bateraino altxarazia da ontzia, olatu-kolpeek urez bete dute gainaldea, txikituta geratu dira gauzaki guztiak. Eta beste adur gaiztoko bat: ontzia gilatik mastaraino daradarazi duen astinaldi bortitzenetariko batean, eman egin du gainaldean pilaturiko ikatz-kargaren holtzak. Harri-jasa beltzeko masa guztia furfurian jausi da bere-berez jadanik odoletan eta indar-husturik dauden marinelen gainera. Batzuk ererikoan dira zaurituak, beste batzuk ur irakinaz erre dira sukaldean pirritan doazen lapikoekin. Marinel bat erotu egin da hamar egun dirauen ekaiztean, eta dagoeneko gogoan darabilte okerreana: karel gainetik botatzea zorigaiztoko kable-lorraren zati bat. Beharrik kapitaina da erantzukizun hori bere gain hartzearen aurkako, eta zuzen dabil. Proba ikaragarriren ondoren, Agamemnonak hamar egunezko galerna jasan eta gero lortzen du, atzerapen handia gorabehera, beste ontzia aurkitzea ozeanoaren erdian, kablea finkatzen hasi behar duten adostutako gunean.

Orain alabaina nabari da nola eta zenbateraino nozitu duen milaka hari elkarlotuz osaturiko pleit baliotsu eta sentiberak etenik gabe zambuluka ibili ondoan. Puntu batzuetan kordioak nahaspilatu dira, gutapertxazko bilgarria higatu eta zarrastatu. Itxaropen handirik gabe saio batzuk egiten dituzte hala ere kablea finkatzeko, berekin dakartenak berrehun milia inguruko kable galera baino ez, itsasoan alferrik desagertuak. Bigarrenez dagokie bandera eraistea eta, garaileen eran beharrean, loria gabe itzultzea.

Hirugarren bidaia

Begitarte zurbilaz, dagoeneko porrotaren jakitun, akzio-dunak Londresen daude beren gidari limurtzailea, Cyrus

W. Field, noiz azalduko zain. Kapital sozialaren erdia alferrik galdu da bi bidaldiotan, deus frogatu, deus lortu gabe; ulergarria da gehienek esatea: aski da! Oraindik salba daitekeena salbatzea aholkatzen du lehendakariak. Ados dago itsasontzietan geratu den kable erabili gabea jaso eta, behar-beharrean, saltzearekin, galerak izan arren, baina gero alde batera utzi beharko da ozeanoarteko komunikazioaren egitasmo gaitza. Haren alde dago lehendakariordea eta idatziz bidali du dimisioa, aurrerantzean ekimen taxugabe horrekin ezer gehiago jakin nahi ez duela ikusarazteko asmoz. Cyrus W. Fielden tema eta idealismoa, haatik, ez dira kordoka errazak. Deus ezta gal, azaltzen du. Kableak berak miragarriki eutsi dio probari eta oraindik nahikoa dago bornuan ahalegina errepikatzeke moduan, flota bilduta dago, tripulazio-kideak izena emanda. Hain zuzen, azkeneko bidaiaren ezohiko ekaitzaldiak bide ematen du itzaroteko orain errenkadan helduko direla itsaso bareko egun ederragoak. Adore! Berriz ere, adore! Inoiz bada oraintxe abagunea, azken saioa egitera menturatzeko.

Akziodunek elkarri begiratzen diote gero eta bai ote ez oteago: fidatu behar al diote zoro horri kapital inbestituaren hondarra? Alta bada, borondate irmoak azken batean herrestan daramatzanez zalantzatiak, Cyrus W. Fieldek indarrez lortzen du beste irteera bat. 1858ko uztailaren 17an, bost aste bigarren bidaia huts eginaren ondoren, flotak hirugarrenez uzten du portu ingelesa.

Eta orain baiesten da berriro ere eskarmentu zaharra, ezen gauza erabakigarriak isilean lortzen direla ia beti. Inor konturatu gabe abiatzen dira oraingoan. Ez txaluparik, ez batelik itsasontzien inguruan zorte on opaz, ez jende andana hondartzan elkarretaraturik, ez jai-giroko agur-afaririk, ezta hitzaldirik edo apaizik ere Jainkoaren babesa arrenka eskatuz. Ekimen pirata bat bailitzan, ontziek aingura jasotzen dute herabe eta isilka. Itsasoa bere aldetik zain dago, bare-atsegin. Adosturiko egun-egunean, uztailaren 28an, Queenstown-etik itsasoratu eta hamar egun geroago, *Agammenon* eta *Niagara* hasten ahal dira lan handiari ekiten hitzarturiko puntuan ozeanoaren erdian.

Egundoko ikuskaria! Txopa txopa kontra, bata bestetik aldentzen dira itsasontziak. Bion artean, bada, kakotu egiten dituzte kablearen muturrak. Inolako formalitaterik gabe, are bornuko jendeak ere kasu berezirik egin gabe jazoarari —hain dira saio zapuztuez akituak—, burdinaz eta kobrezko soka hondoratuz doa bi ontzien artean ozeanoaren beheerenerako guneraino, sunda batek sekula ikertu ez duen sakoneraino. Ondoren azkeneko agurra ontzigain batetik bestera, bandera batetik bestera, eta itsasontzi galesak norakoa hartzen du Ingalaterrarantz eta amerikarrak Amerikarantz. Elkarrengandik urruntzen diren bitartean, bi puntu mugikor ozeano mugagabearen erdian, kableak bat eginda edukitzen ditu une oro. Lehenengoz mundua mundu denetik, bi itsasontzi, haien artean begien bistan egon gabe ere, elkarrekin harremanetan egon daitezke haitze eta uhinetatik zehar, goi-behe eta luze-zabalean gandi. Bi orduero haietako batek seinale elektriko bat igortzen du ozeanoaren hondotik, ibilitako milien berri emanez, eta aldi oro besteak baieztatzen du, giro bikainari esker, tarte berdina ibili duela. Horrela igarotzen da egun bat eta bigarren bat, hirugarren bat, laugarren bat. Abuztuaren 5ean *Niagarak* azkenean komunika dezake bere aurrean itsasalde amerikarra ikusten duela Trinity badian, Ternuan, mila eta hogeita hamar milia kable baino ez gutxiago landatu eta gero; eta halaber arrakasta izan du *Agammenonek*, berdin mila milia kable gutxienez sakonean hobiratu eta bere aldetik begi-bistan duelako Irlandako itsasaldea. Lehenengoz helarazten da orain jendearen mintzoa herrialde batetik bestera, Amerikatik Europara. Baina bi itsasontzi horiek bakarrik, berrehun itsastarrok beren zurezko oskoletan, beste inork ez daki egitandia burutua izan dela. Oraindik ez daki munduak, aspaldi ahaztua du-eta abentura hori. Inor ez dute zain hondartzan, ez Ternuan, ez Irlandan, baina kable ozeaniko berria lehorrekoari lot dakion une berean gizadi osoak izango du bere elkarrekiko garaipen itzelaren berri.

Hosanna handia

Bozkariozko oinaztargi honek, hain zuzen ere, oskarbi puru batetik behera egiten duelako su hartzen du hain

bortizki. Ia ordu berean, abuztuko aurreneko egunetan kontinente zaharrak eta berriak jasotzen dute ekimenak arrakasta izan duelako albisteak. Eragina deskribaezina da. Ingalaterran *Times*ek, bestenez hain zuhurra, dio artikulua nagusian: «Since the discovery of Columbus, nothing has been done in any degree comparable to the vast enlargement which has thus been given to the sphere of human activity». [Kolonen aurkikuntzaren ondoren ez da inola ere ezer egin giza jardun-eremuaren hedapen oparo honen parekorik». Eta cityan ikaragarritzko bizitasuna dabil. Alta, Ingalaterraren poztasun harroak ospel eta herabe dirudi Amerikaren kar biziaren aldean, han berria helarazten den bezain agudo. Berehala tratatuta geratzen dira saltegiak, jendez gainezka betetzen kaleak, galdez, zalapartan, ezbaika. Gauetik goizera gizon erabat ezezagun bat, Cyrus W. Field, herri oso baten nazio-heroi bihurtu da. Hanpatu egiten dute Franklin eta Kolon ondoraino; New York hiri osoa eta haren atzetik beste ehun hartzen ditu igurikizko dar-dar ikara batek, ikustearren gizona zeinaren erabakimenari esker zertu baita «Amerika gaztearen eta mundu zaharraren arteko bat-egitea». Baina kar biziak oraingoz ez du iritsi maila gorena, zeren oraingoz heldu dena kablea landatua izan delako mezu idorra besterik ez baita. Baina hitza igortzen ahal ote du? Egitandia, benetako, arrakastatsua izan al da? Hotsandiko ikuskaria: hiri oso bat, herri oso bat, belarriak luzaturik, hitz bakar baten zain dago, lehena ozeanoan zehar. Jakin berri da, erregina ingelesak bere mezua, bere zorion-opa emango die denei. Irrikan itxaroten dute orduz ordu. Baina oraingoz egunak eta egunak igarotzen dira, hain zuzen ere halabeharrek patu gaiztoz matxuratu baita Ternuaranzko kablea, eta abuztuaren 16a arte itxoin behar da Viktoria erreginaren mezua New Yorkera hel dadin arrastirian.

Albiste irrikatua beranduegi heltzen da egunkarietako jakinarazpen ofiziala plazaratzeko moduan; ozta-ozta denbora ematen du telegrafo-bulegoetan eta erredakzioetan iragarki soil bat iltzatzeko, eta segituan pilatzen dira jendetza handiak. Larruturik eta arropak urratuturik, egunkari-banatzailleek aurrera egin behar dute anabasan

barrena. Antzokietan, jatetxeetan zabaltzen da berria. Milaka jende, oraindik ezin ulertzen dutenak telegrafoak egun batzuetan aurrea hartzen diola itsasontzirik azkarrenari, oldarrean ateratzen dira Brooklyngo porturantz ongietorria emateko garaipen baketsu hori gauzatu duen itsasontzi heroikoari, *Niagarari*. Hurrengo egunean, abuztuaren 17an, egunkarien izenburu burrunbariek deiadar egiten dute bozkarioz: «The cable in perfect working», «Everybody crazy with joy», «Tremendous sensation throughout the city», «Now's the time for an universal jubilee». Triunfo paregabea: Giza pentsaera ooren has-tapenetik, ideia bat sortu bezain laster hedatzen da ozeanoan zehar. Eta jada durunda egiten dute Battery-tik ehunka kanoikadak, iragartzeko ezen Estatu Batuetako lehendakariak erantzuna eman diola Ingalaterrako erre-ginari. Orain inor ez da zalantza egitera ausartzen; gauez, bai New York nola beste hiri guztiak distiran daude mila-laka argi eta zuzi piztuta. Leiho bakoitza argiztatua da, eta orduantxe City Hall-eko kupula suak hartu izanak ia-ia ez du poza tratatzen. Jada hurrengo egunak bai baitakar behin eta berrizko jai-ospatze bat. *Niagara* heldu da! Cyrus W. Field, heroia, hemen dago! Triunfoan dar-mate kable soberakina hirian barna, eta eskifaia-kideak balakuz. Egunak joan eta egunak etorri, kale-agerraldiak errepikatzen dira orain hiriz hiri Ozeano Baretik Mexiko-ko Golkoraino, Amerikak bigarrenez ospatuko balu bezala bere aurkikuntza.

Ez da nahikoa ordea, ez! Benetako garaipen-martxak are arranditsuagoa izan behar du, kontinente berriak egundo ikusitako guztizkoena. Bi aste diraute prestamenek; gero baina, abuztuaren 31n, hiri oso batek jai egiten dio giza-banako bat bakarrari, Cyrus W. Fieldi, bere herriak inongo irabazleri omen egin ez dion bezala enperadoreen eta zesarren garaietatik. Udagoieneko egun eder horretan antolatzen dute hain desfile luzea, non sei ordu behar baitu hiriaren buru batetik bestera ibilbidea egiteko. Erregimen-tuak aurrean doaz, zutoihal eta ikurrinak daramatzatela, zintekin apainduriko kaleak zeharkatzen; haiei darraizkie ilara amaigabeen elkarte filarmonikoak, abesbatzak, kan-

tu-lagunarteak, suhiltzaileak, eskolak, soldadu zaharrak. Desfilatzeko gai denak desfilatzen du, kantatzeko gai denak kantatzen du, poz-zantzo egiteko gai denak zantzo egiten du. Lau zaldik tiratu gurdi batean, antzinako kaiser baten gisa, doa Cyrus W. Field; beste batean, *Niagara* komandantea; hirugarren batean, Estatu Batuetako lehendakaria; atzerago, alkateak, funtzionarioak, irakasleak. Atergabe datoz bata bestearen ondotik oturuntzak, hitzaldiak, zuzi-ilarak, elizetan kanpaiak joka, kanoiak burrunban, behin eta berriro poz-ikarak inguratzen du Kolon berria, bi munduak batu dituen, espazioa garaitu duena, une honetan Amerikako gizonik ospetsuen eta jainkoetsiena bihurtu dena, Cyrus W. Field.

Gurutziltatze handia

Milaka eta milioika ahotsek zalaparta eta zantzo egiten dute egun horretan. Bat bakarra, garrantzizkoena, gelditu da bitxiki isilik ospakizun horretan: telegrafo elektrikoa. Agian jaiaren erdian jada Cyrus W. Field ohartu da egia izugarriaz, eta horrek harentzat lazgarria behar izan zuen, berak bakarrik jakitea ezen kable atlantikoak egun horretantxe funtzionatzeari utzi diola, azken egunetan jada heltzen ez zirenez gero seinale ilunak, ia irakurtezinak baino, hariak behin betiko hilzorian bere azken hatsa eman duela. Amerika osoan oraindik inor ez da jakile, inor ez da apurkako mututzeaz ohartu, salbu Ternuan igorpenen jasotzea kontrolatzen duten gizon pareak, eta haiek ere, entusiasmo neurrigabea ikusita, egunak egun duda-mudan daude berri samina emango ote dieten artean bozkariotan ari direnei. Laster, baina, deigarri gertatzen da albisteen urria. Amerika igurikian zegoen ezen orain berriak ordurik ordu tximistaren gisan hedatuko zirela ozeanoan zehar: horren orde, albiste lauso eta deskontrolatu bat besterik ez noizetik noizera. Ez du luze irauten, eta zurrumuru bat zabaltzen da, hots, transmisio hobeak erdietsi nahiz lehiak eta egonezinak hartaraturik, karga elektriko bortitzeziak igorri direla eta horrekin zeharo hondatu dela kable berez ezegokia. Halere oraindik espero dute arazoa konpontzea. Baina aurki ez dago gehiago ukatzerik seinak

leak gero eta motelagoak, gero eta ulergaitzagoak bihurtu direla. Bestondo bormutsuko biharamun goizean bertan, irailak 1, itsasotik zehar ez da gehiago heltzen inongo soinu argirik, inongo dardara gardenik.

Gizakientzat ez dago ezer barkagaitzagarik nola baita suhar baten erdian desilusioa hartzea eta, gizon bategandik dena espero izanda gero, azpisugeak iruzur egin diela ikustea. Telegrafo hagitz laudatuak huts egin duela zurrumurrua baieztatu orduko, poz-olatu oldartsuak, sumindura gaizto bihurturik, bira egiten du errudun errugabearen kontra; Cyrus W. Field. Makurra sakatu dio hiri bati, herri bati, munduari. Aspaldi jakinaren gainean zegoen telegrafoaren porrotaz, berresten dute cityan, baina txalokatua izatea onartu du berekoi, eta bitartean denbora erabili berari zegozkion akzioez libratzeko, horretara mozkin handiz kolkoa betez. Gezur are beltzagoak barreiatzen dira, besteak beste, denetan arraroena, larriki baiesten duena telegrafo atlantikoak inoiz ez duela zuzen funtzionatu; komunikazio guztiak marro eta asmakeria zirela, Ingalaterrako erreginarene telegrama aurretiaz idatzia zela eta inoiz ez zela gauzatu ozeano-telegrafoaren bidezko igorpenik. Denbora horretan guztian, zurrumurrua dabil, itsasoaz gaindi ez da iritsi albiste bakar bat benetan ulertzeko modukoa, eta artezkariek idurizko mezu ofizialak moldatu bide dituzte, abiapuntutzat harturik aieru eta seinale inkoherenteak besterik ez. Benetakoko eskandalua sortzen da. Atzo poz-algaran ozenkien zebiltzan horiexek dira orain zalaparta handiena ateratzen dutenak. Hiri oso bat, herri oso bat bere gehiegizko berotasun goiztiarraz lotsa eginda dago. Cyrus W. Field da amorru horren biktima bezala hautatua; oraindik atzo nazio-umant eta heroitzat hartua izan zenak, Franklinen anaia eta Kolonen ondorengotzat, gaizkile bat bezala ezkutatu behar du bere lagun zahar eta miresleen begietatik. Egun bakar batean egin zen dena, egun bakar batean dena suntsitu zen. Ezin handiagoa da porrota, galdua kapitala, saretua konfiantza, eta eskandinaviar elezaharretako Midgardsormr sugoiaren antzera datza alferrikako kablea ozeanoaren miatu gabeko sakonean.

Sei urteko isilaldia

Sei urtez datza kable ahaztua, ezertarako ez dela, ozeanoan; sei urtez nagusi da antzinako isiltasun hotza bi kontinenteen artean, munduaren memento batean biak batera pilpiratu zirelarik ere taupadaz taupada. Hatsaldi batean, berrehun bat hitzezko tartean, elkarren ondoan egondakoak, Amerika eta Europa, berriro daude aspal-di luzean bezala ezin gaintuzko urrunak bereizita. Hemeretzigarren mendeko egitasmorik ausartena, atzo ia errealitate bat, berriz ere alegiazko bihurtu da, mito bat. Esan beharrik ez, inork ez du pentsatzen erdi buruturiko lanari berrekitea; izugarrizko porrotak indar guztiak herbaldu ditu, kar oro iraungi. Amerikan ipar eta hegoaren arteko gerra zibilak arreta osoa besteratzten du, Ingalaterran noizean behin oraindik biltzen dira batzorde batzuk, baina bi urte behar dituzte kostata soilki egiaztatzeko funtsean ahalezkoa litzatekeela itsaspeko kable bat. Baina irizpen akademiko horretatik egiazko egintzara badago inork ibiltzea pentsatzen ez duen bide bat. Sei urtez, lantegi guztiak atsedean hartzen du, kable ahaztuak itsas hondoan bezain patxada ederrean.

Baina sei urte, baldin Historiaren igarotze luzean begi-kliska bat baizik ez badira, elektrizitatea bezain gaztea den zientzia batean mende bat dira. Urtero, hilabetero gertatzen dira arlo honetan aurkikuntza berriak. Dinamoak gero eta ahalmen handiagokoak dira, doiagoak, gero eta balioaniztunagoa haren erabilpena, gero eta zehatzagoak gailuak. Telegrafoaren sareak kontinente guztien barruko espazioa hartzen du jada, Mediterraneo zeharkatua da jada, Afrika eta Europa bat eginda jada; hala urterik urte ozeano Atlantikoan zehar kable bat botatzeko planak arian-arian gero eta gehiago galtzen du luzaz ukan zuen ukitu fantastikoa. Ezinbestean iritsi behar du saialdia berriz egiteko orduak; ments den bakarra, plan zaharrari adore berria ufatzeko gai den gizona.

Eta deblauki horra hor gizona, eta hara, lehengo bera da, fede bera eta uste on berarekin, Cyrus W. Field, deserri isiletik eta arbuio maltzurretik berpiztua. Hogeita hamar garren aldiz gurutzatu du ozeanoa, eta berriz ere ageri

da Londresen; lortzen du kontzesio zaharrak hornitzea seihun mila liberako kapital berri batekin. Eta orain helmenean du ere, azkenik, hainbestetan amestu itsasontzi erraldoia, haren barruan bertan bakarrik zama eskerga osoa jaso dezakeen itsasontzi bat, *Great Eastern* ospetsua, bere hogeita bi mila tona eta bere lau tximiniekin, Isambar Brunel-ek eraikia. Eta miraria mirariari: urte horretan, 1865, ontzia nasa lehorrean dago, hain zuzen ausartegi proiektatu dutelako garaiari aurea hartuz; bi egunen epean, eresia eta espediziorako hornitua dateke.

Orain erraza gertatzen da lehen neurrigabe zaila zen gutzia. 1865eko uztailaren 23an, Tamesis ibaia utzi du itsasontzi alimalekoak kable berri batekin. Lehen ahaleginak porrot egin arren, urratu batengatik helburua iritsi baino bi egun lehenago kable-jartzea eteten bada eta berriro ere ozeano asegaizak seihun mila libera esterlina irensten baditu ere, honezkero teknika ziurregi dago bere gaiak adoregabetzen uzteko. Eta 1866ko uztailaren 13an, bigarrenez *Great Eastern* aingura jasotzen duelarik, garaipen bihurtzen da bidaldia, oraingoan kableak argi eta garbi igortzen ditu mezuak Europarantz. Egun batzuk geroago aurkitzen dute galdutako kable zaharra, bi sokak uztartzen dituzte orain mundu zaharra eta berria bat bakarrean. Atzoko miraria gaurko ziurtasun bihurtu da, eta une horretatik aurrera nolabait taupada bat eta bera du ama lurra; elkar entzunez, elkar ikusiz, elkar ulertuz bizi da gizadia orain, aldibereko tenorean Lurraren mutur batetik bestera nonahikotasunaren dohain jainkozkoa gozatuz berezko sormenaren bitartez. Eta espazioaren eta denboraren gaineko bere garaipenari esker ederki irauango luke behin betikoz elkaturik, baldin eta behin eta berriz nahaspilatuko ez balu zorigaiztoko itsukeriak, zeinak berekin baitakar atergabe berebiziko batasun hori suntsitzea eta elementuen gainean ahala ematen dioten baliabide berekin bere burua deuseztatzea.

11

IHESA JAINKOARENGANANTZ 1910eko urriaren amaiera

Epilogo bat *Eta argiak ilunpean distira* Lev Tolstoi-ren drama amaitu gabeari

Atarikoa

1890. urtean, Lev Tolstoi hasten da autobiografia dramatikoa idazten, geroago argitaratu eta eszenaratu zena bere hil ondoko lanetako fragmento gisa, *Eta argiak ilunpean distira* izenburupean. Drama amaitugabe hau —lehenengo agerraldiak jada adierazten du— bere etxeko tragediaren barneko antzezpen bat besterik ez da, idatzita dagoena, agi denez, aurrez pentsatu ihes-saio baten zurrubide antzera eta aldi berean bere emaztea desenkusatu beharrez; antzezlan bat, bada, erabateko oreka moralala duena ezin gehiagoko gogo-urraduraren erdian.

Tolstoik irudikatzen du bere burua Nikolai Michelaievitz Sarynzev-en itxurapean, autorretratu nabarmen bat, eta ziur asko tragedian ezer gutxi izan daiteke asmatutzat joa. Zalan-tzarik gabe, Lev Tolstoik hura idatzi zuen literarioki birsortzeko —eta bide batez konprenitzeko— bere bizitzaren baitezpadako askabidea. Baina ez antzezlanean ez bizitzan, ez orduan 1890. urtean ez hamar urte geroago, 1900ean, ukan zuen Tolstoik erabaki bat hartu eta burutzeko adorea eta taxua. Eta borondatearen etsimen horrengatik lana osatu gabe geratu da, bukatzen duelarik heroia erabateko nahasmenduarekin, eskuak gora Jainkoarengana arrenka eskatuz laguntza eman diezaion eta harekiko ezin-konpondua fini dezan.

Tragediaren azken ekitaldia, falta dena, Tolstoik geroago ere ez zuen gehiago idatzi; garrantzizkoagoa dena, ordea: bizi

izan zuen. 1910eko urriaren azken egunetan, mende laurden bako egongaitzasuna azkenik erabaki bihurtzen da, askabiderako krisi: Tolstoik, zenbait gatazka izugarri dramatikorren ondoren, alde egiten du, eta ihesi doa, hain zuzen ere, ereduzko herio bikoain hori topatzeko, zeinak bere bizitzaren patuari ematen baitio sagaratze-tankera osoa.

Deusek ez dirudit berezkoagorik, idatzitako fragmentoari tragediaren amaiera bizi izandakoa gehitzea baino. Hori eta soilik hori, ahalik eta fideltasun historiko eta begirunerik handienaz gertaera eta dokumentuekiko, saiatuko naiz hemen egiten. Horrekin nire burua libre jotzen dut Lev Tolstoiren aitortpena bidegabe eta baliokide balitz bezala osatu nahieren ausarkeriatik. Ez dut antzezlanean esku sartzen, hura zerbitzatu nahi dut besterik gabe. Hemen saiatzen dudana ez da, horregatik, azken ukitutzat jo behar, baizik eta antezlan amaitu gabe bati eta irtenbiderik gabeko eztabaida bati emandako epilogo beregaintzat, xede bakarra duelarik aipatu tragedia bukatugabeari hotsandiko azkentze bat ematea. Horretara, betea izango litzateke epilogo honen eta nire begirunezko eginahalaren helburua. Izan litekeen antezpen baterako, ohartarazi behar dut ezen epilogo honek, denborari dagokionez, birsortzen dituela *Eta argiak ilunpean distira* baino hamasei urte geroagoko gertaerak eta hori Lev Tolstoiren kanpoko itxuran ikusgai izatea beharrezkoa dela nahitaez. Haren azken urteetako erretratu ederrak balia daitezke eredurako, bereziki Schamardino-n bere arrebaren ondoan ageri dena, eta hil-ohetan hartutako argazkia. Halaber langela ikuspegi historikotik errespetuz antzeratu beharko litzateke haren soiltasun zirrara garrian. Soilik antezpenaren ikuspegitik, nahi izango nuke epilogo hau —zeinak Tolstoi izendatzen baitu, Sarynzev ordezkoren itxurapean ostendu barik— *Eta argiak ilunpean distira* fragmentoaren laugarren ekitaldiari eranstea isilune luze baten ondoren. Bereiz anteztea ez daukat asmoan.

Epilogoaren pertsonaiak

Lev Nikolaievitx Tolstoi (*laurogeita hiru urteko adinean*)

Sofia Andreievna Tolstoi, *bere emaztea*

Alexandra Lvovna (*Sascha deitua*), *bere alaba*

Idazkaria

Duschan Petrovitx, *ohiko sendagile eta Tolstoiren laguna*

Astapovo-ko Geltokiburua, Ivan Ivanovitz Osoling
Asrapovoko Poliziaburua, Cyrill Gregorovitz
Lehen Ikaslea
Bigarren Ikaslea
Hiru bidaiari

Lehen bi agerraldiak 1910eko urriaren azken egunetan gertatzen dira, Jasnaia Poljana-ko langelan. Azkenekoa, urte bereko urriaren 30ean, Astapovoko geltokiko itxarongelan.

Lehen agerraldia

Urriaren bukaera Jasnaia Poljanan.

Tolstoiren langela, soila eta apaingarririk gabea, zehazki margolan ezagunean bezala.

Idazkariak bi ikasle gidatzen ditu, errusiar erara jantziak, lepo itxiko blusa beltzez. Gazte biak, begitarte zorrotz eta herabeki bainoago harrokeriaz, aise bezain errazki mugitzen dira.

Idazkaria: Jarlekuan eser zaitezte bitartean. Lev Tolstoik ez zaituzte luzaz zain edukiko. Bakarrik eskatu nahi nizueke kontuan izan dezazuela haren adina. Lev Tolstoik hainbestearino maite du eztabaida, maiz ahazten baitu bere arnasestua.

Lehen Ikaslea: Gutxi daukagu Lev Tolstoiri galdetzeko. Galdera bat bakarra, erabakigarria noski guretzat eta beretzat. Hitz ematen dizut denbora laburrez geldituko garela. Baldin eta aske mintzo ahal bagenu.

Idazkaria: Ederto. Zenbat eta formalitate gutxiago, hobeto. Eta batik bat ez iezaiozue esan Berorren Gorentasuna. Ez du gogoko.

Bigarren Ikaslea (barrez): Horren beldur izaterik ez dago gure aldetik. Dena, hori izan ezik.

Idazkaria: Hor dator jada eskaileretan gora.

Tolstoi sartzen da urrats-lasterka eta nolabait erritmoan, zalu eta urduri bere adina gorabehera. Hizketan ari den bitartean, eskuan arkatx bat jiratzen du maiz edo paper bat birrin-birrin egiten, berak hitza hartzeko berantetsia. Arinik hurbiltzen zaie bi ikasleei, eskua luzatzen die, une batean banari behatzen dio zorrotz eta sarkorki, gero aurrez aurre dituela esertzen da larruzko besaulki batean.

Tolstoi: Zuek biok zarete batzordeak bidaltzen dizkidanak, ez al da egia... (*Gutun batean miatzen du*) Barkatu, zuen izenak ahaztu ditut...

Lehen Ikaslea: Erregutzen dizugu ez axolazkotzat hartze-ko gure izenak. Zugana gatoz ehunka milatik bi ale bezala soilik.

Tolstoi (*Hari begira era sarkorrez*): Galderarik ba al duzu niretzat?

Lehen Ikaslea: Galdera bat.

Tolstoi (*bigarrenari*): Eta zuk?

Bigarren Ikaslea: Berbera. Guk denok galdera bakarra dugu zuretzat, Lev Nikolaievitx Tolstoi, guk denok, Errusiako gaztedi iraultzaile osoak... eta ez dago besterik: Zu zergatik ez zara gurekin?

Tolstoi (*Oso lasai*): Hori, espero dudanez, argi azaldu dut nire liburuetan baita gutun batzuetan ere, dagoeneko esku-eskuan jarri direnak. Ez dakit zuk zeuk irakurriak dituzun nire liburuak.

Lehen Ikaslea (*artega*): Zure liburuak irakurri ote ditugun, Lev Tolstoi? Bitxia da galdetzen diguzuna. Irakurriak, hori gutxiegi litzateke. Bizi izan dugu zure liburuetatik gure haurtzarotik, eta gazte-denboran zuk iratzarri zenigun gorputzean bihotza. Nork bestela, zu izan ezik, erakutsi digu ikusten giza ondasun guztien banaketaren bidegabekeria? Zuk bakarrik, zure liburuen bidez, askatu dituzu gure bihotzak Estatu baten, Eliza baten eta, gizateria zaindu beharrean, gizakien aurkako zuzengabekeria babesten duen gobernari baten mendetasunetik. Zuk eta zuk bakarrik mugiarazi gaituzu gure bizitza osoa ematera gezurrezko ordena hori suntsitu arte...

Tolstoi (*eten nahi dio esanez*): Baina ez bortxaren bitartez...

Lehen Ikaslea (*hari eragabeki hitz eginez*): Ezaguerara helduz geroz, inorengan ez gara zugan adina fidatu. Elkarki galdetzen genionean bidegabekeria hori nork desagerraraziko zuen, honela genioen elkarki: Berak! Galdetzen genuenean nor zutituko zen behingoz doilorkeria hori erorarazteko, honela genioen: Berak egingo du, Tolstoi! Zure ikasleak ginen, zure zerbitzariak, zure jopuak; nago orduan bizia emango nukeela zure eskuaren keinu baten truke, eta duela urte pare bat etxe honetan sartu ahal izan banu, belauniko jarriko nintzen zure aurrean, santu baten

aurrean bezala. Hori zinen zu guretzat, Lev Tolstoi, ehunka mila-
rentzat, errusiar gazteria osoarentzat, duela urte gutxi arte... Eta
damu dut, damu dugu, harrezkero zu gugandik urrundu eta ia-ia
gure aurkari bihurtu izanaz.

Tolstoi (*ulerberago*): Eta zer uste duzu egin beharko nukee-
la zuekin bat eginda jarraitzeko?

Lehen Ikaslea: Nik ez dut zuri irakatsi nahi izateko ozarke-
riarik. Zeuk badakizu zer den gugandik, errusiar gazteria osotik
aldendu zaituena.

Bigarren Ikaslea: Tira, zergatik ez esan, garrantzitsue-
gia da gure kausa konplimentutan ibiltzeko: begiak ireki behar
dituzu behingoz eta ez luzarago soraio geratu gobernua gure
herriaren kontra egiten ari den krimenak ikusirik. Azkenean al-
txatu behar duzu zure idazmahaitik, eta baldintzarik gabe argi
eta garbi jarri iraultzaren alde. Zuk, Lev Tolstoi, jakin badaki-
zu zelako ankerkeriaz zapaldu duten gure mugimendua, jende
gehiago dago egun kartzeletan usteltzen lorategi batean hostoak
baino. Eta zuk, zuk behatzen duzu hori guztia, agian noizean
behin idazten ere, diotenez, artikuluren bat egunkari ingeles
batean giza bizitzaren bortxaezintasunari buruz. Baina zuk ba-
dakizu terrore odol-isurle horren kontra hitzek ez dutela gehiago
laguntzen, guk bezain ondo dakizu orain beharrezkoa dela gain-
azpi egitea, iraultza bat, eta zure hitzak baino ezin sortuko du
armada bat. Zuk egin gaituzu iraultzaile, eta orain, zure ordua
iritsi dela, zuhur alde egiten duzu eta horrekin onartzen bortxa!

Tolstoi: Sekula ez dut bortxa onartu, sekula ez! Duela
hogeita hamar urtez geroztik despota guztien krimenak borro-
katzeko baino ez dut nire lana bertan behera utzi. Hogeita hamar
urtez geroztik —zuek artean ez zineten jaiok— eskatzen ari
naiz, zuek baino irmoago, gizarte-harremanen hobetzea ez ezik,
baita haien erabateko berregituratzea ere.

Bigarren Ikaslea (*hitza kenduz*): Tira, eta? Zertan eman
dizute baietza? Zer eman digute duela hogeita hamar urtez ge-
roztik? Zartailua *dujoboryei*, zure mezua bete zutenei, eta sei bala
bularrean. Zer hobetu da Errusian zure bulkada apalei esker, zure
liburu eta esku-orriei esker? Ez duzua ikusten, herria barkabera
eta pairakor egiten eta mila urteko erreinuan fidatzera eramaten
duzularik, azken buruan zapaltzaileei are laguntza ere ematen
ari zarela? Ez, Lev Tolstoi, ez du ezertarako balio leinu harroputz

honi maitasunaren izenean erregutzeak, zurea aingeru-mintzoa izan arren! Tsarren jopu horiek zure Kristorengatik ez dute errublo bakar bat ere aterako beren patriketatik, ez dute zerga bat ere laxatuko, ez badiegu ukabila eztarrian ipintzen. Herria aski luze egon da zure haurride-maitasunaren zain, orain ez gara luzeago zain egongo, orain ekintzaren orduak jo du.

Tolstoi (*nahikoa ozen*): Badakit are «ekintza sakratua» esaten diozuela zuen aldarrietan. Ekintza sakratua, «gorrotoa sustatzea». Baina nik ez dut gorrotorik ezagutzen, ez dut ezagutu nahi, ezta gure herriaren kontra bekatu egiten dutenei buruz zuzendutakoa ere. Zeren gaizkia egiten duena bere ariman dohakabeagoa baita gaizkia pairatzen duena baino: nik gupidesten dut, baina ez diot gorroto.

Lehen Ikaslea (*suturik*): Nik ordea gorroto diet gizateriaren kontrako bidegabekeriak egiten dituzten guztiei: errukirik gabe, odola darion piztia nola, gorrotatzen dut haietako bakoitza! Ez, Lev Tolstoi, inoiz ez didazu irakatsiko mahuka-zabala izaten kriminal horiekin.

Tolstoi: Kriminala ere nire anaia da.

Lehen Ikaslea: Nire anaia eta nire amaren semea balitz ere, gizateriari sufriarazten badio, zakur amorratu bat bezala kalituko nuke. Ez, gupida gehiagorik ez gupidagabeekin. Errusiar lur honetan ez da bakerik izango haren azpian tsarren eta baroien gorpuk etzan arte; ez da ordena gizatiarrik ez moralik izango guk bortxaz ezarri arte.

Tolstoi: Bortxaren bidez ezin da ordena moralik lortu, indarkeriak indarkeria dakarrelako. Armak eskuratu bezain laster, despotismo berri bat sortuko duzue. Suntsitu beharrean, betikotu egingo duzue.

Lehen Ikaslea: Baina boteretsuen kontra boterea suntsitzea, ez dago beste biderik.

Tolstoi: Onartua, baina inoiz ezin da erabili norberak gaitzesten duen bide bat. Egiazko indarrak ez dio bortxari bortxaz erantzuten, barkaberatasunez ahalgabetzen du. Ebanjelioan idatzita dago...

Bigarren Ikaslea (*hitza kenduz*): Atx, utzi ebanjelioa. Popeek horretatik herria sorgortzeko pattarra egin dute aspalditik. Hori duela bi mila urte saiatu zen eta orduan ere ez zion inori lagundu, bestela mundua ez litzateke ertzetik ertzeraino laze-

riaz eta odolez betea. Ez, Lev Tolstoi, Bibliako erranekin gaurko egunean ezin da gehiago ibitu zapaltzaile eta zapalduen, nagusi eta jopuen arteko arrakala: lazeria gehiegi dago bi ertz horien artean. Ehunka, ez, milaka gizon- eta emazteki-jende fededun eta karitate-egile ahitzen dira Siberian eta ziegetan; bihar milaka, ehunka mila izango dira. Eta nire galdera zuretzat da: egiaz, errugabeko milioika horiek guztiek jarraitu behar al dute oinaze gorritan esku bete errudunengatik?

Tolstoi (*labur beharrez*): Hobe oinaze izan, berriz ere odola isuri baino; bai, oinaze errugabea onuragarria eta ona da zuzengabekeriaren aurka.

Bigarren Ikaslea (*bere onetik aterea*): On deritzozu errusiar populuaren milaka urteko oinaze amaigabeari? Bada, zoaz presondegiatara, Lev Tolstoi, eta galdetu han zigorkatuei, galdetu gure hiri eta herrietan gosez hamikatuei ea hain ona ote den oinazea.

Tolstoi (*suturik*): Zuen bortxa baino hobe, seguru. Benetan uste al duzue zuen bonba eta errebolberrez gaizkia lurretik behin betiko erauziko duzuela? Ez, orduan zeuengan du eragina gaizkiak, eta berriro diotsuet: ehun aldiz hobe da sineste sendo batengatik oinaze izan harengatik erail baino.

Lehen Ikaslea (*suturik ere*): Hortaz, Lev Tolstoi, oinaze izatea hain ona eta probetxuzkoa bada, zergatik ba ez duzu zuk zeuk oinaze izaten? Zergatik goratzen duzu beti besteen martirioa eta egoten zara zeure etxean bero goxotan zilarrezko baxeran jaten, zure nekazariak —nik ikusi dut— piltzarrez jantzita eta gosekilik euren etxoletan hormatzen diren bitartean? Zergatik ez duzu uzten zeu zigorka zaitzaten zure *dujoboryak* beharrean, oinazetuak baitira zure irakaspenengatik? Zergatik ez duzu behingoan husten konde-etxe hau eta zeurez alde egiten kalera haize, hotz eta euriaren erdian ezagutzera iduriz hain bikaina den gabezia beltza? Zergatik ari zara beti mintzatzen, zure irakaspenen arabera jokatu beharrean, zergatik ez zara zeu behingoan eredu?

Tolstoik atzera egin du. Idazkariak, jautsian ikasleen aurrean jarrita, gaitzitua, handik bota nahi ditu, baina Tolstoik, jada oneratu, bultza egin dio leunki alde batera.

Tolstoi: Utzi, gero. Gazte honek nire kontzientziari egin dion galdera ona zen... galdera ona, berebizikoa da, zinez baitetzpadakoa. Saiatuko naiz behar bezala erantzuten. (*Gehixeago hurbiltzen da, zalantzan dago; ahalegina eginda, bere ahotsa erlats eta lauso aditzen da.*) Galdegiten didazu zergatik ez dudan nire gain hartzen oinazea nire irakaspen eta nire hitzen arauz? Bada, lotsa-lotsa eginda erantzuten dizut horren gainean: orain arte neure egin ez badut nire betebeharririk sakratuena, izan da... izan da... zeren ni... koldarregia bainaiz, makalegia, aldakorregia, gizaki beheren, ezerez, bekatari bat..., zeren gaur artean Jainkoak ez baitit eman ezin geroratzukoa egiteko beharrezko indarra. Zu, gizakume gazte, arrotz, ikaragarritzko maneran mintzo zaitzaizkio nire kontzientziari. Badakit ez dudala egin ezta egin beharrekoaren milarena ere, ahalketurik aitor dut aspaldian nire betebeharra izango zatekeela bertan behera uztea etxe honetan luxuan daramadan bizimolde deitoragarria, bekatutzat baitaukat, zertarako eta, zuk diozun bezalaxe, kaleetan erromes joateko, eta ez dut beste erantzunik ezagutzen, baizik nire ari-maren barren-barrenen lotsa naizela eta neure doilorkeriaren aurrean makurtzen naizela. (*Ikasleek pauso bat atzera egiten dute eta, erasanda, isilik geratzen dira. Etenaldi bat. Tolstoik jarraitzen du are ahots meheagoz*): Baina beharbada... beharbada oinaze hartzen dut guztiaz ere... beharbada hartzen dut oinaze hain zuzen ez izateagatik nahiko sendoa eta prestua nire hitza gizajendeen aurrean betetzeko. Beharbada hementxe nire kontzientzian oinazedunagoa naiz gorputzaren estirarik beldurgarrienean baino, beharbada Jainkoak mailuz jo dit doiki gurutze hau eta estugarriago bihurtu du niretzat etxe hau, kartzelan oinak kateaturik egongo banintz baino... Baina zuzen zabilta, oinaze hau alferrikakoa da, niretzat bakarrik baita, eta handiustekoa litzateke besteeana niretu nahi izango banu.

Lehen Ikaslea (*lotsatuxe*): Barkamena eskatzen dizut, Lev Nikolaievitx Tolstoi, lehiak hartaratua aipamen pertsonala egin badut...

Tolstoi: Ez, ez, aitzitik, eskertzen dizut! Kontzientzia inarosten digunak, ukabilez bada ere, on egiten digu. (*Isilune bat. Tolstoi berriz mintzatzen da ahots lasaiagoz.*) Ba al duzue beste galderarik niretzat?

Lehen Ikaslea: Ez, gure galdera bakarra zen. Eta nik uste zorigaitza dela Errusiarentzat eta gizateria osoarentzat zuk guri zure laguntza ukatzea, zeren inork ezin geldiaraziko baitu oldarraldi hau, iraultza hau, eta susmoa dut beldurgarria izango dela, lur honetan izandako guztiak baino beldurgarriagoa. Hura burutzeko hautagaiak gizon gogorrek izango dira, irmotasun gupidagabeak, gizon bihozgabeak. Zu gure aurrean jarri izan bazina, zure ereduak milioika lagun irabaziko zituen, eta biktima gutxiago izango ziren.

Tolstoi: Bizi bakar baten heriotzaz erruduna banintz ere, ezingo nuke erantzun nire kontzientziaren aurrean.

(Etxeko kanpaiak jotzen du beheko solairuan)

Idazkaria (Tolstoiri, eleketa etetearren): Otordua du.

Tolstoi (garratz): Bai, jan, berriketan aritu, lo egin, atsedean hartu, berriketan... horrela bizi dugu gure alferkeriazko bizitza, eta besteak bitartean lan egiten dute eta Jainkoa zerbitzatzen. *(Gazteen aldera bihurtzen da berriro.)*

Bigarren Ikaslea: Beraz, zure ezetza besterik ez dugua gure lagunei eramateko? Ez diguzua adore hitzik emango?

Tolstoi (Sarkor begiratzeko dio eta gogoeta egiten du): Esaiezue zuen lagunei honako hau nire izenean: Maite eta errespetatzen zaituztet, gazte errusiarrok, hain indartsu sentitzen duzelako zuen haurrideen oinazea eta zuen bizitza jokatu nahi duzuelako haiena hobetzen. *(Ahotsa gogor, larri eta zakar bihurtzen zaio.)* Baina ezin dizuet jarraitu, eta uko egiten diot zuekin egoteari, ezetza ematen diozuen heinean jende ororekiko haurridetasunezko maitasun gizatiarrari.

Ikasleak isilik daude. Orduan bigarren ikaslea zutitu eta gogor mintzo da.

Bigarren Ikaslea: Eskertzen dizugu egin diguzun harre-
ra, eta tolesik gabe hitz egin izana estimatzen dizugu. Ez naiz inoiz berriro egongo zure parean; hortaz, utzidazu inor-ez ezezagun honi agur hitz zinezko batzuk esaten. Esan nahi dizut, Lev Tolstoi, oker zaude uste baduzu giza harremanak bakarrik maitasunaren bidez hobetzen ahal direla: horrek balio lezake

aberatsentzat eta axolagabeentzat. Baina haurtzarotik gosez hamikatuak direnak eta bizi osoan beren nagusien eskupean ahitzen direnak, horiek akiturik daude luzaroago itxoiteaz zero kristautik haurride-maitasunaren jaitsiera, horiek nahiago dute beren ukabletan fidatu. Eta halatan, zure heriotzaren aurregunean, Lev Nikolaievitx Tolstoi, diotsut: mundua odoletan itoko da, nagusiak ez ezik, euren seme-alabak ere kolpeka hilko dira eta pusketan emango, lurrak ere jada ezer txarrik itxaron behar ez dezan haien aldetik. Saihestuko ahal duzu zure okerraren lekuko izatea... horixe opa dizut bihotzez! Jainkoak opari degizula heriotza baketsu bat!

Tolstoik atzera egiten du, ikasle kartsuaren suhartasunak ikaratuta. Gero, lasaiago, hari hurbiltzen zaio eta lau-lau diotso:

Tolstoi: Zure azkeneko hitzak bereziki eskertzen dizkizut. Duela hogeita hamar urte irrikatzen dudana opa izan didazu: heriotza bat Jainko eta gizaki guztiekin baketan. *Biak makurtzen dira eta badoaz. Tolstoik begiez jarraitzen die lipar batez; gero, urduri, alde batetik bestera ibiltzen hasten da, eta gogo beroz diotso idazkariari:* Hauek gazte miresgarriak! Ausart, harro eta kementsuak, gazte errusiarrok! Bikaina, bikaina gaztedi kartsu, prestu hau! Holaxe ezagutu nuen Sebastopoleko setioan, orain dela hirurogei urte; ber begirada aske eta lotsagabeaz atera ziren heriotzaren biderra, edozein arriskurenera, temaz, ezpainetan irribarrea zutela deus baten truke hiltzeko gerturik, beren bizia, beren bizi gazte miragarria hara botatzera oskol huts baten truke, edukirik gabeko hitzen truke, egiazkoa ez den ideia baten truke, beren burua eskaintzearen amoreagatik soilik. Miragarria, betiereko gazteria errusiar hau! Eta gar eta indar horretaz guztiaz gorrotoaren eta hilketaren zerbitzura dagoena kausa sakratu bat balitz bezala! Eta, hala ere, on egin didate! Jorratu ere gogotik egin naute bi horiek, ze, egia esan, zuzen dabilta; behar dut atzean utzi behingoz nire ahultasuna eta asumitu nire hitza! Heriotzatik bi urratsera nabil eta oraindio aiko-maikotan! Egia esan, bide zuzena gazteriatik baino ezin da ikasi, gazteriatik baino ez!

Bat-batean atea zabaltzen da, kondesa oldarka sartzen da haize-laster zakar baten modura, urduri, pipertua. Haren mugimenduak

ez-segurua dira, haren begiak, geldigaitz, orron dabilta uneoro gauzaki batetik bestera. Hizketan ari den bitartean beste gauza batean pentsatzen ari dela antzematen zaio, eta barruko kezka larri batek jaten duela. Nahita, ez ikusiarena egiten dio idazkariari, airea balitz bezala, eta bere senarrari bakarrik hitz egiten. Bere atzetik arin-arin sartu da Sascha, bere alaba; amari jarraiki diolako itxura hartzen zaio, hura zelatatzeko.

Kondesa: Honezkero txilin-hotsa entzun da otordurako, eta orain dela ordu erdi bat *Daily Telegraph*eko erredaktorea zain dago behealdean, heriotza-zigorrari buruzko zure artikulua dela bide, eta zuk itxaronarazten diozu bi mutil horiengatik. Hau da hau molde eta lotsa gabeko herria! Behean, otseinak galdetu zienean hitzordurako izena emana ote zioten kondeari, haietarikoa batek erantzun zion: Ez, guk ez diogu inongo konderi izenik eman, Lev Tolstoik etorrarazi gaitu. Eta zu nahasten zara halako kuxkuxero muturluzeekin, gogokoen luketena izanik mundua uztea beren buruak bezain katramilatua! Ezinegonez ingurura beha. Hemen hankaz gora dago dena, liburuak lurrian, dena nahas-mahas eta hautsez betea. Benetan, hau lotsaizuna, goragokoren bat azalduko balitz. *Besaulki aldera doa, gainetik eskuaz ukituz.* Zeharo txirtxilatua dago larru ondua, hau lotsa, ez, ez dago inork ikusteko moduan. Zorionez, bihar etorriko da Tula-ko tapizatzailea. Berehalakoan konpondu behar du fauteuila. *Inork ez dio erantzuten. Urduri, hara eta hona begiratzen du.* Ea ba, etorri behingoz, mesedez! Ezin diogu aldi luzeagoan itxoinarazi.

Tolstoi (*Bat-batean, oso zurbil eta artega*): Berehala noa, oraindik zera behar dut... zerbait ordenatu... Saschak lagunduko dit bertan... Bitartean, lagun egiozu jaunari eta desenkusa nazazu. Banoa segituan.

Kondesak alde egiten du, begirada gar-jario bat eman ondoren gela osoari. Tolstoi, kondesa gelatik irten bezain laster, atearen kontra jaurtitzen da, eta azkar itzulia ematen dio giltzari.

Sascha (*haren oldarra dela-eta izututa*): Zer duzu ba?

Tolstoi (*oso urduri, eskua bihotzean sakatua, zezelka*): Bihar tapizatzailea... Jainkoari eskerrak... orduan garai onean... Jainkoari eskerrak.

Sascha Baina zer gertatzen da ba...

Tolstoi (asaldatua): Ganibeta. Bizkor. Ganibeta edo gurai-zeak. (Idazkariak, harridurazko begiradaz, papera mozteko guraizeak pasatzen dizkio idazmahaitik. Tolstoi, tarrapata urdurian, noizean behin beldurrez begira giltzaturiko ate aldera, hasten da besaulki higituaren tarratada handiagotzen guraizeekin; gero eskuez haztatzen du, urduri, urratutik ateratzen den zurdazko betegarria, azkenean gutun zigilatu bat ateratzen duen arte). Hemen dago... Ez ote bada? Barregarria da... barregarria eta egiantzik gabekoa, emanaldikako eleberri frantses miserable horietako batean bezala... laido amaigabe bat... Modu honetan nik, buru argiko pertsona bat, neure etxean eta laurogeita hiru urterekin ezkutatu behar ditut nire paper garrantzitsuenak, dena arakatzen didatelako, zelan dabilzkidalako, hitz eta isilpeko bakoitzaren atzetik! Ai ene, hau lotsa! Hau infernua nire bizitza etxe honetan, hauxe bai gezurra! (Lasaiago, gutuna zabaldu eta irakurtzen du; Sascharengana bihurtuta): Badira hamahiru urte gutun hau idatzi nuela, orduan, alde egin nahi izan nuenean zure amagandik eta infernuko etxe honetatik. Agurra zen, agur bat, zeinetarako adore hartu ez bainuen gero. (Gutunak kraska egiten du haren esku dardartietan, eta hark berekiko irakurtzen du ahots apalean): «... Ezinezkoa zait, gainera, luzaroago segida ematea duela hamasei urte daramadan biziera honi, biziera bat, zeinean, batetik, borrokatzen naizen zuen kontra eta amorru eragin behar dizuedan. Hortaz erabaki dut egitea aspaldi egin beharko nukeena, ihes egitea alegia... Nabarmenki egingo banu, saminegia izango litzateke. Beharbada kemengabetu egingo nintzateke, eta ez nuke erabakia burutuko burutu behar denean. Barka iezadazue, bada, arren eskatzen dizuet, nire urrats honek min ematen badizue, eta guztiz gain zuk, Sonja, jaurti nazazu borondate onez zure bihotzetik, ez ni bilatu, ez nitaz arranguratu, ez ni gaitzetsi». (Nekez arnastuz): A!, hogeita hamar urte igaro dira, hogeita hamar urtez geroztik oinazetzen jarraitzen dut, eta hitz bakoitza artean ere egiazkoa da behinola bezala, eta nire egungo biziera berdin koldar eta indargea. Artean ere, artean ere ez dut ihes egin, artean ere zain eta zain nago, eta ez dakit zeren. Beti argi jakin izan dut dena, eta beti oker jokatu. Beti ahulegia izan naiz, beti nahimenik gabea haren aurrean! Gutuna hemen ezkutatu nuen, hala nola eskola-ume batek liburu lizun bat maisuaren bistatik. Eta testamentua, zeinean orduan

hari eskatzen bainion nire lanen gaineko jabetza egin ziezaiola opari gizateria osoari, haren eskuetan ipini nuen bakarrik etxean bakea edukitzeko, neure kontzientziarekin eduki beharrean.

Pausa.

Idazkaria: Eta berorrek uste al du, Lev Nikolaievitx Tolstoi, galdera onartzen badit, orain ustekabean abagunea emanda... uste al du berorrek... ezen, Jainkoak berori... zerurako deitzekotan..., ezen... ezen orduan berorren azken-nahia, premiatsuena, berorren lanen gaineko jabetzari uko egiteko nahia, egiaz beteko litzatekeela?

Tolstoi (izututa): Jakina... esan nahi baita... (*artega:*) Ez, ez dakit ba... Zer uste duzu, Sascha?

Saschak aurpegia alboratzen du eta isilik geratzen da.

Tolstoi: Jainkoarren, horretan pentsatu gabe nengoen. Edo bai: berriz ere, berriz ere ez naiz guztiz egiatia. Ez, besterik gabe, ez dut horretan pentsatu nahi izan, saihestu egin dut berriro, beti edozein erabaki argi eta zuzen saihestu dudan bezala. (*Idazkariari zorrotz begiratzen dio*). Ez, badakit, seguru dakit, nire emazteak eta semeek behatuko diote nire azken-nahiari, egun nire sinesmenei eta nire arimaren betebeharrari behatzen dieten bezain gutxi. Xehekako salerosian ibiliko dira nire lanekin, eta nire heriotzaren ondoren ere gezurtizat joa izango naiz jendaurrean nire hitza jateagatik. (*Zirt edo zarteko mugimendu bat egiten du*). Baina hori ez da posible, ezin liteke! Argitasuna behingoz! Zer zioen gaur gazte horrek, ikasle jator, zintzo horrek? Munduak egintza bat nahi du nigandik, behingoan prestutasuna, erabaki argi, garbi eta ezin nahasizkoa. Seinale bat izan da! Laurogeita hiru urte ditudala, ez dago jarraitzerik heriotzaren aurrean begiak ixten, aurpegira begiratu behar zaio eta itzulingururik gabe erabakiak hartu. Bai, gazte ezezagun horiek oharpen ona egin didate: egintzarik ezak arimaren koldarkeria ezkututzen du beti. Behar da argia eta jatorra izan, eta nik behingoan hori izan nahi dut, orain nire azken orenean, laurogeita hirugarren urtean. (*Jira egiten du idazkari eta alaba aldera*). Sascha eta Vladimir Georgetvitx, bihar hilburukoa egingo dut, argi, sendo, loturapeko eta

apelaezina, non aitortzen ditudan nire idazlan guztien etekinak, haietarik ugaritu den diru zikin guztia, orori, gizateria osoari. Ez dago inolako tratuan aritzerik jende ororentzat eta nire kontzientzia-beharraren baitatik esan eta idatzi ditudan hitzekin. Etor zaitez bihar goizean eta ekar ezazu bigarren lekuko bat. Ezin dut balantzan egoten jarraitu, beharbada heriotza dagoeneko ari zait eskua luzatzen.

Sascha: Zaude pixka bat, aita. Ez zaitut gezurtatu nahi, baina beldur naiz zailtasunak izango ditugula amak ikusten bagaitu hemen laurok. Segituan susmoa hartuko du eta atzeneko momentuan agian are kordokaraziko zure borondatea.

Tolstoi (hausnarrean): Zuzen zaude! Ez, etxe honetan ezin gauza dezaket ezer bidezkorik, ezer zuzenik: hemen gezur bihurtzen da oro. (*Idazkariari*): Antola ezazu halako eran, non zuek ni bihar goizeko hamaiketan topa nazazuen Grumont-eko basoan, zuhaitz handiaren aldera ezkerrera, zekale-soroaren atzean. Nik nire ohiko paseoan nabilelakoa egingo dut. Presta ezazu dena, eta han, hala espero, Jainkoak irmotasun aski emango dit azkenik hondarreko lokarritik askatzeko.

Eguerdiko txilin-hotsa entzuten da berriro bigarrenez. Ozenago.

Idazkaria: Baina orain ez utzi kondesa ohartzera, bestela dena galdua dago.

Tolstoi (nekez arnasten): Lazgarria da. Beti itxura egin behar, beti ezkutuka ibili behar. Batek nahi du munduaren aurrean zinezkoa izan, Jainkoaren aurrean zinezkoa izan, norbere buruaren aurrean zinezkoa izan eta bere emaztearen eta bere seme-alaben aurrean ezin izan! Ez, horrela ez dago bizitzerik, horrela ez dago bizitzerik!

Sascha (izututa): Ama!

Idazkariak agudo jiratzen du atearen giltza. Tolstoi, bere urduritasuna ezkutatzeko, idazmahaira doa eta sartzen ari den emazteari bizkarra ematen geratzen da.

Tolstoi (Hasperenka): Etxe honetako gezurrak pozoitzen ari zaizkit. Atx, batek ahal balu behin-behinik guztiz zinezkoa izan, zinezkoa bederen heriotzaren aurrean!

Kondesa (itsumustuan sartzen da): Zergatik ez zatoz? Beti behar duzu hainbeste denbora.

Tolstoi (*Harengana itzulita, bere aurpegiera dagoeneko guztiz lasaia da, eta astiro hitz egiten du, besteek bakarrik ulertzen duten tonu batean*): Bai, arrazoi duzu. Denbora asko behar dut beti zernahitarako. Baina gauza batek bakarrik du garrantzia: jendeek astia izan dezatela garaiz zuzena egiteko.

Bigarren agerraldia

Gela berean. Hurrengo gau beranduan.

Idazkaria: Gaur laster oheratu beharko luke, Lev Nikolaievitx. Nekatuta egon behar du zaldiz ibilaldi luzea dela eta urduritasunak.

Tolstoi: Ez, ez nago batere nekatuta. Gizakiei gauza bat bakarrak dakarkie nekea: duda-mudak eta ziurtasunik ezak. Ekintza orok soin-gogoa askatzen du, are okerrena hobea da ezer ez egitea baino. (*Gelan hona-hara doa*). Ez dakit gaur zuzen jakatu ote dudan, lehenbizi nire kontzientziari galdetu behar diot. Nire obra osoa orori errendatu izanak arindu egin du nire arima, baina nago testamentu hori ez nukeela isilgordeka egin behar-ko, zabal-zabalik baizik, guztien aurrean eta uste sendoaren ausardiaz. Egiaren amoreagatik tolesik gabe egin behar izango nukeena agian era ez duinean egin izan dut... baina, Jainkoari eskerrak, dagoeneko egina dago, maila bat gehiago bizitzan, maila bat heriotzatik hurbilago. Orain zailena, azken burua besterik ez da gelditzen: egokiera onean, amaiera datorrenean, oihan-barrenera herrestan joatea piztia bat bezala, zeren etxe honetan hiltzea bailitzateke bizitzea bezain gezurrezkoa. Laurogeita hiru urte ditut, eta oraindik ere jarraitzen dut lurtarrekoari guztiz uko egiteko indarrak topatu gabe, eta agian alferrik galtzen ari naiz egokiera.

Idazkaria: Nork daki bere azken orena! Jakinez gero, hobea litzateke dena.

Tolstoi: Ez, Vladimir Georgevitx, ez litzateke batere hobea. Ez al duzu ezagutzen elezaharra —nekazari batek kontatu zidan behin batez—, nola Kristok kendu zien gizakiei heriotzaren jakintza? Behinola, norberak alde zuzenetik zekien bere heriotza-

aldia, eta, Kristo lurrera etorri zenean, konturatu zen nekazari batzuek ez zituztela beren alorrak lantzen eta bekatarien gisara bizi zirela. Orduan haien arteko bat maiseatu zuen haren laxokeria zela eta, baina alproja marmarrean aritu zen, kito: ea zeinentzat bota behar zuen hazia, uzta-biltzerako bizirik egongo ez bazen gehiago. Orduan konturatu zen Kristo gizakiek azken orenaren berri aurretiaz izatea ez zela ona, eta jakite hori kendu egin zien. Ordudanik nekazariak lurra landu behar dute azken eguna arte, betirako bizi balira bezala, eta hori ondo dago, lanaren bidez bakarrik baita bat betierekoaren partaide. Era berean landu nahi dut nik gaur (*bere egunerokoa seinalatzen du*) nire eguneroko alor puska.

Kanpoan pauso bizkorrak, kondesa sartzen da ohe-atorran, eta haserre-begiratu egiten dio idazkariari.

Kondesa: A, beraz... azkenik bakarrik zeundela uste nuen... zurekin hitz egin nahi nuen.

Idazkaria (*makurtzen da*): Banoa.

Tolstoi: Agur t'erd, Vladimir Georgevitx maitea.

Kondesa (*haren atzean atea itxi bezain pronto*): Beti dago zure inguruan. Zuri lapa baino itsatsiago... eta niri, niri gorroto dit, zugandik aldendu nahi nau, gizon zital, azpisuge horrek.

Tolstoi: Bidegabe jokatzeko ari zara harekin, Sonja.

Kondesa: Ez dut bidezkoa izan nahi! Gure arteko kontuetan sartu da. Zu lapurtu dit, bereizi zaitu zure seme-alabengandik. Bera hemen dagoenetik hutsaren hurrengo naiz; etxea, zu zeu jende guztiena zara orain, guztiena, salbu gurea, zure hurrekoena.

Tolstoi: Benetan ahal banu! Jainkoak horrela nahi du, bat guztiena izatea eta norberetzat ezer ez gordetzea, ezta beretrentzat ere.

Kondesa: Bai, badakit, hori diotsu berak, nire seme-alaben lapur horrek, badakit, gu guztion kontra jartzen zaitu. Horregatik ez dut gehiago etxean jasaten porrokatzaile hori, ez dut bera nahi.

Tolstoi: Baina, Sonja, badakizu haatik bera behar dudala nire lana dela eta.

Kondesa: Beste ehun bat aurkituko duzu! (*Arbuioz*) Ezin dut jasan bere hurbiltasuna. Ez dut gizon ale hori nahi zu eta nire artean.

Tolstoi: Ene bada, Sonja, arren eskatzen dizut, ez zaitez aztora. Zatoz, eseri hemen, mintza gaitezen lasai gure artean, aldi joanean elkarrekin hasi ginenean bezalaxe. Har itzazu kontuan, Sonja, geratzen zaizkigun hitz on eta egun on banakak. (*Kondesa, urduri, inguru-begira, esertzen da dardaraz.*) Begira, Sonja, ni gizon horren beharrean nago... beharbada haren beharrean nago sinesmenean ahula naizelako beste gabe, ez naizelako, Sonja, nahi nukeen bezain sendoa. Izan ere, hori egunero baies-ten didate nonahi mundu zabalean nire sinesmena partekatzen duten milaka eta milaka pertsonak, baina uler ezazu hau, horrelakoa da gure bihotz lurtarra; bere-berean ziur izateko behar du, bederen, beste gizaki baten gertuko maitasun arnagarria, maitasun nabari, ukigarri, agerikoa. Beharbada santuek beren geletan bakarrik ahal zuten inoren laguntzarik gabe jardun eta, lekukorik gabe ere, ez etsi, baina begira, Sonja, ni ez naiz santua inola ere... oso gizon ahul eta zaharra besterik ez naiz. Horregatik hurbil eduki behar dut nire sinesmena partekatzen duen norbait, orain nire zahartzaroan, nire bakardadean baliotsuena den sinesmen hau. Nire zorionik handiena izango zatekeen, noski, zu zeu, duela berrogeita zortzi urte esker onez begirunea dizudana, nire erlijio-kontzientzian partaide izan bazina. Alta bada, Sonja, zuk inoiz ez duzu nahi izan. Nire arimarentzat baliotsuena zena zuk maitasunik gabe ikusten zenuen, eta beldur nintzen ez ote zenekusan are gorrotoz ere. (*Kondesak zirkin bat egiten du*). Ez, Sonja, ez ni oker aditu, ez naiz zuri akusatzen ari. Niri eta munduari eman diguzu ematen ahal zenuena, amazko maitasuna eta kezken aurkako poza; nolatan sakrifikatu behar zenuen arimaren kidekoa ez duzun sineste baten alde. Nolatan egotzi ahal niezazuke zuk nire gogoetarik barnekoenak ez partekatzearen errua, kontuan izanik pertsona baten gogo-bizitza, bere azken gogamenak beti izango direla beraren eta bere Jainkoaren arteko isilpeko bat. Baina begira, hartan etorri zen gizon bat, azkenik norbait nire etxera, lehenago Siberian bere sineste sendoa zela-eta sufritu zuen norbait eta orain nirea partekatzen duena, nire laguntzaile eta apopiloa dena, nire bakar-gogoan sorosten eta sendotzen nauena. Zergatik kendu nahi didazu gizon hori?

Kondesa: Nigandik arrotzu zaituelako, eta hori nik ezin dut jasan, ezin dut jasan. Horrek sutan paratzen nau, horrek gaixotzen nau, garbi suma baitut nire kontra darabilzuen guztia. Gaur bertan berriro, eguerdian, ustekabean harrapatu dut, hartan berak tarrapatan ezkutatu du paper bat, eta zuetariko inor ez da gai izan niri begietara begiratzeko: ez bera eta ez zu, ezta Sascha ere. Zuek guztiok gordetzen didazue zerbait. Bai, badakit, badakit, tzarkeriaren bat egin duzue nire kontra.

Tolstoi: Itxaroten dut Jainkoak, nire heriotzaren urrats batera, libra nazala ezer tzarrik nahita egitetik.

Kondesa (gartsuki): Hortaz, ez duzu ukatzen ezkutuka egin duzuela... zer edo zer nire kontra. A, badakizu nire aurrean ezin duzula gezurra esan besteen aurrean bezala.

Tolstoi (su bizian): Besteen aurrean gezurra esaten dudala? Eta hori zuk diostazu, zuk, zeinagatik denok gezurtizat nauaketen. (*Bere burua menderatuz*) Hortaz, Jainkoarren itxaroten dut nahita ez egitea gezurraren bekatua. Beharbada niri, gizaseme ahul honi, ez zait zilegi beti egia osoa esatea, baina hala ere uste dut horregatik ez naizela ez gezurti, ez iruzurti gizakien aurrean.

Kondesa: Orduan esadazu zer egin duzuen... Zer zen gutun hura, paper hura... Ez ni oinaztatu gehiago...

Tolstoi (harenganatu, oso samur): Sofia Andreievna, nik ez zaitut oinaztatzen, zeuk oinaztatzen duzu zeure burua, ez nauzulako gehiago maite. Oraindik maitasunik bazenu, uste osoa ere izango zenuke nigan... Uste osoa are jada konprenitzen ez nauzun kontuetan. Sofia Andreievna, arren eskatzen dizut, beha ezazu zure barnean: berrogeita zortzi urte bizi izan gara elkarrekin! Beharbada urte horien guztien artetik nonbait garai jada ahaztutik zure izatearen tolesen batean aurkituko duzu oraindik niganako maitasun apur bat: orduan hartu, Jainkoarren, pindar hori eta kitzika ezazu. Saia zaitez berriro izaten aspaldi niretzat zinena, txeratsu, uste oneko, ezti eta emankorra; izan ere, Sonja, batzuetan ikara ematen dit nolakoa zaren orain nirekin.

Kondesa (hunkitua eta kilikatua): Ez dakit gehiago nolakoa naizen. Bai, arrazoi duzu, itsusi eta gaizto bihurtu naiz. Baina nork jasan lezake behatzea nola oinaztatzen duzun zeure burua, gizaki bat baino gehiago izan nahian... Jainkoarekin bizitzeko tirria hori, bekatu hori. Zeren bekatu, bai, hori bekatua baita, burgoikeria, handiustea eta apaltasunik eza, horrela Jain-

koari buruz premiatzea eta ukatua izan zaigun egia bat bilatzea. Lehen, lehenago, hartan argi eta ongi zegoen dena, gainerako pertsona guztiak bezala bizi ginen, zuzen eta prestu, gure lana genuen eta gure zoriona, eta umeak koskortu zirene eta poz ere ematen zigun jada adinean sartzeak. Eta bat-batean etorri behar izan zitzaizun hura gainera, orduan duela hogeita hamar urte, eromen izugarri hura, zu eta gu guztiok zorigabe egin gaituen sinesmen hori. Zer egin dezaket, oraindik gaur ulertzen ez badut zer zentzu daukan berogailua zeuk garbitzeak eta ur-garraioan ibiltzeak eta miseriako bota horiek egiteak, zu, mundu guztiak miresten baitzaitu bere artistarik handientzat. Ez, oraindik ez zait buruan sartzen zergatik gure bizitza garbi, saiatu eta aurreztaileak, bare eta lauak, zergatik halako batean bekatua izan behar duen beste pertsonen aurrean. Ez, ezin dut konprenitu, ezin dut, ezin.

Tolstoi (oso leun): Begira, Sonja, hain zuzen horixe esan nahi dizut: ulertzen ez dugun horretan, horretantxe behar dugu uste ona izan gure maita-gaitasunari esker. Horrela gertatzen da gizakiekin, baita Jainkoarekin ere. Uste al duzu zuzena zer den dakidalakoan nagoela benetan? Ez, soilik uste osoa dut zintzoki egiten dena, inor saminki oinaztatzen duena ezin dela guztiz zentzu eta balio gabea izan Jainkoaren eta gizakien aurrean. Hortaz, ahalegin zaitetz zu ere, Sonja, pixka bat sinesten jada konprenitzen ez nauzun horretan, uste ona izan behintzat nire zuzentasun-egarrrian, eta den-dena onduko da berriro.

Kondesa (*ezinegonez*): Baina orduan dena esango didazu... gaur egin duzuen guztia esango didazu.

Tolstoi (*oso lasai*): Dena esango dizut, ez dizut gehiago ezer ezkutatuko eta isilpean egingo, nire bizi-denbora apurrean. Zain nago, beste gabe, Serjoxka eta Andrei noiz itzuliko diren; gero, zuen guztion aurrean azalduko naiz eta tolesgabe esango dizuet egunotan erabaki dudana. Baina aldi-tarte labur horretan, Sonja, utzi alde batera zure mesfidantza eta ez ibili nire inguruan zelatan... Hori da nire eske bakar eta barrukoena, Sofia Andreievna, beteko al duzu?

Kondesa: Bai... bai... jakina... jakina.

Tolstoi: Eskertzen dizut. Begira zein den erraza dena, irekitasuna eta uste ona dagoenean! Bai ondo guk hitz egin izana bakez eta adiskidetasunez. Bihotz-berotasuna itzuli didazu. Ze-

ren begira, sartu zarenean, begitarte mesfidantzak goibeldua zenuen, ezinegenez eta gorrotoz arrotzia, eta ez zaitut behinola-ko hura bezala ezagutu. Orain bekokia garbi daukazu berriro, eta zure begiak ezagutzen ditut, Sofia Andreievna, zure begiak, behinola-ko neska on, nigana emanarenak. Alta bada, orain atseden hartu, laztana, berandu da oso! Bihotzez eskertzen dizut. (Musu ematen dio bekokian, kondesa badoa, ate ondoan ostera ere itzultzen da urduri.)

Kondesa: Baina dena esango al didazu? Dena?

Tolstoi (betiere oso lasai): Dena, Sonja. Eta zuk gogoan izan zure agintza.

Kondesa, idazmahaira begiratu bat eman ondoren, poliki urrunduz doa.

Tolstoi (Zenbait aldiz gelan zehar dabil alde batetik bestera; gero idazmahai aurrean eserita, hitz batzuk idazten ditu egunerokoan. Tarte baten ondoren zutitu, urrats neurtuez harat-honat ibili, ikas-mahaira itzuli, egunerokoan orri-pasa hasi eta ahots apal irakurtzen du idatzitakoa): «Ahalegintzen naiz Sofia Andreievna aurrean lasai eta tinko azaltzen ahalik bezainbatean, eta gutxi-gehiago bera lasaitzeko helburua lortuko dudala uste dut... Gaur lehen aldiz aukera ikusi dut bihotz-ontasunari eta maitasunari amore emanaraz diezaion... Atx, baldinba...» (Egunerokoa utzi, arnasa luzea hartzen du, azkenik ondoko gelara joan eta han argia itzaltzeko. Gero berriro itzultzen da, nekez erantzten ditu nekazari-oski astunak, jaka kentzen du. Gero argia itzali eta, galtza zabalak eta lan-alkandora baino ez jantzita, alde egiten du aldameneko logelara.)

Denbora batez gela guztiz ilunean eta isilean geratzen da. Ez da tutik ere gertatzen. Hatsaldi bat ere ez da entzuten. Bat-batean lan-gelara sartzeko atea isilik irekitzen da, lapur baten zuhurtziaz. Norbait, oinutsik eta kriseilu bat daramala, orain aurrera zuzendua behe-gai-nea argi-kono mehar bat jaurtiz, haztamuka doa aurrera gelako ilun beltzean. Kondesa da. Beldurrez, inguruan begiratu, belarriak luzatzen ditu lehenik logelako atondoan, gero behatz-puntetan, lasai antzean, idazmahaira doa. Bertan utzirik, kriseiluak zirkulu txuri batez idazmahaiaren inguruko gunea bakarrik argitzen du ilunaren erdian. Kondesak, esku dardartiak baino ikusten ez baitzaizkio argi-zirkuluan,

heltzen dio aurrena bertan utzitako paper idatziari, hasten da nerbio-tako ezinegonean egunerokoa irakurtzen, azkenik arretaz irekitzen ditu bata bestearen atzetik idazmahai-tiraderak, gero eta aztoratuago pa-perak lardaskatzen, batere aurkitu gabe. Finean kriseilua berrartzen du asalduzko mugimendu batez eta haztamuka ateratzen da handik. Haren begitarte zeharo durduzatu da, ilargi-jo batena bezalakoa. Haren atzean atea itxi bezain laster, Tolstoi bere aldetik astinaldi batez zabaltzen du logelako atea. Eskuan kandela bat darama, argi-ikaran batera eta bestera, hain da izugarria agurea astintzen duen asaldura: zelatatu egin du bere emaztea. Daborduko amiltzen da haren atzetik, daborduko heltzen dio sarrerako ate-kisketari, baina tupustean bira egiten du bortitz, kandela uzten du patxadaz eta deliberatuki idaz-mahaiaren gainean, hurbiltzen da aldameneko atera, beste aldean, eta kask-kask jotzen du leun-leun eta kontu handiz.

Tolstoi (ahopeka): Duschan... Duschan...

Duschanen ahotsa (aldameneko gelatik): Berori al da, Lev Nikolaievitx?

Tolstoi: Ixilago, ixilago, Duschan! Eta atera berehala...

Duschan (aldameneko gelatik ateratzen da, bera ere erdi jantzia.)

Tolstoi: Iratzar ezazu nire alaba Alexandra Lvovna. Igo behar du berehala. Gero joan zaitez bizkor ukuilura eta agindu Grigor-i zaldiak kaketzeko, baina guztiz isilean egiteko, etxean inork ohar ez dezan ezer. Eta zuk zeuk, ez egin zaratarik! Ez oinetakoak jantzi, eta kontu izan, ateen kirrinka egiten dute. Kanpora joan behar dugu, berehalakoan... Ezin dugu denbora galdu.

Duschan korrika doa. Tolstoi esertzen da, zirt edo zart botak jantzi, jaka hartu eta tarrapatan jartzen du; gero paper batzuk bilatu eta arrapaladan biltzen ditu. Mugimendu bizkorak ditu, batzuetan suharrak ere. Idazmahai orain ere, paper batean hitz batzuk idazten dituen bitartean, sorbaldak uzurtzen zaizkio.

Sascha (isilik sartzen da): Zer gertatu da, aita?

Tolstoi: Kanpora noa, ihesi... azkenean... azkenean erabakia hartuta dago. Ordubete lehenago hitzeman dit uste ona izatea, eta orain, gaeuz hiruretan, isilka sartu da nire gelan pa-perak lardasteko... Baina ongi egon da, oso ongi egon da... hori

ez da bere borondatea izan, beste borondate bat izan da. Zenbatetan otoitz egin diot Jainkoari seinale bat bidal ziezadala bere denboran... ba dagoeneko emana zait, zeren, orain nire arima utzietsi duela, bera bakarrik uzteko eskubidea dut.

Sascha: Baina nora nahi duzu, aita?

Tolstoi: Ez dakit, ez dut jakin nahi... Norabait, aski da existentzia honen itxurakeriatik at... norabait... Bide asko daude munduan, eta nonbait lastozko ohatze edo ohe bat izango da, agure bat lasai hil ahal izateko.

Sascha: Lagun egingo dizut...

Tolstoi: Ez. Gelditu behar duzu, hura baretu... amorratzen jarriko da... atx, sufrituko duena, gajoak!... Eta ni naiz sufri eragiten diona... Baina ez dut beste biderik, ezin dut gehiago... hemen itoko naiz bestela. Geldi zaitez, Andrei eta Serjoxka heldu arte. Orduan bakarrik etorri nire atzetik, lehenbizi Schamardinoko lekaidetxera, nire arrebari agur esateko, sumatzen dut-eta agur egiteko garaia iritsi zaidala.

Duschan (*Bueltan tarrapatan*): Gurdi-gidariak zaldiak kakotu ditu.

Tolstoi: Orduan mugi zaitez, Duschan, hor paper horiek ezkuta itzazu...

Sascha: Baina, aita, larruzko berokia hartu behar duzu, oso gau hotza dago. Azkar arropa beroagoak prestatuko dizkizut...

Tolstoi: Ez, ez, besterik ez. Ene Jainkoa, ezin dugu gehiago berandutu... ez dut gehiago itxaron nahi... hogeita sei urte dira une hau, seinale hau itxaroten dudala... mugi zaitez, Duschan... Oraindik baten batek geldiarazi eta oztopatu egin gintzake. Hor, hartu paperok, egunerokoak, arkatza...

Sascha: Eta trenerako dirua, ni joango naiz bila...

Tolstoi: Ez, dirurik batere ez! Ez dut berriro ukitu nahi. Geltokian ezagutzen naute, txartela emango didate, eta hortik aurrera, Jainkoa lagun. Duschan, amaitu, zatoz. (*Saschari*): Zuk emaiozu hari gutun hau: nire azken agurra da, barkatuko ahal dit! Eta idatzidazu nola eramán duen kontatzeko.

Sascha: Baina, aita, nola idatziko dizut? Postan zure izena eman orduko, zauden lekuaren berri izan eta harrapatuko zaituzte. Izen faltsu bat hartu behar duzu.

Tolstoi: Ai ene, beti gezurretan! Beti gezurretan, beti arima doilortu behar ezkutapenekin... baina arrazoi duzu... Etorri,

Duschan!... Zuk nahi duzun bezala, Sascha... onerako izango da... hortaz, zer izen hartu behar dut?

Sascha (*lipar batez gogoetan*): Nik telegrama guztiak Frolova batez izenpetuko ditut, eta zure izena T. Nikolaiev izango da.

Tolstoi (*presa dela eta itoka*): T. Nikolaiev... ondo... ondo... Eta orain, zorte on (*Besarkada ematen dio*). T. Nikolaiev, diozu, izen hori eman behar diot neure buruari. Beste gezur bat, beste bat! Tira, Jainkoari nahi dakiola gizajendearen aurrean hau nire azken faltsukeria izatea.

Lasterka alde egiten du.

Hirugarren agerraldia

Hiru egun geroago (1910eko urriaren 31). Astapovoko tren-geltokiko eraikinaren itxarongela. Eskuinean, beiraz hornituriko ate handi batek nasara ematen du. Ezkerrean, ate txikiago batek geltokiburuaren gelara, Ivan Ivanovitx Osoling. Itxarongelako egurrezko bankuetan eta mahai baten inguruan, bidaiari gutxi batzuk eserita daude Danlov-eko espresaren zain: emakume nekazariak lotan, euren zapietan bilduak; salerosle txikiak, ardi-larruzko berokietan; hiri handiko enplegatu zenbait ere bai, antza denez, funtzionarioak edo dendarunak.

Lehen Bidaiaria (*egunkaria irakurtzen, bat-batean goraki*): Ederki egin du! Xaharraren pieza bikaina! Inork ez zuen gehiagorik esperoko.

Bigarren Bidaiaria: Zer gertatzen da?

L. B.: Ihes egina dela, Lev Tolstoi, bere etxetik, inork ez daki nora. Bart gauean egin omen zuen, botak jantzi eta larruzko berokia, eta hola, haturik eta agurrik gabe, alde egina handik, Duschan Petrovitx bere sendagilea lagun harturik, beste inor ez.

B. B.: Eta atsoa etxean utzi du. Txantxa gutxi Sofia Andreievnaentzat. Agureak laurogeita hiru izango ditu orain. Nork esperoko zuen harengandik, eta nora joan dela diozu?

L. B.: Horixe jakin nahiko lukete bere etxekoek eta egunkarietakoek. Oraintxe telegramak bidaltzen ari dira mundu zabalera. Batek Bulgariako mugan ikusi omen du, eta beste batzuek Siberian diote. Baina inork ez daki pikorrik ere ziur. Ondo egin egin du, xaharrak!

Hirugarren bidaiaria (*estudiante gazte bat*): Zer diozue? Lev Tolstoik etxetik alde egin duela? Pasa egidazu egunkaria, mese-dez. Utzidazu neuk irakurtzen (*begi-kolpe bat demaio*). Ai, ondo bai ondo, finean azken indarrak atera ditu.

L. B.: Zergatik dago ondo?

H. B.: Iraingarria zelako bere hitzaren kontra zeraman biziera. Franko luzaz hertsatu dute kondearena egitera, ahotsa lausenguz itoaz. Orain azkenik aske mintza dakieke gizajendeei bere gogotik, eta Jainkoari nahi dakiola haren bidez munduak jakitea hemen Errusian herri xeheari gertatzen ari zaiona. Bai, ondo dago. Onura eta susperraldia Errusiarentzat, gizon santu hori azkenik salbatu izana.

B. B.: Agian ordea ez da batere egiazkoa izango hemengo hitzontzikeria, agian... (*bira egiten du ea inor aditzen ari zaion, eta murmurika*.) Agian hori egunkarietan jarri dute egiaz bera altxarazi eta itzalarazteko...

L. B.: Nork izan lezake interesik Lev Tolstoi bazterreratzeko...?

B. B.: Haiek... bidean oztopatzen dituen haiek guztiek, haiek guztiak dira, sinodoa eta polizia eta armada, beldur dioten haiek guztiak. Horrela desagertuak dira jada batzuen batzuk... atzerrian, gero esan denez. Baina badakigu zer esan nahi duten atzerria diotenean...

L. B.: (*ahopeka ere bai*): Baliteke orduan...

H. B.: Ez, horri ez dira ausartzen. Gizon hori bere mintzo soilaz haiek guztiak baino indartsuagoa da; ez, horri ez dira ausartzen, bai baitakite gure ukabiler ateraraziko genukeela.

L. B.: (*bat-bateko*): Kontuz... erne... hor dator Cyrill Gregorovitx... azkar gorde egunkaria...

Poliziaburua, Cyrill Gregorovitx, uniformez jantzirik, nasarako kristalezko ate ostean. Berehala egiten du geltokiburuaren gelara, eta atea jotzen du.

Ivan Ivanovitx Osoling (*geltokiburua, bere gelatik, zerbitzuetxapela buruan*): A, zu zara, Cyrill Gregorovitx...

Poliziaburua: Zurekin segituan hitz egin behar dut. Zure emaztea al dago hor gelan?

Geltokiburua: Bai.

Poliziaburua: Orduan hemen hobeto! (*Bidaiariei tonu zakar, larderiatsuz hitz eginez*): Danloveko espresa laster helduko da; mesedez, hustu berehala itxarongela eta joan zaitezte nasara. (*Denak zutitzen dira eta elkarri bultzaka arin doaz irteera aldera. Poliziaburuak geltokiburuari*): Iritsi berri dira mezu kodetu garrantzitsu batzuk. Egiatzatua izan da Lev Tolstoi bere ihesean herenegun agertu zela Schamardinoko lekaidetxean bere arreba ikusteko. Zantzu batzuek ematen dute handik bidaiari jarraitzeko asmoa duela, eta ordutixek Schamardinotiko tren guztiak, zeinahi dela norabidea, poliziakideek eskoltatuak dituzte.

Geltokiburua: Baina argitu niri gauza bat, aitatxo Cyrill Gregorovitx; izan ere, egiatan, zergatik? Ez baita inondik ere bazter-nahasle horietakoa. Lev Tolstoi gure aintza da, benetako altxorra gure herriarentzat, gizon garai hori.

Poliziaburua: Baina asaldu eta arrisku gehiago sortzen du iraultzaile talde guztiek baino. Gainerakoan, zer axola dit niri, tren bakoitza zaintzeko agindua jaso dut, besterik ez. Nahiz Moskun nahi duten gure zaintza zeharo ikusezina izatea. Horregatik erregutzen dizut, Ivan Ivanovitx, zu joatea nasara nire ordeztan, ze uniforme jantzita edozeinentzat ezaguterraza naiteke. Trena iritsi bezain pronto, isileko poliziakide bat jaitsiko da, ibilbidean behatutakoaren berri emango dizuna. Ondoren, nire aldetik, berehala igorriko dut mezua.

Geltokiburua: Ardura nire kontu.

Kanpai-deiak tren baten helduera iragartzen du.

Poliziaburua: Agurtu kidea arreta batere erakarri gabe, ezagun zahar bat bezala, konforme? Bidaiariak ez dute zaintzaz ohartu behar; gu biontzat abantailatsua izan daiteke dena trebeki betetzen badugu, ze txosten bakoitzak Petersburgen bukatzen du, gune gorenean: agian gutariko batek ere noizbait atzemango du Jurgiren Gurutzea.

Trenak zalaparta handiz aurrera egiten du. Geltokiburua itsu-mustuan ateratzen da kristalezko atetik. Zenbait minuturen ondoren, lehenengo bidaiariak, gizon-emakume nekazariak saski handiekin, ozen eta zalapartan igarotzen dira kristalezko atetik. Batzuk itxarongelan esertzen dira atsedean hartzeko edo tea prestatzeko.

Geltokiburua (*deblauki atetik zehar, urduri oihuka eserita daudenei*): Utzi gela hau arin-arinka! Denok! Arin-arinka!

Jendea (*harriturik eta marmarrean*): Baina zergatik... ez al dugu pagatu... zergatik ezin gara eseri hemen, itxarongelan... Bidaiari-trenaren zain gaude, zer bestela.

Geltokiburua (*oihuka*): Arin-arinka. Denok kanpora, esan dut, arinka! (*Arrapaladan kanpora bultzatzen ditu, berriz korrika doa atera eta zabal-zabal egiten du*). Hemen, mesedez. Eraman ezazue konde jauna hor barrura.

Tolstoi, eskuinetik *Duschanek* eta ezkerretik *Saschak* eutsirik, neketsu sartzen da barrura. Larruzko berokiaren *papar-hegalak* goitituak ditu, lepo inguruan xal bat, eta antzematen da bere gorputza, guztiz estalita egon arren, hotzak ikaraz eta dardaraz dagoela.

Geltokiburua (*sartzen direnei*): Gelditu kanpoan!

Ahotsak: Baina utziguzu pasatzen... Lev Nikolaievitx la-gundu besterik ez dugu nahi... agian koñak xorta edo te bat...

Geltokiburua (*biziki urduri*): Inork ez du hona sartzerik! (*Bortizki bultzatzen ditu kanpora eta krisketaz ixten du nasarako kristalezko atea; uneoro, baina, oraindik ere ikusten dira ate atzetik igaro eta barrualdea zelatatzen duten begiluzeak. Geltokiburuak besaulki bat bizkor hartu eta mahaira hurbildu du*). Berorren Gorentasunak ez al du nahi atseden pixka bat hartu eta eseri?

Tolstoi: Gorentasunik ez... gehiagorik ez, Jainkoarren... inoiz gehiago ez, hori amaitu da. (*Asaldata, ingurura begiratu eta antzematen du kristalezko atearen atzean dagoen jendea*): Alde hemendik... doala kanpora jende hori... bakarrik egon nahi dut... beti jendea... behingoz bakarrik egon...

Sascha kristalezko ate aldera doa eta berehala bere soingainekoaz estaltzen du.

Duschan (*Bitartean ahopeka mintzatuz geltokiburuarekin*): Berehala oheratu behar dugu, trenean bet-betan jo du sukarraldiak, berrogei gradu baino gehiago; nire ustez, ez dago ondo. Hemen-dik gertu ba al dago ostaturen bat pare bat gela txukunekin?

Geltokiburua: Ez, batere ez! Astapovo osoan ez dago ostaturik batere.

Duschan: Baina berehala oheratzeko premian dago. Ikusi, ikusten duzu zelako sukarra daukan. Arriskutsua izan daiteke.

Geltokiburua: Ohorea da niretzat, esan beharrik ez, Lev Tolstoiri eskaintzea hemen aldamenean dudan gela... baina barka ezazu... hain da txiroa, hain soila... zerbitzu-gela bat, etxabea, meharra... Bertan Lev Tolstoiri estalpe ematera, zer nolatan ausart ninteke?

Duschan: Horrek ez du axolarik, orain oheratu egin behar dugu, kosta ahala kosta. (*Tolstoiri mintzo, zeina, mahai ondoan eserita dardarka, tupusteko hotzikarek astintzen baitute*): Geltokiburu jaunak adeitsuki bere gela eskaini digu. Oraintxe atsedean hartu behar duzu; bihar, berriro guztiz suspertuta, bideari ekin ahalko diogu.

Tolstoi: Bideari ekin? Ez, ez. Nik uste, gehiago ez dut bidaiatuko... hau nire azken bidaiaria izan da, eta dagoeneko helmugan nago.

Duschan (*adore ematen*): Ez kezka sukar pikor horregatik, kontu ezdeusa besterik ez. Hoztu egin zara pitin bat. Bihar sasoi betean sentituko zara.

Tolstoi: Orain oso ondo sentitzen naiz... ondo bai ondo... Bart gauean, hori bai, izugarria izan zen, bururatu zitzaidan etxeko baten bat segika etor lekidakeela, harrapatu eta atzera eramango ninduketela infernu hartara... eta orduan jaiki nintzen eta esnatu zintuztedan, hain zen bortitza bihotz-zarrasta. Bide osoan ez ninduen abandonatu izu horrek, sukarrak, hortzak karraskarazten zizkidanak... Orain, baina, hemen nagoenez gero... baina egiaz non nago?... leku hau ez nuen inoiz ikusia... orain behingoan dena bestelakoa da... orain jada ez dut batere beldurrik... nik uste, jada ez dira nire bila etorriko.

Duschan: Jakina ezetz, horixe ezetz. Lasai ohera zaitetzke, hemen inork ez zaitu aurkituko.

Biok laguntzen diote zutitzen.

Geltokiburua (*hari bidera ateraz*): Arren eskatzen dizuet barkatzeko... gela xume-xume bat besterik ezin dizuet eskaini... neure gela bakarra... Eta ohea ere beharbada ez da ona... burdinazko ohea bat baino ez... Baina dena prestatuko dut telegrama baten bidez laster bidal diezadaten beste bat hurrengo trenean...

Tolstoi: Ez, ez, ez dut besterik nahi. Denbora luzean, luzeagian izan ditut besteenak baino hobek! Zenbat eta txarragoa den orain, hainbat eta hobe niretzat! Nola hiltzen dira ba nekazariak? Eta hala ere heriotza on bat izaten dute...

Sascha (*hari laguntza emanez*): Zatoz, aita, zatoz. Nekatuta egongo zara.

Tolstoi (*berriro gelditurik*): Ez dakit... nekatuta nago, zuzen zabilta, soin atal guztietan behera beharra nabari dut, oso nekatuta nago, eta hala ere oraindik zerbait itxaroten dut... Bada, izan, bat logaleak egon eta ezin lokartzen denean bezala, gerta-kizun den zerbait ona buruan darabilkiolako eta lokartzean ideia hori galdu nahi ez duelako... Bitxia da, egundaino ez nintzen horrela sentitu izan... agian heriotzak bere-berea duen zerbait da... Urte eta urte luzetan, ondo dakizue, beti hil-beldurrez izan nauzue, hainbesteko beldurrez, ezen nire ohera ezin joan nintekeen, ezen marru egiteari ekin ahal izan niezaiokeen animalia batek bezala eta neure burua ezkutatu. Eta orain bertan, agian hor barruan dago gelan, heriotza, eta nire zain dagoke. Eta hala eta guztiz, haren bidera noa inolako beldurrik gabe. (*Saschak eta Duschanek ateraino eramán dute.*)

Tolstoi (*Ate ondoan gelditu eta barrurantz begiratu*): Ondo egoten da hemen, ondo baino hobeto. Txiki, mehar, sabai-xapal, txiroa... Iduri zait inoiz holakorik amestu izan banu bezala, hau bezalako ohe bat, besteren batena, non edo non, besteren baten etxean, ohe batean datza... gizon zahar, nekatu bat... egon, nola du izena, dagoeneko idatzia dut duela urte pare bat, nola du izena, xaharrak? Behinola aberats izandakoa gerora guztiz txirotua itzultzen dena, inork ez ezagutua, eta herrestan doa oheraino, berogailuaren ondoan... Atx, ene burua, ene buru makala! Nola zuen izena, xaharrak? Aberats izana zenak eta orain soinean daraman alkandora besterik ez duenak... eta bere onetik ateratzen duen emakumea ez dago bere aldean hiltzen denean... Bai, bai, badakit, jakin, Kornei Vasiliev izena eman nion behin nire ipuinean, xaharrari. Eta hiltzen den gauean bere emaztearen bihotza ernatzen du Jainkoak, eta bera ageri da, Marfa, ostera ere hura ikusteko... Baina beranduegi heltzen da, zeharo zurrun datza gizona, begiak itxita besteren baten ohe gainean, eta emakumeak ez daki ezinikusia dion oraindik edo jadanik barkatu dion. Ez daki gehiago, Sofia Andreievna... (*esna antzean*): Ez, Marfa du

izena... nahasten ari naiz... Bai, etzan egin nahi dut. (*Saschak eta geltokiburuak hura gidatzen jarraitu dute. Tolstoik geltokiburuari*): Eskertzen dizut, ezezagunak izan arren, estalpe emateagatik zure etxean, basapiztiak oihanean duena emateagatik... eta hortako Jainkoak bidali egin dit niri, Kornei Vasiliev... (*bat-batean osoro izututa*): Baina ondo itxi ateak, inor sar ez dadila, ez dut jenderik ikusi nahi, ezta alerik ere... Harekin bakarrik egon besterik ez, barnagoan, bizitzan sekula baino hobeto... (*Saschak eta Duschanek biok logelara gidatzen dute; geltokiburuak, zuhur, atea ixten du bere atzetik, eta zutik geratzen da, durduzaturaxe*).

Kanpotik, kask-kask, gogor jotzen du norbaitek kristalezko atean. Geltokiburuak irekitzen du atea, poliziaburuak itsumustuan sartzen da.

Poliziaburuak: Zer esan dizu? Dena komunikatu behar dut bizkor, dena! Azkenean, hemen geratu nahi al du, eta zenbat denbora?

Geltokiburuak: Hori ez daki ez berak, ez inork ere. Hori Jainkoak baizik ez daki.

Poliziaburuak: Baina, nolatan eskaintzen ahal diozu aterpe eraikin publiko batean? Zure etxebizitza ofiziala izaki, ezin laga diezaiokezu arrotz bati.

Geltokiburuak: Lev Tolstoi ez da inondik ere arrotza nire bihotzarentzat. Nire anaietariko bat ere ez zait bera baino gertukoago.

Poliziaburuak: Baina zure eginbeharra zen lehenago berri eskatzea.

Geltokiburuak: Nire kontzientziari galdegin diot.

Poliziaburuak: Tira, hori zure ardurapean da. Berehala bidali behar dut komunikatua... Izugarria da bat-batean norbere gainean jausten den erantzukizuna! Jakingo banu behintzat zer nolakotzat jotzen duten Lev Tolstoi goi-instantzietan...

Geltokiburuak (*lasai asko*): Nik uste, benetako goi-instantzietan beti aintzakotzat hartu dutela Lev Tolstoi...

(*Poliziaburuak txundituta begiratzen dio*).

Duschan eta Sascha gelatik ateratzen dira, atea kontuz itxiz. Poliziaburuak azkar aldentzen da.

Geltokiburua: Nolatan uzten duzue bakarrik konde jauna?

Duschan: Oso lasai dago... Sekula ikusi gabea nuen haren aurpegiera hain barerik. Hemen behingoan aurkitzen ahal du finean gizajendeek onetsi ez diotena. Bakea. Lehenbizikoz bakarka dago bere Jainkoarekin.

Geltokiburua: Barka iezadazu, gizaseme ximplea naiz, baina bihotz-ikara egin zait, ezin dut ulertu. Nolatan ahal izan zion Jainkoak hainbeste oinaze ekarri, ze Lev Tolstoik bere etxetik ihesi egin behar eta orain nire ohatze txiro, duinez honetan hil behar izateko punturaino... Nolatan gizajendeak, errusiar gizajendeak gogaitarazten ahal du halako arima santua, nolatan gauza ote dira, begirunez maitatu beharreen, ...

Duschan: Hain zuzen, gizon handi bat maite dutenak maiz jarri ohi dira haren eta bere betekizunaren tartean, eta gertuen dituen haiengandik ihes egin behar du urrutien. Ondo da gertatu den bezalaxe gertatu izana: herio honek baino ez du egiten haren bizitza burutu eta sagaratu.

Geltokiburua: Dena dela... nire bihotzak ezin eta ez du ulertu nahi gizon honek, gure errusiar lurraren altxor honek, sufritu behar izana gu gizakiongatik, eta norberak bizkitartean bere orenak arduragabe bizi izana... batek are hats hartzeaz ere lotsatu beharko luke...

Duschan: Ez lantu jo harengatik, gizon prestu maitea: distira gabeko patu arrunt bat ez zen izango bere handitasunaren maila berean. Guregatik sufritu izan ez balu, Lev Tolstoi inoiz ez zen bilakatuko egun bera gizadiarentzat dena.

12

HEGOBURUAGATIK BORROKAN Scott kapitaina, 90 graduko latitudea, 1912ko urtarilaren 16a

Lurragatik borrokan

Hogeigarren mendeak, behera begiratzuz gero, ezkuturik gabeko mundu batekin egiten du topo. Lur osoa esploratua izan da, itsasorik urrunenak zeharkatuak. Belaunaldi bat lehenago oraindik dohatsu eta askerik ilunpeko izengabetasunari atxikita zeuden eskualdeek jada itsu-itsuan betetzen dituzte Europaren beharrak. Niloren iturburu aspaldi bilatuetaraino barneratzen dira lurrenontziak; Victoria ur-jauziek, duela mende erdia baino ez aurrenago europarrak begietsiek, argi-indarra hornitzen dute manukor. Azken basabazterra, Amazoniako oihana, errotik soiltzearen biktima da. Lur birjina bakarraren inguruko gerrikoa, Tibet, zartarazia izan da. Mapa eta mundu-bola zaharretako *Terra incognita* esapidea ezabatu dute aditu-eskuek. Hogeigarren mendeko jendakiak ezagun du bere planetaren bizia. Esploratze-ko bulkadak bide berriak bilatzen ditu, itsasoaren sakoneraino jaitsiz hango fauna fantastikoa ezagutzeko, edo espazioaren baztergabetasunean bidaiatuz, honezkero zapaldu gabeko bide berriak zeruan baino ez baitira urratzekoak. Eta Lurrean gizatiar jakin-nahiari gelditzen ez zaionez ezkuturik gabeko gune morturik, lasterrean espazioratzen dira aireplanoen altzairuzko enarak, goi-behe eta luze-labur berriak erdiesteko lehian.

Hala ere, gure mendera arte, hondarreko enigma batek lortu du haren lotsariak gizakien begiradatik gorderik edukitzea, bere gorputz piltzartu eta oinazetuaren bi eremu ezdeus salbatu izan dira bere sorkari propioen ase-ezinetik. Hegoburua eta Iparburua, bere eskeletoaren bizkarrezurra, bi puntu ia materiagabe, sorgortu horiek, zeintzuen inguruan duela milaka eta milaka

urte biraka dabilen bere ardatza, biek zaindu dute lur guztiz garbi eta profanatu gabe hori. Izotzezko hesiak altxatu dituzte azken sekretu hori begiratzeko. Nola zentinela bat aseगतैन aurrean, negu amaigabe bat ezarri dute. Goi-harro, izotzak eta ekaitzak sarbidea dute gotortua; izuak eta arriskuak, herio-mehatxua eginez, ausartenak ere uxatzen ditu. Are eguzkiak iheskorki baino ezin du begietsi esparru hertsu hori, eta gizakien soak, sekula ez.

Hamarkadak dira espedizioak bata bestearen ondotik datozela. Batek ere ez du helburua erdiesten. Non edo han, oraintsu aurkitua, izotzezko kristal-hilkutxa batean atseden hartzen du, duela hogeita hamahiru urte, ausartetan ausartenaren hilotzak, Andrée-renak, baloi aerostatikoan Polo gainean hegaldatu nahi izan zuena eta sekula itzuli ez zena. Ekinaldi bakoitzak porrot egiten du horma zuri dizdizarien kontra. Bertan, duela milaka urtez geroztik eta gure egunetaraino, bere aurpegia ostentzen du Lurrak, behin eta berriz bere sorkarien irrikaren aurrean garaitua izan gabe. Birjina eta aratz, bere lotsa onak erronka jotzen dio munduaren jakin-minari.

Baina hogeigarren mende gazteak berantetsirik hedatzen ditu bere eskuak. Arma berriak fabrikatu ditu laborategietan, tanke berriak aurkitu arriskuari aurre egiteko, eta oztopo guztiek haren ezin-asea areagotu baizik ez dute egiten. Egia osoa jakin-eta jadanik bere lehenbiziko hamarkadan menderatu nahi du aurreko milurteko guztietan eskuraezina izan zena. Banako batzuen adoreari nazioen arteko lehia gehitzen zaio. Poloa ez ezik, baita lur berrian airean inarrosiko den lehenengo bandera zein izango den ere borrokatzen dute: arraza eta populuen gurutzada bat abian jartzen da nostalgiak sagaratu agertoki horien inguruan. Lur-bazter guztietatik berritzen da oldarraldia. Ezinegonean, zain dago gizateria. Badaki gure bizigunearen azkeneko sekretua datekeela. Amerikatik, Peary eta Cook prestatzen dira Iparburu aldera egiteko; hegoaldeari buruz aingura jasotzen dute bi itsasontzik: batak Amundsen norvegiarra buru duela, besteak ingeles bat, Scott kapitaina.

Scott

Scott: itsas armada ingeleseko edozein kapitain. Edozein bat. Biografia maila-zerrendarekiko paraleloa du. Zerbitzu egin du bere nagusien gogo betera, geroago Shackleton-en bi-

daldian parte hartuz. Bere jokaeran deus berezitasunek ez du salatzen umanta, heroia. Bere aurpegia, argazkietatik ispilatzen denez, milaka ingelesena da, dozenaka milarena, hotz, kemen-tsu, gihar-jokorik gabea, sakoneko indar batek izoztua iduri. Begi uher metalikoak, aho zurrun itxia. Borondateak eta zentzu praktikoak markatu begitarte-orrizi horretan ez da ageri marra erromantikorik batere, arraitasun printzarik inondik ere ez. Bere idazkerari dagokionez, edozein ingelesena da, itzalik eta kiribilik gabea, azkarra eta segurua. Bere estiloa, argi eta egokia, eragingarria egitateak emate orduan, baina irudimenik gabea, txosten batena bezalakoa. Scottek idazten du ingelesez Tazitok latinez bezala, nolabait esateko, trauskil landutako harritan. Harengan sumatzekoa da amets-zantzurik gabeko pertsona bat, objektibotasunaren fanatiko bat, beraz, arraza ingelesaren zinetako ordezkari bat, zeinengan eginbeharra areago betetzean kristaltzen baita jeinutasuna. Scott hori honezkero ehunka aldiz ageri izan da historia ingelesean, Indian eta artxipelagoan uharte izengabeak konkistatuz, Afrika kolonizatuz eta gudaldiak irabaziz mundu osoaren kontra, beti izugarritzko bizitasun berberaz, talde-ekintzarako kontzientzia berberaz eta aurpegi hotz, bridatu berberaz.

Berea, alabaina, altzairua lako borondate gogorra da; jada balentria egin aurretik antzematen da. Shackletonek hasitakoa burutu nahi du Scottek. Espedizio bat prestatu du, baina ez du baliabiderik aski. Horrek ez du gerarazi. Bere kapitala sakrifikatu du eta zordundu egin da helmugara iritsiko delako uste osoan. Bere emazte gazteak seme bat opa egin dio, baina hark ez du zalantzarik, Hektor berri baten gisa, Andromaka bertan behera uzteko. Adiskide eta bidelagunak aurkitu ditu laster, Lur hone-tan dagoeneko ezerk ezin du bere gogoia makurrarazi. *Terra Nova* du izena Ozeano Antartikoaren muturreraino eramango dituen itsasontzi bitxia. Bitxia, bere bina alekako hornidura dela eta, erdi Noeren arka, abere biziz betea, erdi laborategi modernoa, milaka tresna eta libururekin. Izan ere, hara, mundu huts, jendegabe horretara, gizakiak bere soin-gogoen premiak betetzeko behar duen guztia eraman behar dute. Hemen, lehen gizakiak zituen babes-baliabide guztiak —azal eta larru zurratuak, animalia biziak— egungo eguneko lanabes sofistikatuenei uztartzen zaizkie harrigarriro. Eta itsasontzi hori bezain fantastikoa da

halaber ekinbide guztiaren alderdi bikoitza: abentura bat, baina halere negozio bat bezala kalkulatu abentura bat; ausarkeria bat, zuhurtziaren antze guztiekin. Kalkulu zehatz, bakanaren neurrigabetasun bat, halabeharraren neurrigabetasun are ahaltsuagoaren aurrez aurre.

1910eko ekainaren 1ean utzi dute Ingalaterra. Garai hartan dirdira egiten zuen uhartedi anglosaxoiak. Joritsu eta orlegi biziz jantziak daude zelaiak, bero eta errainu biziz ilkitzen da eguzkia lainorik gabeko munduaren gainean. Bihotz-zirraraz beterik ikusi dute itsasertza galtzen. Haiek denek, aldiz, denek badakite beroari eta eguzkiari agurka ari direla urtetan. Batzuk beharbada betiko. Baina ontziaren brankan airean dabil bandera ingelesa, eta haiek elkar kontsolatzen dute pentsamenduan hartuta ikur unibertsal horrek aurrera egiten duela artean jabegabe geratzen den Lurraren azken mugarantz.

Universitas antarctica

Urtarrilean, Zeelanda Berrian atsedendaldi labur baten ondoren, Evans lurmuturrean lehorreratu dira, betiereko izotzen hegian, eta etxe bat atondu dute negua igarotzeko. Abendua eta urtarrila udako hilak dira han, urtaro bakarra, zero zuri, metal-kara batean eguzkiak egunean ordu pare batean distira egiten duena. Hormak zurezkoak dira, aurreko espedizioetan bezala, baina barruan denboraren joana usnatzen da. Beren aurrekoek ez bezala, orduan olio-argiontzi kirasdu, ketsuekin esertzen baitziren erdi-ilunpean, euren aurpegi propioaz aspertuak, eguzkirik gabeko egunen monotoniaz nekatuak, hogeigarren mendeko bidelagun hauek mundu osoa, zientzia osoa laburbildua daukate beren lau hormen artean. Azetilenolana para batek argi zuri epela ematen du. Zinematografoak xarmatzen ditu urrutiko lekuen irudiak erakutsiz, tropikoen eszenak proiektatuz klima goxoagoko lurraldeetarik. Pianola batek musika eskaintzen die; gramfonoak, giza ahotsa; liburutegiak, beren garaiko jakitea. Gela batean idazmakina taka-taka-ta ari da, beste batek ganbera iluntzat balio du, bertan garatzen dira filmak eta argazkiak koloreetan. Geologoak harrien erradioaktibitatea aztertzen du. Zoologoak parasito berriak aurkitzen ditu gatibutan diren pinguinoengan. Eguraldi-behaketak eta fisika-saiakuntzak aldizkatzen dira. Taldekide bakoitzari lana banatzen zaio ilun

beltzeko hiletarako, eta sistema adimendun batek ikerketa baktua informazio kolektibo bihurtarazten du; izan ere, hogeita hamar gizon horiek arratsero mintzalditara bertaraten dira, unibertitate-ikastarotara hotz polarraren erdian, izotz-hormez inguratuta; haietako bakoitza bere jakintza-arloa besteei helarazten saiatzen da, eta, solas bizkorraren trukean, borobilduz joaten zaie munduaren ikuskera. Ikerlanaren espezializazioak uko egiten dio hemen harrokeriari, eta elkar aditzea komunitatean bilatzen du. Bere-berezko mundu elemental baten erdian, bakar-bakarrik eta denboratik at, hogeita hamar gizon hauek hogeigarren mendeko azkeneko emaitzak partekatzen dituzte, eta hemen barruan arreta ematen zaio, ordulari unibertsalaren orenari ez ezik, segundoari ere bai. Hunkigarria da irakurtzea nola ganorazko pertsona horiek tartean Eguberri zuhaitzaz pozteko gauza diren, baita beraiek editaturiko *South Polar Times* umorezko egunkariko txantxa txikiekin jostatzeko ere; nola txikia —azaleratzen den balea bat, behea jotzen duen poney— bat bizipen bihurtzen den eta, beste aldetik, izugarria —aurora polar gorria, izugarritzko hotza, neurrigabeko bakartasuna—, zerbait eguneroko eta ohiko.

Bitartean, aurreratze txikiak egitera menturatzen dira. Beren lera-autoak saiatzen dituzte, eskiatzen ikasten dute eta zakurrak hezten dituzte. Bidaia luzerako biltegi bat apailatzen dute, baina poliki, oso poliki igarotzen dira egutegiko orriak, azkenik udara —abenduko hilabetea— heltzen den arte, noiz ere itsasontziak, izotz-mokorrak zeharkaturik, gutunak baitakarzikie etxetik. Talde txikitan menturatzen dira orain ere, negu min gogorrean, egun bateko bidaldi sendogarriak egitera, baita kanpadendak probatu eta eskarmentua hartzera ere. Guztia ez dute lortzen, baina zailtasunek adore berria ematen diete. Bidaldietatik itzultzen direnean, izoztu eta akiturik, abegi egiten diete bozkarioz eta sutegiaren distira epelaz, eta etxe txiki gozo hari 77 graduko latitudean, gabezia egunen ondoren, Lurreko txokorik zoragarriena deritzote.

Egun batean, baina, sartaldetik itzulian datorren espedizio batek berri aztoragarri bat dakar etxolara. Ibilaldian Amundsenen neguko kanpamentua aurkitu dute. Istantean jabetu da Scott, beraz gain, hotza eta arriskuak gorabehera, badela beste bat lur muker horri sekretua kentzen lehena izateko loriagatik

borrokan dabilena: Amundsen, norvegiarra. Scottek distantzia neurtu du mapan. Eta idatzitako lerroetatik antzematen da bere izu-ikararen oihartzuna, egiaztatzen duenean Amundsenen kanpamentua Polotik ehun eta hamar kilometro gertuago kokaturik dagoela berea baino. Horrek, izu-larritu arren, ez du adoregabetzen. «Aurrera, nire aberriaren ohoretan!» idatzi du harro bere egunkarian.

Behin bakarrik agertzen da Amundsen izena bere egunkariko orrietan. Eta gero, inoiz ez berriro. Baina usnatzen da egun horrez geroztik beldurrezko itzal bat gainean duela izotzez inguratu etxola bakartiak. Eta ordutik aurrera ez da ordu bakar bat jgaroko bere loa eta egunak izen horrek nahasi gabekorik.

Abiada polorantz

Etzolatik milia batera, muino baten gainean, zaintza-postu bat dago etengabe. Han, goragune malkartsuaren gainean bakarti, aparailu bat instalatzen da, iduri-eta kanoi bat etsai ikusezinen kontra zuzendua: aparailu bat, hurbiltzen ari den eguzkiaren lehen berotasun-zantzuak neurtzeko balio duena. Egunez egun urduri daude haren agertzea heldu zain. Goizeko zeruan ikusgai dira xirmi-xarmaz bezala kolore-joko zenbaiten islak, baina disko biribila oraindik ez da goititzen ortzi-mugaren gainetik. Hala ere, zero horrek, haren hurbiltasunak irradiatu argi magikoaz beterik, islen atariko horrek, pitzarazten ditu egonarri gutxikoak. Azkenean muino-gainetik hots egin du telefonoak eta, zoriontsu, aditu dute eguzkia agertu dela, hilabeteak ezkerreko lehenengoz burua goratu duela ordu batez neguko gauaren erdian. Bere isla oso ahula da, oso margula, ozta aire izoztua biziartzeko gai, bere uhin dardartiek ozta uzten dute seinale dinamikorik aparailuan, baina ikuste hutsarekin zorioneko sentitzen dira. Su eta gar, espedizioa gertatzen da oso-osorik baliatzeko argi-tarte txikia, zeinak berekin baitakar udaberria, uda eta udazkena batera osaturiko aroa, nahiz gure bizi-kontzeptu epelaren arauz ez litzatekeen negu anker bat baino. Buruan doaz lera-autoak. Haien atzean, poney eta zakur siberiarrek lerra-razitako lerak. Zuhurkiro, ibilbidea zenbait etapatan zatitu da. Bi egunik behin biltegi bat eraikiko dute, itzultzerako arropa berriak gordetzeko, baita janariak ere eta behinena, petrolioia, bero kondentsatua amaigabeko izotzetan. Elkarrekin abian jarri

da oste osoa, pixkanaka talde bakanetan itzultzeko eta hartara azkeneko talde txikienarentzat, Poloaren konkistatzaile haute-narentzat, jangairik gehiena, abere zamari freskoenak eta lerarik onenak uzteko.

Plana maisukiro taxutua izan da, gutxienerako punturaino aurreikusiz ezustekoak. Eta horiek luze gabe azaldu dira. Bi bidaia-egunen ondoren lera motordunak matxuratu dira eta bertan utzi behar dituzte, alferreko astungarri dira. Poneyek ere ez diote eusten espero zitekeen bezala, baina hemen erreminta organikoa nagusi da teknikoaren gaineratik, zeren abere erabat akitu, bidean akabatu behar izan dituztenek elikagai bikaina, beroa, ematen baitiete zakurrei, odola sendotu eta indarberritzen diena.

1911ko azaroaren 1ean talde banakotan bereizten dira. Argazkietan ikus daiteke aurrenik hogeita hamar, gero hogeitau hamar eta azkenik bost lagunek osatu berebiziko karabana, aurrera eginez hatsarreko mundu bizigabe baten basamortu zurian barrena. Aurrean beti dago gizon bat larru eta pildatan bildua, basagizon barbaro bat, agerian bizarra eta begiak besterik ez duena. Esku larruztatuak kabestrutik heltzen dio lera astun zamatua lerrarazten duen poney bati, eta haren atzean beste gizon bat berdinean jantzia eta jarrera berdinean, eta haren atzean beste bat gehiago, hogeitau puntu beltz lerro-lerro aurrera joaki zurtasun amaigabe, itsugarri batean. Gauetan kanpadendetan kukutzen dira, aitzurka elur-hormak paratzen dituzte haizearen norabidean, poneyak babestearren, eta goizetan berriz dira abian, beti-bateko martxa etsigarrian, betiz gero aurrenekoz giza arnasa topatzen duen haize hormagarrian barrena.

Baina kezkek handituz doaz. Eguraldiak zakar jarraitzen du, berrogei kilometroren orde batzuetan hogeitau hamar baino ez dute egiten ahal, eta, bakartasun horretan helburu berera ikusezin aurrera doan beste bat dagoela dakitenez geroztik, egun bakoitza oso baliotsua da haientzat. Edozein huskeria puzten da hemen arrisku bihurtzeraino. Zakur bat bidea galdurik dago, poney batek ez du jan nahi... oro da asaldagarria, zeren hemen, lur mortuan, ikaragarri eraldatzen baitira balioak. Hemen edozein izaki bizidun mila aldiz baliotsuagoa da, are ordezkazina ere. Hilezkortasuna apika poney bakar baten lau apatxetan dagoke. Ekaitzezko zero goibel batek galaraz dezake egitandi bat

beti-betiko burutzea. Hartan, taldekideen osasuna ahultzen hasi da; batzuk itsutu dira elurra kari, beste batzuei izoztu zaie soin atalen bat. Poneyak, jatena murriztu behar izan zaienez, gero eta akituago daude, eta azkenean, Beardmore glaziarraren ondo-ondoan, lur jo dute. Bertan bete behar dute abere adoretu horiek hiltzeko eginkizun iluna, han bakartasunaren erdian eta bi urtez elkarrekin bizi izan ondoren lagun eginda, izenez ezagunak izan eta txeraz josi dituztenak. *Mataderia* deitzen diote toki ilun horri. Espedizioaren zati bat gune odoldu horretan bereizi eta itzuli da; besteak azken ahaleginerako antolatu dira, ekitea glaziarraren gaineko bide latzari, izotz-horma arriskutsua, Poloa inguratzen duena eta soilik giza nahimen grinatsuaren galdak gainditzen ahal duena.

Ibilbidearen etapak gero eta txikiagoak dira, hemen pikorkatu egiten da-eta elur-oskola. Lerak ez dira gehiago berez labaintzen, narrasean eraman behar dituzte. Izotz gogorrek irris-tailuak pikatzen ditu, oinak zauriz betetzen dira aurrera joan ahala izotz-hondar harrotuan zehar. Baina ez dute amore eman. Abenduaren 30ean 87 graduko latitudea iritsi dute, Shackleton heldu zen puntu gehiena. Hemen azkeneko sailak itzuli behar du: bost aukeratuk baino ezin jarrai dezakete Poloraino. Scottek jendea hautatu du. Protesta egitera ez dira ausartu, nahiz bihozmina ematen dien helburutik hain hurbil egonda itzuli behar izateak eta Poloa ikusten lehenak izatearen loria beste lagunei uzteak. Baina zotzak boteak dira. Beste behin elkarri eskua tinkatu diote beren hunkipena ezkututzen gizon legean ahaleginduz, gero taldea banatu da. Bi jarraigo txiki, ñimiño abiatzen dira: bata hego aldera, ezezagunerantz; bestea ipar aldera, sorterrira bidean. Behin eta berriz hara-honaka bihurtzen dute begirada, azkeneko aldiz lagun bat, giza irudi bat usnatzeko. Laster desagertu da azkeneko itxura. Bakarrik, ekintzarako hautatu bostak —Scott, Bowers, Oates, Wilson eta Evans—.

Hegoburua

Azken egunotako oharrak gero eta urduriagoak dira. Iparra markatzen duen orratz urdina bezala, dar-dar egiten hasten dira Polora hurbildu ahala. «Nola egiten zaigun azkengabea, itzalak gure inguruan poliki narrasteraino, gure eskuin aldetik aurreratuz eta handik berriro ezkererantz labainduz!». Baina

tarteka gero eta argiago izarniatzen du itxaropenak. Gero eta irrika handiagoz, Scottek oharrak idazten ditu ibilitako distantziei buruz: «150 kilometro baino ez dira falta Polora heltzeko. Honek horrela jarraituz gero, ez diogu eutsiko». Hor agerikoa da oraindik nekea. Bi egun geroago: «137 kilometro falta dira Polorako, baina saminki nekezak gertatuko zaizkigu». Gero bat-batean tonu berri, garaipenezko bat: «94 kilometro baino ez Polotik! Iristen ez badugu, gertu demonio geldituko gara». Urtarrilaren 14an, itxaropena ziurtasun bihurtuta: «70 kilometro baino ez. Aurre-aurrean dugu helburua!». Eta hurrengo egunean oharrak garretan ari dira bozkario biziz eta ia arrailerian: «50 kilometro ziztrin baino ez. Iritsi behar dugu, kostarik kosta!». Hegodunak diruditen lerro horietan, bihotz-barneraino sumatzen da zaingiharrak nondik noraino dituzten itxaropenak tenkaturik, nola haren kirioak ikarak hartuak dauden ikusminez eta irrikaz. Harrapakina gertu dago; jada luzatzen dituzte eskuak Lurraren azkeneko sekretua berenganatzeko. Are astinaldi bat gehiago, hondarrekoa, eta lortua dute helburua.

Urtarrilaren hamaseia

«Bihotz-altxagarri», ematen du egunkariak. Goiz horretan abian dira berriro, besteetan baino goizago. Sekretu lazgarriki ederra inork baino lehenago begiesteko irrikak arrastaka aterarazten ditu euren lo-zakuetatik kanpora. Eguerdira arte bost gizonen, zirkinik gabe, 14 kilometroko bidea egin dute. Alaitsu, aurrera doaz basamortu zuri, arimarik gabekoan zehar: orain ez dago helburua huts egiterik, gizadiarentzako egitandi erabakigarria ia burutua da. Bat-batean bidaideetako bat, Bowers, urduritu egin da. Begiak sutan dauzka, elur-landa baztergabeko puntutxo ilun batean iltzaturik. Ez da ausartu bere aierua adieraztera, baina denen bihotza dardarazi du pentsamendu beldurgarri berak, ea giza eskuak hor seinale bat jaso ahalko zuenentz. Lasaitzen saiatu dira trikimailuren bat edo bestera joaz. Beren buruari esan diote —Robinsonek bezala uhartean besteren oinatza aurkitu eta hartan alferrik berarena ezagutu nahi duenean— hori agian pitzadura bat izotzean datekeela edo ispilatze bat. Nerbioak airean hurreratu dira, elkarri gezurra sakatzeko ahaleginetan, nahiz dagoeneko denek dakiten egia: norvegiarra, Amundsen, lehenago iritsi dela.

Laster azkeneko zalantza zartatu da ezin ukatuzko egitatearen aurrean, ezen bandera beltz bat, zutoin moduan jarritako lera batean, altxatzen dela kanpamentu ezezagutu, utzietsi baten gainean. Lera-patinen eta zakur-hanka askoren lorratzak dira: hemen Amundsenek kanpatu du. Gizadiarentzat egundokoa, ezin sinetsizkoa gertatu da: Lurraren Hegoburua, hainbat milurtekotan arimagabea, milaka eta milaka urtez geroztik eta are agian noizaldi guztien hasieratik gizakien soak sekula ez begietsia, birritan aurkitua izan da denbora molekula baten igarotzean, hamabost egunean. Eta haiek bigarrenak dira —milioika hilabeteren aldian hilabete bakar bateko gorabeheragatik beranduegi—, bigarrenak jendarte batean, zeinentzat lehena baita dena eta bigarrena deus ez. Alferrekoa, beraz, ahalegin guztia; irrigarriak, estualdiak; eromen hutsa, aste, hilabete, urtetako itxaropenak. «Neke handi guztia, gabezia guztia, parramen guztia, zertarako?», idatzi du Scottek bere egunkarian. «Orain amaitu den amets bategatik, ez beste ezergatik». Malkoak begietaratu zaizkie; neke gehiegia izanda ere, begirik bildu ezinik daude. Muzin, itxaropen fisik gabe, kondenuatuak bezala azken ibiliari ekin diote Polorantz, zeina sinetsirik baitzeuden poz-oihuz oldarka hartuko zutela. Besteak kontsolatzen ez da inor saiatu. Hitzik esan gabe herrestaka jarraitu dute aurrera. Urtarrilaren 18an, Scott kapitaina, bere lau bidelagunekin batera, iritsi da Polora. Hartan, lehena izatearen kontuak honezkero itsutzen ez duenez, paisaiaren tristeziari beha geratu da gogo ahuleko begiekin. «Hemen ez dago deus ikustekorik, deus ez, azken egunetako itzelezko monotoniaz bestelakorik». Horra Robert F. Scottek Hegoburuaz ematen duen deskribapen guztia. Han aurkitu duten berezitasun bakarra ez da naturak sortua, gizon baten esku etsaiak baizik: Amundsenen kanpadenda bandera norvegiarrarekin, harro eta gailen airean inarrosia gizateriaren baluarte menperatuaren gainean. Han konkistatzailearen eskutitz bat dago gune hori zapaltzen bigarrengo ezezagunaren zain, eta idazkia Haakon Norvegiako erregeari helarazteko erregutzen dio. Scottek ardura hartzen du zeregin mingarri hori leialki betetzeko: berak suharki helburu propiotzat eduki duen besteren egitandi baten lekuko izatea munduaren aurrean.

Betilun, Amundsenen garaikurraren ondoan, bandera ingelesa, beranduegi heldu den *Union Jacka*, landatu dute. Gero,

haize izoztu batek jazarriak, «bere handinahiaren leku ezleiala» utzi dute. Gibel-beldur profetiko batez idatzi du bere egunkarian: «Itzuliaren izu naiz».

Hondamena

Etixerako bidean hamar aldiz handiagoak dira arriskuak. Poloranzko ibilian iparorratzak gidatu zituen. Orain kasu egin behar dute eta ez galdu beren ibil-lorratzak, astetan behin ere ez galdu, biltegietatik ez desbideratzeko, haietan daudelako euren jangaiak, ordeko arropak eta pare bat petrolio-galoitan meta-turiko beroa. Horregatik urduri jartzen dira urrats bakoitzean, elur-zirimolek ikustea estaltzen dietenean, edozein hutsegitek heriotza ziurrera baitarama zuzen. Gainera, beren gorputzei falta zaie aurreneko ibilaldien freskotasun erabili gabea, noiz ere oraindik baliatzen baitzuten elikadura aberatsago baten kaloriek eta beren etxe antartikoko ostata-leku epelak emandako berotasuna.

Eta gainera, euren bularretan laxatu egin da borondatearen altzairuzko malgukia. Harako bidean atezuan eduki zituen jendarte osoaren irrika eta jakin-mina gorpuztu eta haren energia guztiak heroikoki irudikatzeke naturaz gaindiko itxaropenak; egitandi hilezkor baten partaide izatearen kontzientziak gizagaindiko indarra eman zien. Orain larrua salbatzeko beste ezertarako ez dira borrokan ari, beren gorputz hilkorra existitze hutsagatik, aintzarik gabeko aberriratze bategatik, zeini beren barru-barruko gogoak agian beldur baitio mira baino gehiago.

Egun haietako oharren irakurtzea beldurgarria gertatzen da. Eguraldia gero eta narrasagoa da, inoiz baino lehenago dator negua. Elur bigunak euren boten azpian eratzen duen lei-karraldo lodia oinentzako zepo bihurtzen da, pausoan ibiltzea ere galaraziz, eta izotzak haien gorputz akituak andeatzen ditu. Al-diro poz-antz txiki bat izaten dute, egunak eta egunak nora gabe eta dudan ibili eta gero biltegiren bateraino iristen direnean; orduan haien hitzetan berriro dardaratzen da konfiantzaren sugar iheskorra. Ezerk ez du hain handi-ederki erakusten gizakume banaka horien gogo-heroismoa bakartasun itzelean, ezen Wilson, jakintza-gizonak, are han, heriotzatik pauso batera, bere ikerlan zientifikoak jarraitzen dituela eta bere leran, beharrez-

ko zama guztiaz gain, hamasei kilo harri arraro ere herrestan daramala.

Baina pixkanaka giza adoreari nagusitzen zaio naturaren gailentasuna, zeinak, errukigabe eta menderik mende gogorturiko indarrarekin, larderiak agintzen baititu bost ausartegi horien aurka gainbeheraren ahaltasun guztiak: hotza, izotza, elurra eta haizea. Aspaldi da oinak haragi bizian dituztela, eta gorputzak, jatordu bakar batek ez aski berotuak, huts egiten hasi dira. Egun batean bidaideek izaturik atzeman dute ezen Evans, haien artean indartsuena, bat-batean modu xelebrean portatzen dela. Atzean geratzen da, egiazko eta idurizko minez etengabe aieneka; ikara batean, haren molderik gabeko ele-melea dela eta ondorioztatzen dute dohakabeari erorikoren baten edo estira lazgarrien kari burutik egin zaiola. Zer egin berarekin? Izotz-basamortuan bertan utzi? Bestalde, biltegiara iritsi behar dute luzaro gabe, bestela... Scott bera oraindik ez da ausartzen hitza idaztera. Goizeko ordu batean, otsailaren 17an, hil da ofizial zorigabea, martxa-egun bat eskas *mataderiatik*, non lehenengoz janari hazkurritsuagoa aurkituko duten hilabete batzuk lehenagoko poney sarraskiari esker.

Gainerako laurak bideari lotzen zaizkio, baina mila deabru! Hurrengo biltegiak beste nahigabe garratz batzuk dakartza. Olio gutxiegi dago, eta horrek esan nahi du sugairik premiazkoenarekin moldatu beharko direla; erregaia aurreztu, alegia, hotzaren kontrako babes-arma bakarra. Ekaitzak astindutako gau ikaragarri hotz eta esnaera etsigarri baten ondoren, ozta daukate feltrozko botak janzteko indarrrik. Baina narrasean jarraitu dute aurrera; haietako bat, Oates, oin izoztuen gainean. Haizeak inoiz baino bortitzago jotzen du, eta hurrengo biltegian, martxoaren 2an, nahigabe ankerra errepikatu da: berriz ere erregaia urriegia da.

Orain beldurra are hitzei ere nagusitzen zaie. Sumatzen da nola Scott izu-larriari eusten saiatzen den, baina behin eta berriz etsi-gaiztozko oihuek bata bestearen atzetik sarkor zultzen dute haren lasai-planta. «Horrela ez dago jarraitzerik», edo «Jainkoa hel dakigula! Ez dugu neke gehiago eramaterik» edota «Jokoak makur joko digu», eta azkenik hautemate izugarria: «Etor bekigu Goi Arduraren laguntza! Gizakiengandik honezkero ez dugu zer itxaronik». Baina narrasean jarraitzen dute aurre-

ra eta aurrera, itxaropenik gabe, hortzak estutuz. Oates gero eta txartoago dabil, bere lagunentzat uneoro karga da laguntza baino gehiago. Eguerdian zero azpitik 42 graduko hozberoa izanda etsi behar dute martxaz, eta dohakabeak sumatzen du eta badaki bera bere lagunen galbidea dela. Jada azkenengorako prestatzen dira. Onartzen dute Wilson ikertzaileak bana diezaiola bakoitzari hamarna tableta morfina, hala gerta baledi azkena azkarragotzeko. Oraindik saiatu dira beste egun-bide bat gaixoarekin aurrera egiten. Gero dohakabeak berak eskatzen die lo-zaku batean utz dezatela eta bere patuaren menera abandona. Proposamena denek irmoki baztertu arren, argi dute horrek haientzat lasaitua baino ez lekarkeela ondorioz. Artean kilometro banaka batzuk egiten ditu gaixoak hanka izoztuen gainean gaueko babeslekua- ren aldera. Lagunekin lo egin du hurrengo goizera arte. Orduan ikusi dute kanpoan urakan bat sortu dela.

Bat-batean Oates altxatzen da. «Irten nahi dut pixka bat», diotse lagunei. «Agian apur bat geratuko naiz kanpoan». Besteek ikara dute. Denek dakite apur horrek zer esan nahi duen. Baina inor ez da ausartu hura geldiarazteko hitzik esatera. Inor ez da ausartu agur egiteko hari eskua luzatzera. Denek begirunez sentitu dute Lawrence J. E. Oates zalditeria-kapitaina, Inniskilling-eko dragoi-kidea, herioaren bidera irten dela.

Nekeak leher egindako hiru gizon logaletu herrestan doaz izotz bitxizko basamortu mugagabea zehar, akiturik, itxaropenik gabe; bizi-sen sorgorak baino ez ditu oraindik tenkatzen haien gihar-zainak zabukako urratsari eusteko. Giroa gero eta maku- rragoa da, biltegi bakoitzean etsipenezko iseka bat gehiago dute zain, beti olio gutxiegi, bero gutxiegi. Martxoaren 21ean hoge- i kilometroko bidean baino ez daude biltegi batetik, baina haizeak hain indar hilgarriaz jotzen du, ezin dute denda utzi ere. Gaue- ro espero dute biharamunean helburua lortzea, baina bitartean jangaiak desagertzen dira eta haiekin azken itxaropena. Erregai- a bukatu zaie eta termometroak 40 gradu zero azpitik markatzen du. Itxaropen izpirik ere ez da gelditzen: goseak ala hotzak hil- tzea besterik ez. Zortzi egunez, hiru gizon horiek, kanpadenda txiki batean estalpe hartuta jatorrizko mundu zuri baten erdian, borroka egiten dute ezin itzurizko azken finaren aurka. Martxo- aren 29an badakite ez dagoela salbatuko dituen mirari gehiagorik. Erabaki dute, hortaz, adur gaiztoa saihesteko urratsik batere ez

ematea eta harro heriotzari aurre egitea beste edozein ezbeharri bezala. Lo-zakuetan kukubilko jarri dira, eta haien azkeneko sufrimenduez inoiz ez da intziri bat ere hedatu jendartera.

Hil hurrenaren eskutitzak

Une horretan, herio ikusezin eta hala ere haren hatsa aditzeko bezain hurbilaren aurrean bakartua, kanpoan urakanak amorru bizian kanpadendako pareta finen kontra jotzen duen bitartean, Scott kapitainak gogora dakartza harremanak ukan dituen pertsona guztiak. Bakarrik, inoiz gizaki batek arnastu isiltasun hormagarrienaren erdian, heroikoki kontziente da beraren eta bere herriaren, gizadi osoaren arteko haurridetasun-loturaz. Basamortu zuri horretan Espirituaren Fata Morgana barneko batek elkarretaritzen ditu noizbait maitazarre, zintasun edo adiskidantzaren bidez berari lotuak izan ziren haien guztien irudiak, eta haiei zuzentzen die hitza. Hatz zurrunduekin Scott kapitainak idazten du, eskutitzak idazten ditu bere hil-orenean, maite dituen denentzat.

Miresteakoak dira eskutitz horiek. Haietan garrantzirik gabeko guztia baztertua da heriotzaren hurbiltasun ahaltsuaren aurrez aurre, iduri-eta bizigabeko zero horren aire kristalkara barruraino sartu dela haietan. Pertsona jakin batzuei zuzenduak badira ere, gizadi osoari mintzo zaizkio. Une jakin batean idatzia, beti-betirako mintzo dira.

Idazten dio bere emazteari. Gomendatzen dio ondarerik garrantzizkoena, beren semearen zaintza; iradokitzen dio begira dezala, guztiz gain, nagikeriatik, eta, munduaren historiari egindako zerbitzu goienetariko baten ondotik, aitortzen du bere buruaz: «Dakizunez, nik neure burua mendea eduki behar izan nuen gizon saiatua izateko; beti nagirako makurtasuna izan nuen». Azken arnasatik arra betera, damu izan ordez, gores ten du bere erabakia: «Zer ez nizuke kontatuko bidaia honetaz. Eta zenbatez hobea izan zen hari ekitea, larregiko erosotasunez etxean eserita geditzea baino!».

Eta, kideasunik leialena erakutsiz, idazten die berarekin heriotza nozitu duten bere oinaze-lagunen emazteari eta amari, haien heroismoaren lekukotza eman beharrez. Bera hil hurren bat izanik, besteen senideak kontsolatzen ditu unearen handia

eta heriotza horren gogoangarria igartzeak ematen dion gizagai-neko indarrarekin.

Eta idazten die lagunei. Bere buruarekiko apal, baina harrotasun arranditsuz nazio osoarekiko, zeinaren seme eta seme duin sentitzen baita une horretan gogo beroz: «Ez dakit esploratzaile ona izan naizen», aitortzen du, «baina gure azken finak lekukotasuna errendatuko du ezen gure arrazatik oraindik desagertu ez direla kemenaren espiritua eta pairamendua jasateko indarra». Eta bizitzan zehar gizon-zurruntasunak, gogo-lotsak esatea galarazi diona, adiskidetasun-aitormen hori orain heriotzak kentzen dio: «Nire bizi guztian ez dut aurkitu beste gizonik», idazten dio bere lagun onenari, «zu bezainbat miretsi eta maite dudanik, nahiz inoiz ez nizun erakutsi ahal izan zure adiskidetasuna zein garrantzitsua zen niretzat, zuk asko zenuen-eta emateko eta nik deus ez».

Eta idazten du azkeneko eskutitz bat, guztietan ederrena, nazio ingelesari. Behartua sentitzen da kontu ematera ezen ingeles loriagatiko borroka horretan bentzutua izan dela bere errurik gabe. Bana-banaka aipatzen ditu kalterako oldartu zaizkion ezbeharrak, eta herioaren oihartzunak berebiziko patetismoa ematen dion ahots batez dei egiten die ingeles guztiei zurtz utziko dituzten sendiak bertan behera ez uzteko eskariaz. Azken pentsamendua are bere patuaz harago doa. Azken hitza ez da bere heriotzaz mintzo, besteren biziak baizik: «Jainkoaren amoreagatik, ardura zaitetzte senideez!». Gainerako orriak hutsik daude.

Muturreko unera arte, hatzak izoztu eta arkatza esku hozmindeduetarik irristatu zitzaion arte, Scott kapitainak oharrak idazten jarraitu zuen. Bere gorpuaren ondoan orri haiek aurkitu eta bere kemenaren eta ingeles arrazarenaren lekukotasuna eman lezaketen itxaropenak indar eman zion halako ahalegin ikaragarria egiteko. Azkenik, bere hatz hotzak hartuek oraindik dardarazi dute nahia: «Bidali egunkari hau nire emazteari!». Baina gero bere eskuak, ziurtasun ankerrez, «nire emazteari» hitza urratu du, eta haren gainean idatzi honako lazgarri hau: «nire alargunari».

Erantzuna

Aste osoak zain egon ziren haien lagunak etxolan. Hasieran uste oneko, gero kezkatuxe, azkenean gero eta ezinegonago. Bi bider espedizioak bidali zituzten laguntzera, baina giroak

atzera zigorkatu zituen. Negu luze guztian gidaririk gabeko gizon horiek etxolan egon ziren zereginik gabe, katastrofearen itzala, beltz, hego-zabalik zebilkiela bihotzean. Hilabete horietan Robert Scott kapitainaren patua eta egitandia hertsirik geratu ziren elurpean eta isilpean. Izotzak zigilua jarrita eduki zituen kristalezko zerraldo batean. Urriaren 29a arte, udaberri polarran, ez zen abiatu espedizio bat, behintzat heroien hilotzak eta euren mezuak aurkitzeko asmoaz. Azaroaren 12an kanpandea aurkitu zuten; bertan gorputz izoztuak lo zakuetan, Scott, herio-unean anaikiro besarka Wilsoni lotua; aurkitu zituzten eskutitzak, dokumentuak, eta zulatu zuten hilobi bat zorigaiztoko heroientzat. Gurutze beltz xume bat elur-mazela baten gainean gailentzen da orain bakar-bakarrik mundu zuri-zuri batean, zeinaren azpian betiko ezkututzen baita gizadiaren ekintza heroiko haren lekukotza.

Bai zera ezkutatu! Haien egitandiei pizkunde bat suertatu zaie, ustekabea eta miragarria. Hau da hau gure aro berriko teknikaren mirari zoragarria! Lagunek ostera etxera dakartzate xaflak eta filmak, irudiak bainu kimiko batean garatu dira, berriro ere ageri da Scott bere bidaideekin bidean aurrera, eta Hegoburuko paisaia, haiez gain beste hark, Amundsenek, baino ez begietsia. Hari elektrikoen bidez haren hitz eta eskutitzen mezuak jauzi egiten du harri eta zur gelditzen den mundura, Erresumako katedralean erregea belauniko jartzen da heroien gorazarretan. Horrela, bada, alferrekoa zirudienak berriro fruitu eman du; huts egina, gizadiari zuzenduriko deiadar burrunbatsua bihurtu da, bere energiak tenka ditzan iritsezina atxiki beharrez. Itzal-argizko joko ezin hobean, heriotza heroiko batetik aurrera, bizia biziagotua jaioberritzen da; gainbeheratik, berriro infiniturantz goratzeko nahimena. Izan ere, handinahia zorizko arrakastaren eta lorpen errazaren aurrean baino ez da gartzen; ezerk ez du, haatik, bihotza goititzen hain modu bikainean nola gizaki baten erorikoak patuaren nagusitasun garaiezinaren aurkako borrokan. Hori da aldi orotako tragediarik handientsuena, noizbehinka poeta batek taxutzea lortzen duena, eta milaka aldiz bizitzak.

13

TREN ZIGILATUA Lenin, 1917ko apirilaren 9a

Zapatariarenean bizi den gizona

Suitza, bakezko leku txikia, alde guztietatik mundu-gerraren marea biziak inguratua, 1915, 1916, 1917 eta 1918 urteotan, etenik gabe, detektibe-eleberri pilpiragarri baten gertalekua da. Luxuzko hoteletan, herrialde boteretsu etsaituen mandatariak, duela urtebete bridge-okoan adiskidetsuki aritzen zirenak eta etxera elkar gonbidatzen zutenak, orain hoztasunez gurutzatzen dira eta egundo elkar ezagutu ez balute bezala. Haien geletatik jirabiraka dabil ezin asmatuzko giza irudien erlauntza oso bat. Ordezkariak, idazkariak, enbaxada-atxikiak, merkatariak, dama estaliak edo estaligabeak, haiek denak isil-gordean mandatu misterioetsuekin. Hotelen aurrean gelditzen dira automobil arranditsuak atzerriko ikurrekin, haietatik jaisten industrialariak, berriemaileak, birtuosoak eta itxuraz ustekabeko bidaiariak. Baina ia denek zeregin bakarra dute: zerbaiten jakitun egin, zerbait ikustatu, eta bai geletaraino laguntzen dien mutila bai haiexek garbitzen dituen neska behatzera akuilatuak dira, zelandan egotera. Nonahi organizazioak elkarren kontra trabailatzen dira, ostatuetan, jatetxeetan, posta-bulegoetan, kafetegietan. Propaganda deitzen zaiona bitik behin espioitza izaten da, amodioaren antza duena, saldukeria; eta kanpotar presati horien guztien ageriko negozio bakoitzak bigarren eta hirugarren bat ezkutatzen du atzealdean. Oro da ofizialki jakinarazia, oro kontrolatua; nolabaiteko maila duen aleman bat Zürich hirian sartu orduko, dagoeneko jakinean da enbaxada aurkaria Bernan, eta ordubete beranduago Paris. Egiazko eta gezurrezko argibidez beteriko txosten osoak bidaltzen dituzte egunez egun agente

txiki eta handiek atxikiei, eta hauek birbidaltzen. Horma guztiak kristalezkoak dira, telefonoak kontrolatuak; paperontzi eta xukapaper-orrietatik edozein korrespondentzia berrosatzen da. Eta azkenean nahas-mahasa hain da zentzugabea, non askok ez baitakite gehiago zer diren, ehiztariak ala ehizatuak, espioiak ala espiatuak, salduak ala saltzaileak.

Gizon bat bakarraz dago argibide gutxi egun haietan. Agian nabarmendu gabe dabilelako eta hotel dotoreetan ostatu hartzen ez duelako, kafetegietan esertzen ez delako, ezta propaganda-aurkezpenetara joaten ere, baizik eta bere emaztearekin bizi da guztiz erretiratua zapata-konpontzaile baten etxean. Limmat atzean bertan ostatatzen da, Spiegelgasse karrika-zulo mehar, zahar, bihurrian, hiri zaharreko teilatu gangadunekiko etxe sendo horietako bateko bigarren solairuan, horma belztuak dituen aldez denboragatik, aldez etxartean dagoen hestebe-te-fabrika txikiagatik. Haren etxelagunak okin baten andrea, italiar bat eta antzezle austriar bat dira. Hari buruz etxepekoek ez dela oso hiztuna, deus gutxi gehiago dakite, errusiarra dela eta bere izena ebakitzen zaila. Duela urte asko bere sorterritik ihesi dabilela eta ez duela ondasun handirik; inongo negozio etekintsutan ere ez omen dago sartuta, hori inork baino hobeto ugazabandreak daki, bikotearen jatordu pasakoak direla eta jan-tzi higatuengatik, beren puska guztiekin ozta betetzen dutenak heltzerakoan ekarri zuten saskia.

Gorpuzkera sendoko gizon txiker hori ahalik gutxien deigarria da, eta bere bizimodua ahalik diskretuena. Jendartea saihesten du, gutxitan topatzen dute auzoek haren begi meharren behako sarkor eta iluna, gutxitan du bisitaririk. Baina jarraituki, egunean-egunean, goizero bederatzia aldean, liburutegira joan eta bertan gelditzen da hamabiak jo arte. Doi hamar minutu hamabiak eta gero etxean da berriro; gero, hamar minutu ordu bata jo aurretik, etxea uzten du, berriro liburutegian lehena izateko, eta bertan arratsaldeko seiak arte egoten da. Baina albiste-agentziek arreta ipintzen ez diotenez asko hitz egiten duen jendeari baino, eta ez dakitenez beti irakurtzen eta ikasten ari diren gizaki bakartiak mundua iraultzeko orduan arrisksuenak direla, inork ez du txosten bat ere idazten nabarmendu gabe zapatariarenean bizi den gizonaz. Elkarte sozialistetan, bestalde, badute berri zehatzik hari buruz, Londresen errusiar emigrazio-

rako aldizkari txiki eta erradikal baten erredaktorea izan dela eta San Petersburgon izen ahoskaezineko alderdi xeble baten lidertzat hartzen dutela; baina nola gogor eta destainaz jarduten duen alderdi sozialistako kide itzaltsuenei buruz eta haien metodoak okertzat jotzen dituen, nola helezin eta orobat elkarrezintzat azaltzen den, ez dira beragatik gehiegi arduratzen. Arrats batzuetan kafe-etxe proletario txiki batean antolatzen dituen batzarretara hamabost edo asko jota hogeit hamar pertsona joaten dira, gazteak gehienak, eta horrela onez eramana suertatzen da morroi bitxi hau, te eta eztabaida askorekin buru-berotzen diren errusiar etorkin guzti haiek bezala. Alta bada, inork ez du gora handikotzat hartzen kopeta estuko gizon txikia, Zürichen hiru bat dozena jende ere ez dute ardurazkotzat jotzen Vladimir Ilitx Ulianov delakoaren izena gogoan hartzea, zapatariarenean bizi den gizonarena. Eta baldin orduan astirik galtzeke enbaxadaz enbaxada ziztuan doazen automobil distiratsu horietako batek azpian harrapatu izan balu gizon hori kalean, bertan hilik utzita, munduak ez zukeen hura ezagutuko, ez Ulianov izenaren pean, ezta Lenin harenean ere.

Ametsen gauzatzea...

Egun batean, 1917ko martxoaren 15ean, Züricheko liburutegiaren arduraduna harriturik geratu da. Orratzek bederatziak markatu dute eta egunero liburu-mailegari guztietan puntualena esertzen den tokia hutsik dago. Bederatzi eta erdiak jo dute, hamarrak; irakurle nekazina ez dator eta ez da berriro etorriko. Izan ere, liburutegirako bidean lagun errusiar bat hurreratu, hobeto esan, oldartu zaio Errusian iraultza piztu delako albistearekin.

Hasieran Leninek ezin du sinetsi. Albisteak durduzatu antzean dago. Baina gero bere urrats xehe eta doiekin arin-arinka jo du aintzira ertzeko kioskora, eta bai bertan nola egunkariaren erredakzio aurrean zain gelditu da ordurik ordu, egunik egun. Egia da. Berria egiazkoa da eta egunetik egunera ederkiro egiazkoagoa bihurtzen da harentzat. Hasieran, jauregi-errebolta baten zurrumurrua baino ez eta, itxuraz, ministro-aldaketa huts bat; gero, tsarraren abdikazioa, behin-behineko gobernu baten ezartzea, Duma, errusiar askatasuna, preso politikoen amnistia. Urtetan amestu duen hura guztia, duela hogeit hamar urte

ezkutuko erakundean, ziegan, Siberian, erbestean landu duen hura guztia, gauzatua izan da. Eta behingoz iruditzen zaio gerra horrek eragin dituen milioika hilak ez direla alferrik hil. Dagoeneko ez zaizkio zentzurik gabeko biktimak iruditzen, baizik orain gailen den askatasunaren, justiziaren eta betiko bakearen erreinu berriaren martiriak. Ameslari hau, ardurenean bare, hotz eta kalkulatzaille, edanda balego bezala sentitzen da. Eta a zer-nolako zirrara sentitzen eta poz-oihuak jaurtitzen dituzten orain beste ehunka emigrantek Geneva, Lausana eta Bernako beren bizitegi txikietan, berri ona entzundakoan: itzul daitezke Errusiara! Alegiazko pasaporte eta izenik gabe itzul daitezke bizia arriskatu gabe, herritar libre gisa, eta ez tsarren koroadun inperiora, herri libre batera baizik. Jada beren puska urriak presatzen dituzte, egunkarietan ageri izan da-eta Gorkiren mezu lakoniko hau: «Itzuli denok etxera!». Alde guztietatik bidaltzen dituzte gutunak eta telegramak: Itzuli, itzuli etxera! Elkar zaitetze! Egizue bat! Orain ostera ere bizia jokatzearren ezagueran sartu zirenetik buru eta bihotz emanak diren egitekoaren alde: errusiar iraultza.

... eta etsia hartzea

Baina egun batzuen buruan nahigabeturik aitortu behar dute ezen errusiar iraultza, zeinen albisteak arrano hegadan bezala jaso dituen haien bihotzak, ez dela amesten zuten iraultza, ezta errusiar iraultza ere. Tsarraren kontrako gorteko mutin bat izan da —diplomazialari ingeles eta frantsesek azpilanean bilbatua, tsarrak Alemaniarekin bakea sina zezala galarazteko—, eta ez bake hori eta bere eskubideak nahi dituen herriaren iraultza. Ez da haren alde bizi izan diren eta hiltzeko prest dauden iraultza, baizik eta gerran dauden alderdien, inperialisten eta beren asmoetarako trabarik nahi ez duten jeneralen azpijoko bat. Lenin eta beretarrek laster antzeman dute denek itzuli behar zutelako promes hark ez duela balio errotiko iraultza marxista benetakoa nahi dutenentzat. Jadanik Miliukov eta beste liberalak arduratu dira haiei itzulera oztopatzen. Eta moderatuak, Plekhanov bezalako sozialistak, gerra luzatzearen alde baliagarriak direnak, Ingalaterrak modurik adeitsuenean torpedo-ontzi eta ohorezko jarraigoarekin San Petersburgoraino lekualdatzen dituen bitartean, Trotski atxilotua da Halifax-en eta beste erradikalak

mugan. Ententearen estatu guztien mugetan badira zerrenda beltzak, Zimmerwald-en III. Internazionalaren Biltzarrean parte hartu zuten haien denen izenekin. Etsi-etsian, Leninek bata bestearen atzetik telegramak bidaltzen ditu San Petersburgora, baina bidean atzemanak edo igorri gabe gelditzen dira; Zürichen ez dakitena, eta ia-ia inork ez Europan, oso ondo dakite Errusian: zein indartsu, zein kementsu, zein saiatua eta zein hiltzeko arriskutsua den bere aurkarientzat Vladimir Ilitx Lenin.

Ahal ezinean, atxiloturik daudenen etsipenak ez du mugarik. Urteak eta urteak dira beren errusiar iraultza estrategikoki proiektatu dutela Buruzagitza Nagusiko ezin konta ahala bilkuratan Londresen, Parisen, Vienan. Ebaluatu eta aurrez probatu eta sakon eztabaidatu dute antolakundearen xehetasun bakoitza. Hamarraldiak zehar, beren aldizkarietan banan-banan zailtasunak, arriskuak, aukerak haztatu dituzte ikuspuntu teoriko eta praktikotik. Bere bizitza osoan gizon honek zehatz-mehatz hausnartu du ideia multzo bat, behin eta berriro haiek orraztuz eta formulazio zorrotzenetara eramanez. Eta orain hemen, Suitzian atxikia dagoenez, beste batzuek, herri-askapenaren ideia sakratua nazio eta interes arrotzen zerbitzura jarri dutenek, haren iraultza urardotu eta alferrik galduko dute. Analogia bitxi batean, egun horietan Leninek bizi du gerraren lehen egunetako Hindenburg-en patu bera, zeinak, berrogei urtez errusiar kanpainarako maniobrak egiten eta tropak trebatzen aritu ondoren, gerra piztu zenean etxean geratu behar izan zuen, zibilez jantzia, mapa batean banderatzuekin jeneral mobilizatuen aitzinatzeak eta hutsegiteak markatzen. Etsipenezko egun haie-tan Lenin ardurenean errealista sendoari ametsik zentzugabe eta fantastikoenak dabilzkio jira eta bira buruan. Ezin ote liteke aireportura joan eta Alemania eta Austria gainean hegaldatu? Baina ja, laguntzeko bere burua eskaintzen duen lehena, espioi gertatu da. Ihes-asmoak gero eta burugabeago eta nahasiagoak dira: Suediara idatzi du pasaporte suediar bat eskura diezaioten, bere burua mututzat saldu nahian, inolako argibiderik eman behar ez izateko. Zer esanik ez, biharamunean, sukar-ametsezko gau horien guztien ondoren, Leninek beti ezin-burutuzko eldarnioak direla aitortzen dio bere buruari, baina hau ere egun-argiz badaki: Errusiara itzuli behar du, bere iraultza egin behar du, ez

besteena; bidezkoa eta egiazkoa, ez politikariena. Errusiara itzuli behar du, azkar, gero. Itzuli, kosta ahala kosta!

Alemanian barrena: bai ala ez?

Suitza dago Italia, Frantzia, Alemania eta Austria artean estutua. Iraultzaile gisa, Leninek itxita dauka bidea herrialde aliatuetan zehar; Errusiako herritar gisa, hots, botere etsai baten kide gisa, Alemanian eta Austrian zehar. Baina konjuntzio absurdo bat suertatu da: Leninek erraztasun gehiago itxarotea dauka Gilen II.a Alemaniako kaiserraren aldetik Miliukov errusiarraren edo Poincaré frantsesarenetik baino. Estatu Batuen gerra-deklarazioaren bezperan, Alemaniak bakea behar du Errusiarekin zernahi kosta. Hortaz, han Ingalaterrako eta Frantziako ordezkarietara zailtasunak sortuko dizkien iraultzaile bat ezin da kaiserrarentzat izan kolaboratzaile ongi etorri bat baino.

Baina halako urrats batek erantzukizun itzela dakarkio: berehalakoan negoziazioak abiaraztea Alemania inperialarekin, zeina ehunka aldiz iraindu eta mehatxatu baitu bere idazkietan. Zeren gaurdaino, gerraren erdian eta Buruzagitza etsaiaren baiespenaren pean herrialde aurkari batean oina ipintzea eta gurutzatzea, ikuspuntu moraletik, esan gabe doa, goi-saldukeria baita, eta Leninek inolako zalantzarik gabe jakin behar du ezen horrekin aurrena bere alderdia eta bere kausa konprometitzen dituela, susmagarria izango dela, gobernu alemanaren agente kontratatu eta ordaindu gisa Errusiara bidalia izango dela eta, berehalako bakearen bere programa gauzatu ahal izanez gero, Historiak betiko egotziko diola Errusiaren benetako bakea, garai-penarena, erdiesteko bidea eragotzi izanaren errua. Esan beharrik ez, iraultzaile moderatuenak ez ezik, Leninen irizkide gehienak ere izuak hartu ditu, jakitera eman duenean beharrezkoa bada bide horretaz ere, guztietan arriskutsuena eta konprometituen, baliatzeko prest dagoela. Zurturik errepikatzen dute jada aspaldi sozialdemokrata suitzarren bidez negoziazioak abiarazi direla iraultzaile errusiarren aberriratzea preso-trukearen bide legezko eta neutrala erabiliz bideratzeko. Baina Leninek aurreikusten du bide horren berankorra, gobernu errusiarrek zein amarru eta gibel-asmoz atzeratuko duen haien itzulera infinituraino, noiz ere berak bai baitaki egun bakoitza eta oren bakoitza erabakigarria dela. Helburua baino ez du ikusten; bitartean beste batzuk, gu-

txiagi ziniko eta gutxiagi oldarkor, ez dira ausartzen indarrean dauden lege eta ikuskera guztien arabera saldukeriazko ekintza batean nahastera. Baina Lenin barne-barnean erabakia dago eta, bere gain erantzukizuna hartuta, negoziazioak hasi ditu pertsonalki gobernu alemanarekin.

Ituna

Bere aurrerapauso txundigarri eta probokatzailearen jakitun delako, hain zuzen, Leninek ahalik eta irekienik jokatu du. Beraren eskariz, Fritz Platten sindikatu suitzarraren idazkaria aurkeztu da mandatarari diplomatiko alemanaren aurrean, zeinak jada lehenago negoziatu baitu oro har errusiar emigranteekin, eta Leninen baldintzak azaldu dizkio. Izan ere, iheslari txiki ezezagun horrek, bere geroako aginpidea igarri ahal balu bezala, gobernu alemanari inola ere ez dio eskaera bat egin, baizik eta aurkeztu dio zein baldintza pean bidaiariak prest egongo lirartekeen gobernu alemanaren keinu adeitsua onartzera: ibilgailuari aitor dakiola estraterritorialitate-eskubidea; sarreran nahiz irteeran ezin egingo dela pasaporte edo pertsonen kontrolik; bidaiak beraiek ordainduko dituztela ohiko tarifen arabera; eta ibilgailuaren uztea ezin aginduko da, ezta norbere kabuz izanda ere. Romberg ministroak helarazitako berri horiek iritsi dira Ludendorff-en eskuetara, eta zalantza izpirik gabe babes-tu ditu, nahiz bere oroitzapen-liburuan ez agertu hitz bakar bat ere erabaki historiko horri buruz, agian bere bizitzako garrantzitsuena. Xehetasun batzuetan mandataria saiatu da zenbait aldaketa lortzen, Leninek protokoloa idatzi duelako berariaz hain modu anbiguoan, non trenean errusiarrek ez ezik, Radek bezalako austriar batek ere bidaia lezakeen kontrolgabe. Baina gobernu alemana ere Lenin bezain presatua dabil, zeren egun horretantxe, apirilaren 5ean, Estatu Batuek gerra deklaratu baitiote Alemaniari.

Eta horrela, apirilaren 6ko eguerdian, Fritz Plattenek honako erantzun gogoangarri hau jaso du: «Kontu nahi bezala ordenatua». 1917ko apirilaren 9an, ordu bi eta erdietan, Zähringerhof jatetxetik gaizki jantzitako eta maletaz zamaturiko jende oste txiki bat abian da Züricheko geltokira. Guztira hogeita hamabi dira, emakumeak eta haurrak barne. Gizonetarik ezagun egin diren izen bakarrak Lenin, Zinoviev eta Radek dira. Denok

elkarrekin bazkari-legea egin dute. Eta elkarrekin sinatu dute agiri bat, non baieztatzen duten *Petit Parisieneko* adierazpena ezagutzeko, zeinaren arabera behin-behineko errusiar gobernua asmoa baitu Alemanian zehar bidaiatzen dutenak goi-traidoretzat tratatzeko. Letra baldar eta jas gutxikoaz izenpetu dute bidaia horretarako erantzukizuna beraien gain hartzen dutela eta baldintzak ontzat eman dituztela. Isil eta erabakiak, bidaia historikorako prestatu dira.

Haien geltokiratzeak ozta sortu du ikusmirarik. Ez da berriemailerik ez argazkilaririk ageri izan. Suitzan, bada, nork ezagutzen du Ulianov delako hori, kapela zapaldua, beroki saretu bat eta mendiko bota astun eta irrigarriak —badaramatza Suediaraino— jantzita, han kutxa eta saskiz zamatuta gizon eta emakume oste baten erdian, isilik eta inoren begia jo gabe, eserleku bat bilatzen duena trenean? Jende horiek eta Jugoslaviatik, Ruteniatik edo Errumaniatik datozen emigrante zenbatezinak, hemen Zürichen euren zurezko kutxen gainean eseri ohi direnak ordu pare batez atsedean hartzeko, itsasbater frantsesera eta handik itsasoaz haraindiko bidetara jarraituz behartuak izan baino lehen, ez dira oso desberdinak. Langileen Alderdi suitzarra, jende horien irteerari gaitz irizten baitio, ez du ordezkari bat ere bidali; errusiar batzuk baino ez dira etorri, janari zenbait eta goraintziak aberrira eramanez ditzaten; banaka batzuk ere, azkeneko unean, Lenini «bidaia burugabe eta kriminala» ez egitera etsiarazteko. Baina erabakia hartua dago. Hirurak eta hamarrean ikuskatzaileak seinalea eman du. Eta trena abian jarri da Gottmadingen aldera, mugalderako geltoki alemanera. Hirurak eta hamar, eta oren horrez geroztik munduko erlojuak beste erritmo batean jotzen du ordua.

Tren zigilatua

Mundu-gerran milioika balak erdietsi zuten jomuga. Jaurtigairik bortitzenak, potenteenak, helmen handienekoak asmatu zituzten ingeniariak. Baina ezeinek ez zuen helmen handiagorik izan, ezein ez zen patuaren erabakitzaileagorik izan berrikitan-go historian, Suitzako mugatik datorren tren hori baino, zeinak, mendeko iraultzailerik arriskutsuen eta deliberatuenez kargaturik, txistuka zeharkatu baitu Alemania osoa, San Petersburgora heltzeko eta han garaiko ordena zartarazteko.

Jaurtigai paregabe hori Gottmadingenen dago errailen gainean, bigarren eta hirugarren mailako kotxe bat; bigarrenean leku hartzen dute emakume eta haurrek, eta hirugarrean gizonak. Zoruan kleraz egindako marra batek errusiar agindupeko eremu neutrala markatzen du, eta aurrez aurre dago bi ofizial alemanen konpartimendua, ekrasita biziko garraio horri lagun egiten diotenak. Trenak aurrera egin du gauean gorabeherarik gabe. Frankfurten soilik ezustean oldartu zaizkio errusiar iraultzaileen igarotzearen aditzea izan duten soldadu aleman batzuk, eta beste batean zapuztua geratu da bidaiariekin hitz egiteko sozialdemokrata alemanen saio bat. Leninek ondo daki zer-nolako susmoak eragingo dituen, lur alemanean bertako batekin trukatzeko badu hitz erdi bat ere. Suedian hotsandiko ongietorria ematen diete. Gosez hamikatuak, suediarrek prestatu dieten gosari-mahaia akometatzen dute, eta haien smörgåsa sinestezi-neko miraria iruditzen zaie. Eta orain Leninek utzi behar die bere bota astunen orde z zapata berriak eros diezazkioten eta pare bat janzki. Azkenik heldu dira errusiar mugara.

Jaurtigaiak ituan jotzen du

Leninen lehenbiziko keinua errusiar lurrean bere gisakoa da: ez ditu gizabanakoak ikusten, baizik ezer baino lehen oldarrean jotzen du egunkarietara. Hamalau urtean ez ditu Errusian oinak ipini, ez du bertako lurra ikusi, ez bandera, ezta soldaduen uniformeak ere. Baina, besteei ez bezala, borondate sendoko ideologo honi ez zaizkio begiak betetzen, ez ditu besarkatzen, emakumeek bezala, ustekabeen harrapatutako soldaduak. Egunkaria, aurrena egunkaria, *Pravda*, begiratzeko ea berripapera, bere papera, tankera nahiko doian egokitzen ote zaion nazioarteko iritzitari. Hesteak jaten zimurtzen du egunkaria. Ez, nahikorik ez, oraindik abertzalekeria gehiegi dago, patriotismo gehiegi. Oraindik ez dago, bere ikusgunetik, iraultza huts nahikorik. Garai onean etorri dela sentitzen du, norakoa aldatzeko eta bere bizitzaren ideia aitzinarazteko, irabazi ala hiltzeko. Baina une egokia ote da? Hondarreko kezka, hondarreko beldurra. Miliukovek ez al du berehala Petrogradon —horrela deitzen da hiria oraindik, baina ez luzaroko— bera itxian sarraraziko? Trenean berarekin bidaiatu duten lagunek, Kamenev eta Stalin, irri zuri misterioitsu bat erakusten dute kandela-mutur batek argituriko

hirugarren mailako konpartimendu ilunean. Ez dute erantzuten, edo ez dute erantzun nahi.

Baina errealitateak orduan eman dion erantzunak ez du aurrekaririk. Trena finlandiar geltokian sartzen denean, aurreko enparantza zabal-zabalean langileak daude milaka eta milaka, baita armada-gorputz guztietako ohorezko guardiak ere, erbes-tetik datorrenaren zain. *Internazionala* jo dute. Eta Vladimir Iliix Ulianov, artean herenegun zapata-konpontzailearen etxean bizi zen gizona agertzerakoan, ehunka eskuk heldu diote eta tanke baten gainera igoarazi dute. Etxeetatik eta gotorlekutik argi-proiektoreek bera fokuratu dute, zeinak orga blindatutik bere lehen hitzaldia egin baitio herriari. Dardarak kaleak hartu ditu, eta laster hasi dira «mundua astindu zuten hamar egunak». Jaur-tigaiak inperio bat, mundu bat jo eta suntsitu du.

14

WILSONEN PORROTA 1919ko apirilaren 15a

1918ko abenduaren 13an, *George Washington* baporetzarrak europar itsasertzerako norabidea hartu du, Woodrow Wilson presidentea ontzian doala. Mundua mundu denetik sekula ere ez da egon hainbeste milioi pertsona itsasontzi bakar baten, gizon bakar baten zain hainbesteko itxaropen eta konfiantzaz. Lau urtean europar nazioek elkarri suntsipena eragin diote; metrailadore eta kanoiekin, gar-jaurtigailu eta gas pozoitsuekin elkarren kontra erail dituzte beren gazte hoberenen arteko ehunka mila, adinaren lorean. Lau urtean gorrotoz eta asmo gaiztoz beteriko hitzak besterik ez diote elkarri esan eta idatzi. Baina sumindura latz horrek guztiak ezin izan zuen isilarazi barneko ahots bat, ezen egiten zutena, esaten zutena, zentzugabeaz gain desohore bat zela gure menderako. Milioika gizaki horiek, ohartuki edo oharkabean, sentipen iluna zuten, ea gizateriak ez ote zuen atzera egin izan aspaldi ahaztutzat zeuzkaten barbaroen aro nahasietara.

Orduan, munduaren beste muturretik, Amerikatik, iritsi izana zen ahots hori, garbi eta guda-leku oraindik ke-jarioen gainetik galdatu izan zuena: «Gerrarik sekula gehiago ez». Etsaigoa sekula gehiago ez. Ezkutuko diplomazia zahar kriminala —herriak, berek jakin eta nahi gabe, hiltegiara bultzatu zituen— sekula gehiago ez, mundu-ordena berri eta hobe bat baizik, «the reign of law, based upon the consent of the governed and sustained by the organised opinion of mankind» [legearen nagusigoa, gobernatuen baietzean oinarritua eta gizadiaren oniritzi antolatua bermatua]. Eta mirarizkoa da, laterri eta hizkuntza guztietan, berehala ulertua izan da ahots hori. Gerrak, atzo

oraino ika-mika zentzugabe bat eskualde eta muga batzuen inguruan, lehengai, meatoki edota petrolio-eremuen inguruan, bat-batean esangura jasoago bat hartu du, ia erlijiozko esangura bat: betiereko bakea, zuzenbidearen eta humanitatearen erreinu mesianikoa. Behingoan ematen du milioika pertsonaren odola ez dela alferrik isuria izan; belaunaldi horrek pairatu egin du soil-soilik, gure Lurrean sekula berriro gerta ez dadin halako pairamenik. Ehunka mila, milioika ahotsek, konfiantzaren eldarnioak atziturik, dei egiten diote gizon horri; hark, Wilson, bakea ezarri behar du garaile eta garaituen artean, bidezko bake bat izan dadin. Hark, Wilson, Moises berri baten antzera, itun berri baten harlauzak ekarri behar dizkie bidea galdutako herriei. Aste gutxitan, Woodrow Wilsonen izenak ahalmen erlijiozko, mesianiko bat erdiesten du. Haren izena kaleei eta eraikinei ipintzen zaie, baita ume askori ere. Esturan dagoen edo kalte-tua sentitzen den edozein herrik ordezkariak bidaltzen dizkio; bost kontinenteetarik iritsitako gutunak, telegramak proposamenekin, eskaerekin, erreguekin, milaka pilatzen dira, horiekin beteriko hainbat eta hainbat kutxa daramatza Europarako bidetan doan itsasontziak. Kontinente oso batek, Lur osoak, hots bakarrez eskatzen dio gizon honi haien arteko azkeneko gerra itsuaren epailetzat joka dezala amesturiko adiskidetzeari, behin betiko adiskidetzeari baino lehen.

Eta Wilsonen ezin dio uko egin deiari. Bere lagunek Amerikan aholkatzen diote bake-konferentziara berak berez ez bidaiatzeko. Estatu Batuetako presidente gisa, bere herrialdea ez uzteko eginbeharra du, eta ahal izanez gero negoziazioak urrutitik zuzentzeko. Baina Woodrow Wilson ezerk ez du kontentziturik. Bere herrialdeko dignitateari gorenari ere, Estatu Batuetako presidentetzari, gutxi irizten dio arrenka eskatzen zaion egitekoarekin alderatuta. Ez dio zerbitzu egin nahi herrialde bati, ez kontinente bati, gizadi osoari baizik; ez une horri, etorkizun hobeari baizik. Ez ditu berekoi Amerikaren interesak ordezkatu nahi, denon onura baizik, zeren «interest does not bind men together, interest separates men» [interesak ez baititu gizakiak batzen, interesak gizakiak bereizten ditu]. Berak ere, horrela senti du, erne egon behar du, militarrek eta diplomazialariak, zeinen lanbide galgarrirako hil-kanpaiaren hotsa ekarriko bailuke gizadiaren batasunak, egin ez daitezkeen grina nazionalen

jabe. Berau bermatzaile bihurtu beharrean dago, «the will of the people rather than of their leaders» [herriaren borondatea haren liderrena baino lehenago] nagusi izan dadin. Eta bakerako batzar horretan, azkenekoa, behin betikoa gizadiarentzat, hitz bakoitza ateak eta leihoak zabalik adierazi beharko da, mundu osoaren aurrean.

Eta han dago bera, ontzian; begietara du Europako itsasertza, ezegonkor eta malkar, bere herriarteko geroko senidetasunaren ametsa bezala, laino artetik altxatzen ari. Zutik dago, gizon segail bat, begitarte beti batekoa. Betaurrekoen atzean, begirada sarkor eta barea du. Kokots irtena du amerikar kementsu peto baten idurira, nahiz ezpain haragitsuak itxita dauzkan. Artzain presbiterianoen seme eta biloba izanda, badu gizon horien gogortasuna eta zurruntasuna, gauza jakin eta ziurtzat baitaukate egia bat eta bakarra dagoela eta beraiek egia hori ezagutzen dutela. Odolean darama bere eskoziar eta irlandar arbaso jainkozale guztien jaidura eta kalbindar fedearen karra, zeinak gidari eta maisu denari ezartzen baitio gizajende bekataria salbatzeko eginbearra. Hauskaitz, beragan eragina du heretiko eta martirien setak, zeinaren arauz nahiago baitzuten beren sinesteengatik erreak izan, Bibliatik den gutxiena aldendu baino. Harentzat, demokrata, ikasia, honako hitz hauek, *gizalegea, gizatasuna, askatasuna, bakea, giza eskubideak*, ez dira berba hotzak, haren gurasoentzat *gospel* zena baizik. Harentzat ez dira adigai ideologiko lausoak, fedeko artikuluak adierazten dituzte, eta silabaz silaba defendatzeko erabakia dago, bere arbasoek ebanjelioa bezala. Esku hartu du borroka askotan; hau baina, eta berak sumatzen du gero eta argiago ageri zaion europar kontinentea begiztatu ahala, erabakigarria izango da. Giharrak nahi gabe tenkatzen zaizkio, «to fight for the new order, agreeably if we can, disagreeably if we must» [ordena berriaren alde borrokatzeko, onez ahal badugu, gaitzez behar badugu].

Baina laster laxatu zaio urrutira zuzenduriko begiradaren gogorra. Brest-eko portuan ongietorria ematen dioten kanoiek, banderek, aurrez prestatu bezala baino ez dute ohotratzen errepublika aliatuaren presidentea, baina itsas hegitik harenganatzen zaion harrabotsa ez da, argi dago, harrera prestatu, antolatu bat, ez da aldez aurretik gertatu pozaldi bat, herri oso baten bihotz beroaldia baizik. Jarraigoa doan tokitik doala,

herri edo herrixka bakoitzean, etxe bakoitzean, inarosten dira banderak, itxaropenaren sugarra. Harenganaino luzatzen dira eskuak, haren inguruan orro egiten dute ahotsek, eta Parisen, Eliseo Zelaietako ibilaldia egiterakoan, iduriz bizia hartzen duten paretetarik zurrustan barreiatzen da bozkarioa. Parisko herriak, Frantziako herriak, Europako antzinako herri guztien sinbolotzat, oihu egiten du pozaren pozez, haren bidera irteten ikusminez beterik. Bere aurpegiera gero eta lasaituago dago. Irri-barre zabal, zoriontsu, ia hordigarri batek agerian jartzen dizkio hortzak, eta berak kapela astintzen du ezker aldera, gero eskuin aldera, den-denak agurtu nahi balitu bezala, mundu osoa. Bai, aukera ona egin du bera berez etorrira, borondate eraginkor bat baino ez da gailentzen ahal lege zurrunaren gaintetik. Ez al da posible, ez al da eginbehar bat honelako hiri zoriontsuak, honelako gizadi itxaropentsu bat, betiko eta gizaki guztientzat sorraraztea? Gau bat besterik ez lasaitu eta atseden hartzeko, eta gero, bihar bertan, ekin lanari, munduari duela milaka urtez geroztik amestu duen bakea emateko, eta harekin burutu gizaki batek sekula egin gabeko egitekorik handiena.

Gobernu frantsesak esleitu dion jauregiaren aitzinean, Atzerri Arazoetako ministerioaren korridoreetan, ordezkari amerikarren kartier nagusia den Hôtel de Crillon parean, urdu-ri pilatuak dira kazetariak, bere-berez estatu-armada bat. Ipar Amerikatik bakarrik ehun eta berrogeita hamar etorri dira. Herrialde bakoitzak, hiri bakoitzak bere berriemaileak bidali ditu, eta haiek denak sarrera-txartel eske ari dira bilera guztietarako. Guztietarako! Espresuki gardentasun osoa promestu zaiolako munduari, «complete publicity». Oraingoan ez da izan behar inolako bilera edo hitzarmen ezkuturik. Hitzez hitz, hamalagarren puntuko lehen lerroaldeak hau dio: «Open covenants of Peace, openly arrived at, after wich there shall be no private international understandings of any kind» [Bake-hitzarmen irekiak, modu irekian jadetsiak, ondoren inolako nazioarteko akordio ezkuturik izango ez dutenak]. Ezkutuko diplomaziaren izurritea, beste izurrite guztiek baino hildako gehiago eragin duena, behin betiko ezabatu behar da negoziazio irekiaren serum berriaren bidez, Wilsonen *open diplomacy* [ageriko diplomazia].

Haien etsigarri, ordea, kazetari oldartsuek desenkusa nahasgarriak topatu dituzte. Ziur da osoko bilkuretan denei sar-

tzen utziko dietela, eta bilera horien protokoloak —egiaz, alkimia baten emaitza, edozein tirabira orrazteko— osoki helaraziko zaizkiola mundu guztiari, baina behingoz ezin diete inongo argibiderik eman, lehenik eta behin *modus procedendia*, negoziazioen ordena, erabaki behar dutelako. Berehala usnatzen dute zerbait adostutakoaren urragarri ari dela gertatzen, zer azpilanetan ari diren ez badakite ere. Jada lau handien, *big four* direlakoan lehenengo eztabaidan Wilsonek aliatuen erresistentzia antzematen du: ez dute nahi gardentasunik, eta arrazoiz. Gerran zeuden nazio guztien mapa eta artxiboetan gelditzen dira diplomazia sekretuak bakoitzari bere zatia eta bere harrapakina bermatu izan diolako lekukotasunak, trapu lohi horiek, batek *in camera caritatis*, etxekoen artean, baino airatu nahiko ez lituzkeenak. Horregatik, bake-konferentzia hasiera-hasieratik ez konprometitzeko, lehenik atea itxita eztabaidatu eta argitu behar dira zenbait kontu. Baina *modus procedendi* dagokionean ez ezik, maila sakonago batean ere ez dago adostasunik. Funtsean, egoera arras argi dago bi taldeetan, amerikarra eta europarra, jarrera argia eskuin aldean, jarrera argia ezker aldean. Konferentzia honetan ez da bakea sinatu behar, bi bake baizik, bi itun guztiz ezberdin. Haie-tako bat, denborazkoa, une-unekoa, amaiera eman behar diona armak utzi dituen Alemania garaituarekiko gerrari. Bestea, etorkizuneko bakea, gerra betiko ezinezko bihurtu behar duena. Alde batetik, bakea antzinako era hertsian; bestetik, bake berria, Wilsonen *Covenant* delakoa, ituna, Nazioen Liga sortu nahi duena. Bietatik zein negoziatu behar da aurrenik?

Hemen ikusmoldeek, batak eta besteak, talka egiten dute gogorki. Wilson denborazko bakeaz ez da gehiegi arduratzen. Mugak zehaztea, gerrako kalteen ordaintzea, erreparazioak, haren ikuspegitik, adituek eta komisioek aztertuak izan behar dira, hamalau puntuetan finkaturiko hastapenak oinarri hartuta. Lan txikiago bat da, osagarria, espezialistentzako lana. Nazio guztietako lehen mailako estatu-politikarien misioa, ordea, da eta izan behar du berria finkatzea, etortzekoa dena, nazioen batasuna, betiereko bakea. Talde bakoitzak bere ikusmoldea du lehentasun. Europar aliatuek galdegiten dute, arrazoiz, lau gerra-urte osteko mundu ahitu eta eragabe bati ez litzaiokeela hilabetetan itxaronarazi behar bakea lortzeko, bestela kaosak eztanda egingo luke European. Lehenbizi kontu praktikoak ordenatu behar

dira, mugak, kalte-ordainak, oraindik ere armatuak dauden gizonak atzera etxera bidali beren emazteki eta seme-alabengana, monetak egonkortu, merkataritza eta zirkulazioa suspertu, eta orduz gero soilik, zoru sendo baten gainean, utzi dirdira egin dezan Wilsonen egitasmoen Fata Morganak. Eta hala nola berari barru-barruan ez baitio interesa sortzen une-uneko bakeak, halaber Clémenceau, Lloyd George edo Sonnino, aditu taktiko eta praktikoak, nahiko ezaxola ageri dira haren aldarrikapenen aurrean. Kalkulu politikoa edo aldez ere egiazko sinpatia dela bide, txalo egin diete haren aldarri eta ideia humanitarioei, ohar-tuki edo oharkabean antzematen dutelako printzipio ez-egoista batek beren herrien gainean eduki lezakeen indar eutsiezin eta gezurtaezina. Hargatik prest daude haren egitasmoa eztabaidatzeko, zenbait murrizte eta laburtze eginez. Baina aurrena, bakea Alemaniarekin gerrari amaiera emateko. Gero, *Covenant* delakoa.

Wilson, bere aldetik, aski praktikoak da jakiteko nola hil edo biziko erreklamazio bat luzamenduak direla-eta ahitzen eta odolusten ahal den. Ongi daki berak nola geroko gerotan ibiliz gero bazterten diren interpelazio gogaikarriak: ez da Estatu Batuetako presidente izatera iristen idealismoari esker soilki. Horregatik, makurgaitz, aurrenik *Covenanta* idatzi behar delako tesiari eusten dio eta are exijitzen du hura berariaz sartua izan dadila Alemaniarekiko bake-hitzarmenean. Aldarri horretatik aurrera bigarren gatazka bat kristaltzen da organikoki. Izan ere, aliatuentzat printzipio horiek ezartzeak dakar Alemania errudunari —zeinak Belgikaren inbasioarekin jendarteko zuzenbidea basaki urratu eta Hoffmann jeneralaren kolpearekin Brest-Litovsk-en eman baitu bortxazko nagusikeria baten adibiderik okerrena— aldez aurretik eskaintzea geroko printzipio humanitarioen sari merezigabea. Lehenbizi, zorren kitapena erreklamatzan dute moneta zahar zurrunean, eta gero, ez lehena, metodo berrien ezarpena. Artean lursailak errausturik daude eta hiri osoak suntsiturik; Wilson hunkitzeko, berak berez haiek ikuskatzera behartu dute. Baina gizon ez sobera praktiko horrek, *impracticable man* delakoak, ezagueradun, hondakinez harago ikusten du. Ez dio etorkizunari baizik begiratzen, eta eraikin suntsituen ordeztu eraikitze amaigabea ikusten du. Betekizun bat bakarra du, «to do away with an old order and establish a new one» [ordena zaharra ezeztatu eta berri bat ezartzea].

Asaldagaitz eta zurrun, bere aholkularien, Lansing eta House, protesten despit, irmo eusten dio bere aldarrikapenari. Lehenbizi *Covenanta*. Aurrena gizateria osoari dagokion gaia, eta gero, ez lehenago, herrialde bakoitzaren interesak.

Borroka amorratua izango da eta, atarramentuaren kaltetan, alferrik galduko da denbora asko. Woodrow Wilsoni, zoritxarrez, ahaztu zaio bere ametsari ezaugarri ongi zehaztuak ematea. Berarekin dakarren *Covenant* egitasmoa ez da inola ere behin betiko formulatu, lehen idatzaldi bat baizik ez da, *first draft* bat, eztabaidatu, hobetu, indartu edo murriztu behar dena ezin konta ahala bileratan. Gainera, adei-legeek behartuta dago Parisera eta gero bere aliatuen gainerako hiriburuetara ere bisita egitera. Wilsonek, beraz, bidaiatu du Londresera, hitzaldi bat eman du Manchesterren, bidaiatu ere Erromara, eta, bera bertan ez dagoenean gainerako estatuburuek haren proiektua benetan gogo beroz aurrera ez daramatenez gero, hilabete oso bat baino gehiago galdu da lehen osoko bilkura heldu baino lehen, eta hilabete horretan bitartean Hungarian, Errumanian, Polonian, Baltikoan eta Dalmaziako mugan tropa erregularrak eta boluntarioenak borrokan ari dira herrialdeak okupatzen, Vienan gosea handituz doan artean, eta Errusian egoera larrituz.

Baina are urtarrilaren 18ko lehen osoko bilkura horretan ere teorikoki baino ez da xedatzen *Covenantak* «integral part of the general treaty of peace» [bake-itun orokorraren oinarriko zati bat] izan behar duela. Beste behin ere dokumentua ez da idazten, beste behin ere eskutik eskura dabil, eztabaida bukaezinak eta hurrenez hurrengo idatzaldiak eragiten. Berrito hilabete bat igarotzen da, eta bitarte horretan Europak, gero eta berantetsiago dagoena egiazko, egitatezko bake baten irrikan, jarraitzen du egonezinik izugarrienean murgilduta. Azkenik, 1919ko otsailaren 14an, hiru hilabete armistizioaren ondoren, Wilsonek aurkezten ahal du *Covenanta* behin betiko forman, aho batez onartua ere izan den horretantxe.

Ostera ere bozkariotan da mundua. Wilsonen kausak irabazi du: etorkizunean bakea ez da armen indarrak edo terroreak bermatua izan beharko, akordioaren eta zuzenbide garaia batekiko fedearen bidez baizik. Suharki aklamaturia da Wilson jauregia uzterakoan. Berriz ere, azkenengoz, harrotasunezko irribarre batekin, zorionaren esker oneko irribarrea, behatzen dio

bere inguruan elkarren gainka metatzen den jendetzari, eta herri horren atzean beste herriak hautematen ditu; hainbeste sufritu duen belaunaldi horren atzean gerokoak hautematen ditu, ba-kea behin betiko finkatzeko bere temari eskerrak, inoiz gehiago ezagutuko ez dutenak autoritarismoaren, gerraren zigorra, ezta bortxaz ezarritako bake baten apalkuntza. Bere inoizko egunik handiena da eta orobat bere azkeneko egun zoriontsua, zeren Wilsonek alferrik galdu baitzuen bere garaipena, gudu-zelaia triunfoan eta garaia baino lehenago utzita. Hurrengo egunean, otsailaren 15ean, atzera doa Amerikara, han bere hautesle eta aberkideei betiereko bakearen Magna Carta aurkezteko. Gero itzuli beharko du beste bakea, azkeneko gerrarena, sinatzera.

Berriro agur moduan burrunba egin dute kanoiek, Brestetik *George Washington*a itsasoratu denean, baina han pilaturiko jendetza jada laxoago eta hotzepelago ageri da. Wilsonek Europa uzterakoan, herrien itxaro kartsuak, iguriki mesianikoak dagoeneko amore eman du hein batean. New Yorken ere harrera hotzagoa du zain. Ez dago hegazkinik etxera itzulera datorren itsasontziaren inguruan hegaldaka, ez da poz-oihu sutsurik entzuten, eta ministerioek berek, Senatuak, Kongresuak, alderdiak berak, herriak berak ematen dioten ongietorria errezelozkoa da gutxi-asko. Europa deskontent da Wilson aski urruti joan ez delako; Amerika ere bai, ez ote den urrunegi joan. Europa ez bide dago nahiko heldua elkarren kontrako interesak giza-diarekiko interes komun bakar bati lotzeko moduan. Amerikan haren aurkari politikoez, jada hurrengo hauteskunde presidentzialetan begiak jarrita, kanpaina egiten dute hari leporatuz kontinente berria europarrarekin, gorabeheratsua eta ezin iragarrizkoa, politikoki batu izana estuegi eta baimenik gabe, eta horrekin politika nazionalaren oinarritzko printzipioa, Monroe doktrina, hautsi izana. Aholkatzen diote ez ahaztera bera ez dela etorkizuneko erreinu alegiazko baten sortzailea eta ez duela atzerriko nazioentzat pentsatu behar, lehenik amerikarengan baizik, haiek baitira beren nahiz bera ordezkartzat hautatu dutenak. Beraz, Wilsonek, oraindik europar negoziazioek akiturik, eztabaida berriak hasi ditu bai bere alderdikideekin nola bere aurkari politikoekin. Eta ezer baino lehen, *Covenant*aren eraikin arranditsuan, bere ustez hautsezina eta garaiezina, atzeko ate bat itxi behar du, «provision for withdrawal of America from the

League» [Amerika itunetik erretiratzeko klausula] arriskutsua. Horrekin kendu egin da Nazioen Ligaren, betikotasun guztirako diseinatu eraikinaren, lehen harria. Ireki egin da lehen arrakala murruan, arteka galgarri bat, haren behin betiko behera jotzea eragingo duena.

Europar bezala, Wilsonek orain Amerikan ere bere gizeriaren Magna Carta berria ezarri duenean murrizketa eta zuzenketekin izan arren, erdizkako garaipen bat baino ez da. Bere misioaren bigarren zatia betetze aldera, Europara itzultzen da Wilson, ez handik irten zenean bezain aske, ezta bere buruaz seguru ere. Berriro itsasontziak Bresterako norabidea hartzen du. Oraingoan ez du itsasertza bistatzen poz eta itxaropenezko begirada berdinarekin. Zahartuago eta nekatuago dago, aste gutxi horietan desengainuak uzkurto diolako aurpegia, ageriki lehorrago eta zakarragoa; ahoaren inguruan hasi zaio keinu hisiatuki gogor bat azaleratzen, noizik behin dardara txiki bat dabilkio ezkerreko masailean, gainean duen eritasunaren zantzuz. Bidaide duen sendagileak ez du aukera galtzen hari bere burua zaindu behar duela gogoratzeko. Zain dauka borroka berri, agian gogorrago bat. Badaki printzipioak ezartzea formulatzea baino zailagoa dela, halere deliberatua dago bere programaren puntu bakar bati ere uko ez egiteko. Dena ala ezer ez. Betiereko bakea ala bat ere ez.

Inolako poz-erakutsirik ez, lur hartzerakoan, ezta Pariseko kaleetan ere. Egunkariak aiduru, hotz; jendea zuhur eta fidagaitz. Berriz ere Goetheren hitzak errealitate bihurtuak: «Gogoberotasuna ez da urte luzetan gatzunetan iraunaraz daitekeen gai bat». Orena aldekoa den bitartean baliatu beharrean, burdina oraino gori, bigun eta lantzen erraza dagoenean bere nahiz ingudean jo beharrean, Wilsonek Europaren prestasun idealista izoztera utzi du. Bera kanpoan egon bitarteko hilabeteak oro aldatu du. Bera bezala aldi berean, Lloyd George konferentzia utzirik oporrean egon da. Clémenceau, atentatu batean balaz zauritua, bi astez jardunik gabe geratu da. Eta arta gabeko tarte hori baliatu dute interes pribatuak ordezkatzeko dituztenek batzordeen bilera-geltan barruratzeko. Sutsuenik eta era arriskitsuenean lanean aritu direnak militarrik dira. Mariskal eta jeneral guztiak, lau urtean lehen mailan egon direnak, haien hitzei, haien erabakiei, haien apetazko egintzei ehunka mila pertsonak men egin die-

tenak lau urtez, ez daude apal erretiratzeko prest inondik ere. Euren autoritatea inposatzeko duten bitarteko bakarra, armadak, kendu nahi dien *Covenant* batek, zeren exijitzen baitu «to abolish conscription and all other forms of compulsory military services» [soldadutza eta beste edozein derrigorrezko zerbitzu aktibo ezereztea], arriskuan jartzen du euren existentzia. Horregatik, euren lanbideari zentzua erabat kenaraziko liokeen betiereko bakearen aldrebeskeria hori, nahi eta nahi ez, deuseztatu edo ez aurrera ez atzera eraman behar dute. Mehatxu eginez, Wilsonen desarmatzearen ordeztu berrarmatzea exijitu dute, nazioen gaineko konponbidearen ordeztu muga berriak eta berme nazionalak; airean trazatu hamalau punturekin ezin segurta daiteke herrialde baten ongizatea, hori lortzeko bide bakarra norbere armada armatu eta aurkariarena desarmatzea da. Militaristen atzean industria taldeen ordezkariak premiatzen dute, beren gerrako enpresak lanean dauzkatenak; bitartekariak, kalte-ordainen kontura dirua egin nahi dutenak. Diplomazialariak gero eta zalantza handiagotan daude. Haietako bakoitzak, atzetik oposizioko alderdiek mehatxatua, bere herrialdea handitu nahi du lur puska emankor bat erantsiz. Ukitu pare bat herri-iritziaren klabierrean eta egunkari europar guztiek, amerikarrek lagunduta, hizkuntza guztietan bariazioak moldatzen dituzte lelo beraren inguruan: Wilson bere ameskeriekin bakea atzeratzen ari da. Haren utopiek, berez goresgarriak eta ziur aski idealismoaren espirituan oinarrituak, Europaren sendotzea galarazten dute. Ez dago denbora gehiago alferrik galtzerik hausnarketa moralekin eta gogoeta supramoralekin! Bakea bere-berehala sinatu ezean, kaosak eztanda egingo du European.

Zoritzarrez, erantzuki horiek ez dira guztiz ziorik gabe-koak. Wilsonen, bere proiektua mendetan irautea espero duenak, Europako herriek ez bezala neurtzen du denbora. Lauzpabost hilabete gutxi iruditzen zaio milaka urteko ametsa gauzatu behar duen misio baterako. Baina bitartean Europako ekialdetik aurrera egiten dute botere ilunek antolatu armada-gorputz borondatezkoek, lurraldeak hartzen. Eskualde osoak oraindik ezjakinean daude zein herrialderenak diren kide, ezta zeinenak izango diren. Ordezkaritza aleman eta austriarrei, lau hilabete ondoren, oraindik ez diete harrera egin. Muga oraindik marratu gabeen atzealdean herriak egonezinik dabilta; etsipenez bihar

Hungarian, biharamunean Alemanian, boltxebikeen eskuetan jarriko direlako zantzuak badaude. Beraz —premiatzen dute diplomazialariek—, azkar emaitza bat lortu behar dute, hitzarmen bat, bidezko edo bidegabea, eta ezer baino lehen albo batera utzi bide erdian tartekatzen den guztia: aurren-aurrena, *Covenant* zorigaiztokoa!

Wilsonek Parisen emandako lehenbiziko ordua aski du konturatzeko hiru hilabeteen eraikia zuen hura guztia bakar batean azpiak janda eta erori ez erori dagoela. Foch mariskalak lortu du ia *Covenanta* bake-itunetik desagertzea. Badirudi lehen hiru hilabeteak alferrik igaro direla, baina, gora handiko zerbait jokoan denean, Wilson urrats bat bera ere atzera ez egiteko erabakirik dago. Biharamunean, martxoak 15, prentsaren bidez ofizialki adierazten du urtarrilaren 25eko erresoluzioa lehen bezala indarrean dagoela: «that covenant is to be an integral part of the treaty of peace» [akordio hori bake-itunaren funtsezko osagaia izango da]. Adierazpen hori da lehen kolpea, *Covenant* berri bat barik aliatuen arteko ezkutuko akordio zaharrak oinarri hartuta, Alemaniarekin bake-ituna ixteko saioaren kontra. Orain Wilson presidenteak oso ongi daki zer den arestian herrien autodeterminazioa errespetatzea arrandiaz zin egin duten botere horiek berek erreklamatzeko asmoa dutena. Frantziak, Renania eta Sarre. Italiak, Fiume eta Dalmazia. Errumania, Polonia eta Txekoslovakia, bakoitzak bere harrapakin-partila. Kontra egiten ez badu, ostera ere bakea itunduko da berak gaitzetsi dituen Napoleonen, Talleyranden eta Metternichen metodoen arauz, eta ez berak aurkeztu eta hotsandiz onartutako printzipioen arauz.

Hamalau egun joan dira borroka sumingarri batean. Wilsonek berak ez dio Frantziari Sarre eman nahi, «self-determination» [autodeterminazio]aren lehen haustura hori eredu txartzat daukalako gainerako nahikari guztientzat. Italiak hain zuzen, bere erreklamazio guztiak lehen haustura horri lotuta sentitzen dituenak, dagoeneko mehatxu egin du konferentzia uztearekin. Prentsa frantsesak sua biziagotzen du, boltxebismoa Hungariatik aurrera egiten ari delako alerta joaz, eta laster, argudiatzen dute aliatuek, mundua erraustuko duela. Are bere aholkulari gertukoenen artean, House koronela eta Robert Lansing, aurkakotasuna gero eta nabariago ageri da. Haiek ere, bere lehengo lagunek, aholkatzen diote, munduaren egoera kaotikoa

ikusita, bakea azkar hitzartu eta pare bat nahikari idealistari uko egiteko. Wilsonen kontra aho batezko fronte bat osatuz doa. Eta Amerikatik, bere etsai eta lehiakide politikoeak xaxatu herri-iriztiak, atzetik mailukatzen du. Une batzuetan, indarrak ahitzeko zorian sentitzen da eta adiskide bati aitortu dio ezin duela luze iraun bakarrik denen aurka eta, bere borondatea nagusitzea ezinezkoa bazaio, konferentzia uzteko deliberatua dagoela.

Denen aurkako borroka honen erdian, gainera, are azkeneko etsai batek jazartzen dio, eta barrutik jazarri ere, bere gorputzetik bertatik. Apirilaren 3an, errealtate gordinaren eta oraindik garatu gabeko idealaren arteko borroka puntu erabakigarria iritsi denean hain zuzen, Wilson ez da zutik egoteko gauza. Gripe-joaldi batek hirurogeita hiru urteko gizon hau ohean egotera behartzen du. Baina denbora aurrera doa haren odol sukartsua baino oldar gaitzagoan, eta gaixoari ez dio atsedean hartzera uzten. Berri ikaragarri txarrak jausten dira, hala nola tximistak zeru beltz batetik. Apirilaren 5ean, komunismoa boterera iritsi da Bavaria-n. Munich-en sobietar errepublika aldarrikatu da; eta edozein unetan Austria, goseak eta Bavaria zein Hungaria boltxebikeek inguraturik, anexionatua izan daiteke. Erresistentzia-ordu bakoitzak handiagotzen du oro kontra duen norbanako bakar horren erantzukizuna. Ohean ere oldar eta jazarrika darabilte gaixoa. Ondoko gelan elkarrekin berbatzen ari dira Clémenceau, Lloyd George eta House koronela. Haiek denek deliberoa hartu dute. Bat-etortze batera heldu behar da kosta ahala kosta, eta kostu hori Wilsonen ordaindu behar du bere aldarrikapenekin, bere idealekin; atzeratu behar da bere «lasting peace» [bake iraunkorra], hori aldarrikatzen dute orain denek aho batez, bake erreal, militar, materialerako bidea ixten duelako.

Baina Wilson, nekatua, akitua, gaixotasunak joa, prentsan eraso bakea geroratzearen erruduna zelakoan, narritatua, bere aholkulariek ere bazter utzia, beste gobernu batzuen ordezkariak setiatua, oraindik ez da errenditzen. Bere hitzak ezin gezurta ditzakeela sentitzen du, eta bake horren alde egiazki borrokatuko duela soilik baldin eta militarra ez den geroke bake iraunkorarekin egokiarazten badu, baldin eta azken bururaino saiatzen bada Europa osorako ordena salbatzaile bat, «world federation» delakoa, erdiesten. Ohetik irten berria, kolpe erabakigarria eman du. Apirilaren 7an, telegrama bat bidali du itsas departamendura

Washingtonen: «What is the earliest possible date U.S.S. George Washington can sail for Brest France, and what is probable earliest date of arrival Brest. President desires movements this vessel expedited». [Zein da ahalik eta datarik hurbilena U.S.S. George Washingtona Brest aldera (Frantzia) itsasoratu ahal izateko, eta zein da ahalik eta datarik gertaerazena Brestera heltzeko. Presidenteak berehala abiatu nahi du]. Egun berean munduari iragarri zaio Wilson presidenteak agindu duela bere itsasontzia Europara ekarrarazi eta bera atzera Estatu Batuetara eramateko.

Albisteak tximista baten eragina du eta segituan ulertua da. Orain lurbira osoak daki presidenteak uko egin diola *Covenantaren* printzipioak, bat bakarra baino ez bada ere, urratzen dituen edozein bake motari eta deliberatua dagoela amore eman baino lehen konferentzia uzteko. Iritsi da une historiko bat, hamarralditan, mendetan, Europaren zoria, munduaren zoria mugatuko duena. Wilsonen konferentziaren mahaia uzten badu, orduan munduaren ordena zaharrak lur joko du, kaosa hasiko da, nahiz agian izar berriaz erditzen diren horietako bat izan. Egonezinik, Europa ikarak hartu du: gainerako konferentzia-kideek beren gain hartuko al dute erantzukizun hori? Bere gain hartuko al du berak? Une larria da.

Une larria. Oraingoaz, behintzat, Woodrow Wilson irmoki erabakia dago. Hautsi-mautsirik ez, amore ematerik ez, «hard peace» [bake zapalgarririk] ez, baizik «just peace» [bidezko bakea]. Ez frantsesei Sarre, ez italiarrei Fiume, ez Turkiaren zatiketa, ez «bartering of peoples» [herrien trukatzea]. Zuzenbideak boterea garaitu behar du, idealak errealitatea, etorkizunak oraina. *Fiat justitia, pereat mundus*. Zuzenbideak bere bidea jarraitu behar du, harekin mundua hondoratzen bada ere. Oren labur hau unerik handiena, gizatiarrena, heroikoena izango da Wilsonen bizitzan: eusteko beharrezko indarra badu, bere izenak iraungo du gizadiaren benetako ongile bakanen artean, eta egitandi berdingabe bat lortua izango da. Baina oren horri, une horri, aste batek jarraitzen dio, eta alde guztietatik egiten diote eraso; prentsa frantsesak, ingelesak, italiarrak aupegiratu diote berak, *eirenopoieisak*, bakegileak, hura suntsitu izan duela bere seta teoriko-teologikoa dela bide eta mundu errealari lepoa eman diola utopia pribatu baten alde. Are Alemania, harengandik dena espero duena, baina orain Bavarian boltxebismoaren

oldarka sartzea dela eta asaldatua dagoena, haren kontra bihurtu da. Eta bere aberkideak ere, House koronela eta Lansing, ez dira gutxiago saiatzen bere erabakiaz etsi dezan. Estatu-idazkariak berak, Tumulty, artean duela egun gutxi Washingtondik telegrafiatu ziona adore emateko —«Only a bold stroke by the President will save Europe and perhaps the world» [Presidentaren kolpe ausart batek baino ez du Europa eta agian mundu osoa salbatuko]—, orain, Wilsonek kolpe ausarta emandakoan, kable bat bidaltzen dio hiri beretik: «... Withdrawal most unwise and fraught with most dangerous possibilities hier and abroad ... President should ... place the responsibility for a break of the Conference where it properly belongs ... A withdrawal at this time would be a desertion». [Erretira arras zuhurgabekoa eta ondorio arriskutsuen ekarlea hemen eta atzerrian ... Presidentek beharko luke ... konferentzia etetearen erantzule egin dagokionari ... Erretira bat une honetan desertzio bat litzateke].

Nahasia, etsia eta bere buruarekiko uste ona aho batezko eraso horrek hondatua, Wilsonek bere ingurura begiratu du. Inor ez dago bere alde, konferentzia-aretoan denak, baita bere taldekideak ere, kontra ditu, eta eusteko, irmo atxikitzeko urrundik erregutzen dioten milioika eta milioika ikusezinen ahotsak ez dira harenganatzen. Ez da konturatzen ezen, bere mehatxua beteko balu eta altxatuko balitz, bere izena betirako hilezkortuko lukeela, ezen bere buruari leial izanik baino ez lukeela orbanga-be utziko etorkizunaz duen ideia, behin eta berriz berritu beharko litzatekeen postulatu baten gisa. Ez da konturatzen zenbateraino den emankorra gutziaren, gorrotoaren eta ulergaitzasunaren kontra zuzenduriko ezezko horri darion ahalmena. Bakarrik dagoela baino ez du sentitzen, eta azkeneko erantzukizuna bere gain hartzeko ahulegia dela. Eta horrela —zorigaitzoz— Wilson ezari-ezarian amore emanez doa, irmotasuna moteltzen zaio. House koronelak eraikitzen du zubia; kontzesioak egingo dira. Zortzi egun dirau mugen inguruko eztabaidak. Azkenean —egun ilun bat historian—, apirilaren 15ean, Wilsonek, bihotz pisuaz eta kontzientzia asaldatuaz, baietza eman die Clémenceauren nahikari militar jada nabarmen apalduer: Sarreko lurraldea ez zaio betiko emango, hamabost urtez baizik. Lehen hautsi-mautsia orain arte batere egiteko prest ez zegoenaren aldetik, adostua da jada, eta xirmi-xarmaz bezala hurrengo goizean aldatzen da Pari-

seko prentsaren aldartea. Oraindik atzo bakea trabatzea, mundua errekan ezartzea egozten zioten egunkariek munduko estatu-gizonik jakintsuentzat goستن dute orain. Baina gorazarre horrek erre egiten du erantzuki baten moduan haren arimaren sakonean. Wilson jakitun da beharbada egiatan bakea salbatu izan duela, une-uneko bakea, baina bake iraunkorra adiskidetzearen espirituan, benetako salbatzaile bakarra, galdu, barreiatu egin da. Zentzugabeak irabazi du zentzunaren aurrean, grinak arrazoimenaren aurka. Munduak atzera egin du garaiaz haragoko ideal baten atzematean. Eta berak, mentoreak, banderadunak, galdu egin du gudu erabakigarria, bere buruaren kontrako gudua.

Halabeharrezko oren horretan, Wilsonek zuzen jokatu al zuen ala ez-zuzen? Nork esan lezake? Nolanahi ere, egun historiko eta berreskuraezin horren gainean erori da askoz haratago, menderik mende doan erabaki bat, eta haren errua berriro ere denok ordainduko dugu gure odol, gure etsipen, gure sufrimendu indargearekin. Egun horrezaz geroztik Wilsonen ahalmena, bere garaian aurrekaririk gabeko indar moral bat, txikituta geratu da. Bere prestigioa amaitu zen, eta harekin, bere indar guztia. Kontzesio bat egiten duenak ja ezin du hurrengo saihestu. Konpromisoek beste konpromiso batzuetara eramaten dute halabeharrez.

Desleialkeriak desleialkeria sortzen du. Indarkeriak indarkeria dakar. Bakea, Wilsonek osotasun bat bezala amestua eta iraupen betierekoa, zatikako lantegi akastun bat baino ez da, ez baita formulatua izan etorkizunari begira, ez baita sortua izan humanitarismoaren espiritutik, ezta arrazoimenaren materia hutsetik ere. Abagune paregabe bat, agian Historiako erabakigarriena, alferrik galdu da tamalez. Eta munduak, ilusiorik gabe, berriro jainko sinesgarririk gabe, hori antzematen du modu gor eta nahasian. Etxera itzuli den gizona, lehenago munduaren salbatzaile gisa hartua, honezkero ez da inorentzat erredentore bat, baizik heriotzak atzituriko gizon nekatu, gaixo bat besterik ez. Jada inongo poz-oihurik ez da bere ondoan entzuten, inongo banderarik ez da inarosten bera igarotzean. Europar kostatik ontzia itsasoratu denean, garaituak begirada aldendu du handik. Bere begiek uko egin diote atzera begiratzeari, mendeaz geroztik bakea eta batasuna irrikatu eta oraindik lortu ez dituen gure lur dohakabera. Berriz ere, laino arte urrutian aienatu da gizalegezko mundu baten betiko amets hutsa.

HITZATZEA PREMONIZIOA ETA NOSTALGIA

Europe is lost, America lost, London lost
Still we are clamouring victory
All that is meaningless rules
We have learned nothing from history.
Kae Tempest, *Europe is lost*

Ez omen dago idazlerik Historiaren esku fina gaindi dezakeenik, eta badirudi Stefan Zweigek harexentzako prest utzi zuela liburu honetako azken eszena; Wilson zaharra etxera bueltan, behe-lainoa kontinenteen artean, jendea mutu. Datorrela Historia orain, eta segitu dezala idazten, dio Zweigek, ni ez bainaiz ausartzen.

1919ko Europa lurrin hark Alemania zigortu zuen azkenean, eta puskak banatu. Galtzailearen lokatz horretatik erneko zen nazismoaren hazia, basakeriaren beste aurpegi bat. Liburu hau argitaratu eta sei urtera Hitlerrek boterea eskuratu zuen, eta Zweigengan zutarrari zen europarraren identitate hura, Erasmo Rotterdamgoaren uretatik edaten zuen Europa batu eta bakezailearen ametsa, are eskuraezinago bilakatu zen.

Ordurako, Stefan Zweigek usaindu, usaintzen zuen Historiaren eskuaren joera; sumatzen zuen denboraren hurrengo portua ez zela aurrekoa baino hobea izango ezinbestean. *Gizadiaren oren gorenak* kolpe gehitxo hartu dituen humanista baten itxaropen nekatuak idatzitako liburua da, enegarren tragediara bidean doan Europaren ibilbideari begirada samur eta erdi-despedidazko bat botatzen diona. Kontinente zaharraren sasi artean argi printzen bila dabil, biolentziaz jositako egun erabakigarrietan zoriak, jainkoak, justiziak, arteak eta edertasunak

ere lekuren bat izan dutela sinetsi nahi duelako. Baina, haren kaltetan, jendartearen morala ez zen teknologiaren abiadura be-rean garatu.

Gerra bakarra

Tituluan humanitatearen une gorenez ariko dela iragarri arren, Europa da Zweigen minen eta pozen erdigunea. Lur hori da, haren ustez, zibilizazioaren sinonimo. Gizon zuriak dira patuaren erronkei ondo edo txarto erantzuten dieten liderrak; haixengan gorpuzten da euren garaiaren arima, gertakarien konplexutasun guztia izen bakar baten baitan. Heroi bilakatzen ditu, eta epikaren, dramaren edo tragediaren esku uzten. Narra-tzailearen kamerak eszenen gainetik planeatzen du, idazkera eder eta argitsu batekin hau eta hori erakutsiz, ondo edo txarto egon daitekeena bistaratuz, norbanako bakanen egun distira-tsuak kondentsatzeko.

Testu honek XXI. mendera dakartzan galderetako bat hona-ko hau da: nondik hitz egin dezake humanismoak gaur egun? Eta, idatz al daiteke orain Europaren historiari buruz ahots on-bera batekin?

Irakurlearen begiak, ziur asko, gerra asko bereiziko ditu gerra bakarraren azpi-geruzetan. Kontinente inperialistaren ba-lentriek bere loria galduko lukete, argi dago, kontakizunen fokua apur bat mugituz gero; narratzailearen ahotsak Vasco Nuñez de Balboari Pazifikoko ur-ertzeraino jarraitu aurretik txakurretara botatako indigenei jarraitu izan balie, adibidez; Suterrek Hel-vetia Berria sortzeko esplotatu zituen 150 kanako haien bidaia ikusi ahal izango bagenu; Goethek musukatu nahi izan zituen emakume gazteen poemak irakurriko bagenitu; Waterlooko lur lokaztuan pilatutako gorpu bakoitzaren etxeetara sartuko bagina... Orduan aurrerapenaren albo-kaltetzat hartu zirenak eztabaidaren erdigunean egongo lirатеke orain.

Stefan Zweigen garaiaren ere, zenbait erdibideko posizio arantzatsu bilakatzen hasi ziren. Idazleak bizitza osoa eman zuen Europaren gainbehera sozial eta ekonomikoagatik kezka-tuta, baina ez zen, haatik, politikazalea izan, eta gatazkei iskin egiteko joera zeukala aitortu zuen *Atzoko mundua* liburu auto-biografikoan. Erbestera bidali zuen eta bere liburuak debekatu zituen erregimen nazia ere ez zuen beste zenbait idazlek bezain

sutsuki kritikatu. Horren ondorioz, epeltzat eta «koldar moralizat» ere jo zuten zenbaitzuek, Hanna Arendt-ek, besteak beste. Juduek pairatutakoaren aurrean isildu izana aurpegiratu zion, eta Zweigen urrutze politikoa koldarkeria hutsa zela adierazi, eta ez benetako kultura, ordura arte gizarteak uste izan zuen moduan.

Kulturaren ulerkera hori nabaria da liburuan. Artistak jenio gisara aurkezten ditu Zweigek, beste plano espiritual batetik datozen mezuen bitartekari balira legez; jainkoaren behatzak aukeratutako edo salbatutako gizonak dira. Jenioaren eraikuntza honek artisten genero- eta klase-ezaugarriak ezkutatzeko ere balio izan du mendeetan zehar; gizonak artista bilakatzeko eskura izan dituzten baldintza materialez ez hitz egiteko, alegia, baita gerora haien bizitza pribatuko ekintza zalantzarriak zuritzen laguntzeko ere, hala komeniko balitz.

Zweigek sormena fedearen ezaugarri hornituta deskribatzen du: purua da, pertsonen eta haiek bizi duten momentuaren gainetik dago. Badirudi esperantzaren eta baikortasunaren iturri bakarra dela, behin eta berriz erratzen diren pertsonak elkarrengana bildu ditzakeelako, eta hunkitu. Sortze-prozesuak gaixoaldiekin eta berpizteekin lotzen ditu, benetako obra heriotzaren eta bizitzaren muga horretantxe balego bezala. Errebelazioak dira.

Bide horretatik, norbanakoaren eta kolektiboaren arteko tentsioaz mintzo zaigu liburua, artistak eta masak elkarri eragiteko duten indarrak. Zer eska diezaiokegu artistari? Zer bistaratzen da herria artistaren sukalderraino sartzen denean, Tolstoi gertatu bezala? Obra batek har dezakeen dimentsio politikoa aski da, ala artistaren konpromiso esplizitua behar da gizarteke ideien norabidea aldatzeko? Nork dauka distantzia hartzeko pribilegioa? Noren askatasuna lehenetsi? Zizeronen kontakizunean egileak erantzun posible bat dakar: «*luzarora ezin dela defendatu masen askatasuna, norberarena baizik ez, barnekoa*».

Atzoko mundua

Zweigek gainbehera kulturalari egotzi zion Austria-Hungariako inperioaren erorketaren errua. Hark ezagututako XIX. mendeko Viena loriatsu eta emankorra, artistarik ezagunenen bizitokia, gerren ondorioz desegiten sumatzen zuen.

Goebbels ministro naziak zera esan zuen, ez alferrik, liburuen erreketak publiko batean: «Etorkizuneko gizon alemaniarra ez da bakarrik liburu-gizona izango; jarreradun gizona izango da, akzio-gizona».

Zweigek tristuraz eta beldurrez begiratzen zien akzio-gizonei eta haien ahotsaren erakarpen-indarrari. Ez zuen sentitzen bere zenbait aberkideri sumatzen zien gerrarako sugar hori. Berak soldadu amilduak eta borrokak hipnotizatutako ofizial tematiak baino ez zituen bereizten gudu-zelaian.

Familia dirudun bateko semea izateak eskaintzen zion bizi-za barea maite zuen, eta harexen nostalgiarekin bizi izan zen helduaroan. «Inon ez zen errazagoa europar izatea», idatzi zuen Vienari buruz. Iragana ziurtasunaren mundua zen harentzat; etorkizuna, beldurgarria.

Nostalgia aukeratzea, Zweigentzat, hiltzen hasteko modu bat izan zen. Brasilgo Petropolisen bizi izan zen azkeneko urteetan, Bigarren Mundu Gerrari ihes egin nahian, gogogabetuta eta ilun. Nazismoaren garaipenaren mamuak muinetaraino izutzen zuen, judu, bakezale eta intelektual gisara. Goiz batean, bere *Xake-nobela* ezagunaren eskuizkribuak ordenatu, senide eta laguntzako agur-gutunak idatzi, eta postaz bidali zituen denak. Handik gutxira suizidatu ziren bera eta ia 30 urte gazteagoa zen emaztea, Lotte Altmann, barbituriko-gaindosiz. Zaharraren penak gaztea eraman zuen, iraganak etorkizuna irensten duen bezalaxe.

Gerra berrietarantz

1942ko otsailaren 24an aurkitu zituzten haien gorpuak, eta efemeride-proposamen bat egin zioten etorkizunari, edo etorkizunak haiei; handik 80 urtera, egun hori Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren hasiera-data ofizial izendatuko zen, jakin badakigun arren, liburu honetako domino-fitxa jarraikorrek erakutsi bezala, gerra guztiak hasita eta elkarri lotuta daudela aspalditik.

Europaren 2022ko gastu militarra Gerra Hotzaz geroztiko handiena izan zen, eta abiadura berean puztu dira diskurtso belizista eta autoritarioak. Errusian eta Ukrainan, jarrera antimilitarista edo kritikoa duen oro isilarazi egiten da. Erdi Arotik fintzen ari garen arma-industriak hitz egiten du ozenen. Eskuetan

lehertu zaigu Europa. Poloak urtu dira, Scott; ez da konkistatzeko beste lurrik geratzen. Geltoki honetara ez da beste liderrik iritsi, bizirik behintzat. Ilargitik AEBen banderak zaintzen gaitu. Antzinako filosofoen hankak bustitzen zituen Mediterranea nekropoli bat da. Etxe hau besteen odolaren eta aberastasunen gainean eraiki zen, eta hori inoiz ez da lur egonkorra izango. «Inon ez zen errazagoa europar izatea». Zer ote da europar izatea orain? Gutxienez, iragan hobearen nostalgiarik ere ez du sentitzen hamar urtean behin krisi bat ezagutu duenak.

Stefan Zweigen *Gizadiaren oren gorenak* euskaraz eta egungo Europan esnarazi dugu, eta haren hitzek eguneko albistegien premonizioa dirudite. Lehen Mundu Gerrako frontean borrokatzea saihestu eta Bigarren Mundu Gerraren eraginez suizidatu zen gizonak zerbait esan nahi digu mundu mailako beste gain-behera politiko, ekonomiko eta ekologiko baten atarian gauden honetan. Agian, argi printzen bila hasteko diosku; dena korapilatzen eta iluntzen denean, orduantxe dela beharrezkoen munduari haur baten begi berriekin begiratzea: ilusioz, baikortasunez, liluraz. Pertsonen borondate onean eta munduaren aurrerapen bidezkoanitsu-itsuan sinestea besterik ez zaigula geratzen.

Balio dezatela miniatura historikook iragana zorroztasunez eta etorkizuna irudimenez aztertzeko, eta, batez ere, aldarririk oinarritzkoena eta humanoena berriro mahai gainera ekartzeko: gerrari ez.

Nerea Ibarzabal
Hernanin, 2023ko maiatzean

ARGITALETXEAREN OHARRA OREN GORENEZ HONDAMENDIAREN BEZPERAN

Ez zara konturatzen hondamendi orokorra *handiegia* dela gu atsekabetzeko? Mundu osoa bere onetatik atera denean, *ulertzen* saiatzen naiz besterik gabe, zer den gertatzen dena eta zergatik gertatzen den eta egiteko hori bete dudanean, nire lasaitasuna berreskuratzen dut eta nire umore ona.

Rosa Luxemburg

Oso idazle gutxik ezagutu dute, artean bizirik direla, Stefan Zweigek XX. mendearen hasierako Vienan eta Europan ezagutu zuen ospea. Paradoxa bat izan zen, ia amaieraraino, Stefan Zweigen bizitzaren eta obraren artean zegoen aldea. Bere obrari erreparatuta, idazle bat aurkitu dezakegu, gertakizun historikoak sakon ulertu eta literaturara fin eraman dituen. Bere intuizio politikoa testuinguru historikoan jarrita, ordea, guztiz kontrakoa ikusten dugu: inperialismoak eta kapitalismoak sortutako munstro handienak antzemateko zailtasun handiak izan zituen judu ospetsu bat.

Miresmenez eta tristuraz iruzkindu zuen Hannah Arendtekin Stefan Zweigen azken lana, *Atzoko mundua* (gogoeta haren izenburua, *Juduak atzoko munduan*, adierazgarria izan zen oso). Arendtekin, liburu bakarra iruzkindu beharrean, Zweigen pertsonaiari eta artearen munduko goi-klaseko Europako gainerako juduei kritika egin zien testu hartan. Mundua —eta juduen kontrako jazarpena— koxka bat estutzen ari zen unean, Stefan Zweigentzat bizitzako auzi zentrala idazle gisa zuen ospea eta ohorea zen.

Arendten aburuz, ohorea eta desohorea kontzeptu politikoak ziren, bizitza publikoaren kategoriak: «idazleak, [...],

ospea ala anonimotasuna izatea bakarrik ezagutzen du, eta bere desohore bakarra anonimotasuna da». Europa erdialdeko eta ekialdeko judu gehienak pobreak eta ezezagunak ziren testuinguru batean, Zweig aberatsa eta ospetsua zen. 1933an, Alemanian naziak boterera iritsi ziren urtean, bere bizitza aldatzen hasi zen, baina ez zituen baloreak aldatu, eta politikaren aurrean ikuspegi literarioa soilik axola zitzaion. Ez zen konturatu «ikuspegi politiko batetik ohoragarria izan zitekeela» lege ankerrek agintzen zutenean legez kanpo egotea, adibidez, Arendtek salatu zuenez; ez zen konturatu nazien Alemaniatic kanpo ere 1930eko hamarkadan zenbat jende jartzen zen nazien boterearen menpe. Ez zen naziak gorrotatzeko gai; asko jota ere, amorrarazi egin nahi zituen. Arendtek kontatzen duenez, Richard Straussi, adibidez, eskertu zion libretoak eskatzen jarraitzea, «garai txarretan ihes ez egitea eskertzen zaion lagunari bezala. Borrokatu beharrean, isilik geratu zen; zorionez, bere liburuak ez ziren berehala debekatu. Eta nahiz eta Alemaniako liburu-dendetatik bere liburuak egile ezagunen liburuekin batera kendu zituzten, beti kezkatu zen naziak ez ote zuten bere izena 'kriminal' batenarekin lotuko, ez ote zuten Stefan Zweig ospetsua Zweig judua bilakatuko».

Ezinezkoa da *Gizadiaren oren gorenak* irakurtzea sortua izan zen garaiko testuingurua gogoratu gabe, historia lehengai izan zuen idazlea bere garaian kokatu gabe. Modu berean, ezinezkoa izan da hilabete luzez Edorta Matauko itzultzaileak urregilearen zehaztasunarekin ondu dituen miniatura hauen edizio-lana Israelgo Estatua palestinarrekin egiten ari den sarraskiarekin ez lotzea: berriz ere garbiketa etnikoa, berriz ere herri osoak suntsitzea, ehunka milaka lagun ihes egitera behartzea, berriz ere kolonialismoa eta judaismoaren auzia, berriz ere gerra.

Gorde ditzagun Zweigen *oren gorenak* garai ilun batean begirada distiratsu batek izkiriatu eta salbatu zituen izar gisa.

Iruñea
2023ko azaroa



Narratiba bildumako hamaikagarren alea den
Gizadiaren oren gorenak liburuaren itzulpena
ia bukatuta zegoen 2023ko maiatzean. 60 urte
lehenago argitaratu zuen ingelesez Hannah
Arendtek *Eichmann Jerusalemen*. Arendtek jaso
zuen Eichmannek asimilatutako juduei zien
gorrotoa eta sionistei, Theodor Herzl buru,
zien miresmena.

